

EUSKAL ELERTIA



S. ONAINDIA

Aita Onaindia

EUSKAL ELERTIA

Larrea - Amorebieta (Bizkaia)

3-Ibaizabal Argitarazlea
Euba (Amorebieta)

I. S. B. N. 84 - 85.458 - 02 - 8
Depósito legal: BI 2.622 - 1978

A URKEZPENA

Mailla-maillaka ba-goaz gorantz a geure ikas-liburuetan. Euskal textu liburuakaitik atzo andik etorkigun gai neketsu bati buruz osoturikoa, eta gaur beste bat, beste gai ez-errezago bati lotua. Eta au, esku artean daukazuna, euskal literatur osoari begitu gain-samarra egiñik antolatua.

Bear-bearrezkoa deritxat oni. Ba-ditugu lendik be —neure «Euskal Literatura» besterik ez aitatzeko, bost ale mardul dira salgei—, euskal literaturaren azalpenak, eta euskeraz ta zabal batez, gure literatura, gure idazlana zer dan, noraiñokoa dan argi adierazten dauskuna. Ori egiten alegindu naiatzu emen. Beste saillak «Euskal Literatura» daroa izenburu; oni, arekin nastu ez dedin, «Euskal Elertia» deritxagu.

Gure idazleak gizaldiak zear egin izan daben lana, naikoa osorik doakizu berton, Ezagunak ditugun len-eresi, kanta zaar, aspaldiko bertso ta pastoraletatik asi ta gaurko idazle emeetaraiñoko guztia zerbait azertu ta, ispillu edatu baten lez, jarri nai izan dogu. Asmo au, bear bada, ez da osoan jaretxi; orixe zan, alan be, gure xede ta eginburua.

Gizaldiz gizaldi datoz idazleak, eta euren lanen aipamena. Aurrerantzean, ba, edozeiñek begi itxi-edegi baten jakin dagike nortzuk izan diran eta zelan jokatu eben, eta daben, gure literaturaren loratzean langille izan diranak. Irakurleak ikusi daikenez, ezta urria, exkaxa izan, alajaiña!, euskal elertia, Eta ba-dau onek garrantzirik. Eta, beiñola Etxepare'k lez, esan geinke guk be. «Heuskara, habil mundu guzira!»

Besteak beste, gure Ikastoletarako egiña da literatura idazti au, Oneik ez daukie oindiño zer aundirik. Liburu txiki ta zatitxoren batzuk, besterik ez. Utsune au ornidu nai izan dogu. Naiz irakasleak, naiz ikasleak, gazte ta nagusi, ba-dabe emen gairik. Ikasgaiak leun eta arin biurtzearren, baktotxean esaera, ipuin, izkirimiri, bertso ta olakoak sartu ditugu pitinka. Gazterik ikasi bear da ederrari eder-sena artzen.

Naiko burukomin erabilli oi dogu gure euskerak ditun izkelgiak —dialektuak— dirala-ta. Gauzak geiegi nastu oi ditugu sarri. Izkelgien arazoa niretzat ez da orren zailla. Dozena bat itz dira geien jota be, aditza kanpo —andi (aundi), bardin (berdin), eroan (eramán), esan (erran), emon (eman), ta abar, Euskalerrri guztian bardintsu esaten ez diranak. Aditzean, bai, naste geiago daukagu; baiña aditza bera erakustean eta ikasteen ardura pixkat piñ ezkeru, ez dot uste ain gatxa danik. Liburu onetan, danentzat izan dedin, oso urri darabilgu aditza. Eta berau, bizkaieraz eta gipuzkeraz jarten da, bizkaiera utsean dagola-ta, iñor atzeratu ez daiten. Idazleak jo bear dau beti euskalkien batasunera.

Dirala lau-bost urte be gertu geunkan liburu au; askotan orraitino, gura doguna aurrera aterateko, berdin eragozpen eta zoztorrek urien oi dausku bidera, ta zoztorrok gainditu arte nekez bideari eraso ta ekiten.

Dana dala, esku artean dozu, irakurle, Euskalerrri osoarentzat onuragarri deritxagun «Euskal Elertia». Eder bekizu. Eta euskal idazle —zaar eta gazte— jator guztion ikasbide aintzagarriz zeu ta zeure ingurukoak piztazirik, zeuk eta zeure ingurukoak —guraso, seme-alaba ta adiskide— gure mintzaira, euskera, zaindu, edertu jasoteko egiñalak egin daizuezala, orixe litzake gure pozik eta ordainbiderik beteena.

Larrea, 1977-9-15
AITA ONAINDIA

ERESI ZARRAK

Ba al dakizu zer diran eresi zarrak? Antziña-antziñako bertso-sail zarrak. Geienik, jazoera ta istori apurren bat dabe -dute-kantagai.

Literatura guztietan aurkitzen dira onakoak. Baita euskeraz ere. Eta ez gutxi: danak batu ta argitaratzera ezker, sorta aundia osotuko leukie -lukete-.

Jazoera apurrok irutik bitan gure asaba ta aurretikoen arteko gudu ta burrukak gogoratzen dauskuez -dizkigute-. Euskal erri

osoko Aide Nagusienak kantatzen ditue batez be.

Zer ziran Aide Nagusiok? Bizkaia'n, Araba'n, Gipuzkoa'n... Euskal erri osoan, Erdi-Aroan ezagunak ziran famili nagusietakoak, alkarren artean sarri alkar-joka ebiltzanak.

Onelakoxeak dituzu Beotibar'ko guda-kanta, Akondia'koa, Urruxola'koa, Milia Lastur'ena, Peru Abendaño'rena, Salinas'ko Kondearena, Naparroa'ko Kondestablearena, Alos-torrekoa, Lelo'rena ta abar.



Asierako elertia aoz-aozkoa izan zan

Altabizkar'koa

Oiu bat aditua izan da
 Eskualdunen mendien artetik,
 eta etxeko jauna, bere atearen aintzinean zutik,
 idekitu bearriak eta erran du: «Nor da hor? Zer nahi dautek?»

Eta xakurra. bere nausiaren oinetan lo zaguena,
 altxatu da, eta karrasiz Altabizkar'en inguruak bete ditu.

Oñetako lur au jabilt ikara,
lau aragiok berean berala.
Martin Bañez Ibarretan II dala...
Artuko dot esku batean gezia,
bestean zuzi iraxegia,
eireko dot Aramaio guztia.



Idigi bitez kontraeradun
liburu zarrak,
idigi bitez milla garaipen
dakarrezanak,
eta astiro Irakurririk
zezero danak,
an ikusiko doguz zer ziran
bizkaitar zarrak.

(Arrese Beitia)

BERTSOLARITZA

Ez dakigu noizkoa dan gure bertsolaritza. Antziñakoa naitaez, gure erria euskal lur onetan aspaldikoa da-ta.

Beñola, orain amalau-amasei milla urte, Santimamiñe'ko koba-zuloetan bizi ziranak, aitz-ormetan margo ta pinturak laga zituezan lez, gorputz eta arima ziran ezkerro, itz ere egingo eben -zuten- eta itz-eginez gaiñera, musika ta kanta ere berena izango eben -zuten-. Ordukoak edo aurreragokoak ditugu, ba, gure bertsolariak, koplak eta bertsok ondu zituenak.

Eusko oitura zarra ei -omen- da bertsolaritza, au da, bertsok otu-ala botateko oitura.

Iturri beteak ura eskeintzen dau; gure pagadi ta areiztietako txoriak kanta-kantari ditugu. Euskalduna ere, gizaldiak zear, kantari ibillia da.

Gure arnasa ta biotz-barrua, bertsolariak erakutsi dausku -digu- ondoen. Aoz-ao gureganaiño eldu diran kanta zarrak ditugu testigu.

Bertsolarien literatura

Ugaria izan da bertsolarien literatura. Itza ta doiñua dabe -dute- jatorra. Bertsolariak kantatuaz esaten ditu bere koplak.

Neurri askotako bertsok osotzen ditu gure bertsolariak; naikoa gaitzak batzuk, bederatzi puntukoa, esate baterako.

Inguru guztietatik begiratuta, dogu -degu : buru argia erakusten -digu-, idurimen bizkorra, oroimen izugarria; bertsok asmatu ta esaten trebea.



Koblakari zaarra (Tillac)

KANTA ZARRAK

Zer dira? Erriak —nok daki noiz?— asmatu ta aoz-ao gaur arte ekarri ditun poesi zarrak.

Gure erri-olerkia, guztiz aberatsa da, inguruko edozein literaturan baizen eder aberatsa. Euskalduna beti izan da abeslari. Ta kanta zarrok, gizaldiz gizaldi, zar-arnasaz, geure egunetaraiño eldu dira. Auxe dogu -degu- erri olerkia. Geien bat, musikari esker, guganaiño eldua.

Kanta zarrok, era askotarikoak dituzu: 1) *gerta-kantak*; 2) *maite-leloak*; 3) *barrenegar kantak*; 4) *edan kantak*; 5) *erlijio kantak*.

Badira eskale-kantak bere, Gabonetan, Santa Ageda'z, Pazkoz, Aratuztez, eta ola-koetan kantatzen diranak. Garaiotan kalez-kale ta etxez-etxe ibilli oi dira umeak eta gazte elduak. Gaur ere, Olentzero ta Santa Ageda'renak beintzat bizi-bizi diraue.

Euskal erriko bazter guztietan ditugu noiz sortuak diran ez dakigun kanta zarrok. Gaur, zorionez, geienak lez erriaren ezpanetatik jaso ta liburuetan daukaguz -dauzkagu-. Lan ederra egin dabe 'dute-orretan Azkue'k, Aita Donosti'k, Juan Karlos Gerra'k eta beste batzuk.

IZAR EDERRAK

Izar ederrak *argi* egiten dau
zeru altuan bakarrik;
ezta bakarrik, lagunak ditu
Jaun zerukoak emonik.

Euskaldunen lenengo antzerki saioak edo arnas emon-naiak dituzu pastoralak, Zubero aldean oso ezagunak aspaldi danetik.

Europa'n ba-ziran, Erdi-Aroan ain zuzen, eliz-altzotik jaio ziran len antzerki ta komeriak. Liturji-dramak ziran lenengotan; Biblian eben -zuten- gai ugaria, eta Santuen bizitzetan; orreitatik -auetatik- artutako misteri ta mirariak Eguberriz, Aste Santuz, Pazkoz eta antzeko garaietan ospatu oi ziran. Amabostgarren gizaldian egiten ziran Espaiña'ko autoak eta Pran-

tzia'ko misterioak, gauza bardin samarrak dituzu.

Guk bere, Zubero aldean baitik bat, badiugu olakoak.

Eta arrigarria benetan erri-antzerkiok lurralde orretan bakarrik aurkitzea, beste sei probintzietan ezta olakoen aztarnarik.

Ba-liteke, beraz, gurean ere aintziña bateko oitura izatea, Prantziako lurralde askotan amaikagarren gizaldian asita, oitura zanez.

Zubero aldea txit ugaria da kanta, dantza ta ekandu bitxitan. Nork igarri, ba, oneik -auek- noizkoak diran?



Pastorela gertatzeko, erri guztia prestatzen da.

ITZAK

Aide, senide, familiko.

Aintzin, aurre. *Idigi*, zabaldu.

Aztarna, oiñatz, erreto. *Idekitu*, zabaldu.

Bearri, belarri.

Gizaldi, mende, eun-urte.

Gezi, *azkon*, izkillu.

Iraxegi, biztu.

Jazoera, gztari, gertaera.

Zuzi, ardai, argi-zuzi.

ADITZAK

Aditu, entzun.

Jabilt, ibiltzen jat.

Dieue, dituzte.

Alexatu, jagi.

Zaguena, egoana.

Irakurri, leitu.



Literatura giroa

Euskalerria, gizaldiak joan eta gizaldian etorri, Naparrua izan ezik, erri baztertua izan da, bere arrantzu, artzaintza eta nekazaritzatik, naikoa ixiltsu, bizi izan dana.

Bardin bere izkuntza ere: ez dau -du- onek iñoiz adierazo al izan euskaldunaren bizitza kezkatua. Gure aurretikoak, euskera ta euskalduna goratzeko, erderara jo oi eben -zuten- geien bat.

Amabost-amaseigarren gizaldietan, ingu-

ruetako izkuntzak, prantsesa ta gaztelania batez ere, Pizkunde ederrean loratuz joiazan -zijoazten-.

Eta gure euskera? Esnatu bear eban .zuan- onek ere aspaldiko lozorrotik. Eta gizaseme argi ta adoretu bi ditugu euskal literaturari lenengo oiñarriak, guztiz sendo, ipiñi eutsoezanak -zizkietenak-: *Etxepare* ta *Leizarraga*. Ez, ez eban -zuan- asiera txarra izan gure literaturak.



Eihelarre-ko San Mikel Bee-Nafarroan

BENAT ETXEPARE

Gizon bezela ez yaku -zaigu- lar ezaguna Beñat Etxepare. Beretzaz dakigun apurra ere, poesi-liburutik atera daikeguna -deza-keguna- da. Bere «Linguae Vasconum primitiae» liburua argitara ekarri ebanean -zuanean-, Eiheralarre'ko arimazaiña zan, itxura danez, Baita ba-dakigu nun-edo-nun espetxeratua egona zala be.

Zergaitik espetxeratu eben -zuten-? Ez dakigu. Etxepare gizaseme zintzoa zan; eta, bere olerki-lanetatik agertzen yakunez -zaigunez-, benetako arima-zaiña.

Istoriak diñoskunez, urte latzak ziran Etxepare'k ikusi zitunak. Eta ez da arri-tzekoa, bere lanetan beti kezkatu ager-tzea.

Idazle

Erdi-Aroko euskal poesi, kanta zar eta maite-eresiak albora itxirik, Etxepare da guk ezagutzen dogun -degun- euskerazko len-idazlea. Beronen olerki-txorta «*Linguae Vasconum primitiae*» (Bordele, 1545) da beintzat euskeraz idatzi ta irarkolan lenengo» emona.

Euskal asikiñak ziran bere olerkiak. Titulua latinez jarri eutson -zion- egilleak, barru-mamiña, oso-osorik, euskerazkoa izan arren.

Arantza bat zebilkion barruan eztenka. Euskalduna trebea zan -eta da- ainbat jakintza-gaitan, «letratu» andia; baiña inor be etzan oraindik bere izkuntzaren «faboretan» euskeraz idatzi ta argitara emoten saiatu.

Onok odoltzen eutson -zion- biotza. Eta lotsa izatea astindurik, or doa kalera bere liburua. Azkar diño:



Heuskara,
lalgí adi kanpora!
Lengoajetan ohi intzan
estimatzen gutitan;
orai aldiz hik behar duk
ohoria orotan.
Heuskara,
habil mundu guzira!

Olerki muina

Etxepare'k amabost-amasei koplá ditu guztira.

Azkenengo irurak, au da, espetxe kantua ta euskerari eskeiñitako biak kendu ezkeró, beste guztiak, bi maitasun, Jainkozkoa ta gizatiarra, kantatzen ditue.

Erlejió-poesiak 595 bertso ditue, eta maitezkoak, 403. Giltzape egon zaneakoak 102 bertso ditu; *Kontrapasak* eta *Sautrelak* —euskerá goratuaz egiñikoak—, 59 bertso. Guztira: 1.159 bertso.

Geienak 15 silabadun laukotan osotu zituan, zortzigarren silaban etena egiñik.

O Heuskara, landa ezak Garazi'ko herria,
Zeren hantik uken baituk behar duian tornuia;
Lehenago hi baitintzan lengoajetan azkena,
Orai aldiz izanen iz orotako lehena.

Heuskaldunak mundu orotan preziatu ziraden,
Bana haien lengoajiaz bertze oro burlatzen,
Zeren ezein skripturan erideiten ezpaizen,
Orai dute ikasiren nola gauza hona zen.

Heuskaldun den gizon orok altza beza buruia,
Ezi huien lengoajia izanen da floria,
Printze eta jaun handiek, orok haren galdia,
Skribatuz al balute ikasteko desira.

Desir hura konplitu du Garazi'ko naturak,
Eta haren adiskide orai Bordel'en denak;
Lehen inprimitzalia Heuskararen hura da;
Basko oro obligatu jagoitiko zargana.

Etai, lelori, bai lelo leloa, zarai leloa.
Heuskara da kanpora, eta goazen oro dantzara.

Ezein iaunek eztu nahi mutil gaixtoa eduki, Ez pagatu soldatarik zerbitzatu gaberik. Iangoikoa ari duzu hala hala gureki: gloriarik ez emanen hongia egin gaberik.

Iritziak

Orixe'k onela: «Etxepare ez da hiotzaldi aundiekiko poeta, baino bai leguna, itz usik eztuna, jaso, lenbizikoa ez-ezik, gaurkoa ere dana idazztankera lasterra ta muinduna du, ebakia ta adi-erraza»,

L. Mitxelena'k: «Naiz erlijio barrutian naiz bestelakoetan, beti adierazi oi du txit jatorki barruan daraman biotz-eragiña, izkera nare, berezko ta bizian... Egizale, errealista duzu batez ere, eder-eredu billa etzebillena».

J. Etxaide'k: «Mossen Bernat'i euskeraren maitasun utsak eragin zion bere liburua argitaratzea, eta ortarako erlijioaz eta maite-bertsoaz baliatu zen... Euskera erabilli zizun elburu, eta erlejiñoa ta maitabidea beronen lagungarri».

Euskal pizkundeko olerkari dogula ere, guk erdi-aztua euki dogu azken urteotarrate. «Begoz, ba, __diño Ajtzol'ek—, aurrerantzean merezi duten maillan aren oler-arnasa ta jantzi zaharra».

LINOVAE VASCONUM

tir per Dominum Bc rn rdu m Dechcp art
Re&orena fannimichziis



Euskal leen liburuaren aurrada.
Izena latinez,
baiña mamaña euskeraz.

Erlejiño-gaiak

Erlejiño neurtitzetan, askoren ustez, *Iudizio Jenerala* dau -du- bikaiñena. Izan be, bizi-bizi margozten dausku -digu- azken epaia.

Lenengo bertsoetan Jainkoa dau -du- kantagai. Edo obeki: kristau dotriña azaltzen dau -du- garai aretan oitura zanez, aapaldi borobilletan.

Jainkoak egiña da gizona, ez izadiak; eta Aren zerbitzuan jardun bear dau -du- gizaseme leialak. Arek eztau nai morroi nagirik. Irakur:

ITZAK

Aldiz, barriz, ordea.
Bertze, beste,
Buruia, burua.
Edtren, aurkitu, idoro.
Ezein, edozein.
Jagoitiko, betikoz.
Oro, guzti, guztiak.

ADITZAK

Baitintz, bai intz.
Al balute, al balebe.
Izanen, izango aiz.
Lauda ezak, gora egik.
Uken, ukan, izan, euki.
Galdatu, itaundu.

Kanta kantari daude
txoriak zeruan:
kanta kantari *daukat*
blotza barruan.
Ta zergatik? Ta norgatik?
Maite, z-uregatlk.
Kanta kantari nago,
maite, zuregatik.



JOANES LEIZARRAGA

Gizon naiz idazle lez, aundia da Leizarraga, Benaparruako Beraskoitz erritxoan jaioa. Oraindik ez dakigu ziur noiz munduratu zan, ez noiz il zan.

Eleiz-gizona zala, bai, ba-dakigu; lenengo katoliku, ta gero protestantea.

Garai aretan Benaparruan eta Bearne'n erregiña zan Juana Albret'ek aginduta, iru liburu biurtu zituan euskerara.

Ona: 1) *Jesukristo gure Jaunaren Testamentu Berria*; 2) *Abc edo kristingen Instruktionea*, eta 3) *Kalendrea, edo Egutegia*.

Juana Albret'ek, euskerazko liburuak bear zituan Euskalerrian bere usteak za-

baltzeko. Euskaldun kristiriauak esku ar-tean bear-bearrezko zituan liburuak, euskeraz osotu ta eukitea nai eban -zuan-.

Ba zekian beste aldetik Leizarraga euskaltzale ona zana, eta Bearne'ra dei egin eutson -zion-.

Ez eban -zuan- langille makala bera-gandu. Beraskoiztarra, izan be, jakintsuaz gaiñera liburu-zale amorratua zan; euskeraren muiña sustraiz ezagutzen ebana -zuana-.

Gizon legez, zuzen jokatu eban -zuan-beti.

Bere jitez zintzoa dana nainun agertu oi da zeatz, argi ta zuzena.



**JOana Albrit,
Nafarroako Erregina;
berari opa eutson
Leizarragak lana.**

Gomendi ozko Karta

Andrea, zeren ni zure ezagun gabea bezala naizelarik, Testamentu berriaren heuskarazko translazione hunen zure Maiestateari dedikatzeraz ausartu **naizen**, merezi onez arintasunez akusa ahal neinde, baldin neure aursartgoa hunez zerbait exkusa bereren eman ezpaneza.

Bada, niri'haur eragin draudaten anhitz berze razoinen artean izan dirade, zure humanitate handi jende prestu guziez laudatua, eta Iainkozko zure zelo handia.

Zure humanitateaz den bezenbatean, ene manera halako bazen ere, non ezpaitzuen irudirik ere zure humanitatea sekulan enegana hel ahal leitela, guziagatik ere anhitz alde hura baliatu izan zait, eta printzipalki, zure maiestatearen plazera hala izanik gaje ordena lekidan, zure Bearnoko herrian entretenitu izan naizen bezenbatean: ezen halaz eman izan zait ithoa bezala azpitik nendukaten gogo-arranguretarik, eta orhoitzeak ere buruko biloa latz eraziten drautan kaptivitatezko suiekzionetik ilkhiteko okasione eta moien.

Eta zure zelo Iainkozkoaz den bezenbatean, hark du enjendratu zu baithara jende prestuen bihotzean halako reverenzia bat, non are zure ezagutza eztutenek ere ezin asko mirets baitezakete zure berthutea, zuri zuzen onez emaiten zaizkizun laudorioakgatik eren hain afekzionatu erakusten aren Iainkoaren tenpleko gauza gaizkituen drezatzen, eta zeren hark, kuasi desegin eta arrasatu izanik, orain zure moienez reedifikatzen delarik, rekrubatu baitarama bere leheneko edertasun Apostoluen denboran ohi zuena».

Iritziak

Idazle' ona da Leizarraga; nasai ta eze-
ren zoztor barik darabil bere lumea itzul-
penak egitean. Atsegiñez irakurten dira
bere iru liburuak.

Baeban -zuan- kezka pixkat bere lanak
osotzean: euskeraren batasuna nai eban
-zuan- lortu. Ta orretan alegindu zan, ez
gutxi. Lapurdikoen eta napartarren arte-
ko batasuna, literaturan jakiña, zelan-
alan egin ebanik -zuanik- ezin daiteke
ukatu.

Beste euskalki (dialektu) guztietarakoa
ez eban -zuan- lortu orraitio. Akesolo'k
onela: «Lizarragaren euskera ez zan, bere
aldian bertan, euskaldun guztien batasu-
na egitekoa, ez guztiek ulertzekoa. Berak

ere bazekien ori, Nolabaiteko batasuna
egin zezakean (leikean) lapur eta nafar-
tarren artean. Andik kanpora, ez ain
erez».

Ba-ditu bere akatsak. Baiña, ori ta guz-
ti be, «erraldoi bakar bat dugu -dogu- Lei-
zarraga euskal literaturan, ez aurrekorik
ez ondorengorik gabea», A. Villasante'k
diñoskunez.

Eta L. Mitxelena'k: «Lizarraga'k eder-
ki gaindu zitun, gauzak erabat artzera-
koan, aurrean agertu zitzaizkion eragoz-
pen ugariak. Ura irakurriaz uste izango
genuke, ainbat argibide ezpa-genuzka bes-
tera, luzaroko idatzi-lanez legepetua dan
izkuntzan idazten duela».



Ele-mele

Mutil koxkor bi, jolasean zebiltzala, ezerezagaitik asarratu ziran.
Itzetatik egiñera jo eben -zuten-, eta ukabilkada ederrak emon be.
Iru garren batek, ara urreraturik, banandu zituan. Eta zartakorik aundienak
artu zituanak, begietatik sua zeriola, esan eutson -zion- baketzailleari:
—Ez, ba; au ez tok -eztek- olan geldituko...
—Ez; ori biarko aundituta daukak —erantzun eutson baketzailleak.

Beste idazle batzuk

— *Santxo Elso*. Napartarra. Dotriña bat osotu eban -zuan-. Euskerazko lenen-
goa nunbait. Aren liburua ez dogu -degu-
ezagun, baiña Kristau-Ikasbide baten jabe
da, euskeraz ta erderazkoarena. Itxura da-
nez 1561'an argitara ekarria.

— *Betolaza*. Maixu edo *Doctor* titulua
eukan. Onek ere, Kalahorra'ko gotzain
jaunaren aginduz, dotriña bat ipiñi eban
-zuan- euskeraz ta erderaz (Bilbao, 1566).

— *Bizkaiko Atsotitz sorta*. Esaera za-
rrez osoturiko sorta bat da, *Refranes y*
Sentencias deritzana. Ez dakigu nok batu
zituan esaera oneik -auek-. Sorta edo
mordo polita da. Bizkai aldeko euskeraz
dagoz geienak.

— Garibai'k badau -du- beste sorta
bat, berak or-emen batuakaz **Geie-**
nok bizkaieraz dagozan arren, ba-dabe-
-dute- batzuk giputz kutsua ere.

ARRANTZALIAK

Arrantzaliak baru-ausita
kanpora doiaz zintzorik;
betöz guztiak osasunagaz
eta iñor bere ez gaisorik.

Otzaratxo bat,
otzaratxo bi,
arraiña dator
portura beti:
besigu, lebatz, sardina ta atun,
eta beste asko ganetL



ITZAK

Bilo, ule.
Gehien, aundiena.
Ausartgoa, bekoki.
Anbitz, asko.
Arrangura, ardura, kezka.
Moién, bide, bitarteko.
Laudorio, gorralpen.

ADITZAK

Desiratu, opa izan.
Gatzkitu, ondatu.
Drezatu, zuzendu.
Ikhi, urten.
Drautan, daustan, didan.
Desegin, ezereztu.

Ama barritsuak semearl:
 —Sarri esan dautzut, nik berba egiten
 dodanean, ixillik egoteko.
 --Orduan, nik ezingo dot inoiz be itz
 egin.

«Beste izkerak bezala, gureak ere, bere
 itz-aldi egoki, txit biziak, berezko ta be-
 rartazko ederrak ditu. Baiña erdarak era
 batera, ta euskerak bestera.»

Kardaberatz



JOANES ETXEBERRI

Apaiza. Donibane-Lohitzun ondoko, Zi-
 buru erritxoan jaioa da; ez dakigu noiz.
 1637'rarte edo, sorterrian egon zan ari-
 mazain.

Gizon jakintsua. Bere liburuetan ere
 beti agiri da *Doctor* (Maixu) teologoa.

Euskal literatura XVII'garren gizaldian

Amaseigarren gizalditik aurrera, politi-
 kaz ta erlejiñoz ain zuzen, naikoa nastau-
 ta zebillen Europa osoa. Ipar-Euskalerra
 ere, naste orrek latz erabilli eban -zuan-.

Euskal literaturari begiratu ezkeru,
 mugaz andik emendik baiño ezialdi
 obea etorri zan, ekaitz ostean. Lapurdi'n
 eta Benaparruan eta Zuberoa'n euskal
 idazle jatorrak jagi ziran, Axular eta onen
 ingurukoak baitik bat.

Alkarren artean lan egiñik, giro atse-
 gingarria sortu eben -zuten- egun areitan.

Euskal lana

Iru liburu idatzi ta argitara ekarri zi-
 tuan:

1) *Manuel Debozinezkoa*. 200 orrial-
 de. Bordele'n argitaldu zan 1627'an eta
 1669'an.

2) *Noelak* (Bordele, 1631). 246
 orrialde.

3) *Elizara erabiltzeko liburua* (Bor-
 dele, 1636).

Bertsotan dagoz iru liburuok.

Irurotan darabil kantagai: Kristo, An-
 dra Maria, ta Kristau bizitza.



ARTZAINAK BELEN'EN

Aingeruek zutenean
eresla kantatu
hedoetarIk zIt7_ aizten
artzain onei mintzatu:

«Artzainak, utz itzatzute
nespilletan ardiak,
eta Betleena laster
iauts zaitezte gaztiak».

Hitz hauk gauaz entzuteaz
hagitz ziran izItu,
boz hura nondik heldu zen
gora zuten behatu.

Guztiak partidu ziran,
aitziñean zuzia,
sortu den Haurraz zutela
bere solas guztia.

Sortu zen heia xarrera
ziranean hurdlbu,
errespetu handIz ziren
berehala ixildu.

Oiñetakoak zituzten
utzi ate sartzean,
eta berak sartu ziren
humilki barrenean.

- Ekandu gaiztoa, '
belu aztu doa.
- Denporak zelan aldiz/,
zapataria zaldiz.
- Adiskide bako bizitzea/,
auzo bako eriotzea.

Olerki-neurkera

Zarra da nunbait, olerkian beintzat, itzak neurtzeko oiturea. Itzak, berbak, berez, batzuk luzeak dira; beste batzuk, motzak, laburrak.


Nundik ete dator itzak neurtze au? Olerkiak, geien bat kantatzeko egiñak dira; eta kantuak neurria eskatzen dauan-duan- ezker, ortik dator bertsoak neurtzeko oiturea. Bertsoak neurri barik be izan daitekez -ditezke-; neurri barruan, baiña, obeto dagoz, itxura danez. Bertsoen neurkera, olerkiaren osotzaille bai da.

Euskal olerkiaren neurkera

Askotariko neurkerak ezagutzen ditugu gure bertsoetan. Aintziñakoak, batez ere, oso ugariak dira.

Zortziko nausia ta txikia izan dira, orraitiño, geien erabillitakoak. Neurkera onexek dira, gaiñera, Bizkaia'n zarrenak; baita Gipuzkoa'n. Naparroa'n eta mugaz andik be zortziko nausitan osoturik daukaguz -dauzkagu- maite-kanta ta osterantzekorik asko.

Amasei ta amazapigarren gizaldiko olerkari askok, baita, zortziko txikian egin ebezan -zituzten- euren lanak: Etxeberri'k, Harizmendi'k, Argaiñaratz'ek, Gazteluzar'ek eta abarrek.



Donibane Loitzune

Iritziak

— Joanes Etxeberri, olerkari bezela, garai artan Frantzia'n eta Espaiña'n ziranen pareko ba zan, nik uste. Aren neurtitzak ba-dabe -dute- mamiña, jantzi dotorez estalduta.

— Esana danez, J. Etxeberri'k bere iru liburuak bertsoz idatzi zituan. Baiña, Oihenart'en ustez, obe itz-lauz osotu baliu: Etxeberri'k, diñoenez, egokitasun geiago eban -zuan- itz askatuan (prosaz) idazteko.

— Zergaitik egin ete eban orrela? Ona: mariñel errikoa zan, eta itxas-gizonai atsegin izatearren ekin eutson -zionsbertsogintzan. Bere erriko itxastar areik -aiek- bertso-zale ziran osorik, eta euske-razkorik ez eukelako, latiñezko eliz-kantak abesten ei -omen- zituezan euren itxasoko lan-arazo bitartean.

Zortziko nausia


Zer ete *da?* Zortzi puntuko bertsoak. Onela: Lenengoak, irugarrenak, bostgarrenak eta zazpigarrenak, baktzak amar itz-atal edo silaba daukiez -dauzkate-, 5/5; eta bigarrenak, laugarrenak, seiga-

renak eta zortzigarrenak, zortzi itz-atal, 5/3. Gutxiago ere izan daitezke, lau puntukoak, seikoak eta amarrekoak egiñik.

Erdiko etena

Bederatzi silabatik gorakoak, geienetan, etena edo geldi-unea izan oi dabe -dute-erdian.

Beste izkuntzetan ere ba-dabe -dute-cesura esaten yakon -zaion- au. Eta esaldi luzeak diranean, dotoretu egin oi ditu eten onek.




ITZAK

Baitik bat, batez ere,
Noet, gabon-abesti.
Solas, herbeta, izketa.
Agitz, asko, oso.
Espil, esi-bil, eskorta,
Neurkera, medida.
Aitzin, aurre.
Fleta, toki loi.
Berehala, bertatik.

ADITZAK

Mintzatu, itz egin.
Izitu, ikaratu.
Behatu, begiratu.
Urbildu, urreratu.
Jautsi, jatsi.
Abestu, kantatu.
Utzi, itxi.
Ekin, jardun, ari izan.

- **Gizonaren izatea, egitea da.**
Gizona egitetik gelditzea, eriotza.
- **Gizona, zugatza zero alde lez,**
geroari buruz da alakatzen.



PIARRES AXULAR (1556-1644)

Idazle ta izlari da Axular, len ta orain guztiz ospetsua. Toki bakana dau -duskaal literaturan.

Axular ez da idazle aundi onen abize-na, bere jaiotetxearena baiño. Zutik daukagu oindiño aren basetxea; Piarres Agerre ta Azpilkueta dira aren egiazko abizenak. Urdazubi'n jαιο an, nappar mendi-zoko gordean, Lapurdi ta Napparoa tarteko mugamugan.

An-orke ikastetxeetan apaiz-karrera

Tarbe'n mezakotu zan 1596'an. Jaituri galanta jadetsi eban -zuan-; batxiller izena lortzeraiño, «Gero» bere liburuan erakusten dauskun -digun- argitasuna, izan ere, ez da Urdazubi'n bakarrik artutakoa.

Sara'n bizi izan zan luzaro, arimazain, 1600'garren urtetik aurrera. Sara'k orduan 298 famili eukazan -zeuzkan-. 1644'an il zan.

Idazle


Idatz-arloan, urteak joan eta urteak etorri, berbaldi ta oar pilloak zituan gelako mai gaiñean. Ezer argitaratu gabe oraindik,

Lanok, baiña, txukun eta sakon egiñak izanik, merezi eben -zuten- argitaratzea. Eta, onek bultza ta arek zirika, Axular atzenez bere lanak batu ta liburu mardul batean argitaratzera etorri zan. 87 urteko zala azaldu eban -zuan- bere «Gero» (Baiona, 1643), liburu bikaiña.

Azular'en liburu au, geroztik be sarri argitaratutakoa, ez dogu euskal literaturan edozelango lana, danetatik bear bada aipatuena baiño.

Zer dogu 623 orrialdeko liburu au? Gaiari begiratu ezkerro, mistika baiño asketika liburu geiago da: pekatariaren Jainkoagana biurtzea, lera txar ta pekatua dana itxirik, kristau bizitza oso-oso be-sarkatzea. 60 kapitulu ditu.

Euskera atsegiña dau -du-. Eder-bitxiz gaiñezka daukazu.



Urdax, Monastegiko klaustroa Ango erretorea izan zan Axular.

Gerotik gerora

«Nola gerotik gerora ibiltzeaz galtzen dugun denbora» deritzan kapituluan (XII), onela diño:

«Gerotik gerora zabiltza; urte hunetan gaixto izanik, datorkeienean onduko, eta prestutuko zarela diozu.

Bada biz hala, zuk diozun bezala, eta gogoan darabillazun bezala, gerta daki-zun, eta urte hunetan gaixto izanik, zure gero horretan, etorkizunean prestu zaitezin.

Hori horrela baltz ere, non da batatz, urte hunetan egin ahal zendukeien irabazia eta aitzinamendua? Zeren giristino onek, urte batez anhitz obra on egiten dute, eta bai meritu ere erdiesten: giristino onak urte batez, aitzinatzen dira, baiña zu nola aitzinatuko zaren ezen gibelatzen zara, anhitz bekatu eta gaiztakeria egiten duzula.

Eta berriz bertzea, non da halaber bitartean, urte hunetan zure Gero horretara hel arterainokoan galtzen duzun denbora? *Fili, conserva tempus* (Eccli. 4). Ene seme, begira ezazu denbora, dio Espiritu Sainduak. Aitzinean duzuiño, zakitza. Zeren behin ioanez gero, ezta bihurtzerik, eta ez erdiesterik.

Orai, denbora aitzinean duzuiño, egizu ahal dagizuna: eta orai ere, *Instanter*, fite, presentean. Zeren iakin behar duzu ezen eztela gero, zuk ioan behar duzun leku artan, arrazoin alegatzerik, eta ez iakintasunaz probetxatzerik izanen.

Uzten baduzu, nola eztakizula, orai eskuen artean duzun denbora iragaitera, egin da, galdu da, ezta gehiago bihurtzerik. Hargatik erraiten du Iondone Paulok: *Dum tempus habemus operemur bonum* (Gal. 6). Denbora duguiño dagigun ongi».

Lapurdi'n batez ere arnas aundiko idazleak sortu ziran, biotz barruan eben -zuten- gora-naieko sua galdatan agerturik.

Axular'ek, egia esateko, barruan zera-billen euskal lanerako gogo biziiaz, giro ederra sortu eban -zuan- bere inguruar..

Giro onetan Axular da buru; ba-ditu ezker-eskui idazle lagun bikaiñak ere, beronen gora-nai suaz ixiotuak noski. Sara'n, aritz-tantai baten adarpean jarten dira Axular eta bere lagunak, apaiz eta prailleak ia danak. Euskal kezkek eragina dabilta guztiak.

Antxe, alkar izketa samurrean, asmo bikaiñak artzen ditue euskera ikasi ta jasoteko, erriari euren itzaldietan gorputz eta arimaz nola bizi euskeraz erakusteko.

Sara'ko eskola dogu -degu-. Axular da bertoko buru, ta Etxeberri, Argaiñaratz, Harizmendi, Materre, Haranburu, Gazteluzar eta besteak inguruko.

Iritziak

Iritzietan asi ezkeru, beti ere goi-goi jarria izan da Axular idazkeran. Gizon argia zanez, pentsamentuak be, eguerdiko eguzki argitan lez, diztikor azaltzen ditu. «Gero», bere liburu garaia, lan atsegin-garria da.

M. Lekuona'k onela: «Liburu oparoa; luze eta zabal. Oparoa gaiiaz, oparoa eraz; oparoa mamiz, oparoa azalez. Ixuri ugariduna, benetan. Ixuri errezekoa».

Aren idaztankerari begira, onan mintzatzen da: «Aren idaztankera -estiloa- ezta arnas estukoa, ebakia: badaki zati laburra luzeekin uztartzen, eta pentsamentuak luze-laburtzen. Zer nai, axe dagi. Ta ementxe dago, ain zuzen, Axular'en bizia ta gaztea darabilen izkera».

Ba-ditu bere akatsak ere: «zeren», «ezen», «zeiriek», «hain» eta olakoak.

Gaiñera, latiñetiko edo erderatiko itz alper asko sartzen ditu, garai artan eta gerago ere bai oitura izan danez.

Itzen joskerari begiraturik, be, ba-ditu bere utsak. Gure edozein baserritarrek obeto lotuko lituke esaldi batzuk, euskera jator eta ariñagoan. Axular'en pentsakera latiñari lotua dabil sarritan.

GVERO

TA RTETAN

partitua *eta berecia,*

LEHENBI CI COAN

EMAITENDA, ADITCERA,

cenbat calre cguiren duen, luÇa-

mendutan ibiltceac, eguitecoen

gueroco

Z' igarrcnean quidalcencla, eta aildnatccn, lucd mem-itiaC, bere hala, bere egtrin bi-dear?, lathu nahi cakana.

Escritura Cainduric, EliÇaco Doclor etaricra liburu dcbocirinzco darie. Axular Sa, raco errotorac

tardes connerti ad Dominum, ne differas cle in diem, E-; clef. 5.

BORDELE N,

G. MILAhtGrs Erregucuen Int'prima bairir.un.

M. DC. XLIII.

«Gero», leen argitaratzeko azala

Gure eredu

Utsok gorabera, eredu ta maixu dogu Axular. Alan eta guzti be, itsu-itsuan ez dautsagu -diogu- iñoiz jarraitu bear, aka-

tsak albora utzi ta daukazan -dauzkan- urre-aleak jasorik baiño.

Beste idazle batzuk

Axular'en inguruko oneik -auek- ez aiztu:

1) *Estebe Materre*. Frantziskotarra. «*Dotrina kristiana*» idatzi ta argitaldu (Bordele, 1617) eban -zuan-, Sara'ko euskeran.

2) *Argaiñaratz*. Ziburu'ko predikaria. Liburu bi idatzi zituan: a) «*Abisu eta exortazionea probetxoak*» (Bordele, 1641), eta h) «*Deboten Brebiarioa*» (Baiona, 1665). Lenengoa itz lauz eta bigarrena bertsoz.

3) *Voltaire*. Liburu bat idatzi eban -zuan-, iru izkuntzan, prantsez, gazteleraz eta euskeraz: «*Tresora*» (Baiona, 1642). Esaera zarrez beterik dago.

4) *Silvain Pouvreau*. Bourges'en jaiotako ta Paris'en illa. Iru euskal liburu argitaratu zituan: a) «*Giristinoaren dotrina*» (Paris, 1656); b) «*Phdothea*», „*Sales'tar Prantzisko deunarena*, euskeraz (Paris, 1664), eta d) «*Gudu Espiritala*» (Paris, 1665). Itzulia au ere.



Bidart.eko illerria.

ITZAK

Izlari, sermolari.
Iritzi, eritxi, uste.
Idaztankera, estiloa.
Esaldi, frasea.
Eredu, jarraitzeko erakoa,
Gero, etorteko dagoana.
Oparo, ugari.
Aipatu, aitatu.

ADITZAK

Gertatu, jazo.
Erdietsi, lortu, eskuratu.
Aitzinatu, aurreratu.
Gibelatu, atzera geratu.
Iragan, joan.
Eduki, euki.
Darraika, jarraitzen dautso.
Biurtu, itzuli.

- Aberats izatea baiño ospe ona obeago.
- Atzerrian lurra garratz, aña ipiñi egik baratz.
- Aldiak nolako, gizakiak alako.



AILLENDE OIHENART (1592-1667)

Maule, Zuberoa'ko uriburua da Oihentart'en jaioterrria. Antxe munduratu zan 1592'ko aguztuaren 7'an.

Semeetatik bigarrena zala, azibide ezin-obearta artu eban -zuan- gurasoen etxean. Aitarengogibideari jarraituz, Bordele'n ikasi eban -zuan- eskubidezkoa, ontan lizentziatu ta 1616'an Legegizon titulua lorturik. Ondoren kargu aundiak euki zituan, Zuberoa'n batez ere.

1627'an Juana Erdoi aberatsarekin ezkondu zan. Oni zuzendutariakoak dira bere olerki-poesirik geienak, maite-minduarrenak noski.

Ezkondu ostean Donapaleu'n bizi izan zan Aillende. An izan zituan karguak ere: Naparruko Parlamentuko ta uriko zifegotzi. Erritarren alde jokatu eban -zuan-beti. Ainbat auzi erabagi bear izan zituan.

Euskal idazle

Zeregin askoren artean bizi izan zan arren, liburu bi osotu zituan: 1) *Notitiae utriusque Vasconiae* deritzana bata, ta 2) *Les Proverbes Basques* bestea.

Azken onek titulua prantsesez daukala be, euskerazko zati bi ditu, ondo berezituak: a) *Atsotitzak edo Refrauaak*, eta b) *Oihentart'en Gaztaroa neurtitzetan*.

Latiñez idatzi eban -zuan- lenengo liburua. Eta Euskalerrri osoaren edestia, istoria da. iru zatitan osotuta. Lenengoan, aspaldi bat-ko euskotarrak dakaz gogora;

bigarrenean, aintziñako napar erreñua edesten dau -du-, eta irugarrenak Akitania'ko eusko-semeak aizatzen ditu. Idazle bikain onek jaso ezpalitu, betiko galduak ziran onezkero zenbait euskal gauza jakin-garri.

Bigarren, au da, *O. ren Gaztaroak* atso-titz edo errefrau sail ederra dakar: 892 esaera guztiz. Eta ondoren, ogei bat olerki. Ia danak maitasuna dabe -dute- kan' tagai.



**Gauik, egunik,
eztinat hunik,
hireki ezpaniz, Argia:
hireki ezpaniz,
itsu hutsa niz,
zeren baithiz en'argia.**

**Hirekil'aldiz,
bederak'aldiz
bazter lekutan baturik
nonbait banago,
nun botzenago,
ezi Errege gertaturik.**

**Lagun artean
hel nadinean,
elhaketan, erhogoan,
ez nun dostatzen,
ez nun mintzatzen,
hi beti, beti, aut gogoan.**

**Nik dudan lana,
ezin errana,
zer koeinta dudan higati;
eta
maiz pensaketa
egonak, zlotsan nigati.**

**Kadran-orratzak
burdin-aitz latzak
hunki-eta buztan mehea,
xuxen, han hara,
eguerditara
diadukan punta xehea;**

**ni hala hala,
tiraz bezela,
hik joz geroz bihotzean,
hiri gorpitzez,
beti, ed'orhitzez
narrain, baitare lotzean.**

**Bana herabe,
stakuru gabe,
dinat, Argia, jitera
hir'etx'irira
leku agerira,
jenten minz'erazitera.**

**Beraz higanik
egin, jadanik,
noiz nakidina dakidan
jin, eta nura,
gorde-lekura,
eta hi han bat akidan.**

Nolako olerkari?

Oihenart'ek ba-zekian zertaz zebillan. Baita zein eban -zuan- elburu ere. Euskal olerkia goi-maillara jaso naiak eraginda egin zituan bere poesi-lanak.

Orixe'k ez eukazan -zeuzkan- bazter teko aren neurtitzak. Zorretan gagozala diño mauletar olerkari trebearekin, «poeta landuxe izanik, neurtitz politikak utzi zizkigulako. Etxepare baiño landuagoa, zailuagoa, ariñagoa... Baditu burutapen ugari, erderatik artu arren, euskerara ederki egokitzen dituenak».

Bertso laburrak dira geienik, euskera garbian osotuak. Ba daiteke Etxepare'nak baizen sakon giarrak ez izatea; azaletikoa goak dira bear bada Oihenart'enak, negar eta zauri artean maitasuna adierazteko izan be ez da sakontasun aundirik bear. Gai bakotzak bere jantzi berezia eskatzen.

Joskeraz bitxia iruditzen yaku -zaigu-sarritan aren bertsoa; baiña, gaur ere, atsegin da edonorentzat Oihenart'en neurtitzak irakurtzea.

— Bearrak
bearra eragiten.

* * *

— Egizu beti on,
jakin ez arren non.

Artazuriketa
etxeko ganbaran



Beste idazle batzuk

—Garai ontakoa dozu -dezu- 1619'an Ziburu'n jaiotako Aita *Bernardo Gazteluzar* jesuitea ere. 1701'an, Paube'n il zan.

Liburu eder bat borobildu euskun -zizgun-: «Egia katolikak» (Paue, 1686). Bertsoan daukazu 479 orrialde dituan idazti mardul au. Olermen ugarikoa ta leun-leuna agertzen yaku -zaigu- *Gazteluzar*, bertso-neurri txairoetan arin ta nasai bere pentsamentuak eiotzen dituana.

—*Kristobal Harizmendi*. Sara'ko seme. Euskerazko liburu bat opildu eban -zuan-: «Ama Birjiñaren Ofizioa» (Bordele, 1658). Euskerara itzulia da; bertsoz egiña. Daramillen euskera ez da oso-osorik lapurtarra, gipuz-usaiña ere ba-dau, ta ez gutxi.

—*Joanes Tartas*. Zuberotarra. Apaiza au ere. Euskerazko lan bi laga euskuzan -zizkigun-: 1) «*Onsa hiltzeko bidia*» (Orthez, 1666), eta 2) «*Arima peniterdaren*

okupazione debotak» (Orthez, 1672), Latinezko itz asko erabilli arren, ez dauko euskera txarra; izkelgiz nastu samarra dirudi, guztientzat ulert-errea izan nairik.

—*Aranbillaga*. Ahetze'ko seme. Ziburu'n arimazain egona. Liburu au osotu eban -zuan-: «*Jesukristoren ImitazioKea*» (Baiona, 1684). Itzulpenik zarrena izan ezta ere, argitalpenik zarrena da Aranbillaga'k egindako au. Atsegiñez artua, beti, euskal literaturan.

—Gizaldi ontakoak dituzu, gaiñera, Belapeire apaiza, Sorhoeta'ko erretora, «*Katexima laburra*» idatzi zuena; Juan Beriain, Uterga'ko arimazaiña, «*COMo se ha de oir Misa*» euskeraz ta erderaz egin ebana -zuana-; Rafael Mikoleta, bilbotarra, «*Modo breve de aprender la lengua vizcaina*» (1653) argitaldu ebana, eta Martin Otxoa Kapanaga, Mailari'ko semea, «*Exposición breve de la doctrina cristiana*» (Bilbao, 1656) osotu ebana -zuana-.

Jarraitzaillerik'

Oihenart'en olerkerak ez eban -zuan-, egia esateko, eragin bizirik izan ondorengoetan.

Olerki ikasia, landua nai eban -zuan- mauletar jakintsuak. 1930'rantza, Lizardi'k eta Lauaxeta'k e,,,:n eben -zuten- antzeko zerbaiz zerabillen asmotan.

Baiña Lizardi'k eta Lauaxeta'k jarraitzailleroak izan ba'zituen be, Oihenart'ek, bere berpizte nai kementsuan, bakkarik ikusi eban -zuan- bere burua; orduko euskal olerkari zabarrak ez eutsoen -zioten- jarraitu.




Angeru
musikaria
Iruifieako
katedralean

ITZAK

Azibide, edukaziño.
Zirsegoizi, kontsejal.
Baratz, astiro.
Elaketan, barriketan.
Bederaka, banaka.

ADITZAK

Dostatu, jolastu.
Orhitu, gogoratu.
Jin, etorri.
Narrain, iri jarraitu.
Diadukan, dadukan.



— Astoaren agorako, eztia ez;
bainā hai bedarra.

— Uler ezak lenengo,
itz egik geroago.

Aldi onetako Euskal giroa


Gizaldi ontan ere, ez dogu -degu- gaizki asia gure literatura. Loratze ederraren aurrean gagoz. Len mugaz andik bezela, Etxeberri, Axular, Gazteluzar, Oihenart, Tartas eta gaiñerakoekin, oraingoan gipuzkoarren txanda dogu. Gora-nai zolian jagi ziran giputzak, Aita Larramendi'k bultz eraginda batez ere.

Andoain'go semea da Larramendi, 1690'an jaioa. Salamanka'n erakutsi eban -zuan- urteetan, eta egun baten, an, euskerark ez ebalā -zuala- ezer balio esan eutsoen -zioten-. Orduan idatzi zituan «El Imposible Vencido» (Eziña egiña) lenengo, ta «Diccionario (Donosti, 1748) gero.

Larramendi etzan euskal idazle; esatekorik beintzat ez zuan idatzi. Baiña giro sortzaille bikain egin yakun -zitzaigun-. Gero, lo egozanak esnatu zituan; aren idatziak bultzatuta etorri ziran ondoren Mendiburu, Kardaberatz, Lardizabal, Iztue, ta, Arrue ta besteak, aundienak baiño ez aitzateko.

Oraintsu arte, XX'garren gizaldirarte ain zuzen, Gipuzkoa'ko ta Bizkai'ko idazlerik onenak ari zor dautsoe -diote- geien bat. Naiz koplak ondu, naiz eliz-liburuak antolatu, aren irakatsiak zituen aurrean.

Mugaz andik. Ipar-aldeko euskaldunak, naiz-ta pixkat motelago, euren kultura arloan darraie. Idazle onak dituzu, arein -aien- artean, Sara'ko Joanes Etxeberri, Pierre Urte, Joanes Haraneder, Mihura, Larregi, Baratzart eta abar.



(4,

Ci:
E:
I.:

4. 44

010,
3-IV

14

AITA SEBASTIAN MENDIBURU
(1708-1782)

Oiartzuarra. Amazazpi urte zituala, Jesusen Lagundian sartu zan. Eta eliz-karreira amaitutakoan, Iruña'ra bialdu eben-zuten-, eta antxe emon eban -zuan- bere bizitza ia osoa, gramatika, filosofia ta Teologia irakasten.

Mixiolari.—*Mixio* deia eban -zuan- bere barrenean pilpilka, eta ogetamar urte gutxienez Kristoren itza zabaltzen igaro zituan. Napar aldeko erri guztietan ibilli

zan mixiolari trebe ta sutsu, egundo be aspertu barik.

Umetatik zekian euskeraz; baiña gero-
ra, obeto ikasirik, euskera ederraren jabe
egin zan. Gai sakonak argi ta gartsu azal-
du zituan, predikari lez ibilli zan erri guz-
tietan. «Zizeron» euskalduna esaten eu-
tsoen -zioten-.

Jesuiten aurkako ekaitz zakarra bide,
erbestaratua, Italia'ko Bolonia'n il zan.



**Aita Mendibururen
oroltarria, Oiartzun-en.**

Euskal lana

Iru liburu mardul osotu zituan euske-
raz.

1) *Jesusen Bihotzaren Debozioa* (Do-
nostia, 1747), 387 orrialde. Lau sailletan
bananduta dago. Ementxe dator Larra-
mendi'k Loiola'tik bialdu eutson -zion-
eskutitz ospetsua ere. Auxe da, uka-mu-

karik gabe, A. Mendiburu'ren libururik
ederrena «idaztankeraz eta euskalkiz».

2) *Otoitz-gaiak* (Iruña, 1759). 88 go-
garte edo meditaziño dira, gaiak luze ta
sakon azaldurik. Atsegiñez irakurten da.

3) *Euskaldun onaren Biziera* (Iruña,
1762). Jesusen Biotzaren Kofradikoen
araudia da. Ba-ditu olerki batzuk bere.

«Ez dator nola-nai, ez, bere aldarera, ta gero, gu komuniatzen garanetan, gure baitara gure Jesus maitagarria; bere irabazi edo merezimentu ta ondasun guzi-guziekin dator batera, ta bestera; ta guzi-guziak dakartzi, andik eman-naiez, urbiltzen zaizkan guziei, oriek aldiari artu ar-ala.

Anitz dira ta andiak, bai segurki, gure Jesusen irabaziak eta merezimentuak.

Anitz dira lenbiziko lekuan, bai, gure Jesus maitagarriaren irabaziak; bada irabazten ta irabazten egondu zen gure Jesus maitagarria, bere Anima gorputzera zekion puntutik, bere gorputza gurutzean illik utzirik, linborako bidean artu arteko denbora guzian; bitarte orretan irabazten aritu zen alabaña gure Jesus maitagarria, bere irabaztetik instante bat ere gelditu bage.

Eta, anitz ez-ezik, andiak ere dira gure Jesusen irabaziak; bada Jesusen irabazi bakoitza, Jaungoiko-gizon baten irabazia da; ta orregatik da irabazi ezin-obe andiagoa'

Zenbatekoak izain dira bada jesus onaren irabazi guziak? Ezin adirazi ditezkeen diñakoak.

Oriekgatik du gure Jesusek, eta izain ere du eternidade edo sekula guzian, asma-al adiña baño atsegin, kontentu ta glori geiago ta geiago» (*Otoitz-gaiak*, 1905, TII 210 orr.).

Iritziak

Orixe'k onan: «Euskal idazlerik obere-na au uste dute zenbaitek eta Kikero euskalduna izena ipiñi diote. Axular'en ondoondoan beintzat tokia merezi du. Euskerra garbiago du Oiartzuarrak Urdazubiar-rrak baiño; ez orde ugariagoa».

L. Mitxelena'k: «Mendiburu da zalan-tza gabe izkera txairo ta apain izkuntza erabilli dutenatariko bat».

Eta J. Etxaide'k: «Joskera, bere aldi-ri gagozkiola, iñork baiño jatorragoa da-rabil».

AITA SAN ISTAZIORI

**Ba-dakizu, San Iñazio,
etsai anitz dogula,
guziekin peleara
noiz-nai aterako gara,
zen ba'zatoz gugana.**

**Izan ziñan zu, Loiola'n,
ez bein, bitan jaioa:
bein soldadu mundurako,
urrengoan Zerurako;
len ta gero Euskalduna.**

**Non da gerra, non da etsaia
zu izutu zinduena?
Armak, lantzak, suak, garrak,
etsai guzieren indarrak
zure kontra zer dira?**

(**Euskaldun Onaren Biziera'tik,
Iruña, 1762**)



EÇaerak

- Oker obe, itsu baiño.
- Suak eztau iñoiz «asko da» esaten.
- Solas gaixtoak galtzen dituzte aztura onak.
- Nor nola mintzo baita kanpoan, ala oi da barrenean.
- Mihia da biotzaren mandataria.

Txakur bizkorra

Bidez joazan adiskide bi. Batak diñotsa besteari:

Norena cte dok txakur ori?

—Osagillearena. Jaubea baiño zur bizkorragoa emoten yok.

Izan leiteke. Neuk be, ba, euki neban bein ik diñokan lakoxe bat.



ITZAK

Bikain, eder.
Eskutitz, eskuz idatzia.
Aurka, kontra.
Solas, itz, berba.
Sortzaille, zerbait asmatu ta zutik jarten dauna.

ADITZAK

Antolatu, eratu.
Igaro, eman.
Jagi, jaiki, altxatu.
Azaldu, adierazo.
Joiazan, zijoazten.
Dakarizi, dakaz,

**Gari zorro ona
etxera ekarteko,
arta txoriari
ez deitu laguntzeko.**



AITA AGUSTIN KARDABERATZ
(1703-1770)

Nortasun aundiko euskalduna dogu -degu- A. Kardaberatz: jesuita mistiku gorengo, euskal sermolari bikain, idazle aberats.

Sor-barria zan giro beroa. Eta barruan eroian -zeraman- suari erantzunik, zerbait, aurrera atera nai eban -zuan-.

Zer? Larramendi'ik erderaz egin ebana -zuana-, berak euskeraz burutuko eban.

Or A. Kardaberatz'en gaillentasuna, gaurko pentsakerarako batez ere. Gizaseme argi onek bere gramatika dau -du-, ta bere apolojia.

Bizitza

Eliz-karrera amaitu ondoren, sermolari bezela Bilbao'ko San Anton eleizan, 1733'an, Jesusen Biotzez Espaiña osoan lengoz egindako itzaldia ez da aztutekoa.

Gero, Loiola'n bizi izan zan, ia bizitza guztian. Emendik iragarri zituan, Euskal-

erri osoan nunbait, Kristo'ren fedea ta erreña.

Erbesteratua, Karlos **III'**garren Espaiña'ko erregearen aginduz, Bolonia'n il zan au ere, 1770'garren urtean.



Aita Kardaberaz.
euskal misiolari
eta idazle sutua.

Euskal idazle

Amabost-amasei liburu idatzi zituan euskearaz, 1744'tik **1767'ra** bitartean. Liburuotatik batzuk, bera bizi zala ikusi eben -zuten- argia; beste batzuk Aita Arana'k eroan -eraman- eutsozan -zizkion- irar-kolara. Batzuk, gaiñera, sarri argitaratuak izan dira,

Ona zerrenda au:

1) *Kristauaren bizitza* (Iruña, 1744). Liburu egokia, lau aldiz beintzat argitara ekarria.

2) *Euskeraren Berri Onak* (Iruña, **1761**). Ondo idatzi, irakurri ta itz egiteko lege ta arauak, apaiz-jaun eta eskola mai-xuai eskeiñitakoa.

3) *Aita S. Iñaxio Loiolakoaren Ejer-zizioak* (Iruña, 1761). 347 orrialde. Gero-ra be amar bider beñik-bein argitaratua.

4) *Ondo iltzen ikasteko...* (Iruña, 1762). 102 orrialde. Sarri azaldua.

5) *jesus, Maria ta Joserren Debozioa* (Iruña, 1763). 233 orrialde. Bizkaieraz ere atera eban laburpen bat.

6) *Senar-emazte santuak* (Iruña, 1766). 141 orrialde. San Isidro ta onen emazteaé ren bizitza,

7) *Mezako sakrilizio ta Komunio garzeke dotriña* (Iruña, 1782). 240 orrialde. Gero be, lau aldiz beintzat, argitara emona.

8) *Esku liburua* (Tolosa, 1726). 238 orrialde, gutxi gorabera. 18 bider gutxienez argira ekarria.

Ikusten danez, erria arima gauzetan eskolatzeko idatzi eban -zuan- ia guztia.



Ernani joan den gizaldian.

Euskara

«Noiz eta nondik edo nola gure euskera onontz etorri zan, nork daki? Zerutik, edo Jaungoikoagandik, gizonen asmazio gabe, orien gañeko gauza bezala etorri zala, Euskerak berak bere era eder ta armonia pare gabean ondo seguru esaten edo adierazotzen du. Beste izkunde edo lengoajeak, nork daki nastu ta batera ta bestera nola ibilli diran: Euskera, Jainkoak nai-ta, menditarte oietan beti nasgabe, beti garbi, beti seguru beregan gorde izando da...

Dana daia, antziñatik, orain bezala, griego ta latiña beti estimatuenak izandu dira, eta, baldin latiñak eta griegoak berak itz, boz edo berba asko euskaratik artuak badituzte, ondo klaru Aita Larramendik erakusten duen bezala, euskera aiekin batean *edo* lenago zan señailea, eta izkunde lenen edo eurrenekoetatik bat euskara zala, Nola nai, zierito da, latin ta griegoak, batak bestea apaintzeko, elkarri eskua eman ta lagundu diotela, ta, lengoaje guzien artean, aureskua beti artu ta eraman dutela...

Izkunde estimatu oiek biak ere beren oreñak edo tatzak bazituzten len; baña gero, asko-jakiñen artean oi dana, egunoro ta obeto polikitu ta apainduaz biak joan dira. Orain dakuskuna da, jakintsuen ta jakinzaleen izkera edo lengoajeak latiña ta griegoa dirala...

Gure euskerak bazter oietan orrelako gizaseme andien patu onik izan eztu. Baña latin ta griegoak asko-jakiñen ditxa ra gloria ori izan badute, bere modura maraioilla txikiago ezta, baizik miragarritzko prodijio andiago, euskera, **bakarrik** edo nik eztakit nola, bizirik ainbeste sekuletan egon dan ta dagoen, ain berez ta beregan, ain argi ta garbi, bere erio ta arerio guzien damu gorri gaixtoan badere.

Alere asko, eoieki, euskera galdu da. Baña ori ezta euskararen ezpada euskaldunen desonra: b̄da oiek polikitu, apaindu ta edertu bearrean, lotsarik gabe berak beren nagitasunez itxustu, larrutu ta desegin izan dute» (*Euskeraren Barri Onak*, I kap).

Nolako idaztia?

Kardaberatz'en liburuetatik jakingarriena, «Euskeraren Berri Onak» deritzana da, dudarik bage. Beste danak, esan dogunez, jainkozkoak ditu; au, oster, gramatikaz ta erretorikaz egiña. Bederatzi zatik osotzen dau -du- liburua. Ortarako Larramendi" k esana gogotan erabiltea egoki yaku -zaigu-.

Eleiz-gizonai batez ere zuzendua da. Ta oneik -auek-, ikasi dagien -dezaten- go-

go dau, euren itzaldietan euskera egunetik egunera ederragoa erabilliaz. Emen diño: «Euskerak burua jasotzea, Jainkoak nai du».

Ez ete da ilko? Ernaniarrak onela: «Gure baserrietan jende prestuak dirauten artean, euskerak iraungo du. Esan oi clena: oiei lepoa ebaki edo bizia kendu gabe, euskera ezin utzi edo kendu dai-teke».

Iritziak

Iritzietara jota, P. Lafitte'k au diño: Hil zen saindu bat bezala, goxo goxo eta geroztik Dohatsuen lerroan ezarri du Eliza Ama Sainduak. Eskualzale suhar Dohatsuak zerutik geriza eta begira dezagula, hain ontsa zerabilkan eskuara».

Manuel Lekuona'k: «Gauza bat aitortu bear degu, Aita Kardaberaz'en liburuai etzaiela orain arte, gure artean, bear bezelako ixtamaziorik ekarri, erabilten duen lexikoan erdal-itx askotxo ditualako nunbait. Bañan, egia esan, ori gorabera, Aita ernaniarraren prosa oparoari, mami ta ixuri ederra aitortu bearra daukagu: mami bioztun, eta ixuri leun. Ez bait luke gaizki emango gure A. Agustin'en edozein liburuk, euskerazko beste libururik ederrenen artean».

Ezta, ez, txit garbia Kardaberatz'en euskera, baiña dituan erdal-itzak eta noizik-bein joskera ain jatorra izan ez-ta be, euskera aberatsa dau -du-, esaera eder askoz gaiñezka.



Ernaniko kale bat

ITZAK

gauza ezkutua.
Sor-barria, oraintsu sortua.
Gaillentasun, aunditasun.
Itzaldi, sermoe.
Itzkunde, izkera, lengoajea.
Suhar, sutsu.
Gerizatu, babestu.
Ixuri, jario, etorri.
Oparo, ugari.

ADITZAK

Burutu, osotu, amaitu.
Idatzi, eskribitu.
Irakurri, leitu.
Polikitu, polito jarri.
Apaindu, ederrez jantzi.
Jaso, altsa, jagi.
Argitaratu, inprimitu.



AITA JUAN ANTONO UBILLOS
(1707-1789)

Prantziskotarra. Gizon jakintsua. Sagarondo txikiak ba-dakie sagar ale ederrak ekarten: Billabona aldameneko erritxo Amasa'k ere bere frutua ekarri euskun-zigun-: Aita Ubillos.

Tolosa'n, frantziskotar gazteen Teoloji-irakasle izan zan urte askotan. Arantzazu'n il zan, 1789'an.

Filosofi-gaietan ere oso jakituna zan. Eta zekiana erakutsi nairik —berezkoa da griña au—, ikasleak jakintza-gaiak ikasteko bear zituen liburuak ber-berak egokitu eutsezan -zizkien- arei.

Azken urteotara arte, eliz-karrerako ikasketak latinez egin izan dira beti, ta Aita Ubillos'ek latinezko iru liburu idatzi zituan: 1) *Philosophia Rationalis* (Donosti, 1755); 2) *Philosophia transnaturalis et naturalis* (Donosti, 1758), eta 3) *Philosophia naturalis* (Gazteiz, 1762).

Iru liburu aundiok, urte askotan, prantziskotar ikasle gazteen ikas-liburu arruntak izan ziran.

Euskal lana

Liburu bat idatzi eban -zuan- euskeraz: *Kristau Doktriñ berri-ekarlea* (Tolosa, 1785). 224 orrialde.

Zati bi ditu. Lenengoak, Jainkoaren lege zarrean eta barrian gertaturiko gauzen laburpena dakar; eta bigarrenak, 29 ikasgaitan, kristauak jakin eta siñistu bear dituan egien erakustea.

Itzulpena da, Klaudio Fleury'k prantsez egiña euskeraz; baiña ba-dau -du- gatzta ta mamiña itzulpen onek. Ezta itzez itz euskeraz jarritakoa be, orain laburtu ta gero luzatu egiña baiño.



tr.
Aizkolariak erriko feslan

Mundua ezerezetik egina

«Jainkoak bere itzarekin, ta bere borondatez egin zuan ezerezetik Mundua, bere gloriarako edo bere izate andi ezin ederragoa agertzeko. Sei egunean egin zuan Jainkoak mundua ta zazpigarrenean atsedean zuan.

Gizona egiteko, lenago moldatu zuan lurrez gorputz bat, eta gorputzari eman zion bere antzeko egin zuan anima bat. Gizona da Jainkoaren imajiria ta antzekoa; zeren Jainkoa ezagutu ta maitatu dezakean, ta orretarako egiña da gizona.

Lenengo gizonari zeritzan Adan: onen saiets-egur batez egin zuan Jainkoak beraren lagun izan behar zuan emakumea; jakin zezaen biak alkarri ongi nai beharko zioela, ta alkarrekin bizi beharko zuela, biak gorputz bat baizik ezpazukeen bezala; eta onela egin zuan Jainkoak ezkontza edo Matrimonia. Eba zeritzan lenbiziko emakumeari.

Adan ta Eba, biak ipini zituan Jainkoak Parabisua zeritzan berjera, lore-baratza edo toki zabal eder batean, zorionekoak bezala, atsegin kontentuz, ta behar zuen guziaz beterik an bizitzeko. Aukeran zeuzkeen, nai zuenean, jateko, Parabisu artako fruta guziak; ta etzian Jainkoak debekatu, zuaitz edo arbola baten fruta baizik.

Larru-gorrian ibilliagatik, etziran batere lotsatzen; etzuen alabaña gaitzkirik, ez eta gaitzerako griñarik ta gogorik. Il-gabe ta neke gabe bizi-beharrak ziran eren erara, ta noizbait eramango zituan Jainkoak, eriotzaren ortzetara gabe, emengo Parabisutik Zerukora.

Gizon-emakumeaz gañera egin zituan Jainkoak Aingeruak: oek dira gorputz gabeko ispiritu uts batzuek» (*Kristau-Doktriri berri-ekarlea, 5-7 orr.*).

Iritziak

Aita Ubillos'i buruz, Karmel Iturriak eio dausku -digu- iritzi-emoterik ederrena. «Ubillos —diño— ezta idazle garai oieta-koa. Baiña alere idazle ona da. Gipuzkoa'ko izkelgian ditugun aldi artako idazleen artean onenatarikoa».

Ubillos'en euskera erri-izkeran sendo tinkatua dago. Erri-izkera dau zimentu ta oiñarri antzo. Baiña ba-daki emendik eta andik bear dana edo bear dauana artzen ere.

Aita I. Omaetxebarria'rentzat ere Aita Ubillos'en euskera «auta, txukuna ta gain-gaiñekoa da».

Eta, izan be, eder-senak larritua zebillen amasatar argia. Mamiñari begira, sakona dogu; ta izkerari buruz, bere garaikoklasiku.

Nasai darabil aditza, berboa; baita sintetikua be: 24 aditz darabiltza era onetan. Dotriña baten ere, zenbat euskal esaera jator eralgi daitekezan -ditezken-!



Arantzazu aldea eta Andre NlarLaren Santutegia euskeraren eskola bat.

Beste idazle batzuk

Izar txiki antzera, ba-ditugu beste idazle jakingarri batzuk be, amazortzigarren gizaldi barruan.

Gipuzkoa'n.—Jose Otxoa Arin, «*Doktriña Kristianarer, esplikazioa*» (Donosti, 1713) osotu ebana; Juan Irazusta, «*Doktrina kristiana*» (Iruña, 1742) idatzi ebana; Frantzisko Xabier Lariz'ek «*Kristau*

Doktrinaren esplikazioa aurrentzat eta andientzat» (Madrid, 1757) daukana. Eta auen artean, Aita Domingo Meagher (1703-1772), Frantzisko X. M. Munibe, Periaflorida'ko Kondea (1723-1785) ta beste batzuk.

Bizkaia'n.—Emen ere, askorik ez, baiña izan genduzan banaka batzuk: Nikolas

Zubia'k «*Dotrina kristiana*» (Donostia, 1691); Martin Arzadun'ek, «*Kristinaubaren dotriniaren explikazinua*» (Gazteiz, 1731); Agustin Basterretxea'k, «*Jesukristoren Pasioa*» (Bilbao, 1777); Sebastian Antonio Gandara'k Gernika aldekoak,

Gabon-kanta bilduma bat osatu euskun-zigun-; Bartolome Olaetxea'k «*Kristauben Dotrina*» (Bilbao, 1763) idatzi eban. Durango'ko Diego Urkizu ere aipagarri dogu, «*Errosario Santuba*» biribildu eban.

Gernika'ko Aritz otzez il'zorian zegoala, Sabin'ek besarkatu zuan: besarkaren beroaz areitza piztu zenta asi zan kimu berri sendoak ematen.
(Jautarkol)



Ele-mele

—Zer daukazu buru-gaiñean, eguraldi ona danean?
Zerua.
Eta lairiotua dagoanean?
—Aterkia.

'V•

--Zergaitik **negar** egiten dozu, Mikeltxo?
Josu'k min egin daustalako.
Zelan, baiña?
Musturreko bat emon nai neutsan, eta burua eratxi daualako, aurreko ormea jo dot.

* * *

Zer ari naizen?
Iri begira, maite.

AMAZORTZI GARREN GIZALDIA
- JOANES ETXEBERRI

— Zekena beti on-gose.

* * *

— Jokorik oberena,
gutxien dirauena.

- Neke-min gaberik
ezta bizitzarik.

* * *

— *Aurren eta* adindunen mundua,
ezta, ez bardin oretua.



JOANES ETXEBERRI (1668-1749)

Etxeberri idazleak, bata Ziburu'koa ta Sara'koa bestea; biak izenkide ta euskal idazlari trebe. Bata apaiz, eta bestea

Biak aundi ta zaindun.

Saran jaioa dogu Etxeberri au. Emen-txe ta Paube'n osotu zituan bere osagille ikasketak. Eta karrera amaitu ondoren, bere errian egin eban -zuan- osalaritza ere, lenengotan beintzat. Gero, Bera'n, Ondarrabi'n eta Azkoitin. Giputz erri onetan il zan 1749'an.

Bere euskal lana

Bere ogibidetik kanpora, lan ederra egin eban -zuan-, euskal arloan ere. Lau liburu idatzi zituan. Bat ezik, argitara bage egonak izan ziran luzaro. Julio Urkixo'ri esker, gaur irakurri daikeguz -ditza-kegu- J. Etxeberri'ren lan baliotsuak.

Oneik dituzu idatzi zituan lau liburuak:

1) *Lau-urdira gomendiozko karta edo gutuna* (Baiona, 1718). Berak argitaratu eban Sara'n mediku zegoela.



Zihuru-ko p[aza

Zer dogu berau? Uztaritze'ko Biltzarri bialdutako karta. Lau-Urdi idazten dau -du-, Lapurdi *ur* askoren lekua ei data. Diru-laguntasuna gura eban, baiña Biltzarrak ez eutson -zion- jaramonik egin.

2) *Eskuararen A tsapenak* (Paris, 1907). Euskeraren aldeko lana, ederto egiña. Apoloji-bn onek ba-dau -du- bere berritasuna. Gai ta gauza dozu euskera, edozein kultura aurrera eroateko.

3) *Eskual-Herriari* (Paris, 1907). Irakas-lana, elebiko gramatika; euskeraz dago latin erakusteko.

Auxe da egillearen asmoa: latin ikasteko, baita beste edozein gai ikasteko ere, ez dago zertan geure Iurraldetik alde egiñik: berton ikasi geinke -genezake- nai dogun guztia. Jakite ugariaren jabe agertzen da emen Etxeberri saratarra.

4) *Diccionario cuatrilingüe*. Argitaratu barik. Lau izkuntzatan daukazu: eus' keraz, gazteleraz, prantsesez eta latíñez.

Itzal andia eutson -zion- Axular bere maixuari. «Euskalerriko Esdras aundia» esaten dautso -dio-, il'obitik ere mintzo dana.

«Eskuararen Hatsapenak» deritzan liburuan buru-arro dabil, gaiñak artuta Joanes Etxeberri; jakituri oso zabala erakusten dausku -digu-; liburu au, gaiñera, bi izkuntzatan idatzi euskun -zigun-: euskeraz eta latíñez.

Ona euskerak beste izkuntzetarik etorkirik ez dauala -duala- esaten dauskun -digu- zatia.

«Hala-nola egiazko philosophian materia eta forma baitira gorputzaren lehen Hatsapenak, eta bere muetan izaite osoa eta perfeta emaiten diotenak; manera berean zein nahi hitzkuntzaren lehen hatsapenak dira hitzak eta gramatika.

Hitzak zerbitzitzen dira materiatzat eta Gramatika formatzat; zeinak hitzei berenez dispozizino xoilla baizik ez tutenei emaiten baitiote izaite osoa eta perfeta, non haukien bidez hitzkuntza bat bertzeaganik diferent edo bata bertzearen idurituko egiten baitira. Eta zenbatenez hitzkuntzen hatsapenak baitirateke elkarren iduritakoagoak, hanbatenez elkarren artean hitzkuntzek ere dukete partalertasun gehiago, hala nola Italianoak, Franzesak, Gaztelaniak edo erdarak elkarren artean oaitute, bai halaber Latinarekin ere nahastakatzen dira, zeren hunen ganik baitute bere etorkia, eta hala haukien artean batetik bertzera diferentzia guti da, eta halatan dira hain elkarren iduritako...

Beraz Eskuararen hatsapenak bertze hitzkuntzenetarik diferentak direnaz geroztikan, Eskuara bertze hitzkuntzetarik etorkirik gabekoa da: ezen izan balu Eskuarak etorkirik bertze zenbait hitzkuntzetarik, dudarik gabe hitzkuntza haren umea eta alaba izanen zen, eta Amak umeari bere iduritik eta propietatetarik komunikatzen eta iratxekitzen dioen bezala, Eskuarari ere komunikatuko eta iratxekiko ziotzan bere kalitateak eta propietateak, guztiak ez baziren ere, zenbait berderen: zeren, *Quodlibet agens intendit producere sibi simile, quantum possibile est*: zer nahi den gauzak ahalaz bere iduritakoa nahi baitu ekarri, eman edo egin, Philosophoek dioten bezela» (J. Urkixo, *Obras Vascon'gadas...* 43 orr.).

Aranburu, Sara-ko gaztelu zaarra.



Iritziak

Axular Sara'n egona dogu arimazain. Etxeberri an sortua da, ta ango euskera zekien oso ederki. Biak idatzi eben -zuten-euskeraz; Axular'ek, eliz-gizo.i zan alde-tik, eleiz-gaiak aizatu **Etxeberri'k**, jakin-gaiak erabilli euskuzan -zizkigun'. Etxeberri'k Axular irakurri eban -zuan-eten barik, eta idazlari biak ba-dabe -dute-alkarren antza ta kutsua.

Sendalari jakintsu ontaz ari izan diran guztiak beronen lana txalotuaz idatzi izan dabe -dute-. Izan ere, ezin kendu legioke -lezaioke- barruan dauan -duan- jatortasuna: Etxeberriren orriak, irakurri-ala, ola-ko zoramen atsegingarria biztu-azten daus-kué -digute-.

A. M. Labaien'ek onela: «Eskolatu ta liburu-zale aundi degu Etxeberri, eta artean iñork egin ez zuena, gazteak Latíña ikasteko Gramatika egin zuen».

Eta P. Lafitte'k: «*Eskuararen Hatsape-nak* irakurtean, egiatzko latin jakitea mi-

resten dugu, lapurtar autore zaharraren ezaguera aundia, erri joskeraren zentzu txit zorrotza: Axular'en goresle ziña, ikas-le au doi-doi dago bere maixuaren azpitik. Goxoa dugu aren antzera, oparotsua aren antzera, doiñutsua aren antzera».

L. Mitxelena'k, azkenez: «Etxeberri, argi ta garbi, berenen artean eta bere garaian, oi ez bezelako giza-mukulua da... Eskolatzegatik ark somatzen zuen kezka ta ardura ere, gugandik urbillagoko aldie-takoak zirala dirudi».

Amaitzeko: ugari ta jario betekoa da aren itz laua. Idazten dauanaren gerria, au da, gaia ezaguna dau -du-. Naiz-ta soit eta abstraktu samarra izan, bere aurretik iñork esan ez ditun moduan esaten ditu bere esan-bearrak. Euskeraz pentsatzen dau -du-, eta euskeraz adierazten alegin-tzen da barruan irakiten daukana.



GAZTEAK

**Eusko-abenda, jolastu zaitetz
eginik nai beste «yantza»...
Oñiak bizkorrak, besuak zabal,
burua beti goirantza.
Azke ta garbi..., alai, baketan
erabillirik biotza,
nun-nai agertzen dozelarik
euskotar zintzuen antza.**

ITZAK

Zeken, eutsia.
Hatsapen, gai.
Mueta, klase.
Iduritako, antzeko.
Partatertasun, parte artez.
Nabastakatu, nastu.
Etorki, jatorri.

ADITZAK

*Iratxe*ki, erantsi.
Dukete, eukiko dute.
Izanen, izango.
Somatu, sentidu, oartu.
Adierazi, aitzen emon.
Goretsi, goratu.
Urbildu, urreratu.

JUAN ANTONIO MOGEL (1745-1804)

Iru mogeldar dira euskal literaturan, irurak idazle azkar: Juan Antonio ta onen illoba Juan Jose ta Bizenta, neba-arrebak. Irurok euskal idazle aberats, baiña osaba illoben gaiñetik burua ateraten dauana.

Eibar'en jaio zan Juan Antonio Mogel. Ez dakigu nun egin zituan bere abade-ikas-

teak, baiña 1770'tik Markiñan agertzen yaku -zaigu- apaiz arazoetan buru-belarri sartuta; 1778'tik eriotzararte berton, Xemeingo erretore edo txauburu izan zan

Ementxe il zan, gexoak ikustera joan eta kutsuturik.

Mesede egille errimeea izan zan beti.

Euskal lana

Ainbat gauza osotu zituan euskeraz eta erderaz. Alan be, ixilla zalako edo, aren Lanik geienak bera ilda gero argitaratu ziran.

Ona euskerazko batzuk:

1) *Konfesio ta Komunioko Sakramentuen gañean' Erakusteak* (Iruña, 1800). 255 orrialde. Gipuzkeraz.


2) *Konjesio ona* (Gazteiz, 1803). 296 orrialde. Bizkai'ko euskeraz. Geroztik be bost edo sei bidar argitaratua izan da.

3) *Kristaubaren jakinbidea* (Gazteiz, 1805). 96 orrialde.

4) *Peru Abarka* (Durango, 1881). 240 orrialde. Gerora ere lau bat bidar osorik eta zatika argitara ekarria. Orixe'k onan: «Bizkaia'n ez-ezik, Euskalerrian argitara den libururik ederrenetakoa da *Peru Abarka*. Euskal biziera gai artu zuen, eta orregatik zaigu zalegarriago».

5) *Ipuin eta bertsoak*. Ba-dau ipuin eta bertsoz osoturiko mordo bat; baita ari ta oni idatzitako eskutitz eta kartak ere. Artu-emon aundikoa izan zan beti, batez be euskal idazle ta jakitunakaz.

Erderaz ere ba-ditu beste lan batzuk, euskerari ta euskal erriari buruz egiñak nunbait.



Peru'k bere etxaldera daroa Maisu Juan, eta ango zer guztiak erakusten dau-tsez.

«Zurturik geratuko dira nire umeak zu zakusezanean, etorri ez oi dalako ona zu baizen gizon apaindurik; igesko dabee zokondoetara kuiak legez.

M. J.—Peru: atea jo baiño leenago esaidazu, arren, zer da kuia?

P.—Zuek *konejoa* esaten deutzazuna; ta esaten jako kuia, kui kuika edo ku-kuiska legez dabilzalako, emen urten, an sartu, buruak orain agertu ta gero ez-kutetan.

M. J.—Peru, txakur-zaunkea da, ta andiarena. Oratuten badeust?

P.—Ez bildur izan: bakarrik etorri banintz, ezeban zaunka aserre usaiñekorik egingo ta bai urten bidera pozkariaz ailleari eragin ta parlantzuan neugaz ibilteko; egingo zituan pozezko intziriak. Etzaitu usigiko neugaz zakusazanean, igarriko de-utsulako zatozala bake, ta ez ezer eroatera. Txakurrari dagoka zaunka egitea, ta etxe-ur ta inguruan ibiltea.


Ogi-puska bategaiti, zelango oniritxi ta asko-gurea artuten ezteutsa bere uga-zabari? Makillaka banatuarren ugazabak, intziri illetazkoak egingo ditu, ez baiña urki ta agiñik erakutsi. *To to* bat esan orduko entzuten dau ta igarten dau ardi, auntz, idi edo beiren bat dabillela soloan, ta ateraten ditu arin onean. *Urtik '1.4u* esaten bajako, alde egingo dau maiaren alboti, goserik andiena badauka bere; al-perrik izango da gosesto salobrea.

Ipiñi gura zaitut gauza askoren jakitun, etxean sartu orduko, daukat Jaungoi-koak emanda emazte otzan, baketsu, euli bati bere gatxik egingo eleuskiona. Azten ditu umeak lotsa onean, mankau baga, ondo esanaz ta Jaungoikoaren bildurra ira-katsiaz. Zorionez umeak eurak bere esanekoak dira, jatorriz legez; eztakie erre-muskada, bekoki illun, ta mustur-astinketarik egiten.

Eztozu entzungo nire etxean biraorik, ez baraila, ospe atralaka, ta iskibidurik; bai berba onak Eleizako gauzak ta bake betikoa.

Daukadaz seme bi ta beste ainbeste alaba. Gari ta artoak daukadaz gitz baga ganbara zabalean; bada daukadazan otseiñak bere, azi ditugu geure umeak ba-genduz legez, alkar maite dogula. Iñoren basori orri bat kenduten etxako, bai zain-du ondo geureak.

Orregaitiño Jaungoikoak emoten deusku gauzea ugari; topiñ ona beti izaten da; ilten dogu lauoiñeko gizena, idi lodi zezin ederra dabena. Euren *denporetan* izaten da jan al baiño geiago kastaiña ta sagar. Urte guztian, esaterako, daukagu eznea ta aurreratuten ditugu diruak lagunduteko gero umeai, aututen dabeen bizie-ran» (*Peru Abarka*, Irugarren autua).





Markina, sartaldetik begituta.

JUAN JOSE MOGEL (1781-1849)

Euskal idazle

Arimazain arduratsua baizen euskaltzale beroa dogu J. Mogel, Deba'ko semea.

Bere osaba J. A. Mogel'ekin osotu zituan lenengo eleiz-ikasketak; gero Oiriati'ko Ikastetxe nagusian jarraitu ta amaiturik. Azkenez 38 urtetan Markina'ko parroku izan zan, bere osaba legez.

Idazle ona

Iru liburu eder oneik, bereak ditu:

- 1) *Baserritar nekezaleentzako Eskolia* (Bilbao, 1816). 265 orrialde.
- 2) *Eguneroko lan on eta erregubak* (Bilbao, 1820). Euskera bikaina dau.
- 3) *Maiatz-illerako berba-aldiak* (Tolosa, 1885). 256 orrialde.

Asko ez euskun -zigun- idatzi, baiña ipuin eta bertso batzuk itxi euskuzan -zizkigun-.

Beronen *Gabon-kantak* Bilbao'ko eleizetan urterik urte abestuak izan ziran.

Idazle bizkor lez bere *Ipui Onak* (Donosti, 1804) liburuan agertzen yaku -zai-gu-. Eta gauza bi nabarmen ditu liburu onek: a) emakume batek idatzia dala, ta b) egilleak ondotoxo ezagutzen ebala -zuala- latiña. Emakume euskal idazleen artean, auxe dogu -degu- lenengoa gure literaturan.

Ipuin liburu onek ba-dau gatz-ozpiña. Berrogetamar ipuin dira guztiz, mamintsu ta gozo egiñak. Gipuzkeraz diardu, baiña ezagun da aren eguneroko berbetea bizkaiera zana.

BIZENTA ANTONIA MOGEL
(1782-1854)

Azkoitia'n jaioa. Bere neba baiño urte bete gazteago. Biak gaztetxo zirala aita il yaken -zitzaien-, eta umezurtz bait zegozan, Markifia'ko osaba Juan Antonio'k artu zituan bere babespean; baita eskolatu ere ardura goxoarekin.

Urteak joan eta urteak etorri, Bizenta Eleuterio Basozabal'ekin ezkondu zan, Abando'n bizi izanik. Berton il zan 1854'an.

Eulia ta Mandoa

«Mando batek zeramala burdia jarri zitzaion burtolean euli gogaitgarria, ta diotsa:

Mando zatar ta astuna, abil ar;ñago; bestela nere eztenarekin odoldu ta pizkortuko aut.

Aserratu zitzaion mandoari euli zital batek ain arro itzegin bearraz. Erantzun zion bada:

O piztia zital, kiratsu ta gogait-garria! Ezin gaitzik egingo diat: ala ere ez zidak ardura andirik ematen ire ezten txaarrak ateratzen bazidak odol apur bat. Nere gañean dijoan mandazai onen zigorrak beldurrago egiten naitziak. Onen zigorrada ta ugal orapillotuak ematen diztan zartadak atera oi dizkite zambro aundiak. Au bai dala beldurgarria!

Ipuiak erakasten dioe andikiai, badutela zer beldur izan nondik edo andik.

| *Txikiak dira noizbait arrotzen,*
| *Ta andiak dute emegatz2n.* |



**Idazle bat idatzi ta idatzi bizi zan.
Aren emazteak, bein, bere neskameari
itandu eutson —zion—:**

- Entzuizu, Kuiklle, nire gizonak artu
ete dau gosaria?
- Ba... ez dakit.

Wai411 M2VW51

**PEDRO ANTONIO AÑIBARRO
(1748-1830)**

Arratiarra dogu -degu- Añibarro, Billa-
ro'n jaioa.

Goi-deiari erantzunaz, Bilbao'n artu
eban -zuan- San Frantzisko'ren jantzia,
itxura danez, eta eleiz-karrera amaituta-
koan, or-emengo komentuetan nagusi egon
zan. Baiña 1790'tik aurrera Zarautz'eko
Mixiolari Kolejioan bizi izan zan, 40 ur-
tetan.

1794'an eta geroago, Frantzia ta Es-
paña arteko burrukak zirala-ta, gorriak
ikusi bear izan zituan.

Zarautz'eko komentuan bizi zalarik,
makiña bat lan eder osotu eban -zuan-
Aita Añibarro'k, bai erriz erri mixiolari,
bai lumea bizkor eta trebe erabilliaz. Li-
buru-mordotxoa idatzi euskun -zigun-
euskeraz ta erderaz.

Euskal idazle

Ona emen A. Ariibarro'ren euskerazko
lanik urtenenak:

1) *Kristau Ddktriña* (Iruña, 1802).
Fedeko gauzarik bearrenak azaltzen ditu.

2) *Esku liburua* (Tolosa, 1802). 152
orrialde. Auxe dogu A. Añibarro'ren la-
nik ezagunena ta erriak beti maite izan
dauana. Argitaratze asko ezagutu ditu.

3) *Lora Sorta Espirituala* (Tolosa,
1803). 196 orrialde. Bizkaieraz dago.

4) *Geroko Gero*, bizkaieraz. Axu-
lar'en bigarren argitalpenetik itzuli eban
-zuan- orpoz orpo. Lan au, amaituta itxi

euskun -zigun- arren, ezta osorik egundo
bere argitaratua izan.

5) *Misiohari euskalduna*. Kristau do-
triña ta erririk erri emoten zituan Gogo-
jardun eta itzaldiakin egiñiko bilduma.

6) *Lau Ebanjelioak batera alkarturik*.
Bizkaieraz. Argitaratu bage.

7) *Loiola'ko Iñazio Deunaren Gogo-
Jardunak*. Itzulitako lana.

Erderazkoen artean bere *Gramática
Bascomgada* dogu ederrena. Aditza azter-
tzen dau batez be, bizkaieraz, gipuzkeraz
eta napar-eraz.



Billaro, Arratia Ibarraidean.

Lenengo lorea

«Zeuroen biotzetan ifini bear dozuen *lenengo Lorea* da artzea gogo sendo benetakotako bat aurrerantzean ta gaur-geiago alde egiteko okasiño bekatutsuak ta i es egiteko zeuroen arimea lenago ezaindu ta deusuen galbide ta ondamentietatik.⁸

Eta alan dakizu urlia persona edo besteaz lagundu edo berba egiteagaitik jatortzuzala gogoraziño loiak, gurari txarrak ta aragizko tentamenduak? Urrindu zaite beraganik, ebagi egizu bere adiskidetasuna: jatortzuz, or-emen zabaldurik, non-naj deslai dabiltzelako zure zentzunak? Batu egizuz. Ezarten dozuz juramentuak, biraoak, añenak; aserraturen zara ordietan ara eta abar, urlia etxetan sartu, edo lagun gaiztoakaz batuten zarealako? Alde egizuz; ken ortik, larga ori...

Sinistu eidazue, neure maiteak jesusegan, eze irekaste au gorde ezik, il-otzituak urtengo dabela zuen berotasunik ixetuenak. Zer bada? Jausi zan Salomon, ausi zan Dabid, jausi zan Sanson, jausi zan San Pedro pelligruzko okasiñoan ifinirik; bada gu argalok zelan jausi ta laprast egingo eztogu bekatuan gatx-bide ta ondamenti deungetatik alde egin ezik?

Alperrik negar egingo dozue; utsak izango dira oraziño ta libru santuen irakurtzak; igartuak urtengo dabe zuen egitekorik onenak, ta eztira prestu zuen propositurik sendoenak, okasiño bekatutsuetatik urrinduten etzareen artean; lagun txarretatik *iges* egiten eztozuen bitartean.

Ain benetako egia da au, eze, Jangoikoak berak dauko baiezturik. Entzun ez niri, ezpada Espiritu Santuari: «Qui amat periculum diño— peribit in illo»: ifintzen dana pelligruan galduko da berean.

Gura dozue ez jausi ta ez galdu betiko?_Bada arin lasterka urrindu zaitezte okasiño ta pekatu-bidetik, Billostu arren gindaz beterik dagoan arbola bat, ikusiko dozue urrengo urtean garauz beterik. Baña ez alan aterako balitz sustraitik.

Zetako bada dira oraingiñoeko egite on guztiak, biurtzen bazara barrero lenagoko galbideetara? Ukatu ezin leian egia da ezjala benetako konbersiño edo biurrerea, kentzen ezpada borondatezko okasiño urkoa.

Baña, dana dala, okasiñoa nai borondatearen kontrakoa, nekez batek asko iraungo dan grazian, okasiñoa kentzen eztan artean. Beintzat gauza bildurgarria da; bada rapurra bizi da etxe barruan: beragaz artu bear dira neurri estuak irauteko jausi baga era izateko konfesiñoa ona.

Kendu arren itogiñatik jausi dan ura, beste bein bere jausiko da, euriari ba-diñotso, tella urratua kentzen ezpada. Gure arimetan bere sartuko dira bekatuen ur edenduak zarratuten ezpadira okasiñoak idigi zituan atea.

Ez eikezue egin oi ebana arotz batek, zeñek emen egoan tella ausia ifinteban an, eukirik beti itoz-ura, euki leientzat beti non bear egin» (*Lora-sorta Espirituala*, Tolosa, 1803, 17 orr.),

Beste batzuk

Egun naiko gogorrak izan arren Euskalerriarentzat emeretzigarren gizaldikoak, alan be, lan egin eben -zuten- gure euskal idazleak, prailleak eta apaizak berariz.

Zori txarpean be ez egoan geldi egotetik. Ezta bear be.

Besteen artean, ondorengo oneik -auek-ixildu-eziñak ditugu garai onetan.

JOSE INAZIO GERRIKO (1740-1824). Seg,ura'ko seme. Mutiloa'n arimazain egoana. Lan bakarra utzi euskun. -zigun-: *Kristau Doktrina guztiaren esplikazioaren Saiakera* (Tolosa, 1858). Milla orrialdetik gora dituan liburu mardula. Goierri'ko euskera darabil, guztiz ederra, esaera bikaiñez, itz egokiz eta adizkera apaiñez jantzia.

JOSE ANTONIO ABOITIZ (1751-1824). Lekeitlarra. Apaiza, ainbat bertso alai egiña. Ezagun ditugu bere *Txanton Pipirri*, *Peru Dubako*, *Matxango* ta abar.

—JUAN ANTONIO ZABALA (1777-1840). Bilbao'n jaioa. Frantziskotarra. Erriz erri mixiolari bezela ibilli zan urteetan. Euskaltzale zintzoa. Liburu oneik ondu zituan: 1) *El verbo regular vascongado del dialecto vizcaino* (Donosti, 1848); 2) *Noticia de las obras bascongadas que han salido a luz despues de las que cuenta el P. Larramendi* (Donosti, 1856), eta 3) *F72-bulas en dialecto vizcaino* (RIEV, 1907, 90 orr.). Bizkaieraz dagoz alegiok.

3.—*Joakin Lizarraga* (1748-1835). Nartarra. Elkanoko semea. Iru liburu idatzi zituan: 1) *Urteko igande guztietarako Itzaldiak* (Donostia, 1846); 2) *Jesukristoren Ebanjelio sandua Juan'ek dakarren gisara* (Londres, 1868), ta 3) *Koplak* (Londres, 1868).

Lenengo eliz-itzaldi liburuak, igande bakoitzari dagokionez ederto ta ugari azaltzen ditu gaiak. Eztau euskera txarra.



Aitona ipuiñak kontatzen (F. Kaperotxipi)

JESUS ETA NI

Bizi bear dut guzIz
bertze gisaz jadanik,
kondizio zarrak utziz,
gizon berria izanik.

Ez naizela bizi **ni**
ni baitan, ori baizik,
eztalen emen aurki
orren kontra den gaitzik.

(J Lizarraga)

ZALDI ARROA

Zaldi arroa bitxiz ta zirarrez
tint apaindua, jabea ganean
eukala, joian ibllte galantez
bere bidean;
onen betea daroa burua,
baita ain dago buru-eretxia,
ze, zabal dala... datorko
bide **guztia**.

(J. A. Zabala)



Asaba zarrak

Ez dakit konturatu zarean zelako zorra dogun geure asabakaz, geure aurrekoakaz. Eurak dira gure guraso zarrak, beste gauza askotan lez, ederrean be bai. Eurak asmau ta erentziz guri emona dogu -degu-euskera ere.

Izkuntza onetan, zer ez dautsegu -diegu-zor? Adimenez sortu oi ditugu pentsamentuak, eta agoz besteai adierazo izkun-

tzaren bitartez: guk euskerearen bitartez. Gure asaba zarrak, zelan edo alan, sortu eben -zuten- guk geure-geurea dogun izkera, Mikel Unamuno'k esan ebanez -zuanez- «neure arnasaren odola» dan euskera.

Ez gaitezan, iñoiz ere, eurakin aztu. Zer egin daikegu -dezakegu- euren alde? Euskera ikasi ta zabaldu.

JUAN BAUTISTA AGIRRE (1742-1823)

Asteasu'n jaio ta il zan, apaiztu zanetik bertako arimazain izanda. Bere liburuen azalean «Asteasuko erretore ta Gipuzkoako Arzhiprestazko nagusian Diputadu generala» jarten dau -du-. Kargu ori izan eban -zuan-, orretakoz, bere bizitza guttian.



Euskal idazle

Bi liburu ondu euskuzan -zizkigun-.

1) *Konfesioko eta Komunioko Sakramentuen gañean Erakusaldiak* (Tolosa, 1803). 400 orrialde. Dotriña azalpena da, lenengo Jaunartzerako umetxoak gertatu bear dituezanentzat egiña batez be.

2) *Erakusaldiak* (Tolosa, 1850). Iru idazti. Agirre'ren lan nagusia, dudarik bage. a) *Jesukristok bere Elizari utzi ziozkan zazpi sakramentuen gañean Erakusaldiak*; b) *Jaungoikoaren Legeko amar aginduen gañean Erakusaldiak*, eta d) *Jesukristo eta Birjiña txit Santaren misterioen eta beste zenbait gauzen gañean Erakusaldiak*. Liburu bakotxa 630, 625 ta 408 orrialdekoak.

Igandetako meza nagusietan berak egiñiko itzaldiak dira geien bat. Sakona da Agirre, argi ta joria. Sustraitik zekian euskera, erriko euskera, ta gipuzkera dotorean azaltzen ditu gai jakingarriok. Atsegiñ anditan irakurten dira.

«Begira idi edo beiak eman oi dituzun epetan, usuraz kargatzen dezula eroslea. Ara nola au gertatzen omen dan. Zuk daukazu idi edo bei uztarri bat, eun eta berrogei ta amar ezkutu balio duana, goieneko prezioa ematen zaiola. Badatorkizu eta eskatzen dizu urte beteko epearekin. Asitzen zera igoala egiten, eta diozu: «epetan nere idiak eraman nai dituanak eman bearco ditu, denbora betetzen danean, eun eta larogei ezkutu. Ona lenengo usura, zerren epetan emateagatik geiago nai dan. Igarotzen da urtea: idi edo *beien* erosleak ez du pagatzen agindua, eta idiabeak eskatzen dio, pagaburua egin dezan artean eman bearco diola urtean *ezineko onar*, eta gañera urtean onenbeste edo ainbeste anega-gari iru dukatean anega. Ezin sinistu det emen gertatzen dirala onelako modu itsusiak; baña asko berri txar aditu dira azkeneko denbora oetan, *eta* beldur naiz, zer edo zer gertatuko zala.

Begira, *erdira* esaten dan moduan ipiñi ote dituzun beiak? Onetan ere egiten omen dira tranpak bein baño geiagotan. Batzuek ipintzen omen ditue era onetan: lenengo lekuan ematen zate beiai balioa. Bigarren: artzalleak agintzen du ongitxo gobernaturako dituala. Irugarrena: oñaren, eta oñak umeetan emango dituan irabaziak erdi bana. Laugarrena: baldin oñak irabazi bearrean galtzen badu, edo iltzen bada, edo ostutzen badue, orduan bein jabeak nai du oña edo balioa osatzea. Igoal au, dirudianez, okerra da: zerren oñak egiten duan irabaziaren erdia beretzat nai duan ezkerero jabeak, era *berean* irozo bear du kaltearen erdia ere.

Baña batzuek zuzenago egiten due erdirako igoal au, erdiratzen dituela irabaziak eta kalteak, izan ditezela oek umeetan edo izan ditezela oñean. Jauna: era orretan neuzkan bi bei. I1 ziran, edo ostu zituen, eta erdibana irozo genduan kalte». Baña aen umeetan geratu zan oña berritzeko diña, eta nik nai nukean ala egitea. Ongi: baña ori, ume orien erdia ez da zurea, eta beragatik ondu edo pagatu bear diozu dauzkanari, bestela ez dira izango erdirako beiak, eta irabazien laurdena baizik ezin artuko dezu. Gai onetan igoal zikiñik ez egiteko, galde egiezu, nere kristaua, gizon zintzo eta adituai» (*Erakusaldiak*, bigarren liburua, Tolosa, 1850, 190 oryialde).



Mirandaolako miraria, Legazpian

Garai ontakoak dira gizaseme garai auek ere.

—JUAN IÑAZIO IZTUETA (1767-1845). Zaldibia'ko semea. Gorputzez txikia zan, diñoenez; begi-bizi, osasuntsu ta umore oneko. Itz-egikeran, goxo ta laban.

Euskal folklore zale ikaragarria genduan; baita dantzaria ta dantza-erakuslea ere bizitza guztian. Orri jausi batzen, au da, gure dantza era zarrak ikasi ta jasotzen iñok ez lakoxe lana osotu eban -zuan-: Euskalerriak eukazan -zeuzkan- ederrenak, berak bildu euskuzan -zizkigun-, musika ta aire, bere aurretik iñok urratu ez eban -zuan- bidez ibillirik; orrez gaiñera, idazle bizkor, erreze eta geienik oparotsua gertatu zan.

Liburu bi idatzi zituan: 1) *Gipuzkoa'ko dantza gogoangarrien Kondaira* (Donostia, 1824), eta 2) *Gipuzkoa'ko Probintziaren Kondaira* (Donostia, 1847). 520 orrialde.

—JOSE BIZENTE ETXAGARAI (1773-1855). Donostiarra, Itz-lauz eta bertsoz naikoa idatzi eban -zuan-. Zer asko ditu or-emen sakabanatuak, Gabon-katak eta

bertso arin politikak iñauteri ta antzeko jaietarako egiñak.

— TOSE KRUTZ ETXEBERRIA (1773-1853). Oiartzuarra, San Prantzisko'ren ordenakoa. Zarauz'ko komentuan mixiolari egona luzaroan.

Bereak ditu euskal liburuok: **1)** *Deboziozko bizitzarako Sarrera* (Tolosa, 1821), Sales'tar Frantzisko deunarena, euskeraz; **2)** *Ongi bizitzeko ta ongi iltzeko laguntza* (Tolosa, 1824), eta **3)** *jesusen Imitaziooko Liburua* (Tolosa, 1829). Joskeran mordoi-
llo dogu.

—AGUSTIN PASKUAL ITURRIAGA (1778-1851). Oxobi kendu ezkeru, euskal ipuin-laririk onena dogu Iturriaga. Ernaniarra jaiotzez. Apaiza. Gizaseme atsegiña, euskaltzale asko adiskide zituna.

Iru liburu daukaz -dauzka-: 1) *Arte de aprender* (Ernani, 1841), euskeraren bidez erdera ikasteko gramatika; 2) *Jolasak, edo Dilzlogos basco-castellanos* (Ernani, 1842); izadiko gauzak ditu ikasgai liburu eder-ederonek; eta 3) *Ipuiak* (Donostia, 1842). 55 ipuin giztira.



ELE-MELE

— Etxe utsa negargarri,
etxe betea pozgarri.

— Auzo ona,
lagun ona.



Nere Euskal-Erriko
gazteri ederra,
ez det uste derala
egin lan alferra,
ipuiak ifintzean
gure zortzikoan,
kantatzeko, nai bada,
arturik goan.

Badirade
badira erderaz;
ez al ditugu **bea**
guk *ere* euskeraz?
Bai, on da jakitea
Lengo denboretan
txit omen zeldkela
ederki itzketan
txakur eta katuak,
auntzak, azerlak,
itz batean, orduko
abere guztiak.

Ala dio Esopok:
gizon egitia
ote zan, ez dakIt nik,
edo gezurtia;
baña ez da dudarik
zala txit txikia,
bizkar makurra eta
jakintsun andia;
eta IendabIziko
onen mesedeak
mIntzarazo zituen
ederki abereak.

Aditurikan oien
jardun-erausiak,
egingo dituzute
askotan arriak;
esango ere dezute
egIñikan farra:
«Ez uen orregatik
jende ura narra!»
Ipuien akaballan
dauden sententziak,
agiri da dirala
egia andiak...

(Iturriaga)

AURREZ AURRE



**Eguzki disditsua
sorkaldetik ortzertzez zlarra dua;
aurpegi argitsua
erakusten arrua,
eta lurra urreztetan.
Aurrerago danlan,
itxasuen ganan,
ta sarkalderaño eltzen danetan,
aurrez agertuten az,
eta bera, azan ederraz
itxututa, maitia,
jausten don uiñetan, lotsaz betia.**

(Alzkibel)

PEDRO J. P. ASTARLOA (1751 -1821)

Durango'n jaio zan. Baiña markiñarra eban -zuan- ama, eta berak diñoskunetz, Markiñan azia izan zan. Orixegaitik, «Markiñakua da -dio- nire euserkia, aintxe azi nintzalako».

Bilbao'n jantzi eban -zuan- San Frantzisko'ren jantzia. Eta meza eman ondoren, Filosofia ta Teolojia irakatsi zituan ordena barruko ikastetxeetan. Praille argi ta asko ikasia. Bilbao'n il zan, 1821'an.

Euskal lana

Liburu bat osotu eban -zuan- ale bitan: *Urteko domeka guztietarako Berbaldi ikasbidekuak* (Bilbao, 1816-18). 275-290 orrialde.

Liburu bi oneitan -auetan- ugari be ugari dator euskaldun arimazaiñak bere eleiztarrai eskeiñi bear dautsen -dien- ikasbide onurakorra; baita euskaldun kristauak jakin eta bete bear dituan zer guztiak ere.

Zerk beartu eban -zuan- ortara? Astarloa'k berak diño liburuari ?arri eutson 'zion- itzaurrean. Ortarako diña etzala us-te izanik, duda-mudan ibilli zan luzaro; baiña gero, «liburu euzkerazko onek ekarri al leikezan mesedien gurarija» andia-goia izanik, lan au burutu eban -zuan-.

Bizkaiko arimazaiñai batez ere zuzentzen dautse -die-, oneik bada ez eben -zuten- nora jorik euren iganderoko itzaldiak egiterakoan.

Orrelaxe egiñaz, liburu jakingarriak urten eban -zuan- bere eskuetatik. Astarloa'k, izan be, euserkari gagokiozala, izkera bikaiña ta aberatsa dauka; etorri aundi ta jorikoa.

Barri-zale agertzen da noizik bein. Larramendi'ren iztegia erabilli eban -zuan- esku artean. Aren asmoa, ala ere, etzan eder mintzatzea, erriari Kristo'ren dotriña erakustea baiño.



Santa Ana eleiza Durangon, gizaldiaren asieran

Ekanduaren indarra

«Gura dozube oraindio bere obeto *eta* obeto ezagutu ze gatz dan ekandu txarra kentzeko gogarte edo propositu eukitia? Begira, bada, zer jazo oi dan ekandu edo oitura dongen bat daukanagaz.

Sarri ikusten dira gizon eta emakume guztiz santu dirudijenak. Egunian egunian errosariva errezau eta meza entzuten dabe, sarri konfesadu eta komulgadu, beti errezetan eta al daien guztian elexara; pekatuben geriziak bildurtuten dituz, eta nozbait pekatuan jausten ba'dira, eztauke atsegiñik konfesadu artian, eta uste leiteke artez artez duazala zerura.

Euki begi onetariko batek ekandu zital bat. Esaterako, sartu bedi tratu bidebagan edo saldu-erosi okerretan: atera begi irabazi on bat, zaletu bedi irabazi onetara, aberastu bedi bere lukreriakaz, itsatsi bekioz biotzian dongaro irabaziriko ondasunak; bada ikusiko dozu zelan eztaben pekatutzat bere eukiko daukan irabazi modu oker au. Aurrera darua bere deboziñoia, errosario, meza, barau, limosna eta beste egitade edo obra onak; baña aurrera darua bere tratu oker eta irabazi txarra.

Esan bekio eztiriala beriak daukazan ondasunak, itxi dagiala saldu-erosi bidebagia, lukreria dalako; eztau jaramonik egingo, eztau sinistu bere gurako pekatu danik. Zetatik deritzu datorrela, beste pekatu guztien gorrotua euki arren, lukreria pekatutzat bere e eukitia? Artu daben ekandutik.

Saldu-erosi oker edo tratu txarrakaitik diñodana diñot beste ekandu zitalakaitik bere, zelakuak dirian ordikeria, loikeria, murmuraziño, birao eta maldiziñoienak. Eta *zer* balio deutzu, beste pakatu guztien propositurik senduena eukitiak, ezpa-daukazu guztiena? Zer balioko detzube zeure meza, errosario, oraziño, baru, konfesiño eta komuniñoiak? Ezerberez» (*Berbaldi ikasbidekuak*, lenengo liburua, 196 orrialde).

PAULO PEDRO ASTARLOA

(1752-,806)

Durango'ko semea, beronen anai Pedro Jose frantziskotarraren antzera. Gaztetan, alan ere, esana itxi dogunez, Markiñan bizi izan ziran anai biak.

Durango'n egin zituan bere lenengo ikasteak, eta Gazteizen gero. Liburueta oso zaletua zebillen gazte-gaztetatik. 1782'an mezkotu zan, eta arrezkero, Tabira'n daukagu, San Pedro eleiza ondoko Errosario Anaidiko buru ta kapellau.

Euskalari

Ementxe, Durango saietseko Tabira'n, asi zan euskera sustraiz ikasten, gure izkuntzak barru dituan edertasunik geienakin jabetuaz. Inguruko berbetak ikasten ere alegindu zan, **griegoa**, **ebreo**a, arabea ta olakoak batez be; Amerika'n itz-egiten diran batzuk aztu barik. Ortik atera eban -zuan- ondorenez, euskera dogula izkuntzarik eder zentzunezkoena.

Onek eraginda asi zan, euskera goratuaz, liburuak idazten. Bi oneik ospe ta entzute aundia ekarri eutsoenak -zioenakdira: 1) *Apologia de la lengua basca* (Madrid, 1803), eta 2) *Discursos filosoficos sobre la lengua primitiva* (Bilbao, 1883). 773 orrialde.

Euskeraz ez eban -zuan- gauza andirik idatzi: olerkitxo batzuk geienik be. Baiña erderaz euskeratzaz osotu zituan gaiak garrantzi andikoak izan ziran orduan, eta gaur bere oindio Itxorkun edo etimologi zelaian lan *egitean*, Astarloa'ren idatzie-ara jo bear dogu naitaez.



Paulo Pedro Astarloaren oroitarria,
Durangor:



«EUKEL-EUZKIJA»

Sabino Arana'k begiko eban -zuan- As-
tarloa, ta, 1887'an, olerkitxo au eskeiñi
eutson -zion-:

Kikilduten da zeure aurrlan
Neu-bekokija,
Dakusalako adi zeurian
Euzkel-euzkija.

Artezkarija zu izaten zintzan,
Zu ipar-ixarra...
Il izan zara!... Illundu gintzan
Zu igota gora.

Euzkeltzalerik oindiño ordutik
Ari dira asko...
Best'ASTARLOA bat amagandik
Ezta jayoko,

GEIEGIKERIAK?

— Arpegi ederra nal dozu?
Barrua garbirik eukizu.

* * *

— Kukuak egiten dau
maiatzean kuku,
garagarrillean da
geldituten mutu.

Nire gelea —difio batek—, ain txikia
da-ta, nik jakea jazteko eskuak lelotik ate-
ra bear izaten ditut.

- ez da ain txikia —clirautso biga-
rrenak—; ni iñoiz gexotu ta osagillea etxe.
ra datorkidanean, miiña atetik atera bear
izaten dot.

—Zurea ez da txikia —irugarrenak eran.
tzan—; eguzkia nire gelara sartzen danean,
neuk urten bear izaten dot.



Aita
Karmeldarren
komentua,
euskeraren
eskola
zaarra,
Markinan.

AITA PRAI BARTOLOME
(1768-1836)

Markiñatik ur dagoan Etxebarri'n jαιο
zan Aita Bartolome Madariaga, «Prai Bar-
tolo».

Eta bere barruan praille-deia somaturik,
Lazkau'n, Korella'n eta Iruña'n egin zi-
tuan eliz-ikasteak. Gero, Markiñan dau-
kagu sermolari.

Napoleon frantses agintaria Euskal-
2rriaz jabetu zanean, 1808'rantza batez

ere, egun illunak ikusi zituan: Markiñako
komentuko nagusi zan, eta sarri erabilli
eben -zuten- pusil artean be, ara ta ona.

Gerotxoago, Riego'ren naste ta iraul-
keta egunak zirala-ta be, estu artua izan
zan. Lazkau'n itzali zan 1836'an.

Zintzo agertu zan beti bere gorabera
guztietan. Izlari trebe.

Euskal fdazle

«Nire idazle zar kutuna» esaten dautso -dio- Orixe'k. Izan ere, lau liburu ditu Prai Bartolo'k, guztiz jakingarriak.

1) *Euskal Errietako olgeta ta dantzen neurrizko gatz-ozpindua* (Iruña, 1816). 207 orrialde. Denpora aretako oitura ta ekanduak lerdin margozten dauskuz -dizkigu- liburu onetan.

2) *Jaungoikoaren amar aginduetako lenengo bosten Ikaskizunak* (Iruña, 1816). 278 orrialde. Ogetamasei ikaskizun ditu lenengo zati onek.

3) *Jaur,;goikoaren amar aginduetako azkeneko bosten Ikaskizunak* (Iruña,

1817). 301 orrialde. Guztiz ogetasei ikaskizun daukaz -dauzka- bigarren ale onek. Atal danak dituzu, gutxi-gorabera, neurri ta luze-labur bardiñekoak.

4) *Eleizako zazpi Sakramentuen Ika-sikizunak* (Iruña, 1819). Irugarren zatia. 376 orrialde. 36 itzaldi.

Iru liburuok, ganora izugarritz borobil-duta dagoz. Gaiari gurpilla emokeran, Jaungoikoaren aginduetan esaterako, ez dau ezezkoa bakarrik jarten, baita baiezkoa bere.



CI, re arimia

«Egia esateko, arimiaren gainian zorakeria asko erakutsi edo esan ditue gizonak. Zeruko argia bagarik ta Jaungoikuaren laguntasuna bagarik geure arimen gainian berba egin dabenak, jausi dira uts-egite andi askotan.

Baina Eleiza Ama Santiaren erakutsiari ta jaungoikuaren deiari gogoz ta gustoz jarraitu deutsanak, bide illunetan bere ez dabe utsik egin. Arimiaren gainian bere Eliza Ama Santiari ta Jaungoikuari berari entzun biar deusagu bada. neure kristinaubak.

Eleiziak aginduten deusku, bada, sinistuteko, *Lenengo*: Geure arimak diriala Jaungoikuak ezer bere ezeti egindako edo ateratako espirituak. *Bigarrenian*: Gure arimak daukeezala, aituteko, ta nai izateko alariak edo potentziak, zeintzuk dirian *adina ta naillia*. Adina, Jaungoikua ta beste gauzak aituteko; ta naillia, Jaungoikua bera ta beste gauza onak maitetuteko, deungak gorrotuteko. Baita dauka arimiak *gom.utia* bere, iragotako gauzak gogoratuteko.

Irugarrenian: Arimak dirian legez espirituzkoak, ez diriala iñoz amaituko. Asieria badaukee geure arimak, baina amairik ez daukee. Nora-ezekua ia geure *arimak edo* zeruko glorian edo inpernuko sugarretan beti beti egotia. Au erakusten deusku, neure entzula onak, Eleiza Ama Santiak geure arimen izatiaren gainian» (*Ikaski-zt, r, ak*, III zatia, 47 orr.).

Idasle **trebe**

—Aitatu ditugun liburuok idaztean, zer asmu erabilli eŕe eban -zuan- karmeldar argiak? Sermolari azkarra zan, ainbat urtetan erriz erri ibilitakoa. Ortan zebillela amaika bidar ikusi ebanez -zuanez-, elizgizonak ez eben -zuten- nun aukeratu aundirik jai igandeetan erriari kristau dotriña azaltzeko, eta uts-une au bete nairik egin zituan Jaungoikoaren amar aginduak eta Elizaren Sakramentuai buruzko ikaskizunak,

—Prai Bartolo gauza askotan yaku -zai- gu- eredu ta jarraibide. Esandako egunak zirala-ta, sarri ebillen bera Euskalerritik kanpora ere, eta ez eban -zuan- asti geiegi-rik euskal lanetan jarduteko; baiña alan

eta guzti be, sermoe ta liburu, langille porrokatua agertzen da. Naimen, borondate sendo baten jabe. Eta or untzea, gauza aundi guztietarako.

—Prai Bartolo ez dogu, ez garbi-zaleegi, ez mordoillo. Markiña aldeko euskeraz idazten dau -du-; eta erriarentzat idatzi ere, baiña beti erdiko bidez ibillirik, ez goregi ez beeregi. Orduko sermolari askok erabilten zituen erdel-itx premiña bakoak, ala ere, iguingarri yakozan -zitzaizkion-. Au diño berberak: «Geure euskera garbira aldatutia, ondo litzatekian edo ez, jakitunak esango dabe. Ez da au biar gata, euskera garbiko izenean imintia».





assIsibsIsa cntssiwił

uisariA

— Amets bat —

«Andik zerbait denborara, Nabukodonoser'ek gau batean amets izugarri bat egin zuen, eta esnatu orduko aztu zitzaion zer zan.

Erreiñuko sorgin, azti eta asmatzalle guziak bildu zituen eta agindu zien, zer amets egin zuen, asmatu eta zer esan nai zuen azaldu zezatela; bestela, ilerazoko zituela.

Azti oiek ezin zuten asmatu zer amets zan; eta erantzun zioten munduan au zezakeanik etzala, eta asi ziran guziak iltzen.

Daniel eta bere lagunak ere asmatzalletzat zeuzkaten, eta besteak bezala, billatzen zituzten iltzeko.

Daniel erregeari aurkeztu zitzaion, eta esan zion, baldin epea edo leku ematen bazion, asmatuko ziola. Itz onetan Daniel bere lagunakin jarri zan Jaunari erregutzen, eta Jainkoak naiko guzia agertu zien.

Bereala erregeari joan eta esan zion: «O errege! Zu jarri zera ondoren zer datorren pentsatzen, eta gauza isillen berri duenak, etorkiñak agertu dizkizu. Niri ere adierazo dit, zure ametsak zer esan nai duen». Guziak begira jarri zitzaiozkan, eta gisa onetan itz egin zuen

«O errege! Sunbil edo giz-antz begiratu ikaragarriko bat zure aurrean ikusi dezu. Burua urrezkoa, bularra eta besoak zillarrezkoak, sabela eta isterrak kobrezkoak, bernazakiak burnizkoak, eta oñak erdi-burni eta erdi-lurrezkoak zituen; eta zu begira zengokiola amildu zan arkaitz batek oñetan jo eta guzia porrokatu zan: urre, zillar eta beste gaiak, aizeak daraman autsa bezala, aienatu ziran; baña arkaitza mendi egin zan eta mundu guzia estali zuen. Zure ametsa au da».

Erregeak ezagutu zuen Daniel'ek egia ziola, eta ezertan ere uts egin gabe amets guzia asmatu zuela.

Onen ondoren azaldu zion zer adierazten zuen, esanaz, urrezko buruak bere erreinialdia aditzera ematen zuela: zillarrezko bular eta besoak gero sortuko zan beeragoko erreinialdi bat: kobrezko sabel eta izterrak irugarren erreinialdi mundu guzian zabalduko zana; eta burni eta lur nasteko bernazaki eta oñak laugarren erreinialdi erdibituko zana. Atzenean arkaitz ark adierazten zuela lau erreinialdi oien buruan sortuko zala beste bat, gañerako guziak desegiten ikusi eta berak beti iraungo zuena» (*Testamentu zarreko eta berriko Kondaira*, Tolosa, 1855, 306 orr.).

Beste idazle batzuk

—JUAN DOMINGO UNZUETA (1794-1870) Abadiño'ko seme. Prantziskotarra. Eten barik ibilli zan mixiolari. Bere *itzaldiak* laga euskuzan -zizkigun-.

-KRISTOBAL LINAZA (1806-1866). Lemona'n jaioa. Praille prantziskotar mixiolaria au ere. Bereak ditu: 1) *Bisita eguneroak aldareko Sakramentuari*, eta 2) *Bederatziurren mordo*.

--JOSE ANTONIO URIARTE (1812-1869). Arrigorriaga' ko seme. Mixiolari ernea. 1839'an prailleak komentuetatik bota zitezanean, Markiñ,3'n eta Lekeitio'n bizi

izan zan Aita Uriarte. Asko lagundu eutson -zion- Bonaparte'ri bere euskerazko lanetan.

Liburu oneik idatzi zituan: 1) *Mariaren illa* (Bilbao, 1850); 127 orrialde; 2) *Jesus Sakramentaduari* (Bilbao, 1856); 3) *Biblia edo Testamer.tu zar eta berria* (Londres, 1859); dana itzulia zeukan arren, lenengo iru liburuak baiño etziran argira ekarri; 4) *Marija Jaungoikoaren Amak...*, eta 5) *Ipuñak*, bizkaitar neurtitez.

Izugarriko lana burutu eban -zuan- A. Uriarte'k, osasuna galtzeraiño ekin eutson



«Gure amuma goruetan» (F. Kaperotxipi)

-zion- euskal zelaiko lanari: erri-mixiolari zoli ta idazle amorratu beti.

ZIRILO ITZA (1837-1892). San-
rurtze'ko eskola-maixua. Bilbao'n jaio zan.
Bere euskal lanak: 1) *Zalameako Alkatia*
(Bilbao, 1881), Kalderon de la Barka'k
egiña euskeraz; 2) *Olerki batzuk*, jatorrak
eta itzuliak. Itzulien artean, Kanpion'en
Orreaga berak euskeratu eban -zuan-.

-ANDRES ITURZAETA (1838 - 1912).
Otxandioarra. Ementxe egon zan gaiñera,
urteetan, erriko arimazain. Iru liburu ditu:
1) *Urtearen Domeka guztietarako Berbal-*

diak (Tolosa, 1894); 2) *A ita Gaspar A ste-
te'ren... Ikasbidea* (Durango, 1899), azal-
pen laburra, eta 3) *Esaldiak* (Durango,
1900).

-BONIFAZIO LATXA (1874-). Ubi-
dea'ko semea. Zeberio'n eta Ea'n organu-
jotzaille izan zan, eta atzenean, Argenti-
na'ra joan eta an il zan.

Jostirudi (sainete) bat itxi euskun -zi-
gun-: *Todos erribatekos* (Gernika, 1899).
Euskera oso errikoian dago, alkar-izketa
bizi-biziz, noizik bein erdel esaerak ere
sarturik.



NESKATILIA ESNE SALTZAILLIA

Neskatilla bat uri batera joian
esnia eroiala bere pitxerrian,
ondotxu saldu ta aberastuteko,
eta egun onak gero igaroteko.
—«Salduko dot —diño— esnla,
egIngo dot irabazi ezin obla,
eun bat arrautza ditut erosiko
eta onek laster iminiko oilloen lumapian,
eun bat txitatxu egin dagizan.
Salduko ditut gero oillaskuak,
oillandak biurtuko dira oilluak,
arrautzak onetatik,
ta askora igongo dot gitxltatik.
Au poza! Urte biren epian
diru asko izango dot aldian.

Zori onekua onekin ni!
Erosiko ditut bel eder bi,
jaioko yataz gero txalak,
egingo dira bigak ta zekorrak,
bigaiakaz beiak,

eta zekorrak azita idialc.
Esnia, barriz, izango dot ugari;
esango deusat otsein neskatillari
karutxo saldu dagiala
ta gona barri bat egingo deusadala.

Idiak ditudaz lodituko,
zezin-geitzat gero salduko;
eta, azkenian,
diru gorri asko nere etxean»...

Gogorazino oneetan aztu
nun eban bere esnia sartu:
labandu ta joten dau beia.
Agur, pitxar! ta agur, esnia!
Negarrak darraiko pozari,
ezerezak aberats ustiari,
eta neskatilla errukarria
gelditzen da galdurik guztia.

(J. A. Uriarte)

EMERETZIGARREN GIZALDIA

1

— GR EGORIO ARRUE



- Zer bear dot, aita, zoriotsu izateko?
- Iru gauza, seme.
- Zeintzuk?
- Jainkoaren onespena, adiskide bat eta liburuak.

GREGORIO ARRUE (1811-1890)

Ernani'n sortua. 1831'tik eriotzararte Zarautzen daukagu eskola-maixu.

Euskaltzale sutsua izan zan, eta itzul-tzaille bene-benetakoa; au da, liburu asko biurtu zituan erderatik euskerara.

Ona batzuk:

1) *Kristauaren Dotrinaren jakinbide azaldua* (Donostia, 1858). Mazo'ren dotrina euskeraz.

2) *San Inazioaren bizitza* (Tolosa, 1866).

3) *Brabanteko Genobebaren bizitza* (Tolosa, 1882).

4) *Orazio mental edo pentsamentuzkoa* (Tolosa, 1880).

5) *Mariaren Glortak* (Azpeitia, 1881).

6) *Salbazioko Aingura* (Tolosa, 1883).

7) *Zerura igotzeko eskallera* (Tolosa, 1886).

8) *Sakramentu txit santuari... bisitak* (Tolosa, 1887).

9) *Kristoren Imitazioa* (Tolosa, 1887).

10) *Maietzeko illa* (Tolosa, 1889).

Eta gaiñerakoak, batez ere gipuzkerara itzuli zituan J. J. Mogel'en *Baserritar jakintsuaren etxeko Eskola* ta J. A. Mogel'en *Peru Abarka*.

Zelako idazkera dau? Bere akatsak ditun arren, ez darabil euskera txarra. J. Zaitegi'k, ernaniarraren lanak aztertzerakoan, onela idatzi eban -zuan-: «Bera, ez da garbi-zalea, ezta urrik eman ere: zertan ari dan igarri gabe idazten dizu. Geien-tantsu zabarra da, mordoillokadak metaka ditu. Alare, Arrue'ren iturrian txurrutatu dudan lore-eztia milikatzean, oraingo mordoiloizaleen euskera ozpin minkaitz iduri zait!»

«Adiskideak denbora guzietan maite izaten du, eta ezbear eta gaitz-egokietan ezagutzen da senidea, diote Proberbioak.

Baña munduko adiskideak, nola izaten ez baitiran egiazkoak, bakarrik ongi geran bitartean irauten dute, eta gaizki ikusten gaituztenean, eta, areago dana, eriotzeko orduan, uzten gaituzte.

Ordea, Mariak bereakin onela egiten eztu. Bizitzako neke-trabaju guzietan, eta batez ere eriotzako estura larrietan, zeñak baitiran negarrezko bizileku onetan dituzkean andienak, bere serbitzari maiteak gandik aldegiten eztu, eta baldin egiten baditugu kristau baten eginkizunak, eraratzen digu eriotz gozo eta zorioneko bat.

Zeren zerurako seinalatuak dauden guzien Jaun eta Buruaren eriotzen alaño dolore miñakin Kalbarioan antxe begira kendu gabe egon zan egun andi artatik bere serbitzari guziaz eriotzean laguntzeko esku eta deretxoa irabazi zuan, eta onen bidez erakusten digu Eliza santak Ave Marian sarritan esaten: *Erregu zazu gu pekatariok-gatik, orain eta geroa eriotzeko orduan.*

Andiak dira hiltzen dagoanaren estura-larriak, bai igaroko bizitzako pekatuak uzten dituzten kezka eta bildurrakgatik, bai laster eman bearko duan kontu estuarer. agatik, eta bai salbatuko ote dan edo ez, idukiko duan dudagatik. Orduan infernu guziak, beste iñoiz baño biziroago armatu eta erasotzen du anima hura...

O zer egia dan, Maria dagoan lekutik iges dijoazela etsaiak! baldin ordu estu artan gure alde badegu Maria, zer beldur eman lizagukee infernuko etsai guziak?» (*Mariaren Gloriak, Azpeitia, 1881, 70 orr.*).



Zarautz, aidetik ikusita

Nire etxea ezta, onezkero, niretzat etxe!
Ezin dot geiago! Ba-noa; Ez-ezagun beti-
koa deiez daukat bidetik!

Zelan minduten nauan oin-otsak,
neure bularrean durunduz! Ta aizea, jagi
doa, ta itxasoa espaka dago!

Begoz or geldi nire zalantzak, nire ar-
durak! Ni ba-noa sukalde bako izgoraz;
Ez-ezaguna deiez daukat, ba, ta oneko bi-
dean zear doala! (*R. Tagore*)

Beste idazle batzuk

—JOSE MARIA IPARRAGIRRE (1820-1881). Urretxua'n jaioa; lenengo karlista gerran Euskalerrriaren alde gogor jokatu ebana. Erbesteratua ibilli zan gero, alde-rrai, ara ta ona, gitarra zartxo bat lagun ebala -zuala- kanta-kantari. Bera dogu *Gerrika'ko Arbola* kanta aberkoia asmau ebana -zuana-; orrez gaiñera, bereak ditu aintat olerki ta bertso sutsu be.

—MANUEL ANTONIO ANTIA (1830-1894). Urretxuarra. Apaiza. Bereak ditu liburuok: 1) *Zerurako bide zuzena* (Barzelona, 1867); 2) *Karmeltar debotoarentzat Ikasbidea* (Tolosa, 1883); 3) *Jesusen Biotz Sagraduko deboziazko liburutxo*a (Tolosa, 1887, eta 4) *Kristaua elizan*. Luma erreza dau.

—INDALEZIO BIZKARRONDO, «Bilintx» (1831-1876). Ezbear artean azitakoa. Ez eban -zuan- askorik idatzi: 36 neurtitz guztira, zatiren batzuk galdu ez ba'dira beintzat. Zortziko txikian egiñak ditu geienak, nagusia baiño atsegiñago yakon -zitzai- eta.

—JUAN FRANTZ ISKO PETRIRENA, «Xenpelar» (1835-1869). Burutik oiñetara bertsolari dogu errenderitar au. Erritar eta erriko utsa. Erri-doiñutan, gaiñera, guztiz aberatsa.

—KLAUDIO OTAEGI (1836-1890). Zegama'ko seme; urte askotan Ondarrabin eskola-maixu egona. Bertatik egin eban -zuan- euskal lan ederra. Bonaparte printzipeari lagunduaz be arlo galanta eroan

eban -zuan- aurrera; baiña, batez ere, olerkari garbala dogu, J. Manterola'k diñoskunez, berezkoetarako baiño itzulpenetarako erreztasun ^geiago izanik.

—JOSE IÑAZIO ARANA (1838-1896). Azkoitiarra. Jesusen Lagundikoa. Naikoa idatzi eban -zuan- euskeraz. Bere lanik beñenak: 1) *Jesusen Biotz Sagraduko billera* (Gazteiz, 1870); 2) *San Iñazio Loiolakoaren Bizitza* (Bilbao, 1872); 3) *Ama Birjiña guziz garbiaren Ofizio laburra* (Erroma, 1877); 4) *Loiola'ko Oroitza txiki bat* (Tolosa, 1882).

Aspertu barik idatzi eban -zuan- Euskalerrriko aldizkarietan. Ba-ditu olerki politak ere.


—ANTONIO ta KRISPIN BEOBIDE anaiak.

—RAMOS AZKARATE (1847-1904). Tolosarra. Or-emengo aldizkarietan bertso-pilloa azaldu eban -zuan-.

—MARZELINO SCROA (1848-1902). Donostiarra. Teatru saillean batez be, langille asper-gaitza.

—JOSE MANTEROLA (1849-1884). Donostiarra. «Euskal-Erria» eritxon aldizkariaren zuzendari. Donosti'ko Lore-Jokuen sortzaille. «Cancionero Vasco» osotu ebana -zuana-. Bai euskeraz bai erderaz, idazle trebea.

—ANTONIO ARZAK (1855-1904). Donostiarra. Bertsoz ta prosaz, luma erreza, leuna, Klasiku tankeraz ibilli zan beti. Manterola il zanean, beronek zuzendu eban -zuan- «Euskal-Erria».



Ja-jai!

Bein batian Loiola'n erronomia zan,
antxen ikusi nuen neskatxa bat plazan;
txoria baiño ere ariñago dantzan.
Uraxen bai polita, an politak ba'zan!

Esan nion desio senti nuen gisan,
arekin izketa bat nai nuela izan.
Erantzun zidan ezik atseñik ar nezan,
adituko zidala zer nai nion esan.

—Dama polita zera, polita guztiz, ai!
Baiñan alare zaude oraindik ezkongai;
ezkon gaitezen biok. Esan zadazu: bai.
—Ni zurekin ezkondu? Ni zurekin: JA-JAI!

(*Bilintx*)

EMERETZIGARREN GIZALDIA
PIERRE TOPET, "ETXAHUN"

— Sendo nai dituk begiak?
Lot itiak eure erriak.

* * *

— Tristan ba'dabil atsoa,
auts asko eregi daroa.

MUTIL AZKARRA

— Mutil, igarten ba'dok, zer dakardan
otzara ontan, mordo bat emongo dauat.
— Matsa dakazu!
— Josu! Au da mutillaren zurra!



Barkoxe-ko festetan

PIERRE TOPET, «ETXAHUN»
(1786-1862)

Pierre Topet —euskal elertian Etxahun— Zubero'ko Barkoxe'n jaio zan. Aitak umetatik zapuztuta, zoritxarra gaiñak arturik ibilli vakon -zitzaion- kumatik eriotzara.

Baiña zoritxar onexek, ain zuzen, biurtu eban -zuan- olerkari trebe, zubero-tarren artean onenatarikoa. Ezkondua ta etxetik jaurtia, odola zeriola arat-onat beti, euskal bertso sutsuetan abestu eban

-zuan- eten barik biotzean eroian zau-riaren oiñaze-pena.

Atzenez, damututa, Konpostela'n, Erroma'n eta Loreto'n erromes ibilli ondoren, etxean artua izan zan, eta berton, eskaratzeko zizailluan, aurkian, erromes erabilli. tako burusian baturik, beretarren artean emon eban -zuan- azken arnasa.

Barkoxe'ko iltegian erakusen da oindiño bere gorputza datzan obia.

Olerkari bikain

Ez dakigu zoriak zer ote dakarskun: aparteko gora-berak sarri. Etxahun'ek, bere zoritxarpean, olerkiak ontzen ekin eutson -zion-. Bizitzaren azkenerantza, gainera, orduan ospatzen ziran jaialdirik geinetara dei egiten eutsoen -zioten- bertsoak esateko. Poz andia ekarten eutson -zion- onek.

Izatez sentikor zan oso Etxahun. Olermen argikoa, ta indar orren bitartez edo-

zer gauza jazten eban -zuan- apain eta bero.

Libururik ez euskun -zigun- argitaratu; baiña bertsozko kuadernu naikoa itxi zituan il zanean. Eta etxekoak orrelako mordo bat beintzat erre eben -zuten- arren, koplá pillo ederra ba-dogu oraindik Etxahun'ena.

Gaiñera, poesi sozialak ditugu geien bat Etxahun'ek osotuak.



Ofizialenak

Oi laborari Baxua!
Ihauk jaten duk artua;
Ogi eta ardu eraikitzen, auherren asetzekua:
Halare hari haie maite, nula artzañak otsua.

Artzaña ba'da beztitzen,
Josler deie gomendatzen
Zaragollen gibel-aldia oihal hobez egin dezen.
Halare higatirenen dila aitzinia beno lehen.

Dendarik berant agertzen,
Arratsen goizik fitzfiltzen;
Eta mundiaren jorratzen arte hartan abrisutzen.
Ezpeitie jaten diena hrillantzeko irabazten.

Egun iriiliak oro
Idorrian nahiago.
Hanitx lan agertu beharrez, hari oro txori-lepo;
Hallikatzen balin ba'duzu, zehian lau oropilo.

Ehrlia hari galto
Ukenik ere han franko,
Undar harien ebatsi nahiz, oihal'rizten zerratzeko,
Hariak gaxto ziitiala fornizaliri erraiteko.

(Etxahun)

Iritziak

Asko dira Etxahun'i buruz idatzi dabenak -dutenak-, eta guztiak jo izan dabe beti olerkari gorenengotzat: Euskalerriko Verlain'tzat jo eban Orixe'k.

Jon Etxaide'k onela: «Etxahun, bertsolari edo neurtizlari ezeze, olerkari ere izan gendun eta ez nolanaikoa aiñera, bere aldietan alako giar, esakizun inñartsu, mai-

sutasun eta goi-arnasaren eragin sendo bat nabari baita».

Egia esan, ederto jardun eban -zuanbertsogintzan. Neurriz utsik doi-doi. Itz oskideak polito metatzen ditu, neke aundi barik. Bertso laburra dau -du- geienik; ebakia, zapaldura larregi bage, itz-laburpenak ugari, bere jaioterriko esaerak eurez.

Beste idazle batzuk

Amazortzi-emeretzigarren gizaldien amaiasierantza, ainbat idazle a ertu yakuzan -zitzaizkigun- Bidaso'z bešterik. Ona oneik:

-MARTIN DUALDE (1749-1804); Prantzia'ko matxiñada bitartean (1789) Ernani'n eta Oiartzun'en bizi izana. Liburu au berea dau: *Meditazione handiak* (Baiona, 1809). 582 orrialde.

-SALVAT MONHO (1749-1821), MARTIN LARRALDE, «Bordaxuri» (1782-1821), BEÑAT MARDO ta J. OTXALDE (1814-1897), bersolariak.

-J. MARTIN HIRIBARREN (1810-1866). Azkain'go seme. Apaiza. Urruñia'n eta Bardotze'n arimazain egona. Olerkari jatorra. Badau osperik bere poema *Eskaldunak* (Baiona, 1855). 238 orrialde.

Lan aundi au, naiz-ta ez izan azalez maisuki egiña, 5.505 inguru bertso dituna dozu Euskaldunai 18 aapalditan bi itz zuzendu ondoan, Iberia, Kantabria ta Euskalerrria kantatzen ditu lenengo iru ataletan; laugarrenean, euskal erri bakotxa abesten dau -du-: Nafarroa Beea, Nafarroa goikoa, Zuberoa, Gipuzkoa, Bizkaia, Araba, Lapurdi ta oneitako seme ospetsuak.

-LEONZIO GOIETXE apaiza ta J. B. ARTXU (1811-1881), alegi edo ipui egilleak.

-MAURITZIO HARRIET (1814-1904), eta J. B. DASSANCE apaizak, Haraneder'en *Testament Berria* (Baiona, 1855) argitaratu ebenak -zutenak-.

-JEAN P. KAMUSARRI (1815-1842), olerkari leuna.

—J. PIERRE DUVOISIN (1810-1891), kapitaina. Ainhoa'ko semea, idazle txukuna, *Laborantzazko liburua* (Baiona, 1858) ta *Bibli Saindua* (Londres, 1859), Testamentu zarra ta barria euskeraz jarri zituna.

—EMANUEL INTXAUSPE (1815-1902). Zuberoatarra. Amalau bat liburu osotu euskuzan -zizkigun-; euron artean *Le Verbe Basque* (Paris, 1858) eta *Jesukristoren Imitazionia* (Baiona, 1883).

—LUIS LUZIEN BONAPARTE (1813-1891). Euskal griñak jota, makiña bat lan egin euskun -zigun-, euskal izkelgi cdo dia-

lcktu saillean batez ere. Izkuntza asko ekitzan -zekizkin-, baiña euskera yakon -zitzai- atsegiñen, eta argitalpen askoren ondorean, bere «Euskal Aditza» ta «Izkuntza mapa», ditugu eder-ederrak.

—JUAN BAUTISTA DASKONAGERRE. Donobane-Lohitzun go seme. *A thekagaitzeko Oihartzunak* deritzan liburua idatzi eban -zuan-.

—BRUNO EUJENIO M. ETXENIKE (1820-1893). Urdazubi'n jaioa. Bonaparte printzeari, itzulpenak egiten batez be, asko lagundu eutson -zion-.

ITZAK

Otzara, saski.
Ogi, gari.
Berani, berandu.
Hanitz, asko.
Galto, eske.

ADITZAK

Ereg, jaso.
Eraiki, bildu, batu.
Higatu, gastatu.
Hallikatu, arilkatu.
Erran, esan.



Ziberuko txkularia '4!" &



Gazte nintzala, nire bizia lora bat zan; udabarriko aizea atera eske etorkona, an, bere ondasuneko orritxo bat galduagaitik ezer ardura ez eutson lora bat.

Orain, nire gaztaroa illez doanean, nire bizia igali bat da; bai, igali bat, geiegiz ezer ez daukana ta, bein betikoz, bere gozotasunezko karga osoagaz, bere burua emon gogo (nai) dauana (*R. Tagore*).

JOAN BAUTISTA ELIZANBURU

(1828-1891)

Sara'ko semea. Ikasle buru argiko agertu zan gaztetan. Frantzia'ko gudari zaindariaren artean kapitain maillara eldu zan. Eta, 1871'an, prusitarrek Napoleon azpiratu ebenean -zutenean-, Sara'n jarri zan bizitzen. Azken urteetan batez be, artu-emon barrukoa euki eban -zuan- garai artako euskaltzalerik geienakaz. Bertan il zan, Zaldubi olerkariak lagunduta.

Euskal olerkari

Etzan idazle ugaria be izan. **bere** buru-eskutik urtendako dana gozo ta ederra dogumx, ezin daikegu uka. Olerki mordotxo bat eta «Piarres Adame» nobela edo eleberria, bereak ditu.

Olerkari bezela, ogei bat poesi ezagutzen ditugu, arek ederto be ederto landuak.

Ona zer diñoan Elizanburu'z J. Etxaide'k: «Elizanburu'k, itz-neurtuetan ez-ezik itz lauz ere landu zun gure euskera eta idazle zaharretara —berrialdi atarian bada ere—, au dugu ezpairik gabe, bai bertso ta bai prosari erri mintzairaren kutsurik garbiena erantxi diona eta bere lan guzitan euskal senaren barru-barruraino murgildu zaigun gizona» (*Amasei seme Euskalerriko*, Zarautz, 1958, 30 orr.).

Trebetasun andia erakusten dau -dubertsogintzan; gai ugaria, naiz au eta naiz bestea eragozpen barik aitzen emoteko. Nortasun itzaleko gizasemea dogu -degu-. Neurritz eta doiñuz errikoi dozu, asmo ta jakitez nausi. Euskera, sendia, nekazaritza, maitasuna, aberria abestuten ditu bertso egokiro neurtuetan. Maixu da izkeran: aditza, adibidez, aukera osoan darabil.





Biriatu, Endaia ondoko erritxoa

Urrundik

Urrundik ikusten dut, ikusten mendia;
beraren gibelean baitut nik herria:
jadanik dut aditzen, zorion handia!
ezkila maitearen hasperen ezta.

Ezkila, zer ote duk ik egun erraten?
Urrunera zer berri ote duk igortzen?
Mendiek hedoi petik dautek ihardesten,
hik errana zerura ditek helarazten.

Landako langilea, artzain mendikoa,
iturriko bidean dohan neskatoa,
aditurik, ezkila, hire boz lañoa,
otoizten hasi dituk Ama zerukoa.

Nik ere dut otoizten Birjina Maria,
baserrietan galdu haurren gidaria;
neretzat otoi dezan ardiets grazia
bakean kausitzeko nik egun Herria

Mendiak utzi ditut urrun gibelean,
herria dut ikusten jadanik aldean.
Zer duk, ene bihotza, saltoka barnean?
Ote duk huts eginen herrira heltzean?

Agur, agur, herria! agur, sor-lekua!
Agur, nere hurreko leku maitatua!
Jainkoak aditurik haur baten oiva,
hire gana duk haur bat egun hurbildua,
|(Elizanburu)|

Elerti-izkera

Zer al da elerti izkera? Edo-ta olerkiak egitean darabilguna? Ez dogu, jakiña, era berean itz-egin edo idazten, adiskide batekin lau-lau diardugunean, edo-ta jente askoren aurrean gai berezia azalduz berba egiterakoan.

Idaztean ere bardintsu: albiste ta barri bat, esaterako, lau-lau, ezertariko edergailu barik adierazi oi dogu -degu-. Bafia geure sentipenak eta pentsamentuak goiagotik adierazi nai ditugunean, izkuntza jagi ta apaiñagoan jarduten dogu.

Elerti izkera, beraz, literaturazko lanetan darabilguna da. Geure barruko sentipenak azaldu gura ditugu, ta au izkera ede-

rraren bitartez burutu oi da: barnean irakin bolbolean daukaguzan -dauzkagun-sentipenen antzekoak beintzat itxartu, esnatu nai ditugu irakurlearen biotz-ondoan ere.

Beste ainbeste dagigu olerki edo poesian be: nolako sentipenez eta pentsamentuz gainezka gagozan, alakoxe izkera erabiliko dogu. Itz bati ere adierazpen eta esangura asko ezarten dautsoguz -dizkiogu-.

Zientzi-izkerak itz bakotxari bere zentzun berezia ezarten dautso **Oler-**ki izkeran bestera dozu: itz batek adierazpen asko ditu.



ITZAK

Hasperen, arnasbear.
Jadanik, onezkero.
Zola, bea, azpia.
Ezkifa, kanpai txiki.
Gibel, atzealde,

ADITZAK

Igorri, bialdu.
Árdietsi, lortu.
Kausitu, aurkitu.
A ditu, entzun.
Iradetsi, erantzun

MITE ZAITUT

Zein den eder arratsean
izar arte garbia,
iparretik agertzean
mariñelen argia!
Bai handizki eder dago
zeru zola handia!
Zu milletan ederrago,
nere maite Maria!

Izarrak dire zeruko
aingeruen begiak,
gizonen begiratzeko
Jainkoak ezarriak;
zu bertorat agertzean,
histuz beren argia,
sartzen dire ilunpean,
nere maite Maria!

Ez du hain laket izarrak
egon-leku berea,
udaberriz ez erleak
bara tzeko lorea;
ez du hala argi-albak
loriatzen xoria;
nola ni zu ikusteak,
ene maite Maria!

Maria, zure aldera
hurbildu beizen sarri,
«Maite zaitut» erratera
ez naiteke atrebi.
Pilpira bat bihotzean,
beldur bai-naiz abia
«Maite zaitut» erratean,
ene maite Maria!

Balin badut Jainkoaren
maitatzeko dretxoa,
nola nik ez dut izanen
zure maitatzekoa?
Zu lare nere bidean
Jainkoak ezarria;
ez samur nik erratean:
«Maite zaitut, Maria!»

Maria, ni naiz mintzatu;
oral zu mintza zaitte:
zuk ni nauzun, erradazu,
nik zu bezala maite;
zu nerea, ni zurea,
higatzeko bizia
laiteke nere xedia,
nere maite Maria!

(Elizanburu)





- Etxean al dago etxeakoandrea?
- Bai, jauna; baiña lo dago oindiño.
- Esan eiozu, zor daustanaren billa eto-
rri nazala; lo dagoan ezkeru, geroago
biurtuko nazala.
- Ederto, jauna; baiña ori esaten ba'dau.,
tsot, ez da gaur itxartuko.

Lau olerkari bikain

Mugaz bestaldetik ez yakun .zitzaigun-urria izan olerkaritzan emeretzigarren gizaldiaren amaia. Lau poeta, olerkari gorenengo sasoi ontakoak ditugu, bi elizgizon eta bi erritar. «Zaldubi» da lenena, «orduak eta orduak bere erria goratzen» jardunik, ari askotako neurtitzak mordo-

ka eio zituna; bigarrena, K. Bekas, Euskalerriko poetarik onenatariko bat: biok apaiz. Beste biak, erritarrak, Ibarrart eta J. Etxamendi, gure poesi-antoloji geienetan agertzen diranak dituzu; bata zapatari ogibidez, ainbat koplak ederren jabe, ta bestea Ezterenzubi'ko seme ta alkate.

GRAZIAN ADEMA, «ZALDLII31»

(1828-1907)

Lapurdikoa Senpere erritxoan munduratu zan. Larresoro'n ikasi eban -zuan-eliz-karrera, J. B. Elizanburu lagun ebalazuala-. Ementxe egozala asi ziran biak olerkiak idazten.

1853'an apaiztu zan Adema, ta ondoren, Larresoro'n, Azparren'en, Baigorri'n, Atarratze'n egin eban -zuan- arimen ar-

tzaintza. Azkenez, Baiona'ko eliz nagusian kalonje izan zan, 1875'tik eriotzararte.

Euskaldun dan edozeri eutson -ziona- maitasun beroa. Eta paperean, ots, bere neurtitz ederretan ixurita itxi euskun -zigun- maitasun ori. Artu-emon aundia euki eban -zuan- orduko euskaltzaleakin, euskal batzar askotan ere esku arturik.

Olerkari eder

Gorputzez eder genduan Zaldubi, arimaz ederrago. Senpertarragan bat zetozen, lotura gozoz korapillotuak, azala ta barrua. Jakin miñez dardari zebilkion ezpiritua, dana neurrian sartu gurarik. Beroren bertsoak be orrelaxe egiñak daukaguz -dauzkagu-, neurriz, dotore, leun, eder. Itz lauz naiz bertsoz idazten dauanean, darabiltzan itzak astun-ariñean ikusi, neurtu ta edertu oi ditu.

Adema'ren bertso-lana naikoa zabala da. RIEV aldizkarian ikusi daikegu -deza-

kegu- olako sail eder bat, 1908'tik aurrera azalduta; baita *Eskualduna'n* 1908-1909 bitartean, beste mordo bat argitaratu eban -zuan-.

Zazpi zatitan edo, zatitzen dira aren olerkiak: 1) Eskual Erriko *Eliz-jaiak*; 2) *Pelotariak*; 3) *Dotriña abestiak*; 4) *Abestiak*; 5) *A legi ta ipuiñak*; 6) *Beste olerki ez-santu batzuk, eta* 7) *A berri-kantak*.

Lenengo saillekoak dira ugarienak, irugarren eta zazpigarrenekoai ezertxo ere kendu barik,

ESKUALDUN GAUDEN GU

**Agur eta ohore
Eskualherriari:
Lapurdi, Basa-Nabar,
Zibero gainari;
Bizkai, Nabar, Gipuzko,
eta Alabari.
Zazpiak bat besarka
Iot beitetz elgarri.**

**Haritz eder bat bada
gure mendietan,
zazpi adarrez dena
zabaltzen airetan,
Frantzian, Espainian,
bi alderdian:
hemen hiru'ta han lau,
bat da zazpian.**

**Eskualduna jendetan,
Eskuara mintzotan,
lehen-lehenak dire,
akinen ahotan.
Mahlz orai arrotzak
azpian hadukan,
Eskualduna, egoadi
Eskualdun herrunkan.**

**Zuri gaude bihotzez,
Jaungoiko maitea,
lagun zazu zerutik
eskualdun jendea,
begira dezan beti
lehengo fedea,
zor zaizkon zuzeneidn
ardiets bakea.**

(Zaldubi)



Iritziak

Nornaik edertzat jo izan dau -du- Adema'ren lana, olerki-landakoa batez ere.

Arek, izan ere, beti eban -zuan- zerbait esateko. Batzuetan bai eban -zuan- ezin atertua be; askotxo zekian, ba, Euskal-Erriaz, oituraz, siñistez eta abar. Eta maite doguna errez adierazten.

Orixe'k onan: «Euskera garbia dizu, yaioa, erraxa, bakuna, funtsezkoa edo itz alferrik gabea, leguna, erritarra. Gogotarik goraenak eta biotzaldirik bizkorrenak gisaz agertzen ditu».



Ainhoa, gizaldiaren asieran.

CHARLES BEKAS (1847-1911)

Ainhoa'n sortua, erriko elizari aurrez aurre datzan Yoniorenea etxean. Larresoro'n eliz karrera osotu ta apaiztasuna artu ondoren, Baigorri'n, Biarritz'en, Ahetze'n eta Bidarte'n egon yakun -zitzaigun- arimazain. Itxas-ertzeko errixka dotore ontan il zan 1911'an.

Olerkari guztiz ona izan zan. Ahetze'n zegoela ondu zituan bere Ienengo Ianak, eta gero Bidarte'n jarraitu eban -zuan-, beti etorri oparotsuko, txinpartak ateraten ditun urgoria bezela.

Sei sailletan banatu daikeguz -ditza- kegu- K. Bekas'en poesi-lanak: 1) *Bizit,...., I-koak*; 2) *irri-eragilleak*; 3) *jainkotiak*; 4) *apaiz-sartzeak*; 5) *aldakerak*, eta 6) *isla-erraffiiiak*.

Iri-eragilleen saillean ba-ditu oso ederrak. Euskaldunok janedan zaleak gera, ta Bekas'ek ere bere bazkari ta apari galantak izaten zituan bere lagunakin. Bein one-la dei egin eutson -zion- Martin I. anderretxe'ri:

«Bertsulari», «koplari» ta «ditxolari»
genduan Bekas: bertsolari gozo, koplari
samur eta ditxolari zorrotz.



**Gure ezkila ederrak ez du ikasi latin;
halere ederto jotzen du talantan, tilintin.
Egun, ene partez dautzu, erraiten: «Hola Martin
ez ahantz larunbatean aurkitzea gurekin».**

(Bekas)

MANEX ETXAMENDI (1873-1960)

Ezterenzubi'n jaioa. Ameriketan ere urte mordoan Nevada'n bereziki.

Solo-lanetan errimea, baita 1920'tik aurrera, berak eskatuta, erriko elizako gilarren ere. Erriko alkate zala, gauza eder asko osatu zituan.

Bertsolari erara inoiz be ibilli etzan arren, bertso-ontzaille ernea dogu -degu-. Nevada'n artzain egoala asi zan idazten, eta gero bizitza osoan ekin eutson-zion- orretan. «Eskualduna», «Euskal-

Herria», «Gure Herria» eta «Herria» al-dizkarietan datoz bere bertso-lanak. Eta «Auspoa»-n, 109-110 zenbakietan.

Zer abestu ete eban -zuan-? • «Jainkoa, sor-lekua, familia, bakea, batasuna, adixkidantza, artzaingoa, laborantza, leialtasuna, nor bere hartan segitzea, biziaren errespetua, urrikalmena, herriaren zerbitzua, ohiduren begiratzea, bertzeak bertze», diñosku P. Lafitte'k.

Sariak ere jaso zituan.

ITZAK

Ogibide, ofizio.
Alegi, fdbula.
Gogoeta, pentsamiento.
Arrotz, erbestetar.
Errixka, erritxo.

ADITZAK

Mintzatu, itz-egin.
Ardiets, lortu.
Datza, dago.
Ahantz, aaztu.



- **Aberats jantzi nai?
Gaitz-erdi.
Txiro jantzi nai?
Zorakeri.**
- **Soiñeko zar baiña txukun,
etzaitez ibilli illun.**
* * *
- **Jantzi-geia ta zori txarrak,
bide batetik dabilzan arrak.**
- **Kanpoko tacamarreta tidnbdl,
barruko atorrea zirpil.**

PIERRE (D) IBARRART (1838-1919)

Jatsu'ko semea, an bait zan jaio 1838'an, goizeko zortziretan. *Bettiri* eritxen izen-goitiz. Mutiko zala, erriko eskolan ibilli zan eta naikoa argi zetorren buruz.

Zazpi urte egin zituan gudari, soldadu, ta orduantxe izan eban -zuan- denpora liburuak irakurri ta erdera ikasteko. Abots ederra eukan -zeukan-; origaitik edo, teatru-saillera bultzatu ere egin eban -zuten-, baiña berak ez eban -zuan- nai izan

ogibide ori, «arroxko, ta eroxko» bait zan bere ustez.

Soldadutza amaitu ondoren, ezkondu ta zapatarri jarri zan bere errian. Egun batean, baiña, Baigorri'ra dei egin eutsoen -zio-ten-, eta Jatsu aldea utzi ta araxe aldatu zan bere emaztearekin. Eta Baigorri'n bizi izan zan, emengo eleizako txantre, 44 urtetan. Baiona'n il zan, 1919'eko maiatzaren bostean.




Koplari bizkor

Gaztetatik bertsotan egiña dogu Ibarrrart. Erriko jai, ezkontza ta olakoetan aurrenik. Alai ta jolas-zale agertzen zan bere esateko guztietan. Zorrotz eta goxo be bai.

Bertsolari bezela erriz erri ibilli zan arren, jatsutarraren bertsorik geienak, «as-

tiz eta asmuz, luma eskuan», etxean dituzu.

P. Lafitte'k bildu ta argitara zituan aren 18 kanta, 889 bertso guztira. Azal ta mamin, oso polito egin euskuzan -zizki-gun- danak. Ona urrengo au, euskal askatasuna goratuaz osotua.



Eskualdun garbi batek ote dauka deusik libertatea bezain gauza aberatsik?
Ez, ez, harentzat ez da deus hain baliosik;
zorian hortaz baizik ez baitu ametsik,
hori gabe ez duke bizitze urusik.

Munduko gaztelurik den ederrenean,
lausengu, jan-edanen, guzien artean,
Eskualduna ez dauke han, bertzen menean,
nahiago du izan librotasunean;
mendian berak egin etxola batean.


Eskualdunak bakea du beti galdatzen,
zeren libertatea gerlak dion kentzen;
bertzenaz deusek ez du nehon ikaritzen,
lehoin baten pare da etsaier oldartzen;
buruzagiek dute hortakotz maitatzen.

Orai bi mila urte, hainitz Erromano
gerlan etorri ziren Eskual-Herriraino;
kantabre hazkar heiek zioten oraino:
«Nahiago dugu hil sumetitu baino!»
Hitz hori ez da galdu orai arteraino.

Eskualdunak zertan du laxatzen gakoa
haren libertatea dagon atekoa?
Botu bat duenean zerutikakoa;
hartan obeditzen du umilki Jainkoa
eta hartzen ordena bizi guzikoa...

Bibertatea kenduz ote da gai-denik
Eskualdunen bihotza xarma dezekenik?
Ez da lorerik eta ez da landararik:
Gernikako arbola daiteke bakarrik,
Arbola saindu harek ez baitu parerik.

(Ibarrrart)



Baiona, kaialdean, Joan den gizaldiart

Beste idazle batzuk

—MIXEL ELIZANBURU (1826-1895). Heletarra. J. B. Elizanburu kapitainaren lengusua. Sailletar anaia. Euskera naiko onean, bost liburuxka beintzat eratu zituan, orduko framazoi ta Errepublika zaileen aurka.

—FRANTZISKO LAPITZE (1832-1905). Arizkun'goa. Lenengo apaiz Baigorri'n eta arimazain Doneztebe'n egon zan; gero Mikel Garikotz'ek sortu ta irasi eban -zuan-betarramitarren lagundian sartu zan. *Bi saildu eskualdunen Bizia* (Baiona, 1867) idatzi ta argitaratu eban.

—ESTEBAN LAPEIRE (1840-1930). Azkaingarra. Apaiz. Berea dau -du-: *Kredo edo Siristen dut Esplikatua* (Baiona, 1891). 432 orrialde.

—J. PIERRE ARBELBIDE (1841-1905). Zaro-Benaparra'n jaioa. Prosa bikaiñez ida-

tzi eban -zuan-. Lau liburu ditu: 1) *Jaunaren deia* (Lille, 1887); 2) *Erlisioea* (Lille, 1890); 3) *Heren ordrea* (Lille, 1890), eta 4) *Igande edo Jaunaren Eguna* (Lille, 1895). «Mami utsa» dirala diño Orixe'k.

—LAURENT DIHARASARRI (1848-1902). Sara'n sortua. Kanbo'n erretore. Beronen euskal liburu jakingarrienak: *Apezen dretxoak eta eginbideak* (1890) eta *Erlisioaren Ixtoria* (1890) dituzu.

—P. IÑAZIO BARRUTIA (1682-1759). Aramaio'koa semez. Ezkondu ta Arrasaten luzaro eskribau egon zan. Euskal idazle lez, *Gabon-gaberako Ikuskizura* eratu eban -zuan-. Antzerki txiki bat dogu, poliki antolatirik, Ba-dau -du- gatza ta giarra.

—JOSE PAULO ULIBARRI (1775-1847). Okendo'ke semea, baiña bizitza osoan Bilbaon bizi Lana. Albaiterua, edo abere-sendagille. *Gabonkantak* eta *Gutur*; liburuagatik naiko ospetsu dogu.

JUAN ETXAMENDI, «Bordel» (1792-1897). Luzaide'ko bertsolari trebea.

JOSE MARIA LAKOIZKETA (1831-1881). Gizaseme ona ta jakituna. Euskal-

erriko landarak aztertzen emon -eman-eban bere bizialdia.

—MARIANO MENDIGATXA (1832-1926). Nekarazia. Bonaparte'ren eta Azkue'ren Laguna.

—DAMASO LEGAZ (1838-1902). Arizkun'goa. Berak osotu eban -zuan- *Kristau-aren Ikasbidea* (Iruña, 1880). Ederto egiña.




Amonaren ikurriña

Ene Andregaiari

Andregai gaztea, otoi, barkatu,
enetzat nola ote zira mintzatu?
Egundaino etzaitut pensetan xerkatu;
Zeren gainian zira hola deklaratu,
 Biluak urretu
 beharrak ba'nitu,
 zuk ez nahiz hartu,
Zu ez bezalakorik nahi dut hautatu.

(Bordel)

- Gaizki egiña
laster azaldu,
naiz-ta gaizkitiak
ondo estaldu.
- Etsaletatik, Jauna,
aska nazazu;
Zu bait zaitut
babes-leku.



FELIPE ARRESE BEITIA
1841-1909)

Arnas aundiko gizasemea izan yakun -ziztaigun- Arrese Beitia, bere garaian. Gaur ere, itzal biziz begiratua da geienik. «Biotz sutsu aren garra **diño** L. Mitxelena'k— ezta oraindik illaundu».

Otxandio'n, untzez eta antxiña bateko gauzaz entzutetsu dogun errian munduratu zan. Gazteiz'en ikasi eban -zuan- marrazkigintza, dibujoa. Beste ikasketa guztiak osotu ta bere bizialdi guztian Otxandio'n egona dogu.

Santugiña zan, eta ortan artista naikoa ona. Bereak ditu leku askotako eleizetako irudiak, berak landuak aurki.

Orrezaz gaiñera, oso maitatua zan errian. Edozein estualdi edo premiñatan, beragana jo oi eben -zuten- otxandiotarrak. Kristifiva legez, unero agertu izan zan arteza, bere olerkietatik agiri danez: eliz-kantak ez-ezik, bestelakoak bere, goi-ixuriz gaiñezka daukaguz -dauzkagu-.

Olerkari

Biotz-ondo ugariko olerkaria danik ez daikegu uka. Ezta arritzekoa. Garai aretan, zoritxarpean aurkitzen zan Euskalerria: 1873-76 bitartean, burrukaldi gogorrak euki zituen, gure lur gaiñean batez be, karlatarrak eta liberalak. Gure erriak, iñok baiño sutsuago jokatu eban -zuan- On Karlos'en alde; baiña, norbaitek galdu bear eta karlatarrak azpiratuak izan ziran.

Ondoren latzak etorri yakozan -zitaizkion- ortik Euskalerrri osoari: lendik be naiko murriztuta egozan lege-zar eta eus-

kaldunok geunkazan eskubideak, oso-osoan moztuak izan ziran.

Eta orduko euskaldun zintzoak ditugu, euskeraz ta erderaz, bakotxak al eban -zuan- lez, leoi baten antzera orroe egin ebenak -zutenak-.

Arrese Beitia ere, zoritxar ortatik garra-sika jagitako olerkaria dogu -degu-. Or bere «*Ama Euskeraren azken agurra*», 1880'an Elizondo'ko euskal jaietan saritu eutsoena -ziotena-. Irakur aapaldi batzuk.



**Neure biotzeko Amatxo zarra,
antxiñako ama Euskera,
seme leial bat orain datortzu
azken agurra emotera;
ainbeste gerra goitu ezinda
danori atsotu zara,
zaurilen zauriz galdu galduta,
amatxo, zuaz iltera...**

Nun dira bada zure semiak
Foru ta euskera zaliak?
Nun dira, bada, Tukal, gure alta,
zure ondorengo garbiak?
Nun dira bada zure ume zintzo
eta leialen legiak?
Nun dira orain, orain negarrak,
nun dira nire begiak?

Agur illun bat egin deuskue
guraso zarren legiak.
Umezurtz batzuk gelditu gara
billosik foru bagiak;
izan bagifia eurak legetxe
Euskeriaren zaliak
oso ta garbi gordeko ziran
oitura aín miragarriak...

Ai!, neure ama, gaurko semiak
deritxat dagoz aztuta,
estura onetan lagundutera
iñor ez da agertuta;
il zaité bada, bakar ta soilik,
Paradisuko izketa,
sei milla urtian ainbeste damu
garratz mingotz irtmtsita.

Zer al dalketzut, Ama, bakarrik
agonia estu orretan?
Zotin, zizpuru, negarrez urtu
etzlitik zure onetan;
parka eskatu seme danentzat
biotzez bene-benetan,
zure arimia lagun ipinten
Jainkoaren eskuetan.

(Arrese Beittal)

Arrese Beitia'ren euskal lana

Entzute zolia izan dabe -dute- Arrese'ren bertso-lanak. Bere egunetan agertzen ziran aldizkari guztietan idatzi eban -zuan- zerbait, ugari idatzi ere, beti bertsoetan. Iru oneitan batez ere: «Euskal-Erria»-n, «Euskalzale»-n eta «Ibaizabal»-en.

Liburuok ere osotu ziran, berak eta ondorengoak eraginda: 1) *Ama Euskeriaren Liburu kantaria* (Bilbao, 1900); 2) *Asti-orduetako bertsozko lanak* (Bilbao, 1902);

3) *Olerkiak* (Zornotza, 1933), « Jaungoiko-Zale» bazkunak argitaratutako bilduma, ta 4) *Olerkiak* (Bilbao, 1956), nik atondu ta azaldu neban -nuan- poesi-sorta.

Bederatzi zatitan banandu nitun nik Arrese'ren bertsoak: 1) *Kantu errikoiak*; 2) *Lirika kantuak*; 3) *Gora kantuak*; 4) *Amalaukoak*; 5) *Elizkantak*; 6) *Alegiak*; 7) *Ipuiñak*; 8) *Irakurgaiak*, eta 9) *Erderatik euskeratuak*. Sail ederrak dituzu.

Iritziak

A. Kanpion'ek: «Olerkari gorengoa dugu Arrese, euskal olerkaria gero, ta aberri-miña kantatzen iñortxo baiño euskaldunago dana».

Eta L. Mitxelena'k: «Biotzondoa badu, izkuntza aberatsa ere bai; egiazko lirikoa osatzen duen zera, ordea, euskeraz geroz-

tik agertu den zer berezi ori, falta zaio».

Arrese'k biotza eban -zuan- iturri, apar gaiñezka. Eta Iparragirre'kin batera, erri igarle dogu, bere aldikoen kezka ta gura-riak koplá gartsutan gorputz egiñik itxi euskuzanak -zizkigunak-,



EUSKALDUN JAIO NINTZAN

**Neure anaiak, bat izan beti
euskeldun siniskeretan;
bat izan geure uste, eretxi,
zogo eta asmuetan.
Euskaldun jaio nintzan,
euskaldun azi;
euskara utsik amak
eustan irakatsi;
Euskara maite maite,
zabiltz neugaz beti-
euskara il ezkeru,
ez dot gura bizi.**

(Arrese Beitia)



Mundaka

— Geroa,
alperraren leloa.

★ ★ ★

— Gaitz orok du
bere gaitzagoa.

★ ★ ★

— Kanpoan uso,
etxean bela.

Neskame gazteak etzekoandreari:

— **Etxekoandre: ezkontzeko asmoa dot,**
datorren illean!

— **Ederto, neska! Bakarrik, alan be, pe.**
naz Itxtko nozu etxean.

— **Ez, etzekoandre! Zugaz egongo naz.**

— **Eta ori onartuko dau zure ezkongaiak?**

— **Bai, orixe! Zure semeagaz ezkontzen**
naz eta!

JOSE MANUEL ETXEITA (/842-1915)

Kantauri itxas ertzean, Mundaka'n, jaio yakun -zitzaigun- Etxeita. Il bere bertan il zan, luzaro erbeste zear ibilli ondoren.

Bilbao'n Nautika gaiak ikasi zituanean, itxas-adarrak urratzen jardun eban -zuan- Europa ta Amerika guztian. Azkenez, Manila'n geratu zan Larrinaga itxas-ontzi etxe-

ko zuzendari, Filipinas'ko ugarte aretan urte mordoan bizi izanik.

Kargu asko ta erantzun aundikoak euki zituan; Manila'ko alkate izatera be eldu zan.

Guenean, bere jaioterrira biurtu ta euskerari lotua igaro zitun bizitzako azken urteak,

Euskal Zana

Iru liburu idatzi ta argitara ekarri ziztuan: 1) *Josetxo* (Durango, 1909); eleberria; 368 orrialde. 2) *Jaioterri maitia* (Durango, 1910); artzain nobela; 255 orrial-

de; ta 3) *Au, ori ta bestia* (Durango, 1913). Neurtitz liburua, aurretik ere orduko aldizkarietan eta bere nobela bietan sartu zituan olerkiakaz osotua.



ARTZAIN ABESTIA

Egunabarraz itzartzen *gara*,
mendiratzeko ardiak,
ikusgarriko artaldiakaz
beteten doguz mendiak.
Ortik-emetik joten dituguz
alboka soñu zoliak,
olantxe beti izan ol dira
artzañen zorakeriak.

Artzain guztiok, neska ta mutil,
arixtantaien azpian,
jarriten gara pozez beterik,
zoragarriko mendian.
Uste dogula an gagozala
geure asaben errian,
toki oberik ezta egongo
gure Lurbira guztian.

Bee..... ortik eta bee... emetik be
egunabarraz batera,
larrara duaz ardi ederrak
bedarra gogoz jatera;
bee... ortik eta bee... emetik be
diadarrakaz ostera,
zoli ta pozik biurtzen dira
illunabarraz etxera.

Sarri-sarritan egon oi dira
mendiko bide txarretan
lupetzak eta edurrik asko,
neguko egun otzetan.
Orrek nekiok daukaguzan lez
betiko ekanduetan,
gogaldi onaz gabiltzaz beti
artzñoek geure lenetan.
Ardiak dakaskuez
diru urredunak,
bildots, ezne ta gaztai,
ugari egunak.
Ardi-ule ta narru,
aragi ta azurrak,
orra zeinbat dirlan
euren ondasunak.

(J. M. Etxeita)

Iritziak

Eusebio Erkiaga'k: «Arima kezcatsua eban gure idazle itxastarrak. Zeaztasunak zuzen ta zur emoten oitua nunbait eta, es-tadiztika zale amurratua da. Zerzelada ta koxka ta buru buztanak, ziur esaten dakiz».

Nobela biak gai bardiñez ikusi ta ezagu-

tu zituan itxas-barruti ta lur-aldeetan jar-ten gaitue.

Euskera errikoia dau, gauza guztiak bi-zi-bizi azaltzen ditu. Orduko giroari eran-tsia, erromantiku usaiña ba-da nixkat.



Mundaka eta itsasaldea

**Ludi onetan inguraturik
sortaldetik sartaldera,
aurkituten da osin andi bat,
O, zein ederra da bera!
Zabal ta sakon toki askotan,
azal ta bedar ostera,
noizbait dakusku gora-beraka,
noizbait ixpillu antzera.**

**Kresal ur eder ustelbagea,
da beti sortu zanetik,
arrain iririak ugari ditu
alde bat eta bestetik.
Aldenduten dau arrantzalia
urrikerien artetik,
eta yatorku arraiña beti
osin zabal orretatik.**

**Bere ganian, Ludian ziar,
billatzen dira bidiak,
orretarako itxas-gizonak
ikasten dabez legiak.
Eta baketsu dagozania
uraren gare-aldialc,
atsegintsuak izan oi urra
ibilte neke bagiak.**

**Baiña ekaitzak bultza ezkeru,
ur zabalaren ganian,
arin jarten da guztiz aserre
burrugarlen antzian.
Mendiak lako bagak jasota,
bitsez beterik tartian,
iruntsi nairik dagon gudtia
ekaitza duan bidian.**

(J. M. Etxeita)

Beste idazle Batzuk

—SIMON ERKIAGA (1843-1922). Izpazter'ko seme, Baserritarra. Azkue'k zuzendutako «Euskalzale»-n idazten eban -zuan-. Euskal esaera politez eta zentzuneko z be-terik dagoz bere lanak.

—JUAN JOSE MAGUR_EGI (1860-1930). Xemein'go seme. Apaiza. Barinaga'n eta Bolibar'en egin eban -zuan- arimazaiña. «Euskalzale»-ko idazle.

—AITA JUAN BIZENTE ZENGOTITA-BENGOA (1862-1943). Berriztarra. Izen andiko karmeldarra. Bere aberritik urrin aurkitzen zala idatzi ta argitaratu eban -zuan- liburu au: «Karmer:go *Anaije*» (Valencia, 1888). 104 orri.

—JUAN IZURRATEGI (1863-1938). Bilbao'n jaioa. Urte askotan Elorrio'ko txaunburu. Sermolari ona. Lau liburu idatzi zituan: 1) «*Umetxuen Jauna Artuterako berbaldi laburrak*» (1912); 2) «*Jose Deunaren Bederatziurrena*» (Zornotza, 1921); 3) «*Jerusalen osterear, semeak amari*» (Zornotza, 1923), ta 4) «*Urteko igande guztietako Goizpar edo .Ubanjelioak*» (Bergara, 1934). Berrogetamasei itzaldi dituzu, berak 46 urtez Elorrio'n arimazain egiñik, erriari esanak nunbait.

—JOSE IÑAZIO GERRIKO (1806-1883)• Jesulaguna. Mixiolari ospetsua Euskalerrian eta 1859'tik aurrera, «*Misio Santuaren Oroipena*» (Bilbao, 1853) osotu eban -zuan-.

—PATRTZIO ANTONIO ORKAT2TEGI (181.0-1924). Andoain'go seme. Apaiza. Tolosa'ko artzipreste, luzaro. Euskaltzale zintzoa. Asko idatzi eban bere garaiko al-dizkarietan, baita liburu mordoxka argitara ekarri ere.

—SERAFIN BAROXA ZORNOTZA (1840-1912). Donostiarra. Euskal idazle jatorra. Ainbat ipuin, teatru-lan eta irakurgai ondu zituen, euskeraz ta erderaz. Umore onekoa agertzen da beti.

—BIKTORIANO IRAOLA (1841-1919). Pasai San Juan'eko semea. Gizakume men eta langillea. Euskal idazlari ugari-ugaria. Initan banandu daikeguz bere lanak: 1) *Kontuak*; 2) *Olerkiak*, eta 3) *Teatru-zatiak*.

—PEDRO MIGEL URRUZUNO (1944-1923). Apaiz agurgarri ta ona. Elgoibar'en jaioa. Euskal idazle ona, umorez txipristin-dutako lan askoren jabe. Izkuntza ta idaz-tankera oso errikoiak darabiltza.

ITZAK

Zertzelada, zeaztasun.
Tantai, zugatz aundi.
Lurbira, mundu.
Gogaldi, umore.
Baga, olatu.

ADITZAK

Dakaskuez, ekarten dauskuez.
Dakusku, ikusten dogu.
Oitua, egiña.
Urratu, rozar.
Onartu, aintzat artu.

GERNIKA'RI

Nire biotzak zuretzako dau
bere tokirik onena;
mundu guztiko errietatik,
Gernika, zaitut maitena,
eta zelan ez, baldin bazara
erririk euskaldunena,
ta aman aotik kantu gozuan
ikasi neban izena?

Nik ez nekian nun zan Gernika
ume nintzala oraindik,
ta irudimenez ikusten neban
(ameslari bat izanik)
andre zabal on baten gisara,
ibar berdean jarririk,
uri eder ta zuri garbi bat
Aritzak kerizpeturik,

Gaur ikusten dot Gernika'rentzat
esperantzaren argia;
eskol'onetan barriz barriro
ereingo da birtutia.
Ta itxaro geinke Jaungoikuagan
egun obak ikustia.
Miraritsua fedia da-ta,
emen badago fedial!

(Txomin Agirre)



TXOMIN AGIRRE (1864-1920)

Ondarru'ko semea. Bere gurasoak: Ma' nuel Bizente, Motriku'koa, ta Mari Madalen Badiola, ondarrutarra.

Biotz onekoa ta buru argikoa zetorren umetatik; eta, Bilbao'n, Iburguengoitia apaiz jaunaren ardurapean egin zituan lenengo abade ikasketak.

Ogei urteko zala Gazteiz'era aldatu ta an ikasi euskuzan -zizkigun- Filosofia eta Teologia, urte guztietan nota ederrak aterarik. Azkue, Izurrategi ta olakoak izan zituan ikas-lagun. Izatez Azkue odol-gorri ei zan eta Agirre odol-zuri; Azkue'k okerkeritxoren baten ordaiña artu bearra izaten eban -zuan-; Agirre etzan bein bere zuzenetik okertzen, eta eleizan izan ezik, ez eban -zuan- iñok bc belaubiko ikusi.

Urkiola'n esan eban -zuan-, bere lenengo meza. Eta laster Zumaia'ra bialdua izan zan, ango Karidadeko karmeldar mojen kappellau. Ementxe egon zan bere bizi guztian. Etzan egundo be geldi egon. Bere egitekoa alik eta zeatzen beterik, erriz erri itzaldiak be naikotan egin zituan.

Ontaz gaiñ euskaltzale egiazkoa zan; euskeraz ederto zekian umetatik; orduko euskaltzale guztiakin artu-emon bero-beroa euki eban -zuan-. 1918'an Oñati'n Euskaltzaindia sortuteko asmua artu zanean, batzarkide zan Txomin Agirre; geiago, euskera sailleko taldearen buru izentatu eben -zuten-. Baita urrengo urtean euskaltzain osotzat aukeratu ere. 1920-1-14'an il zan, auleriak jota.

Idazle bikain

Euskal idazle ugaria dogu. Ona ta fiña; gozo-gozo idatzi zituan bere zer guztiak.

Oneik dituzu bere lanik urtenanak:

1) *Auñemendiko Lorea* (Bilbao, 1898). 1966'an ere, euskeraz ta erderaz argitaratua.

2) *Kresala* (Durango, 1906). Askoren eritxiz, Txomin Agirre-ren nobelarik obere-na. Bizkaieraz. Iru bidar beintzat argia

ikusitakoa. Espaiñerara ta frantsesera ere itzulia.

3) *Garoa* (Durango, 1912). Gipuzkeraz. Lau aldiz irarria. Euskal oiturazko eleberria dozu -dezu-.

Eta beste oneik: 1) *A. Larramendi'ren bizitzaren berri laburra*; 2) *Joan-etorri bat Erromara*; 3) *Itziar'ko Amaren kondaira*; 4) *Ni ta ni*; 5) *Larralde'ko Lorea*, eta 6) Ondarrak,



Ondarru, gizaldiaren asieran

Ekatxa

«Bildurgarrizkoa egoan Kantauri'ko itxasoa. Ur-lañozko estalki andi bat jarri yakon gaiñalde guztian, beren itxura gaiztoko aserrea eskutau nairik legez; betaurerik onenakaz beti uraldera begira egozanak ia ez eben ezer ikusten; agiri zan itxaso apurra berde baltzeran irakindua egoan, eta irakiñaren dardareak azal guztian atara eutsazan apar zuriak igarian ebiltzan itxasartz gizon jantzailleak zirudien. An barruan, laiñoak eta bisutsak estaldurik eukazan ur gazi zabaletan, gauza arrigarriren batzuk gertetan ziran, baga ta olatuen orruak ziñoenez.

Uste onetan egozan beintzat Arranondo'ko gizataldeak eta, beste olango eretietan legez, Jaungoikoaren errukiari eskari apal bat egiteko asmo zuzena artu eben danak. Asi zan eliz-ezkilarik andiena, durundirik lodi ta illunenekoa, astiro astiro, noizean bein daungada bat joten, eta asi ziran ikastetxeko mutilxoak kalean

zear, makilla baten gaiñean oial zati baltza atzeratuaz, euren erakustzaillea aurretik ebiela, aingeruen gisako dei zoli bigunakaz Garbitokiko arimentzat eskean eta itxasogaz burruka gogorrean ebiltzan gurasoentzat zeruetako Aitari arren egiten.

Zelango arrena! Gauza samurragorik eztau iñok egundo ikusi. Umeak gurasoen bitarteko, errubageak iñoiz gaiztekerian jausi diranen alde, indarrak eztaukienak indardunai lagundu naian, aingerutxoak gizonakaitik eskatuten, negarrez geienak, negarra ezarkorra da-ta, batak bere arrebea ta besteak bere ama negarrez ikusi dituelako! Itxas-errietako umien arrena, euren txapeltxoak eskuan dituela, begi bustiak zerura jasoaz esaten dabien *A itagurea*, Jaunaren agintaulkira zuzen-zuzen doiala uste dot nik eskari orrek, askotan, euren gaitasunak eta indarrak baiño geiago erakarten dituala etxaldera Kantauria itxasoko arrantzale gizagaizoak» (T. Agirre, *Kresala*).



I ritzialk

Orixe'k: «Euskera garbia ta ugaria du, ta naiz bizkaieraz, naiz gi^Puzkeraz, irakurgai ederrak utzi dizkigu: *Garoa, Kresala, Añemendiko Lorea...*»

Aita P. Lhande'k: «*Garoa* da gure Txomin'ek idatzi duan irakurgai ederrena, ta beñere euskeraz idatzi izan dan ikusgarriena dala baditeke. Kondaira pollit mee baten inguruan egilleak euskaldun nekazariaren bizitzako egikizun geienak josi ditu».

L. Mitxelena'k: «Aukerakoa zan adierazteko esku arin ta zeatza. Or dauzka orrialde orietan, egia dan ala ez bere begiz ikusi nai lukeanak, Arranondoko kale

oker, aldapatsuak, itsasoaren (eta itsas-gizonen) zalapartak eta bazter guztietatik darion arrai-usaia. Eztut onenbestez esan nai Agirre'k etzuela barrena begiratzen. Gizonaren biotzeko izkutuen berri ere bazekien».

K. Etxegarai'k: «Bere bizitzean surik ez badu, nondik aterako du olerkariak besteren biotzean piztu bear duen garra? Ezeretik gauzak sortzen oraindik ez du gizonak ikasi... Gure Agirre, oetakoa zan. Bere biotzean berotzen etzan itzik, etzan bere ezpañetatik ateratzen».

Tirabira

Olerkitxoak, ipuiñak eta osterantzeko asko idatzi zituen Agirre'k. Baiña batez be, bere erriko itxasoko goraberek kantatzen ditu sentikorren. Irakur ondorengo ataltxo au.

«Gabon aurrettoa zan. Ba-gagoz, ba-gagoz, ba-gagoz illun-abarrean, potin txiki baten lau laguntxu, berdeletan, Orio'ko aurrean. Bakarrik gelditu giñanian, berandu be bazala-ta, otz be baegoala-ta, arrain pizka bat be bageukala ta... asi giñan etxeruntz. *Terraltxo*a egoan, legorretik datorren aizea. Jaso genduan triketa, ta ba-getozan kezka barik, atzekoak eskuak besapean berotuten zituan bitartean, es-

kota tosta bati lotuta genkarrela... ta, alako baten, *brast*, joten gaitu aize bunbada gogor batek, eta *dsaust* danok itxasora, txalopa barruko arrain, otzara, soka ta tresna guztiakaz batera ta nastean. Alan be urten genduan urazpitik, or batak eta emen besteak, danok otzak ikaraz; inguratu giñan, igarian, popaz gora egoan txalopara, ta itandu geuntsan alkarri: «gizonak, zer izan da au?» Baiña iñok erantzun bearrik ez egoan, guztiok genkian da. Ardurabagekeritxu bat, ustekida geiegia. Zeñi, baiña, otuko yakon alangorik itxasoa bare-bare ba-egoan?»





Donostia

— Ule luzea,
zentsun laburra.

• * *

— Liburu txikia,
andia baiño obia.

* * *

— Eztia ta ozpin,
gogo ta on egin.

— Zazpiri zazpi kendu ezkerok, zenbat gelditzen yatzuz?

— Zazpi, jauna.

— Gizona, entzun ondo. Zuk zazpi laueé rrealeko daukazuz orain; baiña etxera joandakoan, zazpi lau errealeko orreik galduko ba'zenduz, zer izango zeunke patrikaran?

— Zuloa, jauna.

Teatrugilleak

Edestiaren ondarrean ezkututzen yaku -zaigu- euskal teatruaren asiera. Or ditugu Zuberoa'ko pastoralak, eta aurrerago ere gure nekazari ta artzaiñak sarri aurkeztuko zituen olgeta, jolasaldi, par-antzerki ta olakoak: euskalduna beti izan da zorrotz asmotsua.

Aurreko gizaldietan, Gabon aldera batez be, antzeztu oi ziran noelak, marijesak, gabon-sariak, pastoralak, Arrasateko eskribau ospetsu Pedro Iñazio Barrantia'ren *Gabon-gaberako Ikuskizuna*. Konde Florida'ren *El Borracho Burlado* ta besteak aitatu bakarrik egiñik ere, emeretzi ta ogeigarren gizaldien arteko garaiak bere

ugaritasuna erakutsi euskun -zigun- teatruzelaietan.

Marzelino Soroa, Artolatarrak, Azkarate, Uranga, Iraola, Alzaga, Gorostidi, Mokoroa, Zapirain, Barriola ta abar-ditugu euskal antzerki ta teatrua goi-goiraño jaso ebenak -zutenak-.

1880'an giro ederra sortu eban -zuan- M. Soroa'k. Gero, 1882'an, Donostia'ko Lore-Jokuen Batzarrak teatru-lanik onena sariztatzeko asmoa artu eban -zuan-. Eta sariketa ortatik, eta ondorengoetatik, sortuak dituzu geien bat euskal teatrua erpinañeraiño jaso eben -zuten- antzerki-idazleak.

TORIBIO ALTZAGA (1861-1941)

Donostiarra. Anai arteko gerra (1873-1876) bitartean mugaz bestekaldetik, Zibururitu erritxoan bizi izan zan batxiller karrera ere bertan amaiturik. Antxe asi zan antzerkiak egiten: amairu urteko mutiko zala, Marzelino Soroa'ren agindupean *Iriyarena* komeria lenengoz emon ebenean -zutenean-, Altzaga'k ere parte artu eban -zuan-. Antxe idatzi eban, gaiñera, bere lenengo antzerkia: *Aterako gera* (1888); saritua, sarri antzeztua ta amabi aldiz beintzat argitara ekarritakoa. Altzaga'k ondoren 30 bat teatru-lan egin euskuzan -zizkigun-.

Gerra amaitu ta gauzak baretu ziranean, Donosti'ra biurtu ta euskal joerazko an-

tzerki-mota guztietan esku artu eban -zuan-. Santa Maria'ko eliz-saletan eta katoliku biltokietan, eurotako bazkide eragille bait zan, makiñatxu bat gau-batzar eta jolas eder, berak bere pentzutan eraturta sarri, ospatu eban -zuan- *gazteen* artean. Eta aren komeri, jostaillu ta operak euskeraz ziran beti.

Donostia'ko izkera-jardunen eskolako zuzendari ere ba-zan, eta bizitza guztian izan ere. Donostiko Lore-Jokuak eta «Euskal-Erria» aldizkaria, zati baten beintzat bere ardurapean ibilli ziran. 1930'an erriomenaldi ederra izan eban **Donostia**'n bertan. Eta atzenez, urtez beterik, bertan il zan 1941-5-27'an,



Teatru-lanak

Guztiak aitatzea be zail yakun -zaigun- ezkeru, ona batzuk beintzat.

1) *Aterako gera* (1888); ekitaldi bitakoa.

2) *Santo Tomas feriya* (1894); eki, taldi bateko antzerkia.

3) *T xanton Piperri* (1891); iru ekitalditako opera, B. Zapiain'en musikarekin.

4) *Bernatho'ren larriyak* (1923); ekitaldi bateko tarte-solasa.

5) *Txibiribiri* (1922); ekitaldi batekoa.

6) *Ramuntxo* (1961, «Auspoa»); tru jarduneko drama.

7) *Eleizatxoko Andazlea* (1929); bi jarduneko antzerkia.

8) *Bost urtian* (1929); bi jarduneko antzerkia.

9) *Amantxi* (1924); bi jardunaldikoa.

10) *Irritsa* (1926); Shakespeare'ren *Macbeth* trajeria, euskeraz.

11) *Burruntziya* (1931); jardun bateko antzerkia.

12) *Zanpazar* (1932); jostirudi irrigarria, jardun bitan.



Estropadak Donostian

Iritziak

Teatru-gille ontzat jo izan dabe -dute-beti gure T. Altzaga. Sail orretan gaur be oberena dala dirudi.

Orixe'k: «Euskal teatroa Altzaga'k oial-zapietatik atera digula esan diteke; oiñez ere ederki erakutsi dio, ta bide sendoan jarri; kozkortuxe ere egin dala esan genezake, ta edozein erri tako teatroaren mailera laister igoko dan uste ona degu».

L. Mitxelena'k: «Toribio Altzaga'k —donostiarra au ere Soroa ta Baroja bezela— gipuzkoar teatruaren edertasuna jasotzea iritxi du, bere errikoi izatea ken-

du gabe alegia, antzerki jator zerrenda eder galantaz eta beste itzulpen batzuekin... Komeri atsegiñak idazteko bere aurretikoak baiño teatru-zentzun, irri-gatz eta antzez lagun bakoitza nordantzeko begi ohea zeukan».

Altzaga'k eta bere ingurukoak bazekien euskera zabaldu ta jasoteko biderik egokiena, antzerkia dala. Irakurteko gogorik ez dabenak -dutenak- be komeriak ikusterera joan oi dira. Irakurten ez dakienai, barriz, begietatik eta belarrietatik sartzen yake -zaie- euskera.

MARZELINO SOROA (1848-1902)

Altzaga'ren inguruan leku egokia me-rezi dau -du- M. Soroa donostiarrak. Lan-gille aspergaitza izan zan euskal teatru sai-llan. Euskeraz ta erderaz asko idatzi eban -zuan-.

1) *Anton kaiku*; 2) *Gabon*; 3) *Au osta-tuba*; 4) *Lapurrak, Lapurrak!*; 5) *Alkate*

berriya; 6) *Barrenen arra*; 7) *Urrutiko in-txaurrak*; 8) *Gorgoniorey, Estuasunak edo Boltsa galdu*; 9) *Ezer ez ta festa*; 10) *Abek istillubak!*; 11) *Bañan zein naiz ni?*; 12) *Auxen da eguna*.

—Anton Kaiku—

Anton Kaiku eskribauagana doa; barnera sartu nairik, atea joten dautso,

—Zein da?

Ni, mintsu bat.

—Miñez daguana ospitalera.

—Aguro eramango nau, eskribau jaunak nere egitekua pixka bat luzatzen badu.

—Ni ez naiz pobriarcn letraduba.

Badakit, jauna, pobriak zeruban bakarrik dituztela letradubak.

—Nik ezagutzen zaitut.

Ez, jauna.

Ez? Anton, bai, bai. Zubek bi anai ziñaten eta kartzelatik neregatik libratu ziña ten.

Bai, jauna.

Eta esan ziraten zubetako bat gero kartzelan il zala.

Egia esateko, enitzan ni il.

—Bai: ikusten det. Eta zertara zatoz?

Ni bedorreck eskudatzeko nagusiaren kontra.

Oso egitckoz betia nago eta ezin sartuko naiz itxillu oietan.

--Orra bada, nik pagatuko nioke seguru eta doble.

--Gizarajua, tira, tira, ez da gaizki esana. Konta nazu egiaz guztia.

Orra bada, jauna... ni naiz artzaia, bañan nola basuan beti egonda gauden, batek ez daki zer egin eta gogoratu zitzairan merkatari sartzia.

Zeñekin?

—Arakiñarekin.

--Eta nola?

—Nola bastangarekin arkume asko iltzen zan, basta gatik libratzen.

--Ori txit ona da...

|(M. Soroa)

R. M. AZKUE (1864-1951)

Kantauri itxas-ertzean datzan Lekeitio erri txanbeliñean jaioa dogu -degu- giza-
 seme au. Lekeitiarra zan bere aita ere,
 Eusebio Maria, euskal olerkari bere bizi-
 koa. Mundaka'koa eban -zuan- ama, Kar-
 men Aberasturi, euskal lanetan semeari
 ainbat lagundu eutsona -ziona-.

Gaztetatik sumatu eban -zuan- eleiz-
 deiari erantzunik, Gazteiz'en eta Salaman-
 ka'n osotu zituan bere ikasteak. 1888'an
 abestu eban bere meza barria, andik iru
 urtera, Teolojian ain zuzen, Irakasle (Doc-
 tor) titulua ere jaritxirik.

Adimen argikoa zan, bizia ta zolia; las-
 ter eta sakon aztertzen eban -zuan- zana za-


lako. Oroimen arrigarria eban, eta naimen
 oso sendoa.

Langille porrokatua zan, euskal arloan
 batez ere. Bilbao'n, Jardines kalean eukan
 euskerazko eskola, eta emendik ezin *esan*
 ala lan burutu euskun -zigun-. Berton
 eukan antzoki bat umetxoai teatrua era-
 kusteko; emen eukazan -zeuzkan- *Eus-
 kalzale* ta *Ibaizabal* asterokoen lantokiak
 be. Eta Azkue izan zan, Arana Goiri'rekin
 batera, bere garaian euskera illobitik ate-
 ra ebana -zuana-.

Irutan banatu geinke -genezake- Az-
 kue'ren lana: 1) Euskalari; 2) musikalari,
 ta 3) idazle.



**Resurrección
 María
 Azkue**



Lekeitio

Azkue, euskalari

Euskalari ta gramatikalari bezela lan izugarria egin eban -zuan- Azkue zanak.

Azkue, Musikalari

Atsegin yakon -zitzaion- Azkue'ri euskal musika, ta gazterik ikasi eban -zuan- be-
rau landu, jaso ta edertzen. Zenbat euskal
eresi zar batu eban -zuan-! Eta kanta za-
rrok txortatzea besterik egin ezpa-leu ere,
ondo irabazia eban -zuan- betiko izena.

Ona aren musika lanik beteenak, urtez
urte saillean jarrita.

1) *Euskerazko eresiak*. Kantu-saillak
dituzu, lau musika kuadernu.

2) *Eleizarako Eresiak*. Sei kuadernu
eleiz musikaz.

3) *Eres-antz2rki edo zarzuelak*: a) *V izcavtik Bizkaiara*; b) *Sasi-eskola*; d)

Ez yaku -zaigu- errez izango euskaldunoi
aren goi-maillako lanari merezi dauan ga-
rantzia ezartea.

1) *Euskal Izkindea* (Bilbao, 1891).
401 orrialde. Euskeraz ta ederazko gra-
matika. Bizkaiko Aldundiak argitaratu
eban -zuan-.

2) *El Euskera* (Bilbao, 1897). Euske-
raz ikasteko.

3) *Diccionario vasco-español-frcs*
(Tours, 1905-1906). Ale bi; lenengoak
561 orrialde ta 487 bigarrenak. Lan eder-
ederra; gaztetan egiña. Amabost urteko
lana, berberak diñoskunez.

4) *Prontuario facil para el estudio de
la lengua vasca* (Bilbao, 1917). Euskeraz
ikasteko lan bikaiña.

5) *Diccionario de bolsillo* (Bilbao,
1918). Liburutxo antzean argitaratua;
euskeraz ta erderaz, eta iruntzietara.

6) *Morfologia vasca* (Bilbao, 1923).
930 orrialde. Ikaspide on egokia, «eus-
kera sakon-sakon ikasteko ta berbetean
erabilli oi doguzan utsak eta oker esanak
zuzentzeko», N. Oleaga'k idatzi eban ez
-zuanez-.

7) *Gipuzkera osotua* (Bermeo, 1935).
184 orrialde. Morfologia osotzeko egin
eban lana, elburu bati begira: euskalkien
batasuna.

Garbi-zale zan Azkue, liburu oneitatik
atera geinkenez.

A itaren bildur; e) *Gaihzabale'ko eiztaria*;
f) *Eguzkia nora*, eta abar.

4) Iru oratorio: *Daniel*, *Lamindano*
ta *Andra Urraka*.

5) *Ortzuri* (Bilbao, 1909). Opera, iru
zatitan eratua, euskeraz eta erderaz. 1911'
an aurkeztu zan *Itxasora* deritzan zatia.

6) *Urlo* (Bilbao, 1911). 348 orrialde
ditu partitureak. Opera. Musika ta letra
—euskeraz, gazteleraz eta doitxeraz— be-
reak ditu.

7) *Cancionero vasco popular* (Barze-
lona, 1918). 12 ale. Lan izugarri bikaiña.

Azkue, idazle

Euskal idazle dogu Azkue, eta bitxi-batzaile era berean. Gramatika, antzerki, itzaldi ta musikaz gaiñera, ba-ditu irakurgai ta nobela jatorrak ere. Belak asmauak batzuk, eta erriaren agotik jasoak beste batzuk. Ikus.

1) *Txirristadak* (Bilbao, 1898). 274 orrialde. Lenengo «Euskalzale»-n argitara zituan irakurkizun barregarriak dituzu, piper-miñez beterik egiñak.

2) *Bein da betiko* (Bilbao, 1890). 128 orrialde. Bizkaierazko elezarra, arin ta errez idatzita.

3) *Jesusen Bioizaren Illa* (Bilbao, 1901). 210 orrialde. Bizkaiko euskeraz.

4) *Ardi galdua* (Bilbao, 1918). Gipuzkeraz egindako nobela.

5) *Itzaldiak* (Donostia, 1923).

6) *Laminak Euskalerrian* (Bilbao, 1927).

7) *Euskalerraren Yakintza* (Madrid, 1935). Lau liburu andi. Lan ederra. Euskalerriko oitura, siñiskeri, ipuin, esakera, erri-olerki, aurjolas, sendakintza, kanta zar, millaka gauza eder batu euskuzan -zizkigun-.

8) *Ipuñak* (Bilbao, 1968). 248 orrialde. Azkue'k gaztetan osoturiko ipuiñakaz, liburu mardula. Ontatik dakusgunez, oso eder-zalea genduan lekeitiarra. Ipuin eta irakurgai laburretan gozo, bigun irauli euskun -zigun- bere arimea.

9) *Ortzuri*. Nobela argitara bagea.

10) *Latsibi*. Nobela au ere, argitaratu barik,



Lekeitio eta itsasaldea

«Emakuma gazte bat, amazortzi urtekoa, buru-eretzia (zein ezta buru-eretzia, emakumea izan, da amazortzi urte euki ezkerro?), beren erritik edo gurasoakandik urtenda bizi zan. Bein beren amari egin eutsan guk euskeratuta darakuskun eskutitz au.

«Ama maitea: izpillu eder bat nai neuke neure jantzoki edo tokadorean ipinteko. Egingo dozu mesede bialdutea? Artega artega egongo naz beran begira».

Arik egun batzuetara, gazteak amagandik eskutitz txiki au artu eban: «Alaba kutuntxua: Laster izango don eskuetan ik eskaturiko izpillua; ez bat bakarrik, baten ordez iru bialdu nai izan daunadaz. Lenengoan ikusiko don zer *aian*; bigarreanean, zer *izango aian*; irugarreanean, *zer izan bear donan*».

Au irakurrira gero, gaztea gogarte edo meditaziñoian gelditu zan luzaro, zelangoz izpilluak izango ete zirean igarri eziñik eta nairik. Aldiari luze eritxola egoan iru izpilluak noiz etorriko.

Iru egun igarota pendiz edo balkoian egoala ikusi eban gizon bat, zama edo karga polit bat lepoan ebalatuta, beren etxeko atarirantz urreratuten. Arrapaladan, esan oi danez, joan zan atera; ta gizon zamadunari itzaroteko bere arte edo sosegu barik, jatsi zan beera; ta ondo ekizan gauzak itanduten asi zan: «noren izenean etorren, norentzakoa zan, zeñ erritatik...»

Beren gelaraiño eroan eutsenean, ta bera bakarrik gelditu zanean, zoro bat legez barrezka noizko baten edegi eban kutxa dortsua. An egozan iru izpilluak, bakotxa banatan paper lodi artan batu-batu eginda. Azalean ekarrena edegi ebanean, bularrak eziñ artu eutson biotza zer ete zan ikusi arte; izpillu polit bat zan, balio andikoa ez, baiña beinik bein, zer zan ondo erakusten eutsana: gazte lirain ederra.

«Ama maite» esan eban pozen pozaz neskatileak eta izpilluari berari mosu egin eutsan.

Bigarren izpillua ataraten asi zan gero. Ezin esan leike gazte aren ikarea, izpilotzat buru-azurra esku artean ikusirik, artu ebana.

Laster igarri eban zer zan amak iragarri gura eutsana, ta luzarotxu• egon zan bigarren izpillura begira, zer *izango* zan ikusten.

Irugarrena zer zan jakiteko ez eukan len gaiña gogo. Sedazko oiালেan batuta irugarren izpilotzat Andra Maria orban bagearen irudia bialdu eutsan amak, zer *izan bear eban* ikusteko» (R. M. Azkue, *Ipuñak*, 119 orr.).

Fer44.4-49
ank4m

Uffi';11
1~41



Mendi-gane baten ebilzan ardi⁷alu mutiko bi, eta era onetan berba egin eben:

—Entzuik, ardi bi emoidazak eta iru geratuko yakazan, baño beste ainbeste geiagogaz geratuko nok ni.

—Gura badok, beste gauza bat egingo voagu: ik emoidak bat eta orduantxe bardin geratuko gaituk.

BUSTINTZA'TAR EBAISTA (1 866-1 929)

Mugarra ta Untzillaitz tarteko erri polita dan Mañari'n jaio zan euskal literaturan «Kirikiño» goitizenez ezagun dogun Bustintza euskal idazle azkarra.

Erriko eskolan egin zituan bere lenengo eskolak, eta gero Durango'n. 1878'an Almansa'ra aldatu zan Bustintza sendi

osoa; eta gure Kirikifio'k emen osotu zituane bere urrengo ikasketak, batxiller eta ibar, gai guztietan ikas-nota ederrak jaritxirik. Amazazpi urtekin Madrid'era joan zan ikasketa nagusiak egiten; 1891'an Si-guenza'n daukagu matematikak erakusten.



Bustintzatar Ebaista

«Kirikino» Bilbao'n

Euskalerritik kanpora, ziba bere ardatzetik urtenda legez zebillen mañaritar argia. Eta 1899'rantza Bilbao'ra etorri zan. Arrezkero guztian bertan bizi **izan** zan, euskal gaiak korapillo sendoz lotu ta ekiniaz.

Azkue'k laster artu eban -zuan- lagun-garri lez, *Euskalzale* aldizkarian: ementxe agertzen dira Kirikifio'ren aurrenengo lanak euskeraz. Gero, Azkue'ren aginduz, *Ibaizabal* zuzendu eban -zuan-. Geroago, oraindik, 1913'tik «Euzkadi» izparringiko *Euzkel-A tala* berak zuzendu eban -zuan- 1928'garren urteraiño.



Baserriko euskeraz kalea indartzen.
Bilboko plaza (XVIII gizaldian)

«Kirikino» irakasle

Irakasle bizkorra izan zan. Bizkai'ko Diputaziñoak euskerazko ikastola bat zeukan aldi aretan, eta antxe irakatsi eban Bustintza'k, lau urtean Azkue jaunaren ordeze eta beste ogei urtean bere arduratan. Euskeraz tautik jakin bage, zenbatek ikasi eban -zuan- errez ta nasai itz egiteko bestean.

Auxe dogu, izan be, Bustintza'ren lanik aipagarriena: euskeraz irakatsiz, bilbotarren biotzak euskal garrean ixiotu. Ikasleak maite zituan; eurakin etzan egundo be irakasle, adiskide barruko baiño. Ika-

le-irakasle arteko maitasun lokarri onen ezaugarri egiazkoak ditugu jaiero ta, ikastaro azkeneruntz batez be, Bizkai'ko erri askotara egin oi zituen ibiltaldi aitzu-ezi-riak.

Izlari ere ba-zan, eta bikaiña. Euskaljaietan eta mitiñetan sua zan aren itza, berbea, eta entzuleen biotzak sutan ipiñi oi zituan. Urte areitan guztiz euskaltzale-tu zan gure erria, ta euskaltzaletze ori, Bizkaia'n batez be, zatitxo bat beintzat, berari zor dautsagu -diogu-.

Euskal idazle

Kirikiño'k amasei urtez ez eban -zuan- beste arazorik izan euskeraz irakatsi ta idatzi baiño. Eta idazkeran, gozo ta errikoi agertzen yaku -zitzaigu- beti. Irudimen ariñekoa zan, eta olako gazi eza ta gatz-ozpin biziarekin gozatzen euskuzan -zizki-gun- bere lanak.

1) *A barrak* (Bilbao, 1918). 121 orrialde. Ogetabat ipuin dira guztiz, euskera ariñean egiñak.

2) *Bigarrego A barrak* (Zornotza, 1930). 190 orrialde. Berrogeta iru ipuin eta iru olerki dira guztira, azal ta mamin

ederto apainduak, gertaera barregarri ta edestitxo orniduta.

3) *A barrak... eta abar* (Bilbao, 1966). 329 orrialde. Or-emen sakabanaturiko lanakaz osotutakoa.

4) *T eatru-sailla*. Etzan urria izan ontan ere. *Anton Berakatz* bakar-izketa ta *Azerijari azerija* ipuiña bereak ditu; baita *Lelo*, *Txomin Arraio* ta *Meza Barriya* berak bizkaieraz jarriak ere.

Ba-daukaz -dauzka_ oindiño olerki politak be.

«Emen edestuko doguna jazo zanetik ona urte asko igazi dira.

Orduan Bilbao'k ogei milla inguru biztanle baño askoz geiago ezebazan. Geruago Begoña'ri artu dautsozan zatiak ez eukozan ondiño. Abando be azke zan, erri banakua. Beraz, Bilbao erri txikia zan, eta biztanle guztiak alkarren ezaunak ziran. Ez eguan orain dagon beste *guardia municipal*, naikua ziran iru edo lau txiñel erria zaintzeko, gabezko *seren'o* kantari batzukaz.

Onelako erri baten aituten da erraz egin leiketela emen edestuko dogun barra-baskeria, erri guztia barre baten ainbat egunian euki ebana.

Bilbotar barregarri batzuk iragarri eben bertako izparringi baten, eztakit nungo erritan il zala atso aberats bat, eta milla ogerleko batzuk utzi ebazala Bilbao'ko erren edo kojoei bananduteko, atsua be errena izan zalako ta Bilbao'n jaiva; diru ori bananduko yakela, Atxuri'n etxe bateko atarian, bertan aurkeztuko ziran erren bilbotarrai, onen egunetan eta onen ordutan.

Bilbao'ko txiro ta gasokillen artian ikara andia eragin eban iragarki orrek, eta egun batzuetan etzan izan beste izketagairik auxe baño.

Eldu zan eguna. Atxuri'ko etxe aretan agiri zan atarian mai bat, beronen ganian tintontzia ta ingiak, iru jezarleku, basterrian zorro batzuk zerez edo arez beterik, eta iru lau gizon, piperra baño serivago, alkarregaz izketa ixiltzuan, atarian batera ta bestera ibilli ebiltzala eperdi-ganian eskuak alkartuta.

Goitzxo asi ziran kojuak agertzen kalian. Geienak etozan makulu bigaz ta anka bata dingiliz; bai-ziran etozanak eperdi-ganian erdi-tatarrez; baita burtxoietan etozanak be iñok bultzaka eruanda. Danak zurbil eta arpegi aulagaz, edonor errukitu-teko lez.

Iragarrita eguan ordurako; kale guztia aurkitzen zan errenez beterik.

Balkoietan eta leiuetan eguan jentiak arrituta esateban: «nok uste izango eban Bilbao'n onenbeste koje eguanik?»

Atarian egozan gizon serivak adirazo eutsien kalekoei diruak gertu ipiñi biar ebezala ta orregaitik pixkaten atia itxiko ebela, ta asko belutu barik, laster asiko zala diru-banantutia.

Itxi eben atia ba, ta gerotxuago barriro zabaldu zanian, tximista baño ariñago urten zan andik, zer uste dozue? Zezentxu bat!!

Nok azaldu an izan zan usubillua Asi zan zezentxua topeka, au bota ta ori *hora*, ta ango ariñeketia kojuak izan arren! Egundoko ariñen, miñuto bat baño lenago, garbitu zan kalia, makillaz ta burtxoez beterik gelditu zala. Millagrua izan zan. Zezena agertu zan orduka koje guztiak osasunera etorri ziran.

Balkoi-leioetako jentia, barriaren barriaz tripa guztia minduta geratu ziran.

Diabrukeri au ikusi eben bilbotar zarrak barre-zoroka asten izan yakuz berau aitatu dogun aldi guztietan.

Amaika gizon gogaldi ederreko jaio ta bizi izan zan lenagoko Bilbao'n!» (*Abarrak*, 1918, 119 orr.).



Mafiarria-ko baserria, Mugarra-peak



**Arrantzaliak baru-ausita
kanpora doiaz zintzoak;
betoz guztiak osasunagaz
eta iñor bere ez gaisorik.**

**Otzaratxo bat,
otzaratxu bi,
arraiña dator
portura beti:
besigu, lebatz,
sardina ta atun,
eta beste asko gaiñeti.**

(J. M. Etxeita)

ARANA GOIRI'TAR SABIN (1865-1903)

Gizon zintzo ta euskatzale amorratu al-bora itxita ere, euskera, gure izkuntza jaso ta aurkitzen zan egoera larritik atera nairik egin zituan lanakaitik aparteko tokia merezi dau -du- euskal literaturaren edesti barruan.

Indar barri bati bidea emon eutson
-zian-, beste zer guztien Indar

ori, egia esan, gaur sentitzen doguna da: gure erriaren kontzientzia zain eta muin berak astindu eban -zuan-. Euskaldunoi geure izkuntza zaindu ta lantzeraz bultz-eragiñik batez be. Au dala-ta, txalogarri dogunik -degunik- ezin ukatu.

Bizitz-ostoak

Bilbao'n —orduan Abando— mundu-ratu zan Sabino. 1873'an, zortzi urteko zala, Lapurdiko Getari erritxora aldatu zan, karlatar gerrak uxatuta. An, Baiona'n eta Donibane-Lohitzun'en egin zituan lenengo ikasketak; gero Orduña'n eta Bar-


zelona'n, Filosofia ta Lege-jakintza ta Elertia ikasirik.

Bitartean baita euskera ikasteari ere naikoa emona zebillen; ortarako Van Eys'en *Dictionaire basque-franÇaise* ta A. Kanpion'en *Gramática Bascongada de los*

cuatro dialectos literarios del Euskera erabilili zituan.

Eusko politikaz ere orduan jabetu zan. 1887'an, ama il yakonean -zitzaionean- (aita illa eban aurretik), Bilbo'ra aldatu ta

ementxe, il arte guztian, lan ikaragarria burutu eban -zuan- lumaz eta mingaiñez. Aldizkari ta egunerokoak sortzen zituan ortarako. Azkenez, Sukarrieta'n il zan, 1903-11-25'an.



Bere lanak

Borondate sendoaren jabe zan Arana Goiri, ta etzan egundo kikildu bizi-bidean jaiki yakozan -zitzaizkion- eragozpenen aurean. Gogoko yakon -zitzaion- azterketta lana ta ortan ari izan zan aspertu barik: asaben izkuntza jaso ta bitxitu, ona emen aren asmo ta elburuetatik bat. Itxorkun eta etimolojiz, gramatika ta eskola liburuz, eleder ta musikaz, zenbat lan eder euskeraz ta erderaz!

Emen lan orreïn -oien- erreskadatxo bat.

1) *Etimologias euskericas* (Bilbao, 1897); 2) *Gram/Itica elemental del euskera bizkaino* (Barzelona, 1888); 3) *Pliegos hist6rico-politicos* (Bilbao, 1888); 4) *Bizkaya por su independencia* (Bilbao, 1892); 5) *Bizkaitarra* (Bilbao, 1893-95); 6) *Lec-*

ciones de ortografia del euskera bizkaino (Bilbao, 1896); 7) *Tratado etimol6gico de los apellidos euskericos* (Bilbao, 1897); 8) *Umiaren lenengo aizkidea Bizkaiko euzkeraz irakurtzen ikasteko* (Bilbao, 1897); 9) *Egutegi bizkaiterra* (Bilbao, 1897), ziskureko ta ormarako; 10) *Baserritarra* (Bilbao, 1897); 11) *El Correo Vasco* (Bilbao, 1899), lenengo abertzale egunerokoa; 12) *Euzkadi* (Bilbao, 1901), iru-illabeteroko aldizkari apaiña; 13) *La Patria* (Bilbao, 1901), asterokoa; 14) *Libe, Melodrama hist6rico* (Bilbao, 1903); 15) *Jaunaren Nekautzia, Deur;-Matai'ren Goizparraren legez* (Bilbao, 1915); 16) *Olerkijak* (Bilbao, 1919) 113 orrialde, Eleizal- ie'tar Koldobika'ren itzaurrearekin.

Euskal idazle

Euskaldun barria genduan Arana Goiri; au da, umetatik ez ekian euskerarik. Amasei-amazazpi urteko zala ikasi eban -zuan-.

Eta gero, erderaz jardun arren geienik euskeraz ere lan politak osotu zituan, Ona:

1) *Egutegi bizkaitarra*, sakelerako; 2) *Unriaren lenengo aizkidia*; 3) *Lenengo egutegi bizkaitarra*, ormarakoa, bertan datoz euskal izenak ere; 4) *Olerkijak*, eta 5) *Libe*, berak euskeraz egiña.

Eta euskerazko lan oneik ere, gizon ianduenak dituzu. Ona *Egutegian*

Olerkari

Olerki-pillo ederra itxi euskun -zigun-Arana'k. Bere biotz saminduari askatasun pixkat emanez egiñak, ain zuzen.

Zer abestu ete eban -zuan-? Gauza jakina, ia beti: bere erriaren gauzak, Jainkoa, maitasuna, gizarte-kezkak...

Aren olerki guztiak batu ta osoturik egin *Olerkijak* liburuak 5 eresi dakaz, 8 illots, 18 abesti. Eta olerkiotan oldozkuna goitar dabil beti, arrano antzean, abandotarraren irudimena. Mamiñera jo ezker, guztiz sentikorrak ditu batzuk batez be. Azalari begiraturik, oster, barri-zale agertzen yaku -zaigu-: ez eban rimarik nai.

eban -zuan- agurra: «Agur! Bigarren aldiz eltzen naz zeure eskubetara, irakurle maitia; baña orain orma baten esegi nagijentzako gerturik natorke. Igaz era bat bakarrik neukan; aurten bi daukadaz: bijok, bizkaitar zindua eskubetarako baña bata, igazkua lakoxia, sakelean sartzekua; beste au, ormean ezartzekua. Baña egija da, era bi orrek eukitarraren, nik itz egi ten dautzudana itz bat utsik dala, sortzen daun gogua bat dalako: gogo *Jaun-Goi-kua eta Lagi-Zarra'ren zalia*».



Arana-tar
Sabin

Euskalari

Oraindik geiago, euskal eragille ta itzberri sortzaille azkar ez-ezik, euskalari bikain ere ba-dogu -degu- Arana. Bere garaiko euskalarien artean baleiteke berau zabalaren jokatu ebana -zuen- izatea.

Eta Arana'k euskalari bezela osotu eban -zuan- lanik ederrena *Lecciones de Ortografia del Euskera Bizkaino* dogu. Lan ederra. Iñor ere etzan ausartu aren kontra egiten. Ordurako leen idazleetan eta erri an asko ikasia bai eukan; idazle zarrak eta erriaren zentzuna zituan gidari.

Euskerak izango eban -zuan- antxiña baten bere alfabetoa, baiña galdua eban nunbait. Eta Arana'k, utsune ori betetearren,

barri bat asmatu eban -zuan-, euskerari idaz-oiñarriak ermotu naiean. Ortarako Bizkaiko idazleak aztertu zituan: Kapana-ga, Mogel, Añibarro, Astarloa, Prai Bartolome, Olaetxe, Uriarte ta abar. Eta onein joera jarraituaz, egin zituan bere ortografi-legeak,

Eta Arana'k beretzat eukazan -zeuzkan- izki (letra) ta otsak, fonetikazkoak nunbait, Euskaltzaindia'k be, 1920'an, ontzat artu zituan oso-osorik. Idazkera onek arrera txeratsua izan eban -zuan- Euskal-erri guztian. Eta auxe berau dogu, gaur ere, zertxo batzuk kenduta, guk darabil-guna.

JULIO URKIXO (1871-1950)

Ona beste gizon goragarri bat euskal literaturan. Gure kulturari batez be aupada ederra eman eutson-zion-onek. Etxekian euskerarik umetan, baiña ikasi egin eban -zuan-.

Bilbotarra dogu, Arana Goiri legez; Deusto'n jaioa. Bertoko ikastetxe nagusian eta Salamanka'n osotu zituan bere ikasteak, 1892'an lege-gizon bezela lizenziaturik.

Azkue jaunaren Iztegi nagusiak, batez ere, euskaltzaletu ei -omen- eban -zuan- osorik. 1894'an ezkondu zan Donibane-Lohitzun'en Bizenta Olazabal'ekin, eta bizitarik geiena antxe eman eban bere «Ur-

kixo-baita» etxean. Erriz erri liburu zar billa ibillirik, liburutegi baliotsu baten ja-be egin zan.

1905'tik gora batez be entzute aundia lortu eban -zuan-. RIEV *Revista Internacional de los Estudios Vascos* (1907) bitartez lan oso bikaiña osotu euskun -zigan. Bizitza guztian liburuak batzen, aztertzen eta ikasten ibillia dogu. Eta bere aurkitze guztiak aldizkari orretan emoten zituan. J. Etxeberri'ren *euskal lanak*, Garibal'ren *errefraukak*, eta abar argitaratu euskuzan -zizkigun-. Andia ziñez euskal jakintza ta kulturari egin eutson -zion- me-sedeá.



Abanto-ko kaia, Aranatarren ontzigintzako tokia



Lekeitio-ko eleiz ataria

Eguzki goiztarraren gozotasunez
gau intz, garoaren besoetan,
lurra berotuz dator goiza,
argi-dizdira zerutarrez...
ego-ots eta surrumur eztiz,
biziaren artu-emanetan,
bizia edertu eta goretsiz,
maitezko lor berriketean,
gora-minezko biotz-katez...

(S. Muniategi)

Gizon bat il zan etxe batean, eta bere
emaztea urtzen egoan, senar izan zanaren
gela ondoan.

Auzoetako emakumeak, asi zitzaizkion
itz onak esaten alargunarl, bere naigabe
zorrotza zerbait arintzeagatik.

—Pazientzia artu bearko dezu, MaIntoni,
pazientzia —esaten zion batek—.

Eta alargunak erantzuten zuan:

—Bai pozik, berak nai baluke.

Aldameneko etxe batean bizi zan mutil
galant bat, Pazientzia izenekoa.

(Txomin Agirre)

AITA KANDIDO BASABE (1867-1928)

E. Erkiaga'k onela: «Lekeitiar izkeraz
jardun arren, Bizkai-aldeko idazleen artean,
mende onetan beintzat, aurrenengo mor-
doan jarri leitekezanen pare be ezarri

Aita Kandido. Mamiñean, gunean,
egokiak izan zirean (Aita Kandido'ren) li-
buruak; jantziz ta azalez, mintzakeraz ja-
torrak ditugu».

Lekeitio'n jaio zan, 1867'an. Amalau
bat urte zituala, Jaunaren deiari erantzu-
nik, eliz-gauzak ikasten asi zan. Gramatika

ta latin Lekeitio'n bertan ikasi zituan, eta
Gazteiz'en Filosofi-gaiak. 1891'an Loio-
la'n sartu zan jesuita, Teoloji-ikasketak
Salamanka'n egiñik. *Doctor* titulua jaritxi
eban -zuan- Filosofi ta Teoloji-gaietan.

Gero, sermolari eder ibilli yakun-zitzai-
gun- Bizkaia'n, Gipuzkoa'n eta Araba'n.
Beti jakintsu ta zur, barruan zeukana za-
baldu ta emoten. Zeanuri'n mixioetan ze-
billela biotzeko gaitzak jo ta Loiola'n il
zan, 1928'an.

Euskal idazle

Itzez ta idatziz, zanetako odolaz oretu zituan erriari azaldu bear eutsozan -zizkion-ideia ta oldozkunak: garbi ta argi biotzetik biotzerako jardunaren bidez, edonork irakurri-ala ulertzeko era errezean. Aren liburu batzuk.

1) *Ondo konfesau ta komulgauzteko Irakaskizunak* (Durango, 1919). 266 orrialde. Meza-liburu egokia. Bizkaia'n oso zabaldu ta irakurria.

2) *San Inazjoren Ejertzizuetako Go-*

gartiak (Durango, 1912). 307 orrialde. Geroztik be iru edo lau aldiz argitaratua.

3) *Eleiz-liburutxua* (Bilbao, 1912). 199 orrialde. Sarri argitaratua. Ispillu txiki baten lez ipinten dautso -dio- kristiñauri bizitza on baterako zuzenbidea.

4) *Jesus'en Biotzaren Jaureskundera* (Durango, 1914).

5) *Andra Maria'ren Ezkutua* (Bilbao, 1914).



Lekeitio-ko kai bazterra

Eriotza

«Bai!, il biar gara! Aragiak eztau nai entzun esakune gogor au; baiña naitaez il biar gara. Etorriko da egunen bat eta begi onek, edegita egon arren, eztabe ezer ikusiko; belarri onek eztabe ezer entzungo; min au ixillik egongo da; oiñ onek geldi; gorputz guzti au otz, gogor, itzal. Itxiko dodaz gurasuak, senidiak, lagunak, diruak, jolasak, atsegiñak, munduan maite nebazan gauza guztiak...

Egiak dira onek? Sinisten dozuz? Ezetz!, dirudi. Auzi-epailliak eriotzarako epaia emonda ba'zengoz, zelako estutasuna! Ze barre-gura gitxi! Ba, ez gizonaren epaia, Jaungoikuarena daukazu zeure gañian; laster jatortzu epai ori irakurtera; edo, obeto, arnasa bakotxak izendaten deusku auzi-epaillari bidera urteteko emoten dogun oiñkada (pausu) bat. Eta etzara bildurtzen? Barreka zabiltz?

Jan-edan ederra ipiñi batek, baña ezpatia ari me batetik dingilizka jatun bakotxaren buru ganian. Ez eban iñok kopaurik artu. Ba eriotzako ezpatia geure buruaren gan-ganian aririk meienetik daukagula gagoz; noiz jausiko dago. Eta guk barre, jolastu, munduko gauzaz asetu eziñik ibilli?» (*Gogartiak*, 1912, I10 orr.).

ZIRILO ARZUBIAGA (1874-1966)

Egiñetatik ebatzi bear da gizona, ez mingaiñaren zaratatik. Eta egiñetan zintzotasuna ta iraupena dituzu aurrenen.

Gaitasun bizi oneikaz edertua genduan Zirilo Arzubiaga apaiza: zintzoa ta euskalduntasunez gitxi lakoa.

Otxandio'n jaio zan, 1874'an. Zornotza'n ikasi zituan apaiz-karrerako bearrezko diran lenengo ikasgaiak, gero Gazteiz'ko abade-ikastetxean jarraiturik. 1899'an esan-zuan- meza barria. Ondoren, Karrantza'n eta Orozko'n urte batzuk arimazain egin-

da, Zornotza'n bizi izan zan gerraldirarte (1936). Euskal dotriña zabaltzen batez be lan aundia egin eban -zuan-.

Gerra ostean, urte batzuk erbestean egiñik, Begoñan daukagu, klaratar mojen kapellau. Len, berak arteztu zitun «Jaungoiko-Zale» ta «Ekin»-en orrialdeak 1912'tik 1936'rarte; orain «Ediciones Religiosas > sortu dau liburuak argitaratzeko. Eta, nekeak neke ta miñak min, or dabilkigu larrogei urtetik gorako agure zartxoak, iñoiz aspertu barik, liburu arazoetan.

Liburu argitaratzaille

«Jaungoiko-Zale» apaiz bazkunak bere irarkola zeukan Zornotza'n: On Zirilo zan bertako idazkari.

Makiñatxu bat orri ta liburu atera zitu-tuan! Danak euskeraz. Ardura au
otxandiotar abade zur-langilleak eukan.

Liburu-argitaratze ontan Kristau-Ikasbide-a zan barrua geien irrikatzen eutsona-ziona-. Eta 1936'ko gudu aurretik eta ostean, Bizkai eliz-barrutiko abade-lagunai dotriña erakustearren nekea alik eta geien arintzearren, ainbat dotriña, labor ta luze, argitara zituan. J. Gurutz Ibagutxi'ren idaztiak, esaterako, bost liburu mardul, «Kristiñau-Ikasbide-Atzalbena» izenburu dabela -dutela-.

**Otxandio, eleizaldea,
gizaldiaren asieran**



Beste idazle batzuk

—GORGONIO M. RENTERIA (1868-1940). Elantxobetarra. Itxas-gizona. Argia, erri-meia zan eta, ogei urtetik gora Filipinas'en egin zituan, ango Marina Merkante'ko buru zalarik. Gero, bere erriko alkate ta Bizkai Buru Batzarreko nagusi be izan zan. Izlari ona, ta idazle ohea: ainbat idatzi eban -zuan- «Euskalzale»-n, Ibaizabal»-en eta «Euzkadi »-n.

—PANTZESKA BELAUSTEGI (1896-1957). Durango'n jaioa. Amairu bat liburuxka diru euskeraz idatzi ta argitaratuak.

—EUJENIO BENGUA AKORDAGOITIA (1873-1952). Ereño'ko semea gendun prantziskotar mixiolari ta euskal idazle au. Nai-koa idazlan argitaratu zituan, Txina'tik bialduta, Bilbao'ko «Ibaizabal»-en eta Donostia'ko «Euskal-Esnalea»-n.


JUAN GARATE, karmeldarra (1874-1948). Markiña'koa. Euskal idazle ta izlari bikaiña.

ANTERO DANIEL APAOLAZA (1845-1908). Urretxu'n sortua. *Patxi*ko Txerren (Bergara, 1890), Trueba'ren «El Judas de casa» euskeraz ipiñi ebana.

JOSE ANTONIO UGARTE (1860-1935). Aita prantziskotarra. Angiozar'ko seme. *Zeruko Mana gozoa* (Tolosa, 1924) ta beste liburu jakingarri batzuk eratu zitun.

—JUAN KARLOS GERRA (1860-1941). Donostiarra. Euskeraz ta erderaz lan asko daukaz -dauzka-, Euskeraz: 1) *Ama Birjina Aranzazukoaren Kondaira*; 2) *Arrasateko dragoia*, ta 3) *Gure olerki zar-rarrak*.

—JUAU IÑAZIO URANGA (1863-1934). Antzerki askoren jabe da. Beti idatzi eban zentzunez eta sari ederrak jaso.



Elantxobe, erria eta kaia



**Begi bik ikuskizun bat dauke,
belarri biak zentzun bat,
usain bakarra sur-zulo biak,
zeru-lurrak bat Jaubetzat.**


**Eskerrik asko ta asko,
ai neure laguna!,
itandurik neuk zuri
jakin ez dodana,
esan daustazulako
zeuk jakin dozuna.**

KARMELO ETXEGARAI (1865-1925)

Euskal edestia, otz eta ixillik, il-kutxan aurkitzen zan, Baiña jagi zan K. Etxegarai kementsu ta ainbat gauza zar astindu ta argitara atera euskuzan -zizkigun-.

Azpeitiarra zan jaiotzez. Aita il yakon -zitzaion- berak amabost urte zituala, ta bere anai Bonifazio'k, bi egiñak. Orduan Karmelo, Santander'en bizi zan osaba Joakin'ek jaso eban -zuan-, eta an osotu zituan bere ikasketak.

1883'rantza, Donostia'n daukagu, Al-
dundiko artxibua zaintzen. Lan ederra egin eban -zuan- bertontxe. Geroago, Bizkai'ko, Araba'ko ta Gipuzkoa'ko Diputazioak, iru euskal probintziotako kronikari izendatu eben -zuten-. Eta Gernika'ra aldaturik, ortan lan egin eban -zuan- bere bizitzaldi osoan. 1922'tik, Euskaltzaindiko koa zan.



Euskal idazle

Aspertu barik idatzi eban -zuan- euskeraz eta erderaz. Ogei bat liburu azaldu zitun erderaz, danak txit jakingarriak.

Baiña euskeraz ere lan bikaiña osotu euskun -zigun- K. Etxegarai'k, guk asko ezagutua izan ez arren. Amabost urtekin asi zan euskeraz idazten, Santander'era aurkitzen zala. 1882'tik 1893'ra egin eban -zuan- euskal lana ez da iñolaz ere aztutzekoa.

Bertsotan jarduna dogu, batez be. Olerkiok iru aldizkaritan atera zituan: 1) «Euskal-Erria»-n, 220 olerki ta 23 lan askatu emon zituan; 2) «Euskalzale»-n, 18 argitaratu zituan prosaz, eta 3) «Euskal-Esnalea»-n, 9 lan, prosaz oneik ere. 1893'tik aurrera ez eban -zuan-bertsorik ondu. Onezaz gaiñera, ba-ditu beste itzulpen, itzaldi ta itzaurre asko be.

Ama euskarari

Marruaz austen zeran itxaso neurrigabea!
Mendiyetatik amiltzen zeran ur-korajea!
Saroi tartean zabiltzan txori kantatzallea,
Zure kantuz lilluraturik giza-jendea!
Emadazazute: batek, itzera dunbosgillea,
Besteak, izkuntz eztiariyo txoratzallea,
Dirudiyena goyaingeruan batots emea
Kanta dezadan, zer dan Euskara maite-maitea,
Kanta dezadan, bere kondaira paregabea;
Kanta dezadan, dala munduan obe-gabea,
Dala lore bat, oitura onen gordetzallea,
Dala joya bat apaintasunez bete betea,
Gure lurreko mendi tartean garbi gordea,
Zikintasunen izpirik ere sentigabea...
Nork leukakean itxasoaren boz indartsua,
Nork leukakean turmoyaren ots orroetsua!
Kantatutzeko mugidaturik arkaitz-errua,
Mugidaturik, ikaraturik mendi goitsua,
Zer dan Aitorren izkunde guziz antziñakua,
Kaukasopetik Aitalenenak ekartakua;
Zer dan, bail zer dan Larramendi-ren mintzo gozua,
Axularrena mundurik mundu zabalduzkeko!

(K. Etxegarai)

Mendi goiak dIrade
zeruronz jaikitzen,
euskal lurra dutela
maitaro gordetzen;
Lañoaz gañetikan
zaizkigu agertzen,
biotza berengana
gozoro jasotzen.

(K. Etxegarai)



Oiartzun-go olaza

MIGEL ANTONIO IÑARRA (1864-1898)

Idazle azkar au il zanean, Azkue'k idatzi eban -zuan-: «Iñarra biotz andikoa ta burutsua izan da: gogamenetan sakona, esakeretan illun samarra, egikeretan biurri bakoia».

Oiartzun'en jaio zan, baserri aberats baten. Gaztetatik erakutsi eban -zuan- eleizarako mendua, joera: jaiegun arratsaldeetan, bere kideko mutil kozkonduak jola-

sari ziarduelarik, bera bezperetara joaten ei -omen- zan.

Urnieta'n ikasi zituan latin eta gaiñera koak, Antia jaunarekin. Oñati'n ikasi eban -zuan- Filosofia, eliz-karrera Gazteiz'er. amaiturik. Durango'n kantatu eban -zuan- meza barria. Gero Pasaí'ko Donibane eleizan izan yatzun -zitzaizun- arima-zain. Gazterik il zan, 33 urtekin.

Euskal lana

Ikasle zala asi zan idazten. Azkue'k onan: «Ezin esan-alako beste dira beren lumatik urteniko euskerazko irakurkizunak».

Donostia'ko «Euskal-Erria»-n agertu ziran lenengo Iriarra'ren lanak. Gero, Bil-

bao'ko «Euskalzale»-n, Azkue'k zuzenduten ebanekoan. Aldizkari onetan, ipuin, olerki, izkirimiri ta irakurgai, naikoa idatzi eban -zuan-, eta beti biotz-zabal, guren.

Pake Zorionak



Ezer gutxi da kea, eta ori bera
ez da gerrateetan beratzen, bai zera!

Armen su, ta biotzen su gogorragoak
aienatzen dituzte, zer ez? aingeruak!

Ezeztu, ondatua uzten dute dana,
dana galdu, kiskali eri ta baldana.

Pakearekin kea bera zaigu ona,
o pake egiazko aren zoriona!

Gerrak berriz gauzikan onenak, galpenak
ematen ditu, miñak gauzikan onenak.

Bijua bada, ordu txarrian bijua
gerra... Deabru gaizto-gaiztoak sortua.

Betor pakea, ta naiz ke utsa ekarri
arlotte ta atsegintsu, zerua da ori.

(M. A. Iñarra)

Berezkoa eban -zuan- eder-sena, ta eder-bitsa jarioka dagoz aren lan guztiak.
Olerkari ona zan, gaurkoai be aurreak artzen asitakoa.

Nok agertzen dausku -digu- argi ta garbien eusko gogoa? Bertsolariak. Ez izan dudarik. Auxe dogu -degu- gure arnasaren adierazlerik bikaiñena. Bertsolariak euskeraz itz-egin ez-ezik, euskeraz kantatzen ditu bertso goriak. Bertsolaria beti dogu euskaldun, etxean, plazan, errian, kanpoan.

Bertsolaria izan da, ta dogu, gizonaren intziria ez-ezik, erri oso baten deadarrara, urteak joan eta urteak etorri, luzatu, ta iraunazo dauskuna -diguna-. Auxe izan

da, len eta orain, gure arimaren kezka ta ezin-egonak euskeraz adierazo dituna.

—Itaurlea idi-buztarri aurrean lez, zia eskuan eta igarle-itzak ezpanean, arrrelari dabilkigu bertsolaria. Doiñulari ta olerkari, koplari dogu berau: doiñulari geiago, bear bada, olerkari baiño.

—Antxiña batekoa da Euskalerrian bertsolaria; euskera baizen zarra. Beraz, askotxo izan ditugu gizaldiak zear. Emen, azken urteotako iru bakarrik aitatuko ditugu: *Pello Mari Otaño, Kepa Enbeita ta Txirrita.*



PELLO MARI OTAÑO (1857-1910)

Naiko eskolatua genduan Otaño, lengo bertsolarien artean batez be. Gure euskeraren gorde-ezkutuak ondo ezagutzen zituan. Iduriz ta biotzondoaz ederki ornidua da, ta ez dozu errez bere bertsoak olerki ala erri-kopla direan ebazten. Etzan ardao edo sagardo-ontzi ondotik sortzen dan itz-jario txerbelaren zale; ezta ez dabil esacra zorrotz billa be. Lau, ezti ta etorri onekoa zan Otaño.

Zizurkil'go Errekalde baserrian jaio zan naiz-ta gero Donosti'ko Amara'n bizi izan gaztetatik. Bere erriaren egoera estu-larria ezin eroanik -eramanik-, Ameriketara jo eban -zuan-. Arjentina'ko zabaldietan artzain egin eban bere bizia; baiña bere lurrrare gozoak leun igurtziko eutson -zion-biotza.

Erriarenganako min orrek eraginda edo, bertso-lan ederrak egin euskuzan -zizki-gun-, sentipenez eta pentsamentuz gainezka. 32 bat olerki ditu antxe osotuak, bere aiton eta osabai bialduak geienak, 1897'an, Oiartzun'go euskal jaietan, sari eder bat ere emon eutsoen -zioten-.

Ezkondua zan, sei seme-alaben aita. Bere azurrak emen izteko asmoz zebillen; bizi osoan zitztaka zekarren erri-miñak bul-tzeginda noski. Baiña gizonak ezin dau -dujadetsi nai dauan guztia. Eta an, Santa Fe probintziko Rosario'n il zan, bere jaio-teteko intxaurrendoa gogoratzen eutson -zian- «onbu» zarrari begira. Gizona itzali baiña aren euskal gogoia idatzi zituan olerki samurretan daukagu.

Euskal lana

Bertsotan dago Otario'k idatzitako guztia. Liburu bi argitaratu zituan: 1) *Artzai mutilla* (Buenos Aires, 1906); euskal opera, Felix Ortiz'ek musikaz apaindua ta urte orretan, au da, 1906'an, Buenos Aires'

en antzetzua; 2) *Alkar* (Buenos Aires, 1904). Bertso sorta. Gero be, 1930'n eta 1959'an argitaratua.

Euskera errez, garbi ta ugarian dagoz poesi guztiak.



AMERIKA'KO PANPETAN

Euskal erriko *lur* maite artan jaio nintzan baserrian; itzal aundiko intxaur arbol bat dago gure atarian: aren ondotik irtenda noiz nal maldako gaztañadian, edo, sagarrik onenak jaten luberriko sagastian, arbol tartian bizitu nintzan gazte denbora guztian.

Denak utzi ta etorri nintzan.

Lur au ikusi nai nuan!
Aritz tantaia, pago lerdanak,
nola ez izan gogan!
Orain artzaintzan Ameriketan.
Arrantxo baten onduan eguna igaro larrian eta jiratzen naizen orduan, nere begiak gozatzen dira aldameneko onbuan...

Nere lagunik maitatuena,
onbu laztana, zu zera;
argatik nator zure kolkorik
ni malkuak ixurtzera,
idtuiturik naramazula
atariko intxaurpera...
Beti izango zaitut gogoan;
bañan joan nai det osterera,
Euskal-lurreko zuaizpe artan
nere ezurrak uztera.

(P. M. Otaño)

ENBEITA'TAR KEPA (1878-1942)

Euskalerrian izan dogun bertsolaririk onena, dudarik bage, azken urteotan argitara dan aren bertso-bilduna eder «Gure Urretxindorra» deritxanetik atera daikegunez -dezakegunez-. Oso ugaria, erreza ta errikoia.

Muxika'n jaio zan. Ez eban -zuan- eskola egoki aundirik izan; baiña irakurtez eta idaztez aspertu barik, bertso-arloan gutziz trebe egin yakun -zitzaigun-. Iru-reun eta berrogetamarretik gora ditugu arek itxitako poesi lanak. Amabot bat urtetan, astero zerbait idatzi ta argitaratu eban -zuan-.

!anz

Kirikirio'k zuzentzen eban -zuan- *Ibaizabal* asterokoan asi zan idazten. Gero 1913'tik aurrera, *Euzkadi* egunerokoan idazten dausku -digu-, atertu barik.

Lur-langillea zan. Eta baserriko bearbitarteetan ondu oi zituan bere asmamen-lanak: luma ta papera beti eroiazan -zera-mazkin- aldean.

Idatzi ez-ezik, bertso-kantari lez Euskal-erri osoan ibilli zan. Bizkaia'n etzan a bako jairik; Gipuzkoa'n, Araba'n eta Nafarroa'n aspergaitz kantatu eban -zuan-, mugaz andikalidetik ere, Baiona'n, Ezpeleta'n, Donibane-Lohitzun'en eta Garazi'n eta abar, beste ainbeste egiñik.

Enbeita'ren olerkiak, ia dan-danak lez, batuak dira liburu eder bitan: 1) *Enbeita Oleskaria* (Zarautz, 1966), ta 2) *Gure Urretxindorra* (Buenos Aires, 1971).



Kepa Enbeita



Euzkerari egin dayogun
biar dan lako arrera,
dalako *geure* zortun gustijen
etorkixurta berbera,
geure gogua, geure arnasa,
goi. erdi eta susterra;
ganera Jaunak egiña da.ta,
maite biogu euzkera.

Zer dira gure iturribruak,
ibai, erreka ta itxaso,
baserri. etxe zuri baketsu,
ibar zelai mendi baso?
Eztira beste gauzalk ezpada
Uzkurtz jagolak..., arako
gttre asaba onak euzkeraz
ugutzau ebezalako.

Uzkttrtz-aldezko gudaiburua
Euzkera izan *da* beti,
arrotz-oberik igaro ez dein
euzko-mendijen ganeti.
Areyo deungak ezetsi arren
sarritan lau aldetati,
ondiñokarren bixirik dago...
Jainkuak daki zegaiti.

Gudaiburua galdu ezkeru,
gularoztiak zer egin?
Arerioak laster oi dautse
guda-lerrua ebagi.
Augaitik eutsin biar dautsogu
gogotik Euzkereari,
jakiñik nortzuk direan gure
umien irakaslari.

(K. Enbeita)

TXIRRITA (1860-1936)

Bertsolari askoren aita dogu ernaniar
erne au. Zorrotza, bizi-bizia. Ardan-gele-
tako koplaria. Baserri-Zanez lenengo ta ge-
ro Donostia'n, Bilbao'n, Zaragoza'n, Fran-

tzia'n... argin bizi izana urduri, ameskor
eta zori-zalea genduan. Izan zituan ome-
naldiak.



— Kezkarik bako atsegiña,
egin lortzeko alegiña.

* * *

— Askoren gogo-soloa
sasiz eta otazkoa.

* * *

— Ekandu gaiztoa,
belu aztu doa.

EMETERIO ARRESE (1869-1954)

Tolosa'n munduratu zan Arrese. Baita il ere bertan il zan, 85 urterekin. Izakeraz artega, bakar-zale ta iperloka zan. Ainbat ostera eta joan-etorri egin zituan Amerika aldera.

Egia esateko etzan samurra izan Arrese-ren bizitza; ia beti garratzu samar ebillen, bere poesi-lanetatik ere agertzen yakunez -zaigunez-. Gizartetik igeska lez ibilli zan, berez biotz aundiko ta txeratsua zalarik. Etzan ezkondu.

Erri-miñez agiri da olerkietan. Eta zelan abesten dituan bere ama eta bere sorteria! Zerbait dan olerkaria, poeta, izan be, kezka utsa besterik ezta. Arresek, bere giza-ama ez-ezik, sorterra-ama be maite eban -zuan-.

Atlantik itxasoz ainbat ibillaldi egin ondoren, bere bizitza azkenerantza, Donostia'n bizi izan zan luzaro; 80 urte zituala,

alan be, Donostia laga ta Tolosa'ra aldatu zan. Antxe egotzi nai eban -zuan- antza bere azken arnasa.

Euskaldun olerkari

Olerkari ona dogu -de- Arrese. Badau, egia esan, erromantiku garaiko zerbait oraindik; baita len-bertsolarien kera ere. Azken urteetan Lizardi, Orixe ta Lauaxeta'ren bidera jo eban -zuan-, igarteko bestean. Euskera aldetik Arana-Goiri'ren eskolakoa dogu.

Itz lauz ere zerbait idatzi eban -zuan-aren, bere lanik beiñena bertsogintza izan zan. Orduko aldizkarietan —«Euskal-Erria», «Euskalzale», «Ibaizabal», «Euskal Esnalea», «Arantzazu», «Eusko-Olerkiak». «Jakintza» ta «Euzko-Gogoa»-n irakurri daikeguz -ditzakegu- aren poesi errotsuak.

Poesi liburuak

Iru liburu ditu argitaratuta:

1) *Nere Bidean* (Tolosa, 1913). 200 orrialde. Olerkiok zelan gatzatu zituan, onela diño: «Udazkeneko txori-negarrak orbel tartean banatzen diran bezela goititz-osto zurbil oietan mintsu dijoaz, ez dakit nora!, nere biotzeko eresirik geienak. Ez arritu; neke gabe, arin txoro, pozezko lorategian pinpilinpauxen eraz nebillela zirudin garaian poz-eztia baño aldi geigotan arkitu izan det zorigaitzeko lixtorra. Toki gorde ta irizpide zallean dago nunbait bizitz ontako ezti leun ori».

2) *Txir,dor* (Donostia, 1928). 158 orrialde. Poesi-liburu au ere ez zeukan urritzat. Berak onela; «Emen darakustan olerki-sorta belaxka izan arren, nere gogoz-kiko arduraz urri ez dago beintzat».

Irurogei ta sei dira guztiz, ederto lan-duak. Maite ditu mendiak: Aralar, Uztu-

rre, Aia, Ulia... Maite ditu lorak eta pinpilinpauxak, itxasoa eta itxas-errietako arraunketak... Eta illun-abarreko itzal-zoria, ta negar otoitza. Atsegin yako -zaio-euskal izen politak asmatzea: «Maitiñe», «Izartxune», «Zorentxu», «Maitagar», «Aratziñe», eta besteak.

3) *Olerki berrizte* (Zarautz, 1952). 111 orrialde. Berrogei ta bi olerki. Auke-rapen bat dozu, olerki zarretatik egiña.

4) *Teatru-sailla*. Ontan ere osotu eban -zuan- zertxobait. Bertsotan idatzita dagoz eder: 1) *Aiton baten eriotza* (Euskalzale, 1898), bakarrizketa; 2) *Sentierak*; opera, 1900'garren urtean, Iruña'n, lenengo aldiz aurkeztu zana, eta 3) *Zara* (Tolosa, 1913). Iru ekintza ta azken zati bat dituan lana.

Lore-jai

**Nere gelako leyatillan gaur
argi-jai dute liliak
ta jai eder au osatzearren,
txuriz ta gorriz jantziak,
irabioka or dabiltz beste
ega-lili dantzariak...**

**Pinpirin.panpox irradariak,
biotz-biotzez ain bero,
jai ontan zuren etorrera nik
abestu detan ezkeru,
nere gelako leyatillara
erdu zaitezte goizero.**





GOGOTXINDOR

**Ene txoriño maitea,
orren ixilik zer dezu?
zer naigabe latz-illunak
ikaraz ipiñi zaitu?...**

**Txindor gaxoa!, ez beintzat
zure kabitik urrundu,
zapelatz gaiztoen poza
ori egingo bazendu.**

**Zaude, maite, zaude bertan,
ez izan toki-aldakor,
nere zartzaroan ez det
zu beste lagunik iñor.**

**Berriro jardun zaite, ba,
len bezin alai ta adikor,
yoranez abesten asi,
Gogotxindor, Gogotxindor!**

(E. Arrese)

Zelako olerkari?

Gitxi-asko erromantizismuaren jarioz kutsutua zan Arrese, berandu samarrekoakin ba'zan ere. Emeretzigarren gizaldikoa genduan elerti joera au, baiña Euskalerrian, zerbait beintzat, luzatuaz joian -zijoan- gizaldi onen lenengo urteetan ere. Azkenez, Orixe'k, Lizardi'k eta Lauaxeta'k ebagi euskuen -ziguten- joera au osorik,

J. Artetxe idazle fiñak onela diño: «Emeterio Arrese olerkari benetakoa zan.

Olerkari jaio zan. Ort xen dago olerkari-tzako giltza. Olerki doai goi-graziaz ikutua izateko edo ez. Lenengoak, olerkiak egingo ditu; bigarrenak berriz, plomua baiño pixuagoko idazti-antzekoak».

Izadi-kantatzaille zan batez ere Arrese. Euskal lurra abestu euskun -zigun-, bere mendi, baso, bide, muiño, txori, ortzi urdin eta itxaso apartszuz. Maite ebana -zuan- abestu zuan, beti ederraren senak eranda -eramanda-.

Beste idazle batzuk

-JOSE MARIA AZKUE (1869-1938). Frantziskotarra. Naikoa idatzi eban euskeraz. Ona liburu batzuen tituluak: 1) «*A ita Prantzisko Donsuaren Bederatziu-rrena*» (Tolosa, 1923); 2) «*Gurutz-bidea*» (Arantzazu, 1923); 3) «*Asis' tar Prantzisko Donearen bizitza*» (Bilbao, 1925); 4) «*Padua'ko Antonio Donearen bizitza*» (Bilbao, 1929); 5) «*Hungria'ko Isabel Donearen bizitza*» (Zarautz, 1931), ta abar.

JUAN MANUEL LERTXUNDI (1870-1925). Tolosarra. Aita Eskolapioa. Bereak ditu idaztiok: 1) «*Poli ta Pello*» (Donostia, 1910); 2) «*Euzkal-Iztiya*» (Donostia, 1911), gramatika euskeraz ta erderaz; 3) «*Gauzen ikaskizunak umientzako*» (Bilbao, 1925), ta 4) «*Umetxoentzat*» (Donostia, 1911-1923), ipuin mordoa.

BALERIANO MOKOROA (1871-1941). Tolosarra izanik ere Bilbao'n ta Donostia'n bizi izan zan. Asko idatzi eban -zuan-«Euskalzale»-n. Teatru lan auek daukaz -dauzka-: 1) «*Damuba... garaiz*» (Tolosa, 1897), ta 2) «*A itortu egin bear*» (Ibaizabal, 1902). Ederto moldatzen ditu gaiak.

JOSE BENTURA LANDA (1871-1955). Itzlar'en jaioa ta Tolosa'n azia. Aretxabaleta'n, Aulestia'n, Deba'n, Bergara'n eta 1920 ingurutik eriotzararte, Araba'ko 011 abarre'n arimazain. Sermolari ona, Itzaldiakaz liburu au osotu euskun -zigu-: «*Euskerazko itzaldiak*» (Bilbao, 1907). 221 orrialde, Mateo Muxika'ren itzaurreakin.

-JOSE JUAN KORTAZAR (1864-1925). Eskoriatza'koa. Angiozar'en abade egoala argitaratu eban -zuan- bere «*Sermoe Liburua*» (Bergara, 1903), urteko igañde ta jai guztietako itzaldiakin. Garai artako euskera du, oraindik asko landu bagea. Gero, Arjentina'tik ibilli zan luzaro.

-INOZENZIO MUNITA (1874-1958). Leaburu'ko semea. Apaiza. Eibar ta Markina bitartean dagoan Aginagan, Andoain'en eta Arama'n arimazain. Eder yakozan -zitzazkion- baserri-gaiak, Euskalerriko zugatz eta basoak batez be. Liburu bat idatzi eban -zuan-, oso ederra: «*Gure mendi ta oianak*» (Tolosa, 1952). 159 orrialde. Amabost ataletan gure mendietako piñuari buruz gauza jakingarriak damoskuz -damazkigu-.

AITA PEDRO LUIS ZALONA (1873-1944). Prantziskotar. Bere euskal lana: «*A rantzazukoaren Kondaira*» (Bilbao, 1903). 96 orrialde. Arantzazu'ko gertaera miragarritz ornidua.

ELEIZALDE 'TAR KOLDOBIKA (1873-1923). Bergara'n sortua. Lizenziadu titulu-duna. Bilbao'n il zan, bere gorpuari Bermeo'n lur emonik. Asko idatzi eban -zuan-euskeraz ta erderaz, «Euzkadi» aldizkariaren zuzendari izan zanean batez be. Euskeraz: 1) Walter Scott'en «*Halidon-Hill*»; 2) «*Kristo'ren Antz-bidea*», *Kempis* euskeraz; 3) «*Zaldi baltza*» «Euzkadi», 1914), ta 4) «*Gurutze Deunaren Bidea*» (Bilbao, 1917). «Euskera garbi ta argiaz idatzita, biotz barru-barruraino sartzeko otoitzgai ederrak daukaz»



Agur, Olerti eder-ederra,
nere ortzeko argia!
Bitxi aratza, liii mardula
goi txukunetik jautsia!

(Tapia-Perurena)

Eguna argitzen daunaz batera,
Olerkariak mendian gora,
dua pozik eta bizkor:
eta bideko zelai, basuak,
ta lilitxuen usain guzuak,
agur! dagitse maitakor.

(Enbeita'tar Imanol)

MARTIN LANDERRETXE (1842-1930)

Busunaritz (Benabarre)'n jaio zan. Apaiz-ikaskizunak Hazparne'n eta Larresoro'n egin zituan; irakasle, maixu urte batzuk burutu ondoren, Leitarré'n, Aiziritz'en eta Oragarre'n egon zan abade; gero, osasunez txarto ebillela-ta, Biriatu'n, Getari'n, Donibane-Lohitzun'en eta Ezpeleta'n bizi izanik.

Bere bizi guztian ez eutson -zion- euskal lanari laga. Berbaz ez-ezik, lumaz be lan egin daikegu -dezakegu- arimen alde, ta orrela jardun eban Landerretxe'k, or-emen ainbat itz zar, esaera, kanta, igarki-

zun eta beste batu ta sailkaturik. Gomutamen arrigarria eban -zuan-, ta beronen lana jakingarria dogu.

Euskaltzaindia sortu zanean, Lapurdi'ko izkelgi edo dialektuaren urgazle lez, M. Landerretxe izentatu eben -zuten-, 1919'an. Arrezkero, zintzo agertu oi zan euskal arduradun alkarte onen batzarretara. Egin-egiñean be, Euskaltzaindia'k Bilbao'n ospatu eban -zuan- batzar baten geixotu ta Ezpeleta'n il zan 1930'an, 88 urteko zalarik .

Euskal Zana

Asteroko ta aldizkarietan dagoz M. Landerretxe-ren idazlanak. Batu ta zabal-
tzea, merezi leukie -lukete-. Lanotan aget-
zen da bere biotza: gizaseme on, apaiz
jator, euskaltzale zintzo, langille asper-
gaitz. Ia gizaldi oso bat egin eban -zuan-
euskal erriari ta beronen izkuntza benera-
garriari lotuta.

Ona bere lan batzuk:

1) *Fedearen Hedameneko Urtekaria*
(Baiona, 1891-1930). Bi illabetetik bein,
urterik urte, atera eban -zuan- 50 bat
orrialdeko liburuxka. G. Lakonhe'k di-
ñoanez, «Landerretxe'k lan auxe besterik
burutu ezpalu ere, euskaltzaleen aldetiko
esker-erakutsiaren duin eskubidez eukiko
luke».

2) *Apurka zahar eta berri, ahurtara
bat eskuararen alde* (Baiona, 1905). Li-
buruxka.

3) *Grammaire basque*. Argitara barik.
1860'an maixu zala egiña.

4) Ainbat *artikulu* RIEV agerkarian,
«Euskera»-n, «Eskualduna»-n eta «Cou-
rier de Bayonne»-n asko idatzi eban
-zuan-.



Kastilla'ko Blanka

Blanka, Kastillako alaba, Frantziako erregina zen. Arta handiz altxatu zuen Luis bere semea.

Ez zuen aldi batez ere onetsi haren haurrari bertze emazteki batek bularraren ematea. Nola behin nekatuxe zelarik, lo on batean batzagoen eta printzea kexatua baitzen, gorteko andre handi batek eman zioen bularra.

Erregiñak ordean, atzarri zelarik, galdetu zuen haurra, eta ezagutu baitzuen ez zela gose, behar izatu zioten aitortu bularra hartua zuela.

Eskerrak ematetik urrun, Blankak, erakutsi zuen gaitzitzen zitzaioela, eta, eria ez tiki zintzurrerat emanik, goiti artik-arazi zioen esnea, zioela: —«Zer uste duzue, ala Jainkoak eta naturalezak eman darotaten amatasuna, den gutienik ereman dezadaten onestekotan nagoela?»

Printzeari, adimenduratu zen ordutik, maiz adiarazi zioen hitz au:

—«Nere haurra, badakizu maite zaitudala; bainan halarik ere nahiago zintuzket erregatasunaz eta biziaz gabetzen ikusi, ezen ez eta bekatu mortal batez obendun».

Haur maite hari behar zituen erakuspenen emateko, hautatu zituen erresumako gizor. ahalik zuhurrenak eta Jainkotiarrenak. Goizdanik har-arazi nahi zioen bertute guzien urhatsa.

Hala hala, Printze hura izatu zen *San Luis* errege, Frantziako errege distirantena.

| (Martin Landerretxe) |

BASILIO JOANNATEGI (1837-1921)

Orixe'k: «Au dut euskal idazleetan maiteena». Erririk erri ibilli zan luzaro, erriaren ezpanetik jausten ziran euskal bixiak jasoten nunbait. «Idazkera biguna, ixurbera, argia du».

Mugaz andik, Frantzia'ko matxiñada ta egun gorriak zirala-ta, ixil-samar euki genduzan -genitun- aldikada luzean ango euskal idazlariak, bai eliz-gizonak eta bai osterantzekoak. Banaka batzuk, alan be, baditugu: Adema, gorago aitatua, Joannategi ta Hiriart-Urruti, esate baterako.

Isturitz'en jaio zan Joanategi. Eliz-karrera amaitutakoan, 1862'an apaiztu zan; gero, Sara, Altzai ta Uharte-Mixe'ko arimazain izan zan amazortzi urtetan. 1880'an, Beloke'ko bakartegian gorde yakun -zitzaigun-; emen, urteok joan eta urteak etorri, sartu-barrien maixu izan zan, tarteka erriz erri be izlari ibillirik. 1903'an, Beloke'ko beneditarrak Lazkau'ra etorri ziran matxiriadatik igeska; ta ementxe il zan Aita Joanategi.

Euskal idazle

Naikoa idatzi eban -zuan- bere bizialdi ez laburrean. Ona liburu onein izenak beintzat:

1) *Ehun bat Sainduen bizitzea* (Baiona, 1876). 439 orrialde.

2) *Zerurako biderik errexena argitaratua* (Baiona, 1887). 156 orrialde. Itzulpena da.

3) *San Benoaten bizitzea* (Baiona, 1887). 180 orrialde.

4) *Sainduen Bizitzea* (Baiona, 1890). 537 orrialde. Ale onek urte barruko lau illetako santuak baiño ez dakaz.

5) *Bihotz sakratuaren hilabeteko esku-liburua* (Baiona, 1894). 335 orrialde.

6) *Sainduen Bizitzea, II zatia* (Paube, 1900). Maiatzeko ta bagilleko santuak arzten ditu. Ez eban -zuan- geiago argitaratu, Urte kristau osoa idazteko asmoa eban -zuan- arren. Frantziako matxiñada txipristiñak bide, bear bada, aren asmoak urraturik gelditu ziran.

7) *Fedeko Propagazioneko Urtekaria* (Baiona, 1877'an asita). Bi illabetero agertzen zan, eta Aita Basilio'k osotu eban -zuan- urte mordoan.

Ba-ditu olerki batzuk ere.

— Zor zarra, zar txarra.

* * *


— Auzoan beti
otsak andiak.

* * *

— Asarreak,
onura gitxi.

* * *

— Agozabal luze,
lo-gale edo gose.



Idazle ona

Euskera bizi-bizia dau -du-. Garbia be bai. Argi ta aratz aitzen emoten dau bere pentsamentua.

Azken aldian batez ere Bizkai aldean asitako euskaltzaletasunak joa zebillen nunbait, eta orixegaitik idatzi eban -zuan-garbi ta ederto. Erririk erri ibilli zanean beti eroan -eraman- eban aldean ingurraz-tia ta arkatza ta paperean jarri oi zituan

erriaren agotik jasotako itz eta esaera bi-txiak.

P. Lafitte'k au: «Basilio Aitak euskera garbia du, baiña apur bat beartua: jos-kerak kilikorra geiegi erabilteak batzuetan nastu oi du irakurlea, ta ziur asko auxe-gatik gogor artua izan da iñoiz aren la-bur-izan naia. Asko zor dio ari, alere, eus-kal elertiak».



Ezpeleta aldean ardiak bazkatzen



Gizonaren bizItza! Alaitasuna ta atseka-bea, poza ta bionnitia, argialdia ta illunaldia besterik zer da? Zer izango litzake gizonaren bizitza, ludian lorerik, irriparrerik eta eguzkirik ezpa'litz? Bear-bearezkoak dira giza-biotzarentzat pozaldlak eta argia. Ildiak. Ordea, nolzdatio iraun lezake ludiko zorionak?

(Barrensoero)

JEAN HIRIART-URRUTI (1859-1915)

Hazparne'n sortua. Garai aretan Hazparne'n apaiz-laguntzaille zan G. Adema'k bateatu eban -zuan-. Len-ikasketak erriko eskolan osotuta gero, Larresoro'n eta Baiona'n amaitu zituan eliz-karrerakoak. 1882'an abestu eban -zuan- lenengo meza.

Andik laster asi zan idazten, 1887'an, «Eskualduna» sortu zanean batez be. Eta Hiriart-Urruti'ren bizi osoko lana astekari onen orrietan daukagu, lan sendo, giartsu ta aspertu bakoa. 1907'an Baiona'ko katedraleko kanonigu izentatu eben -zuten-, eta antxe il zan, gazterik **ta** Flazparne'n lurra emon eutsoen -zioenbere gorpuari.

Idazle bikaiña

Hiriart-Urruti'ren lanak oso bikaiñak ditugu. Orrela autortu dabe -dute- guztiak.

Beste askoren artean, G. Muxika'k onela «Taun onek ainbat, gure ustez, ez du beste iñork euskeraz idatzi. Ainbeste gaietzaz ez beintzat. Estu-estuen esan dezakegu, jaun au izan dala orain arte eus-

kerak izan dauan «periodista» bakarra. Lendabizikoa bai beintzat».



Baiona, kalea eta katedrala

Euskal lana

Emeretzigarren gizaldi azkenerantza Frantziak jasan -sufridu- eban iraulketa gordiñak Euskalerrian be, ipar-aldekoan batik-bat, izan eban -zuan- bere oiartzuna. Erlejiño aldetik batez be, gorriak ikusi bear izan zituen ango erriak eta eliztarak. Irzaultzailleak bizkor, zoli zebiltzan gure errian euren ideia ta aurrera-naiak guneraíño sartu gurarik.

Ortarako, 1886'an, «Le Reveil Basque» zalakoa sortu eben -zuten- Baiona'n; bestaldetik, baiña, euskaldunak ere ez egozan lo ta, urrengo urtean, «Eskualduna» atera eben -zuten-.

Asteroko onen buru Hiriart-Urruti izan zan asieratik zuzendaria il zaneraíño guz-

tian. «Le Reveil Basque» lez, izkera bikoa zan «Eskualduna» ere, euskeraz ta frantsez erdizka. Urteak joan eta urteak etorri, alan be, «Eskualduna» osorik euskaldundu yakun -zitzaigun-. «Reveil» laster itzali zan; «Eskualduna»-k, ostera, bizi luzea ta joria izan eban -zuan-, ta gaur bere aren erro-muskil «Herria» bizitza mardulaz agiri yaku -zaigu-.

Errian eta idazle zaarretan ikasita, ederto zekian Lapurdi'ko euskera. Eta zuzentzen eban -zuan- asterokoan argitaratu zituan lanak euskera dotore, bizi ta ugarian biribilduak dagoz.

Eta crat?

«Orai akabo; hats-bizi zena urka; hil hurran doi-doi zihardukana lurpean sar bizirik; eta barna gero!

Hogoi-ta zenbait urtez alegiazko libertate bat utzi ondoan, orai libertate zena ten (aspaldiko *zendua* baita izen hortako andre ederra Frar,tzian); orai haren ize naren itzalaren itxura bera... non da? Debruak ereman du ondarra. Fitsik ezta ja xutik gelditzen, edo, egun ezpada bihar, hartara goazi. Hartan gira ja.

Hogoi urte eta gehiagoz becrietara errauts botatzen arizan zaizku, erranez: «Fre- ra eta Serora, edo nolazko eskola-emaile giristinoak nahi badituzue, «appelez-les, payez-les».

Trufak trufa, kargak karga, lanak lan, zer egin dugu?


Han hemenka, zenbeit herritan, ahal ginuenetan, etsaiaren hitza topatu. Eskola etxeak egin, eskola-emaile erlisioneakoak ekar arazi, hazi, lagundu, gurez gure, bertzeak bertze, bi eskolen gastuak jasanez; ontsa eta ontsa gure buruak behartuz.

Eta oren buruan orai, ez haizu futxo hein hori ere gurearen jabe. Ez dea dorpe? Ez dea errogarri?

Herri-eskola askotan baitziren oraino Serorak, fuera hustu dituzte oro. Hori eginen zutela etzuten gordetzen. Legea zuten ere hala egin. Baginakien hori, goiz edo berant, zatorkela.

Bainan hainbertze urtez, alegia zinez mintzo, erran ondoan: haizuko ginela, gu- rez gure, nahi ginituen eskolen hautatzera, nola dire orai bet-betan ixildu? Edo hobeki erran dezadan, nola zeie ahoan mihia itzuli pekoz goiti?

Orai arte hain garbiki eta goraki errana: «Egizkitzue nahi dituzuen giristino eskolak». Eta orai zenbeitño, ahal bezala, egin ditugunean, solasa itzul: «Hets- kitzue hortik freradun, seroradun eskola hoik. Eta zalu gero hets». —Zertako? — Hartako, Ez balinbada hori hitzaren jatea eta itsuski jatea, otoi, erradazue zer den?» (*Eskualduna*, 1902-9-12).



Baiona, Katedraleko klaustro

Beste idazle batzuk

—JEAN BAPTISTA DARRIKARRERE (1844-1927). Uztaritze'ko semea. Lapurdi'ko idazle zarrak iñork baiño obeto aztertu zituana. Itzen jatorriari buruzko lanak ditu geienak. Iztegi bat ere bai. Tartas'en «*Onsa hilzeko bidia*» aztertu ta argitara euskun -zigun-. Ba-daukaz -dauzka- ipuin eta eresiak ere.

PIARRES HARISPE (1854-1925). La. purditar apaiz langillea. Idazle atsegiña. «Euskal-Erria»-n idatzi eban -zuan-; ementxe argitaratu eban gaiñera bere «*Karmela*», iru ekitalditako drama, bertsoan. «*Ainhoa*» (Paris, 1892) euskal nobela ere berea dau -du-.

JULIEN HEGI (1860-1930). Aiherre'n sortua. Larresoro'n egokitu zituan bere lenengo ikasketak, eta Baiona'n ondorengoak; 1885'an apaiztu zan, eta ondoren, Santa-Grazia'n, Ainhoa'n, Uztaritze'n, Beskoitzen eta Arrokuaga'n egon zan ari-

mazaln. «Eskualduna» asterokoan idatzi eban. Liburuxka au atera eban -zuan-: «*Andredena Mariaren hilabetia eta A rosarioko hilabetia* (Baiona, 1890). 196 orrialde.

—ETIENNE DECREPT (1868-1938). Baiona'n sortua. Apain-margolari izan zan bere aita bezela, eliza askotan margogintzan jardunik. Euskaltzale benetakoa zanez, urte-pilloan bera izan zan «Eskualzaleen Biltzarre»-ko buru. Bidarte'n il zan. Iru opera ditu: 1) «*Maitena*» (Bilbao, 1909), ekitaldi bitan, itz neurtuz eta larriz -prosz-; 2) «*Amatxi*» (RIEV, 1914), toki askotan antzeztua, ta 3) «*Semetxia*» (1921), Collin'ek eresitua.

—PIERRE BROUSSAIN (1869-1920). Hazparne'ko semea. Sendagille. Euskaltzaiña 1919'garren urtetik. Euskeraz ondo ekian, eta ainbat lan idatzi zituan Baiona'ko «Eskualduna» asterokoan batez ere.

Udazkenean urtzoak
pasaian dire partitu,
Hala hala naiz ni ere
neure herritik airatu.
Hedoi artetikan mendi
gora batean pausatu.
Hemen denbora behar dut
beti penetan pasatu...

Sor-lekuan izaltea
zuentzat zer zoriona!
Bai handkiki egia da
eskualdunak diona:
«Herrilalde guzietan
toki ederrak badira,
bainan bihotzak diola:
zoaz Eskual-herrira!»

(Mañex Etxamendi)



Irugizon

Esan dogunez, etzan iñolaz ere giro ona euskera ta euskal erri osoarentzat, emeretzigarren gizaldiaren azkena ta ogeigarren onen asiera. Nasterik asko zan guretarte: odei tzarrak ebiltzan gure zerupean, euskal nortasunaren etsai biurriak noski.

Euskalerriak ez eban -zuan- atzerantza egin bear il edo biziko burrukan: zazpi euskal lurraldeak batera jokatzen eben -zuten- estualdi ontan onez urten naita. Guztien indarrak bear ziran euskal gauzak salbatzeko.

Naparroa'n iru gizaseme trebe daukaguz -dauzkagu-, Kanpion, Zubiri ta Iri-

garai, euskera zelaian batez be zintzo jokatatu ebenak -zutenak-.

Kanpion'ek ez eban -zuan- bere erria atzera itxi nai, ta zelako lana egin euskun -zigun- bere onerako, bai euskeraz eta bai erderaz. Sortzaille ta gidari, urte mordo batean berau izan zan Naparroa'ko mezularirik jatorrena.

Zubiri ta Irigarai, euskal idazle aberats; biak ditugu eredugarri. Eta onein inguruan, izar txiki antzera, or doguz Goienezte apaiza, Aita Elizondo kaputxffloa, Aita Ibero, Etxalar ta besteak.



Iruia: ko zezenketa

ENRIKE ZUBIRI (1867-1943)

Mendi tarte ospetsua da Luzaide; emen-txe jaioa dogu Zubiri, euskal idazle errez, oparotsu ta mazala.

Beronen bizitzaldia etzan zarata asko-koa izan, baiña bai *aberatsa*.

Donibane-Garazi'n egin zituan bere ikasteak, garai artako gerrak zirala-ta, an bizi ziran ba bere gurasoak. Paris'en ikasi eban -zuan- margogintza -pintatzea-, eta etzan margolari txarra, or-emen aurkitzen diran irudi-antz, edesti ta elezar puskak adierazten dauskuenez -digutenez-

Literatura be, ederkerari zegokiona beintzat, an Paris'en ikasi eban -zuan-nunbait, bere lan dotoreetatik atera dai-kegunez -dezakegunez-. Artista legez diardu beti, bai pinturan eta bai literaturan, gauza bakoitzari zer dagokion axe adie-razo ta aitzen ematen bearturik.

Paris'tik euskal erriratu ta Iruña'n jarri zan egotez, ango Antze ta Lanbide Eskolako maixu. Urte mordoia egin eban -zuan- arazo onetan. Berton il zan, azke-nez, 81 urte zituala.

Euskal idazle

Firia da luazten, naiz erderaz naiz eus-keraz. Orduko aldizkingi askotan agertzen dira bere lanak. Bestelako gaiak ikutzen ditu, errikoiak eta jantziak, dala jazoera naiz kronika bat, dala ipuin naiz edesti (istori) puska ta apurrak; jori ta atsegin benapar izkelgian errez, trebe darabil be-re idazkortz bitxia.

Gizatiar lantze ta kultura bikaiñaren jabe zan ezkeru, egiten dituan antz-irudi, kontatze, barriketa ta enparauak artearen mamiña sakon dakianaren erara moldatzen ditu. Baiona'ko «Eskualduna»-n eta Iru-ña'ko «La Voz de Navarra»-n idatzi eban -zuan- geienetan. «Manezaundi» zan zera-billen izen-ordea.

!rthe zahar eta berria

Gauza zaharrek badute bere alderdi ederra eta goxoa, zerbait gure bihotzian hunkitzen duena, eta oroitzapenak idatzarten dituen, bereziki guretzat; hain aipa-tua izanik aitzineko mendeetan Nafarroako erresuma eta bere hiri nagusia.

Iruñeko karrika zaharrak mintzatzen zaizkigu lehengo denboretako oiturez eta bizi moldez. Hertsiak eta ilunak izanik ere, maite ditugu bere xoko eta bihurgu-neak. *Dormitaleria*, *Mafitteta*, *San Francisco*, *Carmen* eta bertze, etxe zaharrak bere zigilu edo armaharri ederrak agerian, lehengo familia aipatuenen egoitzak gure gogoa oroitzapenez betetzen dute. Eta orai auzo zahar horiek erdeinatuz, ihes doa yendea auzo berri edo *Ensanche* hortarat laket baitzako argia eta zabaltasuna, baita ere osagarria, futxo!

Nola uka osagarriarentzat hobeagoak direla karrika zabal eta etxe nasai berri horiek?

Karrika zahar eta mehar horiek lekuko dira nola orai ehun urte Irurien yende geien-geiena mintzo zen gure eskual mintzairan, bai eta aintzinago gibelatzen balin-bagira, zer gudu izigarriak izan dituzten beren artean, egundainoko herrakundeaz inarrosiak, sarraski gorrienetan odolztatuak, frantses arrotzak oildu nahiz *Nabar-iria* auzotik, hok bizi zirelarik jaun done Satordi elizaren inguruan.



Iruña, alderdi zaarreko txokoa

Hor dira oraino karrika zenbaiten izenak, *Lindachikia, Chapitela, Mañueta, Santo-andia*, frogatzen daukutenak nola zen Iruñeko mintzaira eskuara huts-hutsa; eta yakina da bazala lehen Iruñen *Plaza* bat Zugarrondo deitua; eta arrotzak itzuli zuen erdararat, *Plaza del Olmo* deituz.

Gure gazte denboran, baditu urteak, etzen garbitasuna batere edatua, etzen oroz gainerik baitezpadako behar bat, orai bezala; eta oraino oroitzen gira nola ur-ixurkien usain gohaindigarria gure sudur zilotik sartzen zitzaigun; karrika sahetsetan ba ziren zilo batzu lurpeko erreka zikinetaraino heltzen zirenak. Orai, zorionez, zilo horiek etsiak dira *sifon* tresna bateri esker urak berak estaltzen dituenak, eta *Usain tzarrak* ez dira igaiten karriketarat.

Zer ondorio onak osagarriarentzat!

Lehenago yendakia gogorra zen. Etzen hain minbera hotzari, beroari, usain tzarrerri egungo egunetako araberan.

Ez da arritzeko nola doan yendea auzo berriko bizitokietarat. Mundua bertzelakatu da izpiño bat. Goxoegi, aisago, eta hobeki aziak eta yauntziak bizi gira. Oraino yende apalak lehenago ahaldunen heinean eta herrunkan lerrokatuak dira. Langilearen irabaziak lehenagoetarik hiru aldiz goititurik, ikusi behar da zer sudurrak dituen yateko, edateko eta yauntzietako. Untziko xardina eta xingar gizen urdinu guti orai langileen mahainetan.

Xingar ginarri xafla ederrak, bildotx giltxurrinak, oillasko eta sasoineko hegatzin yaki hautak.

Iruñeko auzo berri —*Ensanche*— ari da egin ahala edatzen. Etxeak gero ta ederragoak eraikitzen dituzte, bost, sei egoitzetakoak geienak goititzale edo *ascensor* horiekin, karrika zabal eta nasaiak, zolak ederki zimentatuak, eta bidekarien ibiltokiak ezin hobeki apainduak.

Denboraren urratseri yarraiki behar. Erranak diona: *Renovar o*

Lehenago gudu-harr-esi gaitzak suntsiturik, eta heien azpiko pezoin beherak lurrez estalirik, dena berdindu eta zelai zabal bat eginik, zer lan izigarriak oraino egunetaraino heltzeko! (*E. Zubiri*).

ARBOLA SANTUA

**Gernika'ko Arbola da bedeinkatua,
Euskaldunen artian guztiz maitatua.
Eman ta zabal zazu muduan frutua;
Adoratzen zaitugu, Arbola santua!**

**Betiko bizi dedin Jaunari eskatzeko,
Jarri gaitezen danok laster belauniko.
Eta blotzetilum eskatu ezkeru,
Arbola biziko da orain ta gero.**

(Iparragirre)



ITZAK

Karrika, kale.
Zigitu, ezkutu.
Egoitz, cgonleku.
Lekulo, testigu.
Sarraski, ilketa.
Gobaindigarri, naskagarri.
Herrunka, erreskada.
Xingar, urdai-azpiko.
Zola, acpi.
Erresuma, erreñu.

ADITZAK

Hunkitu, ikutu.
Iratzartu, esnatu.
Ertsi, itxi.
Etsi, itxi.
Gibelatu, atzeratu.
Erdeinatu, ezetsi.
Oildu, jaurti.
Igain, igaro, igaran.
Eraiki, jaso.
Erran, esan.

—Amar urte ba-dira, gutxiene,an, nere amagiarrebarekin itzegin ez detala.

—*A sarre al zaudete, ba?*

—Bai zera! Beti bere txanda izaten bait da!

Orixe ez asarretzeko bide bakarra. Orixe egingo det neronek ere. Entzun ta kito!

Nola dek izena?

Amak bezela.

Eta amak?

—Aitak bezela.

ik nola dek izena? Jatordurako nola *deitzen* ditek?

**Ez dute deitu bearrik izaten, jator-
duan maiean sasoiz ol naiz ta.**



PABLO FERMIN IRIGARAI (1869-1949)

Idazle izena «Larreko» eban -zuan-. Auritz —erderaz Burguete—, mendi-gailurrez esituriko zelai zabalean datzan erri-txo liraiña dozu -dezu-. Orreaga daukazu bertatik laster.

Ementxe jaio zan Irigarai, gaur Martin Zurgin deritxan etxean. Era egokia izan eban -zuan- ikasteko, bere aita eskola maixu zan eta. Lenengo ikaskizunak, beraz, Auritz'en bertan artu zituan, geroa-gokoak Iruña'n eta Zaragoza'n egiñik. Medikutza Madrid'en ikasi eban -zuan-.

Osagille legez, Bidasoa'ko Bera'n egon zan lenengo ta gero Irurita'n, eta azkenez

Iruña'ko Barañain dalako Gaixotegi nagusian urte askoz, bere eriotzararte.

Latxaga'k au: «Gizon bezela, oso ona ta ziñezkoa zala esaten dute, kristau egizkoa gairiera. Sendagille bezela egindako lanengatik Naparroak zor aundiak ditu berari ordaindu bearrak. Gaxotegi berria gizon onen bidez egin zan eta ango zuzendaria izana da. Ebakunzlari edo zirujano bezela lana egiten zuan eta esan dezakegu Naparro osoa bere eskuetan igaro dala. Bere gaxoak ez dute aztu».

Iruña'n il zan, 80 urteko.



Orriaga, Monastegia

Euskal idazle

Ia bizitza guztian osagintza Zanez lertua ibillita ere, andik edo emendik ateraten euskun -zigun- asti pixkat kulturazko gaiak aztertu ta buru-biotz jarioka idazlan politak bururatzeko.

Euskeraz ta erderaz idatzi eban -zuan-. Euskeraz, Baiona'ko *Gure Herria'n*, Donostia'ko *Euskal Esnalean*, Bilbao'ko *Euzkadi'n*, Iruña'ko *Napartarra'n* baitik bat, eta erderaz, Iruña'ko *La Avalanchan*, *El Eco de Navarran*, *La Voz de Navarran* eta beste.

Euskeraz idaztean, askotariko gaiak erabilli zituan: kronikak, barri emote jakin-garriak, nobela laburra, euskera, senda-

kintza, feminismua ta abar. Sinismen andikoa zan, elizkoia ere bai. «Feminismoaz» dalako artikuluan Andra Maria goratzen dau -du- poliki, «ez da izan sortu direntan, hura baino handiagorik, ederragorik eta saindiagorik», esanaz.

Erderaz iru liburu oneik utzi euskuzan -zizkigun-: 1) *Topografía mMica del valle de Baztan* (Iruña, 1945); 2) *Guia mMica del asistente a moribundos* (Iruña, 1945), eta 3) *Guia médica del int&prete de milagros y favores* (Madrid, 1949).

Bere idaztankera (estiloa) beti dozu jaso. «Giarra ta, aldi berean, ugaria ta argia», diñosku A. Arrue'k.

«Aspaldidanik, Nafarroako Oroituri-aren arabera, munduko lau kantoñetara edatua zen eta dago Orreaga izena.

Zortzigarren mendeko urbil artan izandu zen non, Karlo Magno-ren gudutaldea porrokatu zuten orduko Nafartarrek.

Baño untaz landara, zeruko eta lurreko Andre Denak berezi zuen bere egoitzarako, leku zoragarri ura.

Menderen mende eliz artako eliz gizonek, aundi-maundi eta jakintsunek, Orreaga-ko Ama Birjina-ren omena eskualde bazterrenetara edatu zuten.

Oraia untako aundi-maundiek eta jakintsunek ez dakit antzi ote duten Orreaga-ko Andre Dena dagon leku ederra; baño aren inguruetako erritar eta baserritarren artean bizi-bizia dago aren baitako ustekida gozo-gozoa, eta berari dioten leia.

Jainkoak daki noiztiez geroz, urteoro eta Salvatore ondoko aste osoan, egunero eta banazka erri batekoak eta ibar bakoitzekoak, Orreagan dituzu goiz-goizetik ibilaldi luz-luzeak eginik; zurezko gurutze lodiak soñean eta bidean Andre-Denari agurka eta kantari!

Eta gu ikusle. Sinesdunak ek eta gu otzak? Epelak zinez: eken sinets biziaren jabe bagine!

Baño nor gara gu? Norata heldu naiz? Ez ote naiz ek bezain Andre Denaren seme? Eta ek, ala; eta ni unela? Nik Elizara, Ama-Birjinaren oñetara, Amaren alzora ez ote dut ek bezain Iaster bide?

Baña ni bertze bidetik nindoaien; ni buru andikoa naiz, antutsa!, ikasiz eldu nai nuen jakitera nor den Jainkoa eta nor den bere Ama.

Ongi ikasiz geroz, ongi ezagutu eta gero belaunikatu eta sinesteko.

Ergela! ene baitan nere buruari deituta, sinesteko bidea ez duk ori! Ortako bide ilaburra bertze aldetik dago. Burua apaldu, biotza agertu eta belaunikatu.

Nik ere alde untarik jo nuen eta *Ora pro nobis..ka* elizarat sartu nintzan».

(P. F. Irigarai)

Iritziak

Lizardi'k maite eban -zuan- Larreko. Onela berak adiskideari buruz: «Larreko'ren iritziak- maiz txorrotxegiak iduritzen zaizkidan arren, gizonez maite det, idazlez ederresten, eta abertzalez, gorasarre dagiot».

Eta Eusebio Erkiaga'k: «Idazleak, gai sakonagoak eta goragokoak izango ditu; baiña ez du eskubiderik izkera bera, erriak baiño traketsago ta illunago ta aldrebesago bilakatzeko. Lanak deramaz-

kian gaiak eta laguntzailleak eta gorabeherak nola alkartu, idazleak jakingo du, noski; halarik ere, idazleak, ari dan izkuntza, darabilen izkera zaitu, gorde, osatu ta txukun agertu behar' duela uste dugu, beste errietako idazle gailenak eta azkarrenak egin duten bezala.

«Beste alderdi bat, eta «Larreko»-rengan goragarriena ta axola nagusikoa, bere saileko gaiiez, euskaraz idatzi izana bsa-

sun gaiak, miriku arloko jakingarri zenbait, garbitasuna, edariak, gizonen eta emakumeen lanak, eta abar».

Napar euskera aberastu euskun -zigan, dudarik bage, Larreko'k. Ez eukan bere burua idazletzat, baiña guztiz ederto jarduna dogu. Erriak aspalditik era-

biltzen dituan esaera dotorez apainduta dagoz aren idazlanak. Oneikaz ale txanbeliña osotu eban -zuan- oraintsu Aingeru Irigarai aren semc osagilleak, *XX-garen mendeko Nafarroako Euskal Idazlariak* (Iruña, 1958) argitara emonik.

Beste idazle batzuk

-ARTURO KANPION (1854-1937). Iruña'ko semea. Buru argi ta naimen sendoko gizona. Konta ezin-ala liburu idatzi zituan erderaz, Euskalerriari begira. Umetatik ez ekian euskerarik, baiña polito ikasi eban -zuan-, bere «*Gram,tica de cuatro dialectos literarios de la lengua euskera*» (Tolosa, 1884) lekuko; baita naikoa lan euskeraz ondu be: 1) «*A gintza*»; 2) «*Orreaga*»; 3) «*Denbora antxiñakoen ondo-esanak*»; 4) «*Okendoren eriotza*»; 5)

«*Gure sinismen oso-oso*a»; 6) «*Sartu-aurrean*»; 7) «*Malaxka ta Akuliña*», ta besteak.

—KRUTZ GOIENETXE (1866-1925). Amaiur'ko zain euskaltzalea. Euskal arloan kezkatu ibilli zan beti, ari ta oni languduaz.

—AITA ELIZONDO (1871-1932). Kaputxinoa. Bereak ditu: 1) «*Kristaua bere pont-elizan*» (Tolosa, 1910); 2) «*Elizkantak*», eta 3) «*Loretegi usaiduna*».



ITZAK

Gudutalde, gudari-talde.
Eskualde, txoko, bazter.
Ustekida, konfiantza.
Antuts, buru-uts.
Gorasarre, goralpen.

ADITZAK

Antzi, aitzu.
Txukundu, dotoretu.
Ederretsi, miretsi.
Ordaindu, pagatu.
Berezi, autatu.



—Gizaseme asko buru.aririak gara. Gau-
zea zer eta zelan dan jakin barik, barri-
ketan ekiteka ekandu txarra daugu. Kri-
stiñau-Ikasbideko liburutxoak be eztakien
babalasto askok, erlejitioko gauzetan ea-
ren buruak maixu andi egiten dabez; Sa-
lomon'ek baño be geiago dakiela uste
ten dabe, ta guzur ta abar barriketa
utsean diardue. Iñon diran tentelkeriak
esaten dabez: ori ta guzti be, gizona oke-
rreerako makur dagoalako-edo, askok si-
nestu egiten dautse.

(Eguzkitza)

EGOAIZEA

Udazken arratsalde
sortu intzen ero:
baserritarrak dantzan
ar! ziran gero:
also zarrak musean
etxaurrean lerro,
atarian ozkirri,
sukaldean bero.

(J. Zaitegi)

EGUZKITZA 'TAR JON B. (1875-1939)

Lemona'n jaio zan Eguzkitza. II be ber-
tan egin zan. Euskal liburutegi eder baten
jabe zan, eta il zanean, Lemoa'ko eleizea-
ri utzi eutson -zion- bera; geroago onek
Derio'ko apaiz-ikastetxeari.

Lenengo abade ikasteak Zornotza'n
egin zituan, Filosofia eta Teologia Gaz-
teiz'en amaiturik. Teologian lizenziatua izan
zan. 1899'garren urtean esan eban -zuan-
lenengo meza, eta bere bizitzako urterik
geienak Lekeitio'n igaro zituan, ango la-
tin-ikastetxeko maixu.

1912'an apaiz-alkarte bat sortu zan Biz-
kaia'n: «Taungoiko-Zale». Kristiñau-ikasbi-
de lanak aurrera eroateko -eramateko- sor-
tu zan batez ere. Lan aundia egin eban
-zuan- bazkuna onek. Ba-eban bazkuna
onek bere aldizkaria ere, «Jaungoiko-Zale»
eritxona. Au zuzentzen ebenen -zutenen-
arteko genduan Eguzkitza.

Euskaltzaiña izan zan 1919'tik aurrera,
ta alkarte onen aldizkari «Euskera»-n aur-
kitzen dira Eguzkitza'ren txosten eta idaz-
kiak, gramatika gaietaz baitik bat.



Euskal lana

Entzute aundiko idazlea dogu lemoatar argi au. Orixe'k onela idatzi eban -zuan-: «Gai zailletan eta argi euskeraz au baino obeki mintzatu denik ez dakit ote den Euskalerrian».

M. Zarate'k, barriz, onela. «Gizon fiña izan zan Eguzkitza, eta idazlan asko egin ebazan eta sakonak. Sustraira, unera, sakonera jotan dau beti. Eta, augaitik, gai sakonak eta zaillak darabilz geienetan: Teoloji-gaiak, Filosofi-gaiak, euskera-gaiak... Jakintza arloan diardu, euskaldunak eta euskera jakintza maillaratu gurarik. Eta, jakiña, eskoladun irakurleak bakarrik ulertu daikeez ondo aren idazlanak».

Euskal idazle aspertu bakoa izan zan. «Jaungoiko-Zale»-n, «Ekin»-en, «Euskera»-n eta «RIEV»-en idatzi eban batez be.

Liburu oneik -auek- bereak ditu:

1) *Garbitokiko arimen Illa* (Bilbao, 1915). 124 orrialde. Itzulpena dozu, Sarda y Salvany'k egiña euskeraz.

2) *Loretako Illa* (Zornotza, 1919). 299 orrialde. Andra Maria'ren onoimen eta birtuteak azaltzen dira liburu ontan. Argi, gozo ta sakon idatzita dago. Gure erriak maite izan dau -du-, eta maiatzean batez be, asko erabillia gure eleizetan eta ermitetan.

3) *Gizarte-Auzia* (Zornotza, 1935). 194 orrialde. Ugazaba ta langille arteko gora-berak. Aurretik «Ekin» aldizkarian agertu zituen lanakin osotua da. 35 kapitulu ditu, eta gizartekeria ta baltsakeria (sozialismua ta komunismua) zer diran, gizarte-auziaren sustraiak, Marx'en irakaspén, eretxi ta uste okerrak, alderdi onak eta txarrak, domua (kapitala), alogera ta abar, ederto be ederto azaltzen dauskuz -dizkigu-.

4) *Itzaldiak*. Durango'n irailaren 7-8'an ospaturiko lenengo euskal jaietan egiña (1921); Arrasate'koetan egiña (1927); Mexiko'tar katolikuen alde egiña (1928); Andoain'go euskal jaietan eukia (1929), eta abar.

5) Aita Frantzisko Baltzola'ren *Argi Donea* (Zornotza, 1933), bizkaieraz Eguzkitza'k ipiñi eban -zuan-.

6) *Eleiz-itzaldiak*. Sermoe pillo ikaragarria dau -du-, oraindik argitara bagea. Zortzi bat urte dirala, On Zirilo ta biok giñan itzaldi guzti orreik -oiek- (iru ale marduletan) argitaratzekotan; baiña ez euskuen -ziguten- itxi.

«Langilleak egindako gauzeak balio bi ditu: orren *valor en uso*, zetarako egiña izan dan eta atarakoxe daukan egokitasuna da; eta *valor en cambio*, beste gauzaren baten ordez trukau nai diru-ordez saltzeko daukan balioa. Bigarren balio au Marx'en cretxiz, langillearen lanetik eta ortik bakarrik datorchio; baña ugazabak lanaren ordez egerleko bat emon eta langilleak egindako gauzea ogerleko bian (eta bear bada geiagotan) saltzen daki.

Langilleai, egindako gauzan sartu eban lanaren balioa ordaintzeko zanean, balio ori ogerleko bat baño etzan, e₁a langilleak egindako gauzan sartu eban lan berori trukau nai saltzen danean, orduan ogerleko bi da orren balioa. Au maltzurkeria ezpa-da, munduan eztago maltzurkeririk, Marx'en eretxiz,

Langillearen eskuetatik ogerleko baten urten zan gauzea, ogerleko bi ta, bear bada, geiagotan saltzen dabe ugazaba, ola-jaun, lantegi-jabe, ta salerosleak. Langillearen eskuetan ogerleko bat baño balio ez eban gauzeak, ugazabaren eskuetara ezker ogerleko bi, zer dala-ta balio ete ditu? Salneurri-gaiña —*plus* gauzen balioa orrelan goratzeari eritxon Marx'ek. Eta ori baño be txarrago dana —esaten eban—, salneurri-gañok domudunen (kapitaldunen) eskuetara doaz beti eta onelan aldi laburrean asko larregi aberastuten dira.

Ugazabak sarritxu euren langilleai zor yaken besteko alogerik eztautsela emon, iñok be ezin ukatu daike, Aita Santuak be ori bein baño sarriago irakatsi dabe-ta; baña Marx'ek bere asmuetarako arira etorkiona sarriegi aitatzen eta oker etorkiona polito estaltzen ba-ekiala be esan bear dogu, au be egia da-ta. Gauzak truketako nai diru-ordez saltzeko dauken aldin edo balio guztia, zeatz eta osoro, langillearen lanetik etorkiela; orixe ipiñi eban Marx'ek bere irakaspen guzti onein oñarritzat: haña oñarri ori guzurra da-ta, Marx'ek ortik eratorri ebazan ondorenak be guzurak izan bear.

Eta izan be, ugazabak langilleari, beronen lana egiteko, emon dautsazan gaiak --diranak dirala— baliorik ez ete dauke? Ugazabak bere ola nai lantegian daukazan tramankulu, bulzkin eta makiñak balio bakoak ete dira? Lantegia zuzen ibilli dadin, ugazabak artu bear dauan ardurea, txakur txiki bategaz ordaintzekoa ete da? Ola ta lantegian egindako gauzak saltzeko, bein baño sarriago datorchiozan buru-austeak txanpon zar bat be ez ete dabe balio? Galtzeko arriskua be bein baño sarriago izaten da; arrisku ori be aintzat artzekoa ez ete da? Lantegitik urteiten diran gauzetan Marx'ek alde bat baño ez eban ikusi; langillearen lana. Begietan lausra eukalako edo, aintzat artu bear diran beste asko, ez ebazan ikusi; origaitik Marx'en irakaspenetan, egia urri» (*J. B. Eguzkitza*).

Iritzia

Eguzkitza'ren pentsamentua beti dogu argia: Euskeraz ederto ekian, aditza batez be; eta beti darabil aundikiro ta guren, ezeren zalantzik bage. Gaia zaila izanik ere, argi-argi jarten dausku -digu- begi aurrean.

Maixutzan egin eban -zuan- bere bizi guztia, au da, irakasten. Ez da, beraz, arri-

tzekoa bere idaztai maixu-kutsua ba-darie be. Eguzkitza'ren lanak ez dira, ba, nobela antzera irakurri bear: nobela-idazleak biziago darabil bere luma, irakasteko diran lanak ez dabe -dute- iñoiz be orren beste bizitasun.

Dana dala, Eguzkitza'k euskera errez, gozo ta erritarra dauko.



Lemona-ko gurutzea, Euskadi askatuaren deiadar bat.

ITZAK

Babalasto, suster bako.
Txosten, informe.
Idazki, karta.
Maltzurkeri, azpi-joko.
*Ola-jau*n, enpresario.

ADITZAK


Igaro, emon.
Eratorri, atera.
Lausotu, begiak itsutu.
Ba-darie, jarion, urten.
Zoldu, saldarra aunditu

Eguzkiak bere argi-izpiak bazter guztietara zabaltzen dituan legez, ta bere argiz gauzak argitu, Jaungoikoak bere ontasunaren zerbait emon daroatsee izaki guztiei, bakoitzari bere maillan...

Diran guztiak, diran oro Jaungoikoagan. dik datorz, Jaungoikoaren lorratz dira, bL kaiñago ta Jaungoikoaren antzekoago. Iza-ki guztiak iragarten dauskue Jaungoikoa. rON edertasuna...

Izaki guztiak Iragarri arren Jaungoikoa. renospe ta edertasuna, areago adimendunak, ezagueradunak. Eta ezagueraduntan, batez bere, aingeruak.

(J. G. Ibartutxi)



rt.

4L.

ko,

kt

JON GURUTZ IBARGUTXI (1883-1969)

Ubidea'n jaio zan Ibartutxi apaiza. Gazteiz'en osotu zituan apaiz ikastaldiak. Eta karrera amaitu ondoren, Zestafe'n, Marin'en, Eskoriaza'n eta Eibar'en egon zan arimazain, gerra aurretik; eta gerra ostean, urte batzuk igarota gero, Errioxa'ko Badaran'en eta Basauri'n emon zituan bere egunak. Emen il zan.

Abade on eta idazle ugaria dogu Ibartutxi. Abadetzan lan egin eban

-zuan- lenengo, beti zintzo ta gartsu, bizi izan zan leku guztietan bere ontasunaren atze ederra itxirik. Gero, idazteari ekin eutson -zion-.

Berak autortzen dausku -digu- «Siniskaiak» liburuari jarri eutson -zion- itzaurrean: «Lenengo ta bein, abadetzan, apaizgoan jardun izan dot nik, bai emen, bai atzerrian. Txolarteetan ekin izan dautsot idazteari».

Gauza sakonak azaldu zituan Ibargu-txi'k, au da, Teoloji gaiak. Lenengo «Jaungoiko-Zale» aldizkarian eta liburuetan ondoren. Eta ubideatar argiak egiñiko azalpen osoari begiratu ezkerro, Teoloji osoaren laburpena dala, autortu beat dogu .degu-. Ona:

1) *Sthiskaiak* (Bilbao, 1958). Kredoa datozen siñisbearrak azaltzen ditu sail ederrean. Orixe'k: «Berton sartzen dauz gauza bi jakingarri: Aingeruak eta gizona zer diran. Giza-gorputza, arima, gizonaren elburua edo norabearra, jatorrizko obena, obenean zelan jausi zan eta Jaungoikuak zelan jaso eban».

2) *Jaungoikoaren eta Eleizaren Aginduak* (Bilbao, 1953). 314 orrialde. Morala ta siñisbearra oiñarrizat arturik, zeatz-zeatz aztertzen ditu Jaungoikoaren amar aginduak eta Eleizearen bostak. Lendik be argitaratua zan liburu au (Zornotza, 1925).

3) *Eleiz Anza Deunaren Ikurtonak* (Bilbao, 1954). 352 orrialde. Egilleak diño: «Ikurtonak, Goi-bizitzaren iturbide diran ezkerro, alik zietzen eta sakonen azaltzeko alegin egin dogu». Lendik be argitaratua zan liburu au (Bermeo, 1932).

4) *Otoia* (Bilbao, 1955). 211 orrialde. «Oso-osoko lana», diño Orixe'k. Otoitzbearra, zer eskatu, norentzat eskatu, aozkoa ta gogozkoa, eraspentak eta abar...

5) *Geroko bizitza* (Bilbao, 1953). Zerua, atsedeen lekua, ikuste zorionsua, bizitza doakabea, garbitokia ta enparauak aztertzen ditu.

6) *Edesti Deuna* (Zornotza, 1936). 245 orrialde. Itun zarreko ta barriko jakingarririk urtenenak dakaz, Eleizearen zabalgundeaz amaiturik.

7) *Mezadia*. Orixe'ren «Urte guziko Meza-bezpe,rak» bizkaieratuta, oraindik argitaratu bage.

Onezaz gaiñera, «Jaungoiko-Zale»-n, «Ekin»-en eta «Karmel»-en artikulu asko datoz bereak.



Durango,
gurutzea

«A iia Gurea»

Gogarte edo meditaziñoa egikeran zelan jokatu bear dogun, argi ta garbi adierazten dausku -digu-. «Gure Aita» otoikizuntzat artuaz, esaterako, onela jardun bear dogu:

«Otoi eder onen itz bakoitza aztertu ta aoznartzen ekin. Aita! Jaungoikoa dot ene aita. Aita oni zor dautsat nire bizitza. Guraso bidez sortu izan nau, baiña nire benetako Egille ta aita Jaungoikoa da. Aita!, itz samurra, itz bizikoia, ao beteko itza. Nork aztertu aitaren biotza? Nork neurtu aitaren semeagazko maitasuna? Aita guztiak, zoratzerañño, lilluratzen dira euron umetxoekin. Zer zorakeri egin ez daroa aitak semeagaz? Odola emoteraiño, ez ete ditu aitak umetxoak maite?

Eta gurasoak orrenbesteraño maite ba'gaitue, zeinbateraño maite izango ez gaitu Goiko Aitak? Gurasoen maitasuna, ba, arako gure Goiko Aitaren biotzetik darion izpitxo bat baiño ez da. Au gure poza!, au biotz maitasuna!, au atsegina! Jaungoikoa dogu aita. Aita alguztidun, Aita on-ona!

Eta ori Jesukristok irakatsi izan dausku, Jaungoikoaren Seme Bakarrak! Agiri da, ba, Jaungoikoaren Seme bizia zarala, Jesus ona! Alako Aitaren alako Seme! Piztu, arren, nire biotz zimel onetan Zure ta nire Aitagazko maitasun-garra ta uste ena.

Olantxe aztertu ta adialdu, itzez itz, otoi eder ori, gure biotzari eragin arteraño. Auxe berberau egin «Agur Maria», «Aintza Aitari...», «Sinisten dot» eta egunero darabilguzan enparau otoiekin» (*J. B. Ibargutxi*).



Ubidea, gizaldiaren asieran

Zelako idazle?

Sakon ekian euskera. Eta gaiak zail eta barrukoiak izan arren, euskera errez garbian naikoa argi azaldu euskuzan -zizki-gun-.

Orixe'k beiñola onan idatzi eban -zuan-: «Bizkaia'n Eguzkitza aundia ta Ibargutxi idazle bikotea lakorik bai ete dogu iñungo Euskalerrian? -Biribil esango dot ezetz» (*Karmel*, 1960, maiatza-bagilla, 66 orr.).

Eta gorago aitatu ditugun Kristiñau-Ikasbide-Atzalbena deritxan bost alekoa aztertzean, onela diño: «Lan oneiri argita-

suna ta berotasuna darie. Jakiña, Jainkoaren itzari dariezan doai orreik alde batera itzirik, Ibargutxi jaunak berak beure iruzkiñean argitasuna du beti aurretik; gero sua, bero biguna, edo gitxienez, su-geia arkituko dozu emen. Euskera gozua, garbia. Oraingo euskalzaleak bere ondo ulertu dagikee. Zenbait aldiz itz barriak edo aspaldiko ez diranak erabilten ba'dauz, ondoan ipinten dau beste bat argitasunerako».

Beste idazle batzuk

Asko ditugu garai ontan ederto idazten dabenak -dutenak-. Ona batzuen aita-pena beintzat.

-PAULO ZAMARRIPA (1877-1950). Apai-za. Euskaltzale zintzoa. Bizkaia'n Mungi ta Txori-erri aldeko euskera ederto darabilena. Laredo'n jaio zan, eta Sondika'n

Bere euskal liburuak: 1) «Zaparradak-eta», «Kili-kili» eta «Gora begira», olerki ipuiñez bete; 2) «Gora begira», olerki txorta; 3) «Granilitica vasca», «Vocabulario vasco-castellano y castellano-vasco», «Conjugaciones guipuzcoanas» eta «Manual del vascOfilo», euskerari buruzko lau liburu.

-ARRIANIDIAGA TAR IMANOL (1876-1947). «Mibisus». Elantxobe'n jaio ta Beire'n Jakituri zabaleko gizona. Bere ordena barruan kargu aintzagarri ta arduratsuak izan zituan. Umetan ekian euskera aztu egin yakon -zizaion- gero barriro naikoa sustraitik ikasirik. Au ei dogu garbiza-leen aita. Asko idatzi eban -zuan-, «Euzkadi»-n, Euzko-Deya»-n eta «Euzkerea»-n batez be. Beronen lanik beiñenak: 1) *Lekobide*, euskal operaren izkia, ta 2) *Goiz-parraik eta Beldubaik egiña* (Zarautz, 1959).

-ALTUBE SEBER (1877-1963). Arrasate'n jaio ta Gernika'n **Musika ta izkuntzari** lotua. Euskaltzaiña 1920'tik. Gernika'ko alkate. Euskera arloan maixu bikaiña. «Euskera»-n idatzi eban -zuan- batez be, «A. Lertxundi» izen-ordekopean. Bere lanak: «*Erderismos*» (Bermeo, 1930); «*El Acento vasco*» (Bermeo, 1932); «*Observaciones al tratado de Morfología Vasca de R. M. Azkue*» (Euskera, 1934); «*La vida del euskera*» (Euskera, 1934, eta abar erderaz. Eta euskeraz: «*Euskaltzain berriak, bere sarrerako egunean*» (Euskera, 1920-21); «*Literatur euskera*» (Euskera, 1956); «*Laztantxu eta . Betargi*» (Baiona, 1957); «*Euskaltzaindiari*» (Euskera, 1959), ta abar. Garbizale zan.

-AITA MARTIN URIARTE (1879-1960). Karmeldarra. Izlari ta idazle nekatu eziña. Zeanurikoa semez. «Karmen`go Argia» ille-rokoa (1931-36) berak zuzendu eban -zuan-. «Martiartu» izen-ordea erabili oi eban. Bere lan batzuk: «*Bederatziurrena... Teresatxu Zorundunari*» (1923), «Karmen'go Andra Marijari Bederatziurrena» (1924), eta sermoe pillo aundia.



Merka-bidea

- Nik, emaztetxo,
merkeago izatearren,
astean bitan bakarrik
erosten ditut zigarroak;
eta zuk.
- Nik? Illean
bitan bakarrik
soñeko barriak.
Zuk astean...
Nik illean.

Bilbo-ko plazara
Santo Domingotik beera.

OLABIDE'TAR ERRAIMUN (1869-1943)

Gazteiz'en jaio zan Olabide, ta Toulouse'n Jesuita jakintsua. Orduria'n ikasi eban -zuan- lenengo; 1884'an sartu jesuita Loiola'n. Loiola'n, Veruela'n eta Tortosa'n egin zituan Filosofi-ikasteak, Teoloji-^gaiakaz Oria'n jabeturik.

Ogetazazpi urteko zala, Kanpion'en itz batzuk eraginda, antza, euskeraz ikasten asi zan. Euskaldun barri dogu -degu- Olabide: borondate sendo baten jabe; gauzak erdizka egitea ez yakon -zitzaion- eder; eta espaiñera, latera ta elenera ondo ikasirik, euskeraz be ikasteko asmoa aurrera eroan

.eraman- eban, aditza, aldaskak (afijoak) eta iztegia ondo aztertuaz. Azkue'k berak bota eutson -zion- bein: «Nere iztegia neronek bezain ondo dakizu».

Udara baten egin eban -zuan- Filosofia eta Letrak deritzan karrera. Arrigarria benetan! Maixu ta ikasten egin zituan urte asko: Oria'n, Salamanka'n, La Guardia'n, Valladolid'en, Orduña, Loiola'n eta abar.

Adimen argi ta bikaiña eban -zuan; baita naimen adoretsua be, eta indar bi one-ik -auek- alkaturik. egin euskun -zigun-, euskal arloan ere, lan guztiz bikaiña.

Euskal lana

Euskaltzale aundi onek lan ugari ta baliotsuak itzi euskuzan -zizkigun-. Ona batzuk:

1) *Lovola'ear Eneko Deunaren Gogolilarkunak* (Bilbao, 1914). 147 orrialde. Porttevedt'a'ko, La ,Guardia'n aurkitzen zala osotu eban -zuan- lan au.

2) *Giza-soña* (Tolosa, 1917). 167 orrialde. Valladolid'en bizi zala egiñiko lana. Iztegi bat bezela dozu, giza-gorputzari dagokiozan itzakin osotua. «Giza-Gogoa» eta abar ere, antzera egiteko asmoa eukan.

3) *Josu-Kistoren Antz-bidea* (Donos-

tia, 1920). Kempis euskeraz. A. Olabide Orduria'n egoan liburu au argitaratzean.

4) *Itun Berria* (1931). 716 orrialde. Lau Ebanjelioak, Bidalien Eginak, Apostoluen idazkiak, eta Jon'i agertu izana (Apokalipsis) datoz euskeraz.

5) *Idazteuna* (Bilbao, 1958). Aita P. Etxeberria'k egindako argitalpena. Itun Zar eta Berria (Biblia) osorik. 2.197 orrialde. Mugaz emendik auxe dogu euskerazko Bibliaren lenengo itzulpen osoa.

Artikulu asko ditu, gaiñera, bere luma-tik urtenak, «Euskera»-n batez ere.

Gazteiz,
Posta-etxe zaarra,



Alegi txorta

Ta zesaien: «Krisellua lakaripean edo oe azpian sartzeko ote dakarte, ala argimutil gañean ipintzeko? Ez bait-dago ostenik ezer ere, ageriko ez danik; ez eta itzalpekorik ere, argitara ez datorkenik. Entzuteko belarririk iñork ba'du, bentzu!»

Ta zesaian: «Gomazute zer dantzuzuten. Dantzuzutenoi, neurtu zenuketan neurritz neurtuko zaizue, ta gañezka gero! Dunari emango bait-zaio, ta ez dunari, duna ere kendu».

Berebat zion: «Yainkoaren jaurreria, eta gizonak lurrean ereindako azia, idekotsu dira. Gizona gau-egun lo, naiz jaikita dabillearik, azia erne ta azten doa, ta arek ez daki. Lenbizi belarra lurak berez bait-dakar; urrena burua, gero buruan *ale* betea. Zitua eldutakoan, berriz, gizona itaiaz laister dator, uztarora dalako».

Ta ziotsen: «Zeren antzeko dala diokegu Yainkoaren jaurreria?, edo ua zein aiegitan generakuske? Yeben-azia bezelakoa da. Azi au, lurrean ereiten danean, lurreko azirik txeena da. Bañan ereinda gero, gora dator, ta barazkietan geiena azitzen da, adar aundiak sorturik, aren itzalpean eguratseko egaztiak *abaro* ditez-kelarik».

Orrelako alegi askoren iduripean zerauskien, aiek uler zezaketentzat; ta alegirik gabe ez zerauskien; berezian, ordea, bere ikasleei dana azaltzen zien.

Egun artako arratsaldean esan zien: «Goazan beste aldera! «Ta gizataldea igorririk, ontzian zegonez daramate, beste zenbait ontzi darraizkiola. Ta aize-erauntsi zakar bat asi zan uñnak ontziaren gañera iraitzen ta ontzia betetzen. JESU, berriz, txcpan zegon bururdi gañean lo. Ba-darartzarte, beraz, ta dasaiote: «Irakasle! Galduak gera, ta aiolarik Zuri ez?»

Ta esnaturik, aizeari agindu ta itxasoari esan zion: «Ixo!, isilik ago!!» Ta aizea ibitu ta ezzialdi aundia etorri zan. Ta esan zien: «Zergatik orrela bildurtu? Zer dala-ta siñesterik ez duzute?

Sarrakioak artuta, beraz, elkarri zerasaioten: «Nor duk, ba, au, aize-itxasoek ere men bait-zegiotek?» (*Mat., 4, 21-41*).

Iritziak

Euskal idazle nausi onen lana neurtzea, ez yaku -zaigu- arazo erreza. Itzultzaile bizkorra dogu, egia osoa autortu nai izan ezkeru. Batzuentzat, ala ere, naskagarri ete? Azal samarretik beintzat itz egin dabenak -dutenak- ba-dira or-emenka. Itz barririk ez darabil Olabide'k bere itzulpenetan, bai ostera euskalki guztietatik artutako egokienak. Oneik ere berrogei bat dira guztiz, itzen esan-gurea zeatzago mugatu nairik edo, sarri samar darabiltzanak. Joskera aldetik ez dau -du- uts aundirik eginen.

1958'an Olabide'ren *Itun Zar eta Berrria* agertu zanean, L. Mitxelena'k idatzi eban -zuan-: «Emen dugu, azkenik, A. Etxeberrria eta beste zenbaiten kupidarik gabeko lanari eskerrak, apain baiño apaiño argitaratu, A. Olabide zenak urte eta neke askoren buruan euskeraz eman zuen Biblia osoa. Iñolaz ere, euskaldun batek letra-sailllean iñoiz burutu duen egitekorik larrienetakoa da eta are larriagoa agertzen zaigu euskaldun berri batek egin zuela gogoratzean».

Orixek: «Olabide'ren ohorean auxe esan bear dut: yakintza-bearrean euskeraz irakurtzera erdu naizen beingo bakarra, Paul Guren'aren eskutitzak irakurtzeko berak egindako auen itzulpena izan da bai eladeraz bai lateraz, naiz parantzeraz-naiz gazteleraz baño obeto, aren euskeraz ulertzen baitut» (*Gemika*, 1950, jorrailgaragarri, 25 orr.).

Eta M. Lekuona'k: «Olabide lexikolari. Izan ere, gure euskaltzale gotorraren eza-gungarririk ederrenetan bat, auxe derizkiot nik. Aita Olabide, gure lexikolaririk jakintsuena genduan. Nere iritzia gai onetan beti auxe izan da: Olabide'k Azkue'ren Iztegi aundia oso-osorik bere buruan zeramala...»

«Zenbait idazlek -dio aurreratxoago-, zenbait gauza izendatzeko, perifrasis batera jo oi degu, itz berri bat sortzen degu bear bada... Aita Olabide'k olakoetan etzuan, guk aslōotan egin oi degun ori egingo; zearka ibilli gabe, zuzenean iturri-ra joko zuan ark; Euskera zaharrera edo Euskera eskutura; eta, zuzen-zuzenean an-

dik artuko zuan, eskuartean bear zuan itza, eta uraxe ipiñi bere lekuan» (*Erizko-Gogoa*, 1958, iraila-gabonilla, 515 orr.).

Euskera zarreko itzok —40 bat guztiz— geiegi sartu ez ba'leuz -litu- zituaz itzul-

penetan, askoz atsegiñago izango yakun -zitzaigun- Olabide. Baiña sarri «idazleari errua ezarten dautsogu -diogu- geure ez-jakiña eta alperkeria estaltzearren.



Gazteiz. -oieneko kalea

ITZAK

Kriselu, argi-mutil.
Lakari, imilaun.
Ostea, ezkutu.
Idekotsu, antzeko.
Zitu, frutu.
Yeben, mostaza.

ADITZAK


Azi, aunditu.
Zesaien, esaten zien.
Ziotsen, esaten eutsen.
Zerauskien, itzegiten zien.
Ibitu, baretu.
Ihnotu, eldu,

JEAN BARBIER (1875-1931)

Donibane-Garazi'n sortua. Hazparne'n, pere'ko txauburu. Ementxe il zan 56 ur-Larresoro'n eta Baiona'n ikasten dau -du-tetan. apaiz-karrera. 1898'an abestu eban -zuan-meza barria.

Ondoren Larresoro'n irakasle, Baiona' ko katedralean bikario ta, azkenez, ^{Sen-}

Gizon jakintsua. Izlari bizkor. Idazle, olerkari, musikalaria ta antzerki-egille. Euskera gozo ta ederra dauko.



f Doni Petriren Zaldia

Egun batez, Jesus Jaunak erran zion Jon Doni Petriri: «Zaldi bat emanen deat, Gure *A ita* erraiten badautak, bururen buru, gogo batre barreiatu gabe». hoi gauza errea manatzen dautazu...»

Eta tarrapatan hasten da jon Doni Petri: «Gure Aita zeruetan zarena, erabil bedi sainduki zure izena... Bainan, Jauna, zelarekilakoa izanen da zaldia, ala zelarik gabekoa?»

|Eta Jesusek: «Ez duk orai izanen ez zaldirik, ez eta ere zelarik» (J. Barbier.)|

Euskal lana

Eta euskera gozo orretan ainbat lan osotu eban -zuan-, beti erreztasun berebiziko-koz osotu ere. Bere etxean sortu zan «Gure Herria», eta aldizkari ontan argitaldu zituan batez ere, bere ipuin, alegi, irakurgai ta olerkiak.

Olerkari bezela sari ederrak jaso eusku-
zan -zizkigun-: Sara'n (1897), Endaia'n,
Urruria'n eta Buenos Aires'en... Oneik
azaldu zitun:

1) *Itxas arrantzaleak* (1897), poesi-lan
bikaiña.

2) *Gure Amaxi* (RIEV, 1908). Oro-
bat.

3) *Nere kantuak* (1910).

4) *Ama Birjiña Lurden* (Baiona,
1920).

5) *Sorgiñak* (Gure Herria, 1922), tea-
tru lana.

6) *Zubietako Debrua eta Kauserak*
eta *Kruxpetak*, bardin.

7) *Supazter xokoan* (Baiona, 1924),
olerki, ipuin eta abar.

8) *Piarres* (Baiona, 1926 lenengo alea
ta 1929 bigarrena). Euskalerriko lan, jo-
ku, siñiskera, otoitz, ekandu ta antzekoz
beteriko nobela.

9) *Ugendes du Pays Basque d'après
la tradition* (Paris, 1931). Euskeraz eta
frantsesez.

GURE AMAXO

Oilarra kukurruka etxean da arl,
jadanikan amaxo othoitzez Jaunari;
bi eskuak ikaran. so kurutzeari:
«Jaunak beha diezoz egun berriari».

Atso zinez pollita da gure amatto.
xahar izana gatik ez oraino ttontto.
Diruz balinbad'ere poxi bat pobretto,
emor'onez bederen dago aberastto.

Igendetan ederrik, iduri panpina,
zinez erran liteke: «horra Erregina!»
Begia irriz dago, halaber ezpaina:
oi zer atso pollita, Jainkoak egina!

Buru sahetsetikan motho-buztanduna,
lepho-gibel aldean mokanez urdina,
balenarik gabeko soineko fin-fina,
zaiflo bat pollita ber'eskuz egina.

«A gur, amatto, agur! —Agur, ene haurra!»
Bidean orok hari bihotzez agurra.
Amaxo erreposki, ez dadien lerra,
ttapa ttapa badoa xendrari behera.

Herrirat heldu eta, zaia du zafrazten,
zapeteri erhautsa eskuaz xahutzen;
kaputxina burutik laster behehitzen,
eta ixil ixila elizan da sartzen.

Zer othoitzak orduan Aita Jainkoar!
Ain^geruak barrandan xahar maiteari.
Bertze guziak kantuz errepikan ari...
Atso ona mezuka Ama Birjinari.

Fillen herri xokoan, mezatik lekora;
amatto nigarretan othoitzez hobira;
Ieretto bat harturik lurretik eskura,
ixil eta trixte da itzultzen herrira.

Ilhun zeinuetako, etxerat heltzean,
gozo handi bat zuen Amak, bihotzean;
gaztena adar beltzek, hura aditzean,
«Gau on!» zioten orok, betan aphaltzean

Oi amaxo maitea, agian luzaxko
Jainko Jaun onak zaitu gurekin **utziko!**
Ainitz urthez. agian. zaitu **ahantziko!**
Luzaz, agian, luzaz gaituzu zainduko,
(J. Barbier)



I ritziak

Onela gozo ta sentikor darabil beti bere luma bizkorra. Naiz irakurgai eta ipuiñetan, naiz olerki ta esaeretan, itz bakoitzari bere lekua ipinten dautso -dio-.

Ez da arrigarri, beraz, Orixe'k au esatea: «Neretzat Barbier jauna eusko idazleetan aurrenetakoena da. Deritzait, Barbier'ek bere elerti gaiak antolatuzian, bizi zan txokotik pixka bat aldegifi, eta gai

oek Euskalerra oro bildu izan ba'ziran, Barbier bera izango gendula, gure Erriak bear zuen idazlaria, euskerak bear zuen elertilaria».

Eta Artetxe'tar Joseba'k: «Benetako euskaltzale zintzoa, euskerak izan duen idazle errexagoenetako bat. Badirudi askotan izkuntzarekin jolasian ari dala; alako erraztasuna agertzen bai digu».



Donibane Garazi

ITZAK


Zela, jarleku.
Aldizkari, errebista.
Alegi, ipuin.
Jadamik, onezkero.
Bederen, beintzat.
Mokaren, buru-zapi.
Oro, guzti.
Xendra, bide-txior.

ADITZAK

Erran, esan.
Barreialu, egabanatu.
So-egin, begiratu.
Zafratu, jo.
Xabutu, garbitu, legortu.
A dilu, entzun.
Abanezi, aztu.
Antolatu, eratu.

Eskual-Herria! Zu **negupean**
ez ote zira hada jarriko?
 —Odol eskasez ez haditake,
Jinkoa! horra nere bihotza!

Xiruli,
 xirula,
nik baratzean marrubi,
hosto pean karakoila;
xiru liru
xiru liru la.



Auñamendi

aldea

JULES MOULIER (1888-1958)

Bego emen aurrenen, J. Haritsxelhar'ek Oxobi'z esana: «liste dut zela gain gaineretik: Baze Nabarreko seme, Elizako artzain, Eskual Herriko olerkari».

Bidarrai'n sortua dogu Oxobi olerkaria. Berberak diño: «Sortzez bidarraitarra nihaur, eta bertze aphez eskualtzale zonbait bezala, guarda semea». Guarda seme zalako, beraz, gaztetasuna erriz erri igaro eban -zuan-; Baigorri'n egon zan zati batez, Bastida auzunean, Oxobi etxean; eta gerora, etxe orretan pentsatuz, izen orixe artu eban -zuan- bere euskal lanak firma-

tzeko. Ez ditu sekula be Baigorri ta Itsasu aiztu.

Larresoro'n egin zituan bigarren mailako ikasketak, Naie'ko seminario nagusian amaiturik bere apaiz-karrerakoak. 1912'an mezakotu zan. Iriburu'n, Baiona'tik ur -urbil- egon zan lenengo arimazai, gero Donestehiri'n amairu urtez; 1941'tik 1955'ra Arrangoitz'en. Iriburu'n il zan, 1958'an. Gorputz sendokoa zan arren, gaixoak eratsi eban -zuan-. Narbaitz kalonje jaunak egin eban itzaldia Oxobi'ren gorpuari hzr emoterakoan.

Euskal idazle

Euskal idazle ona genduan Oxobi. Naie'ko ikastetxean, Euskalerritik kanpota aurkitzen zala asi zan idazten, eta orduantxe sortu yakon -zitzaion- antza euskal idazle ta olerkari deia. «Eskualduna» asterokoan idazten eban -zuan-, eta laguntza ederra eskeiñi eutson -zion- asteroko aren buru zan Hiriart-Urruti'ri.

1921'an euskaltzale mordo bat batu zan Uztaritze'n, orduko euskal idazlerik onenakin osotua. Bertan zan Oxobi ere. Gizaseme zintzo areik -aiek- osoturiko batzarretik urtena dogu -degu- «Gure Herria», oraindiño bizi dan agerkari ederra. Oxobi'k, bai bertsu, bai artikulu, ainbat idazlan argitaratu zituan bere orrietan.

Euskaltzaindiko izentatu eben -zuten- 1952'an.

Ona argitaratu zituan lanak:

1) *Biotz oihu, deihadar, nigar* (Baiona, 1926), «Eskualduna»-n aurretik argitarata zituanakaz eta beste batzukaz egiñi-

ko olerki sorta bikaiña. Biotz oivak dituzu.

2) *Alegiak* (Baiona, 1926). Ipuin sailla, sarritan esana danez, bitxia bene-benetan. Itzaurrean diño: «Eskuaraz jauntzi ditut bertzek ametsturikako alegi batzu; izan be, La Fontaine frantses alegi-egilearen antzera kontatu ditut ainbat gauza eder».

3) *Heiatik zerura* (Baiona, 1935). Kristo'ren bizitza dozu bertso zabal borobilletan abestuta.

4) *Haur-elhe haurrentzat* (Baiona, 1944). Ume ipuiñak umetxoentzat; 18 lan-txo, kanta egokiz orniduta.

5) *Oxalde* (Baiona, 1949). Oxalde bertsolariaren bizitza.

6) *Mendiz mendi eta Nola gauden eskualdur*; pastoralala (Baiona, 1966). J. Haritsxelhar'ek gertatutako «Oxobi-ren lan orhoitgarri zonbait» (Baiona, 1966) idaz-tian datozenak.

BELEA ETA AXERIA

Behin bazen bele bat:
bele bat beltza,
pika bezen ohoina,
bainan zozoa!

Hartu zuen gasna bat,
gasna bat geitza,
ardi esnez egina,
bainan gozoa!

Zurxuri baten punttan,
punttaren punttan,
gure belea zagon
nola gasna jan!



Axeri bat ttapattan,
ttapa tta pattan,
zurxurira jin zaion
gosea tripan!

—Egun on, bele jauna,
ori zure soina!
kanta hain eder balitz,
zinez dautzut hitz:

ez litake xoririk
ez, ala fede,
ederrez joan lironik
zuri, jaun bele!

Bele jaunak orduan,
ordu berean,
mokoa du ideki...
Gasna erori!

Axeriak ttapattan,
ttapa tta pattan,
berea ez du hetsi...
Gasna iretsi!

Aho legun, muttur luz,
zenbat axeri
bele gaizoen gostuz
direnak bizi!!

(Oxobi)



Iritziak

Oxobi dogu -degu- euskal alegi edo ipuinlaririk onena. Ez da iritzi utsa bakarrik, egi baiño. Euskera, arin ta zinbel ta biurkorra darabil, ezereen oiñatz-arri bage. Inguruko literaturretakoak baiño be bizi, zalu ta legun errikoiago bear bada. Zeru ta lurrez trinkotua da aren olerkia, P. Lafitte'k diñoanez.

J. Haritsxelhar'ek onela: «Idazlari eder eta indartsu izan dela Oxobi, nehork ez dezake uka. Olerkari bikaina ere bai. Bai-

nan bere olerkietan, alegiak, bereziki zauzkit gustatzen. Erran dut jadanik Hiriburu, Dohoztiri eta Arrangoitzeko haurrek jakin zutela zer zen Oxobiren larderia. Eta bizkitartian, bihotzeko segetian, maitatu ditu zoin nahi eskualdun apezak baino gehiago. Hendako eta Eskual Herriko haur guziendako ditu asmatu eta idatzi pertsurik goxoena» (*Oxobi-ren lan orhoitgarri zenbait*, 11 orr.).

Mugaz andiko beste batzuk

—**PIERRE LHANDE** (1877-1957). Jesus' en Lagundikoa. Basagaitz da bere egiazko abizena. Baionan sortua. Aita il yakonean -zitzaionean-, 1882'an, Zalgize (Zuberoa)' ra aldatu zan alarguna bere aurrakaz. Baiona'n osotu zituan apaiz ikasketak; 1900'an sartu zan jesuita. Izlari ta idazle amorratua, ara ta ona asko ibillia. Dozenaka ditu liburuak frantsesez idatzita, Euskalerritari buruzkoak geienak. Ba-ditu euskeraz ere: *Yolanda*, esate baterako.



Pierre
Lhande

—**JEAN ELIZALDE** «Zerbitzari» (1883-1961). Azkain'en jaioa. Larresoro'n ikasi eban -zuan-. Uztaritze'n, Liginaga'n, Mendiondo'n eta Gerezieta'n arimazain. Euskaltzaiña. Makiña bat ipuin, alegi, olerki ta antzerki osotu eban -zuan-; «Eskualduna»-n eta «Gure Herria»-n atera zitun geienak. Bereak dira liburuok: «*Kantari berria*», «*Atsotitz*, *Zuhur-hitz eta Erranzahar*», «*Gaxuxa*», «*Mikolas*», «*Bi gogorak*», «*Oltzaherrian*», eta abar.

—**PIERRE SAINT-PIERRE**, «*Ainxuberro*» (1884-1951). Gotzaiña. Milafranga'n sortua. Larresoro'n eta Baiona'n ikasi eban -zuan-. Baiona'n Irakasle ta kalonje. Kartago'ko Gotzai-laguntzaille, 1930'tik 1937'ra. Asko idatzi eban -zuan- «*Eskualduna*»-n, «*Gure Herria*»-n, «*Euzkadi*»-n, «*Herria*»-n eta abar. «*Kirikiño*» saria irabazi eban -zuan-.

—**LEON LEON**, «*Berrizarte*» (1896-1962). Hazparren'en jaio zan. Uztaritze'n il. Beloken eta Baiona'n ikasirik, 1923'an apaiztasuna artu eban. Bereak ditu: 1) *Jesu-Kristorer... Imitazionea* (Beljika, 1929); 2) «*Jesu-Kristo Gure Jaunaren Ebanjelio Saindua*» (Beljika, 1947); 3) «*Haurren Meza*»; 4) «*Gure txokoan*»; 5) «*Tomas ezkongai*» ta beste teatro lan batzuk. Euskaltzaindikoa zan. Alegilari legez, La Fontaine'ren guztiak itzuli zituan. Asko «*Gure Herria*»-n datoz.

—**JON MIRANDE AIPASORO** (1925-1972). Paris'en jaio zan, baiña jatorriz zuberotar zan. Izkuntza asko ekizan -zekizkin-. Euskaltzaindikoa. «*Gernika'n*», «*Euzko-Gogoa'n*», «*Elgar*»-en, «*Egan*»-en, «*Olerti*»-n eta «*Igela*»-n idatzi eban -zuan-. Olerkari ona. Bere eleberria: «*Aur-besoetakoa*» (Donostia, 1970).

—**JEAN ETXEPARE LANDERRETXE** (1937-1961). Jatsu'ko seme. Idazle argia, gazterik itzalia. Baiona'ko «*Herria*»-n eta «*Gazte*»-n idatzi eban -zuan-. 1960'an, «*Euskal Kulturaren Alde*» bazkunaren saria irabazi eban. Bere il osteko liburua: «*Mendekoste fereziak eta beste*».

ITZAK

Oboin, lapur.
Agerkari, errebista.
Gaitz, aundi.
Gasna, gaztae.
Moko, piku.

ARITZAK

Amesen, soñar,
Erori, jausi.
Iretsi, iruntsi.
Trinkotu, gogortu.
Suntsitu, ondatu.



Elurren zurlak
atsegin ematen,
baiñan aurpegi ori
atsegiñago den.
Ene! laino beltza
lurrera jetsitzen...
Elurren zuria
bereala jaten!

II
Zergatik artu den
besteren esana?
Laino arnas itzak
beztu au, Iaztana.
Ez den etorriko
Inor iregana:
neretzat ere ez aiz;
biontzat, au lana!

(Orixe)

NIKOLAS ORMAETXEA, «ORIXE» (1888-1961)

Orexa'n jaio zan, Añorga'n euskal letretan «Orixe» izengoitiz ezagutzen dogun -degun- gure idazlerik bikaiñena.

Umetan Uitzira eroan -eraman- eben -zuten-, eta antxe bere iñude Asuntxi'k, gero arek bere idaztietan gozoro gogoratu eban -zuan- amandre onak azi eban gutziz arduratsu.

Amazazpi urte zituala, 1905'an Xabier'eko jesuitetan sartu zan. Ondoren, Loiola'n nobiziadu urtea, Burgos'en klasikoak ikasi; Ofia'n, iru urtez, Filosofia. Gero, Comillas'en, Carrión de los C,ondes'en, Tudela'n eta Xabier'en irakasle. 1921'an Teolojia ikasten dau Ofia'n, eta 1923'an ikasteak itxi ta etxera doa.



N. Ormaetxea
(Orixe)

R. M. Azkue'k, Euskaltzaindiaren buru zanak, laguntzaille lez artu eban -zuan-, zortzi urte ortan egiñik. 1931'tik 1936'ra bere etxean lan egin eban -zuan-, bere poema eder «Euskaldunak» idazten. Gerra zala-ta, mugaz emendik eta andik gorrak ikusi zituan. Frantzia'tik Ameriketara joan yakun -zitzaigun-, Argentina'n, Txile'n, Peru'n, Bolivia'n eta El Salvador'en zear ibillirik.

1954'an bere lurrera biurtu zan, eta Lazkau'n, Tolosa'n, Orexa'n, Arama'n eta Añorga'ko «Zabalegi»-n bizi izan zan. Bere azurrak Donosti'ko Polloe illerrian dagoz lur-emonik.

Euskal idazle trebe

Bakotxak dau -du- bere sortzeko deia. Orixe'k idazle deia eban -zuan- dardarka, intzirika barruan. Orregaitik egin euskun -zigun- ain lan ederra euskal literaturan.

Komillas'en irakasle egoala, 1915'garren urtean asi zan olerki ta antzekoak idazten. «Jesus'en Biotzaren Deya»-n (1917-1922) datoz bere lenengo lan argitalduak. RIEV'en ateratzen ditu «Acento vasco» ta «UnificaciOn del lenguaje literario» (1918-19-20). Durango'ko Euskal egunetan (1921) itzaldi bi emon zituan:

«Eusko Olerkitzaz» eta «Eusko Olerki neurtitzaz». «Euzkadi» egunerokoan (1924-1931), berak zuzendua da aren euskal atala.

Era berean aldizkarietan idazten eban -zuan-: «Euskal Esnalea», «Euskalerriaren Alde», «El Dia», «Yakintza», «Gernika», «Euzko-Gogoa», «Karmel», «Olerti» ta besteetan, sarri agertu izan dira Orixe'ren artikuluak. Ez egoan iñoiz ere geldirik.

Bere idaztiak

Euskal oitura, olerki ta gramatikari buruz idatzi ebana -zuana- albora laga bage, liburu mordoia dau -du- gure Ormaetxea'k argitaratuta.

Ona batzuk:

1) *Euskal literaturaren atze edo edes-ti laburra* (Donosti, 1927). «Euskal Esnalea»-n dator.

2) *Santa Kruz Apaiza* (Bilbao, 1929).

3) *Tornes'ko Itsu-mutilla* (Bilbao, 1929). Itzulpena, bizkaieraz, polito egiña.

4) *Mireio* (Bilbao, 1930), F. Mistral'ena euskeraz.

5) *Barne-muinetan* (Zarautz, 1934).

Olerki mistikuz osoturiko bilduma goxoa.

6) *Ure guziko Meza-bezperak* (Tours,

1949). Eleiz-euskerari indar ikaragarria emon dautsan -dion- liburu bikaiña.

7) *Euskaldunak* (Zarautz, 1950). Poema, XV kantutan. Eusko bizitza kantatzen dau, oso-osorik.

8) *Kito'n arrebarekin* (Euzko-Gogoa, 1950-54). Mistika gaiezko alkar izketa atsegiña.

9) *Augustiii Gurenaren Aitorkizunak* (Zarautz, 1956). Aturia'ko ta Akiza'ko Gotzain txit agurgarri Clement Mathieu jaunari eskeiña.

10) *Lau Ebanjelioak* (Donosti, 1967).

11) *Salmutegia* (Donosti, 1968). Dabid'en eresiak.

12) *Jainkoaren Billa* (Bilbao, 1971). Mistika gaia.

13) *Lati izkuntzaren joskera* (Bilbao, 1966).

14) *Euskal izkera* —Lenguaje vasco (Donostia, 1963). Zati bi. M. Oiarzabal apaizarekin batera egiña.

15) «*Euskaldunak*» poema eta olerki guziak (Donosti, 1972). Laterri arteko Liburu eguna zala-ta, Auñamendik argitara emona. (699 orr.).

Eta abar. Oindiño, ba, Orixe'ren paper artean ba-da lanik aztertu, sailkatu ta argitaratu bage.

Euskaltzaiña. «Kirikiño» saria jaso eban -zuan-, 1929'an. 1961'an «Olerti» ta «Lizardi» sariak irabazi zituan. 1957'an omenaldi eder bat egin yakon -zitzaion- Leitzan, eta geroago, 1965'an, «*ORIXE*» *Omenaldia* (Donostia, 1966) agertu zan, gaurko euskal idazle askoren artean gertatutako liburu mardula.



«Aizkolariak»
atzalburuko
apaingarria
(S. Etxeberria)

Iritziak

Bego lenengo N. Altzola'k diñoana: «Orixe-ren ganean idazten asi bakarrik egin gareala, uste dot. Urte asko joan eta gero be ez dira ixilduko idazleak bere gain gauzak eta gauzak esaten».

A. Ibiariagabeitia'k, *Meza-bezperak* aztertuz: «Gaur, euskaltzale kartsu batzuen laguntasun eta Orixe maisu aundiaren kemen-adoreei zor, iñoiz euskeraz sortu eliz-libururik bikainenaren jabe gaituzute...

Euskera errikoia darabil, errikoia bainan aberatsa. Aberatsez gainera, egokia ta garbia. Laterazko bulko ta itzik biurriarentzat euskal itz bete-betekoa beti arkitzen du. Gure idazlearentzat, ez du euskerak ixilpekorik».

L. Mitxelena'k: «Bi lagunek ezagutu dituzte iñork baiño obeki gure erri-ondasunak: Azkue'k eta Ormaetxea'k. Bi eratarra, ordea, ura biltzaillea baitzen batez ere, txingurri langillearen antzera; au, berriz, edertzalea. Orrelaxe, Azkue'ren iztegiaren edo *Euskalerrriaren Yakintza-ren* ondoan, Orixe-k *Euskaldunak* poema ipiñi du, gure artean ondu den eder-lanik larriena».

Eta, azkenez, Aita Estefania'k onela,

Barne-muinetan poesi-liburuari egin eutsion -zion- itzaurrean: «Buru-argia ta biotz-beroa ezin obeki elkartzen ditu: antze-idazketan ikasiaren tankera ta erri-gizon aitorrarena berebat elkartzen ditu... Ontatik du biotzondo ain nabaria, ez gaindizkoa, ez belaxka; gizaki benazkoarena baino».

Nik, neuretik, zer esango? Orixe, iza-keraz bero ta urduria genduan. Izan zitu-tuan, ez gitxi, au dala-ta bere lor eta laz-turak. Beti egoan prest eztabaida ta burrukarako, naiz teoloji ta mistika-saillean, naiz euskal literatura ta gramatika saillean, eta emendik sortuak ditu bere «orrialde-rik bizienak» prosaz; baita Jainko-maita-sunak eraginda «neurritzik ederrenak» be.



«A7 k olariak» aizalburuko apaingarria «Euskaldunak» liburuan



—Zein da izan leitekean gauzarik laster ta ariñen?

—Oldozmena. * * *

—Zein da iñoiz beteten ez dan itxasoa?

—Gizon zekenaren diru-zalekeria. * * *

—Zein etxean izan leiteken surik an. dien?

—Otseiñen min gaiztoa.

—Zein da ardaurik onena?

Iñoren etxean edaten dana. * * *

—Zer da gazteagan izan leitekean gauzarik itxusiena?

Esanekoa ez izatea. * * *

Zeintzuk dira osatu eziñeko gatzak?
 Ergelkeria, bizierna ta zorrak.

BERNARDO MARIA GARRO,
«OTXOLUA» (1891-1960)

Mundaka'n jaio zan, eta Bilbao'n il. Umetatik ikasi zituan, naikoa ondo, euskera ta erdera. Bilbao'n osotu eban -zuan-Komertzio karrera. Ta ondoren, amazortzi bat urtegaz Argentina'ra joan eta an

igaro zituan zazpi urte. 1917'an Mundaka'ra itzuli zan, eta Mundaka'n eta Bilbao'n emon zituan ondorengo urteak, bein an bein emen.



Bernio, Munciaka, Sukarrieta, Busturia eta itsasaldea aidetik ikusita

Euskal idazle

Barruan dakarguna ezin dogu errezki ito. Garro'k gaztetatik ekarren euskal griña, nai ta nai ez erakutsi bear, suak keia lez.

Naiz bere lurrean naiz erbestean, asko irakurri eban -zuan- euskal liburuetan eta aldizkarietan. Eta irakurraldian esaldirik ederrenak jasoteko ekandua eukan; baita erriaren ezpanetatik urtendako esaera polit eta ipuiñak be atsegin yakozan -zitzaizkion-, eta oneik danok urre-pitxi lez jaso ta zaintzen zituan. Onela egin zan gero euskal idazle jatorrenetarikoa.

Bein, 1927'an, aurrekoz atzera nai atzekoz aurrera bardin irakurten diran euskerazko esanaldien —palindromo deritxa oni griegoz— sariketa bat eratu eban -zuan- **Olako mordo bat bialdu** eban Garro'k, eta arrezkero asi zan «Euzkadi»-ra bialtzen an itxasaldean baturiko ipuin, albiste ta esaera ugari.

Otxolua'ren lanak «Euzkadi»-n, «Euzkerea»-n eta olako aldizkarietan agertu ziran, ia astero astero agertu ere. Italeratik eta inglesetik asko itzuli eban -zuan-, itzulia ala jatorra dan igarten ez yakon -zaion- moduan itzuli ere.

Orixe'k esan ebanez -zuanez-, «Euskal-lerri guztiko idazleen artean txukunenetarikoa» dogu mundakar erne au.

Ona bere lanik beiñenak:

1) *Bertoldo'ren maltzurkeri zurrak eta Bertoldin'en Txaldankeri barregarriak* (Bilbao, 1932). 183 orrialde, iztegitxo batetegaz. Itzulpena, Giulio Cessare Della Croce'k italeraz egiñetik.

2) *Bijar Doniane'ra!* (Bilbao, 1929, «Euzkerea», 105 orr.); liburu txiki batean gero argitaratuta.

3) Jean Barbier'en Ipuñak, «Ixtorio Mixterio», Bizkai'ko euskerara itzulita. «Euzkadi»-n agertu ziran.

4) *Abere* «Abera Dontsuak» eta beste irakurgai batzuk ingletetik euskeratuta.

5) *Euskal-Erriko abere eta piztiak*. Erderatik eta ingletetik eraturiko lana.

6) *Lau Ebanjelioak*, argitaratu gabe. Kardenal Gorna'ren «Los Evangelios Concordados», bizkaieraz.

Ba-ditu oraindik poesi batzuk be ingletetik eta portugaleratik euskeraz jarriak.

Azken orduan, il aurretik, gure toki-izenak sailkatu ta aztertzen ebillen. «Euskera» aldizkarian (1958, 67 orr.) datoz batzuk.

Egiazko idazle danak beti dau bere alderdi berezia. Otxolua'rena auxe dozu -dezu-: erriak sarri agotan darabiltzan esera ta itz ederrez dotoretzen dituala bere itzulpen txanbelifiak.

Berto(dm'en okerrak

«—Ba-dakit, ene jauna, esan dagitsudanian asarre gorritan jarriko zareana, ta artez be artez egingo dozu. Baña, ez ete zan obeto izango, edonoren irrigarri izateko gu ona ekarri barik, geure mautubetan geurekitian gu bizi izaten iztia, leku-botan ibilteko tentel-ergel batzuk baño ezkara gu izan be ta?

—Baña, zer da mutil onek egin dautsun erakusmeneko okerreri ori?

Orduan Markolbek lotsarren ozta, Bertoldin'ek egiñiko diabrukeri guztiak edestu eutsazan: ugarasijuai dukatak urmaelera jaurti eutsezana; ogiaz be bardin egin ebana; arrañak urunaz itsutu gura izan zituzana, eta azkenez, kumak aterazoteko antzar lokearen otzaren sartu izan zana. Ezaban bakaldunak barre gitxi egin eurok entzutian! Zati baten ekin eutsan aretara ta azkenian, jezarrita be ezin egonda, jagi zan aukitik eta oindiño barreka, ba-diñotso:

—Orreik izan ete dira, ba, zuk esan gura izan eztaustazuzan erakusmenkeriak? Okerreri izugarriren bat egin izan ete dauan egon naz ni, baña ori ezta ezer, ene andrea. Arian be, arei pizti lotsabakuai mendu oneko izaten irakastiaz ondo egin dauala deritxot. Ez izan beraz ardurarik, ta urmaeleko dukaton gora-bera, eztozube aurrerantzian be dirubaren peiturik izango, ezta ogi naiz ur-un naiz beste edozer biar-izan ziñegienenik be.

—Zeuri orretara atsegin ezkerro, eztiñot ezer, jauna, ni neu, mutil au zelakua dan eta biar leukian zentzunik osoro eztaukala aurretiez esanda naiagotzu ta» (*Bertoldin*, 142 orr.).



Lurezko ontziginiza

Beste idazle batzuk

—BITOR GARITAONANDIA (1876-1929). Zaldibartarra. Euskaltzale bizkorra. Euskal asteroko «Argia» sortu eban -zuan- 1921'an. Bereak ditu: 1) «Ongillearen saria» (Donostia, 1922); 2) «Iziartxo» (Donostia, 1917; 31 «A itona ta billoba» (Donostia, 1920); 4) «Usandizaga, bere bizitza ta Eres-egikuntza» (Donostia, 1920); 5) «Euskal liburu sorta» (Bilbao, 1922), eta 6) «Ipuin laburrak» (Bilbao, 1922).

—IMANOL ENBEITA (1884-1944). Muxika'n jaioa. Enbeita'tar Kepa'ren anaia. «Garbi-nai» ta «Uribitarte'tar Ibon» erabili zituan bere lanak izenpetzeko. Gaztetan Ameriketatik izan arren, ez yakon -zitzaion- ume zala amaren altzoan ikasitako euskera aztu. Asko idatzi eban -zuan- itz lauz ta bertsoz, «Euzkadi»-n, «Euzke-rea»-n, «Ibaizabal»-en batez be.


—NAZARIO OLEAGA (1884-1961). Bilbotarra. Eskubidean Irakasle. Lege-gizona. Euskaltzaindikoa. «Euskera»-ren idazkari 1941'tik. Bizkai'ko bertsolarien txapelketak eratzen ditu. Itzaldi, artikulua ta abarrez berea dau liburu au: «Zurtasun-Gogo» (Bilbao, 1922), Bilbo'ko Aurrezkitegi ta Baitetxe Udaldarrak eraturako

sariketan lenengo saria irabazi eban -zuan-.

—ALEJANDRO BILBAO, «Mantri'tar Erramun 11884-1966). Maruri'ko semea. Bere euskal lanak: '1) „T3iotza abeslari,» (Zornotza, 1927). 2) «Litt-lxingar» (Tolosa, 1928); 3) «Txomin Artola» (Tolosa, 1929), ipuiña; 4) «Txori egadak» (Bilbao, 1965).

ARRUTZA (1890-1966). «Arrugain». Bilbotarra. Asko idatzi eban -zuan- «Aberri», «Euzkadi», «Argia», «La Gaceta del Norte», «Zeruko Argia», «Karmel», «Jesus'en Biotzarren Deya», «Egan», «Olerti» ea beste aldizkarietan. Bere lanak: 1) «Euskeraz ikasteko bide erraza» (Bilbao, 1933); 2) «Etxekalte» (Bilbao, 1934), eta 3) «Euskeraz nola ikasi» (Bilbao, 1966). Idazle ona.

—AITA LONTZI —KEPA ORMAETXEA ALDANA— (1891-1949). Etxano'ko Karmeldarra. Idazle ta izlari. Asko idatzi eban -zuan- «Jaungoiko-Zale»-n eta «Karmen'go Argia»-n. Txile'n argitaratu zituan bi liburu oneik: 1) «Ipuintxuak» (1947) ta «Bigarren IpuiKtxuak» (1948)



Mundaka



O1, udaberrigoizez
 mendiaren gallurra!...
 Oi, aren ametsezko
 zorakortasuna!...
 Zein ezkutuzko indarrez,
 zein atsedeen-egarriz,
 zein gorago-yoranez
 narakark igana?...

Egiz, maitagarriak
 dituk ire basotan?...
 Egiz duk arnaskal bat
 ezilkortzen duna?...
 Egiz, eguzkiaren
 leendabiziko mmlaz
 sortzen duk zorunaren
 lore ezezaguna?...

(Lizardi)

JOSE MARIA AGIRRE
 (1896-1933)

Naiz-ta gaztetatik Tolosa'n bizi izan,
 Zarautz'en jaioa dogu ta Tolosa'n illa,
 emengo *Perot* fabrikearen arduraduna
 bait zan.

Madrid'en egin eban -zuan- lege-karre-
 ra, 1917'an lizenziaturik. Letraukuntzarik
 ez eban -zuan- egundo egin. 1923'an Fran-
 tziska Eizagirre'rekin ezkondu zan.



Jose Maria Agirre (Lizardi)

Euskal lana

Idazle bezela iru izenorde erabili zituan: «Lizardi», Zarauztar Sabin», eta «Samaiko zulo».

Ikasle zan bitartean, aztu egin yakon -zitzaion- umetatik ekian euskera. Baiña batxiller ikasten asi zanean, euskerari ere ekin eutson -zion-, eta ederto azpiratu zituan zeuzkan gaiztasunak.

1916'an asi zan idazten, Bilbao'ko «Euzko-Deya»-n. 1927'an Euskeraren eguna Arrasate'n; ementxe egin zan ospetsu. 1930'an Euskal Olerti eguna Errenderi'n:

Anitz egunez, ez gera alaitu lurtarrok. Goien sar egIn **baitu** Euri'k Eguzki giltzapean; yaun orail eder, legorteen aita, katez loturik egona balta odei bustien sabelean.

Gaur, orra agiri, tarteka, urdbia Sor zait barruan larrera- miña; ta, aspaldi ez-ta, Bete ditzadan argiz begiok; eten zain-glar lotuegiok; bularra asetuz noan geldi.

iru olerki aurkeztu zituan, «Agur»!, «Paris'ko txolarre» ta «Otartxo utsa». Urren-go urtean *ere* Olerki eguna Tolosa'n Eme-teri Arrese'ren omenez. Lizardi'k «Urte-giroak» aurkeztu eban -zuan-, baita sari ederra jaso be. Liburu oneik ditu argitaratuta:

1) *Biotz-begietan* (Bilbao, 1932). 168 orrialdeko liburu mamintsua, olerki liburu. Euskeraz ta erderaz. Orixe'k egin eutson -zion- itzaurrea. Olerki bakotxa banan-banan ikusi ondoren, onela amaitzen dau: «Erabat esateko: bulkoz, iduripenez, biotzondo, agoxuriz, izkuntzaz, oso guzizkoa dugu Lizardi. Euskera zar ezagunbageak dun muña atereaz, lirika-rako aukerakoena dala garbi adierazi digu. Ainbeste esangai, ainbeste itz doi erabiltzen ditu; kirioz ta odolez vantzia da; euskera erpineraíño landu digu. Gurean orainarte ez du izan kiderik, nekez duke garraitzailerik».

2)) *Ilmezurtz Olerkiak* (Donostia, 1934). Lizardi ilda gero argitara emondako poesiak; batzuk osoak eta beste batzuk pusketak.

3) *Itz lau* (Donostia, 1934). Itzaldiak eta or-emen argitaraturiko artikulak. 171 orrialde.

4) Teatru-lanok: *Laño ta Izar* (Antzerti, 1932), *Bi A izpak* eta *Ezin ezkondu ziteken mutilla* (Egan, 1953).

Badut zalantza zein giro izaki; etzaren aala danentz ebaki; ikus ezpaitut Udaberri... Baña, bat-batez, gain-beera, maldan, moltso zuri bat. Elur ez al dan, loreak ote aal igerri?

Ari beltz oker naasi sareak eundaka atzitu ditu, loreak?, elur-malutak?, mitxeletak?... Itxon: txori bat, zear, egaka dabil, kabigai-lorrez, esaka: —Gaur dira gure maite-bestak!



Sagasti berri, sagasti zuri,
inguna-atsegintokia iduri,
elurte arian geldia!
Ezin urtuzko txingor ugari,
azpi gizenean duk nabari
zelai-bitxizko lorea...

(Lizardi)

1933'an «Kirikiño» saria jaso eban -zuan- *Etxe-barne bizia* deritzan lanarekin. Bizi baiño biziago pintatzen dausku -digu- umetxoak etxean darabillezan zarata ta zerak. Ona apurtxo au,

«Atarian illun, ta leioan txingor ttuntun-otsa diranean, goxoa oi dek etxeke sutondoa. Ala bart, gurean. Ta, etxe-barrutik aur-zarata ba'lebil, areago: ordun, adiskide, suaren garrak argiako ziruditek; dardara giarragoz ibilli zebiltzak, goia miaztu-bearka... I mutil-zar gogortua ago, ta ez bide dek azken ori sinisten. Erruki aut, gizona! E-tzak parrerik egin.

Baña, itxon orain: dagoaneko begi aurrean diagu nere mutiko zaarrena. Bost-bat urte dizkik. Alki batera igo, egute-giari eguna kendu, ta bazetorkidak. Gal-

deraz josiko natxiok... ea an zer jartzen duan; ea zergatik ura jartzen duan; ea zertarako jarri duan ura, ura jarri duan; ea urrengo eguna igandea dan, ta ea zergatik igande ta ez ostiral; ea zenbat lo eginda sartu dan Orrila —Maiatza'ri ala esaten ziotek orain—... Jakiña, azkenerrako, zakurraren ipurdira biali bear izan diat.

Ez dek samurtu. Etxean barrena an ziak orain, Tolosa'ko inauterietako jo-aldi zoro aietarik bat joaz: *Din-pa tUnpa trEn, tarci-patatUn, tarripata tUuun-ta...*; eta abar: badakik zein esaten dedan. Alako zala-par-ta eramangarri ezpaita, berriro oju-egin bear izan diot, ixiltzeko. Luzaroko ez, nos-ki» (*Itz-lauz*, 1934, 16 orr.).



Zarautz, erria eta ondartza, aidetik ikusita

Nolako idazle

Lizardi'ri buruz idatzi daben -duten-guztiak goratu izan dabe zarautzar olerkari giar onen lana. Euskal literaturako gaillenena dogu berau, dudarik bage: ora-indik beintzat ez dau -du- gurean iñork ere onen markea erre.

Orixe'k, Lizardi'ren poesi-lanak zearo aztertu zitunak, esaten dautso -dio- «egizale aundi, olerkari aundi». «Biotza gizakia zun -diño-, euskalduna zun, gordea zun, baina biotz aundia, berez eraginbera ta besterenaren eragilea».

L. Mitxelena'k: «Uste baino geiago zor diogu Lizardi'ri. Berak jantzi eta biztu digu, aurrenik, euskal lurraldea. Eder-tasun berriz estali digula esango aal dugu, edota gordean zegoen edertasuna idoro eta agerrarazi duela? Dena dela, inguruan izango ditugu aurrerantzean ark biztu zituen itxura xotilak». Eta «Udaberrri neskatxa», «Negu agurea», «Itzal belttxerana», «Jaun Eguzki oraila», «Egun begi-urdiña» ta abar gogoratzen dauskuz -dizkigu».

Beste Batzuk

—JosE ELTZO. Donostia'n jaioa. Olerkaria. «Euskal Esnalea»-n datoz bere lanak.

—JUAN GARBIZU, «Zubigar» (1894-1930). Lezotarra. Olerkaria. «Zeruko Argia»-n, «Euskal Esnalea»-n, «Argia»-n,

«Arantzazu»-n, Buenos Aires'ko «La Baskonia»-n datoz bere poesi-lanak.

—ANTONIO ARRUTI (1884-1919). Zarautz'eko semea. Frantziskotar, olerkari aberatsa. Gazterik il zan.



«Gizon o n a ta olerkari sakona izan genduan, **benetan**, Lauaxeta. Ordurarte etzan sekula iñor eldu aren maillara, bizkaierazko olerkarien artean. Berak diñosku bere olerki baten «Pioneer gazte gara». Eta izan bere orixe izan genduan: Pioneer gazte bat, aurrelari bat.»

(M. Zarate)

Euskadigatik gurutzea eta eriotza jasap euazan

**ESTEBAN URKIAGA, «LAUAXETA»
(1905-1937)**

Naiz-ta umetatik Mungia'n bizi izana izan, Laukiniz'en jaio zan Lauaxeta: Lau alderdietatik aizea dauan Mungi'ko etxe baten izena dozu -dezu- «Lauaxeta».

Gaztetxo zala Larra'ra ekarri eben -zuten- karmeldar izateko asmuz; baiña bere osaba batek, orduan Lekeitio'n bizi zanak, abade izatea oba ebala -zuala- esan eutson -zion-, eta Durango'ko jesuitetara bialdu eban -zuan-. Emen, oster, jesuita

izateko gogoz berotuta, Loiola'ra joanik antxe emon eban -zuan- urte pilloa ikas-teari lotua.

Baiña, urduria zalako edo, ez eban -zuan- aurrerapide aundirik izan, eta bizi-modu a -ura- itxirik, gurasoen ondora biurtu yakun -zitzaigun-. Oneikaz bizi izan zan, ikasi ta idatzi, gerratera arte. Gerran guda-ordezkarri izan zan. Gernikan baitu eben -zuten-, eta Gazteiz-en su-izkillotu. Ogetamabi urte zituan.

Olerkari

Igarle, ikusle, aurrelari dozu olerkaria. Besteak, alegiñak egin arren, ikusten ez dabezan -dituzten- gauzarik asko txit sakon eta misteriozkoak, igarri ta aurretiaz ikusi oi dabez -dituzte-; begiak eta belarriak euki, antza, zoli ta zorrotzak.

Olakoxea izan genduan Lauaxeta: eus-

kal olerki saila aberastu euskun -zigun-oso; ainbat gauza ixil argitara euskuzan -zizkigun; ainbat larrosa arantza artetik atera. Izadia ta giza-biotza aztertu zituan, miña ta poza, ederraren gozoa miazkatuaz. Bide barriak edegi -iriki- euskuzan -zizkigun-, dudarik bage.

Olerki liburu bi



Estepan Urgiaka
(Lauaxeta)

Ikasle zala asi zan idazten, «Euzkadi»-n baitik bat. Eguneroko ontan agertu zituan bere lanik beñenak; eta gero «Euzkerea»-n.

1930'an, Errenderi'n ospatu zan, Aitzol zanak eratuta, lenengo eusko olerki eguna. Ara jo eben -zuten- euren olerkiakaz Orixe'k, Lizardi'k, Tapia-Perurena'k, Jautarkol'ek, Jakakortajarena'k eta beste batzuk. Lauaxeta'ren «Maitale Kutuna»-k jaso eban saria.

Onek zirikatuta itxuraz, poesi-idazteari emon eutson -zion-, eta urrengo urtean olerki-idazti giartsua argitaldu euskun -zigun-. Ona liburu aren poesiz ornidutakoak:

1) *Bide barriak* (Bilbao 1931). XVII-143 orrialde. 42 olerki guztira. Aitzol'ek itzaurrean: «Urkiaga'ren neurtitzak altzotik zintzotasun lurrinkaia zabaltzen dute. Aldakorra da, noski, gogoia; igikorra, berez, naimena. Olerkariaren lipar illunak, eta izatez adi-gaitzak diran biotz zadorrak igartzea, neurtitz gardenen bidez jadetsi genezake, nai izanik».

2) *Arrots-beran* (Bilbao, 1935). 102 orrialde. 40 olerki guztiz. Metafora ta irudikizun leunen bitartez, ainbat gauza iragarten dauskuz -dizkigu-. Onako ogei bat osotzeko asmoa eukan, gai ezbardinetan.

1973'gn. urteko azillaren azkeneruntz, Oleri-Egunez omenaldi ederra egin geuntson -genion- Lauaxeta'ri, olerkari ta euskal idazle asko baturik, emen Larrea'ko komentu ontan. Berton erabagi zanez, dagoaneko irarkola lana eginda dago,

olerkari got'engoaren olerki ta idazlanakaz liburu ikusgarri bat osotu ta argitaratzeko.

«Euzkadi»-k eukan euskal atala zuzentzen eban -zuan-, eta mitiñak emoten zituan erririk erri.

ZELAIETAKUit

Zela,ra dua neskaxa:
—azia dabil loretan—.
Zelaira dua neskaxa
maitasun-kanta kantetan.

Argi daukazuz begiak,
gorputza dozu liraña:
abestu daigun bi-bijok.

Abestu daigun zelaian
soin orren
millazkaen antzo dantzan.

Zelaira dua neskaxa:
—erliak mur-mur loretan—.
Zelaira dua neskaxa
maitasun ona topetan.

Dantza.dantzarl bedartzan.
Ete gara udabarrlan?
Ara txindor bi zugatzan.

Txirula ta danboliña
entzuten dira mendian.
Zerua dagon oztitia!

Zelaira dua neskaxa:
—ingumak dardar loretan—.
Zelaira dua neskaxa
maitasun deuna gorde tan.

Barre dagigun leunki-
barre auxe dan ixilla!
Tanbolin, abil, astiro!

Mendiko axe biguna,
ator zelaira lora-billa,
lorak eta maitasuna.

Zelaira dua neskaxa:
axia dabil loretan—.
Zelaira dua neskaxa;
urretxindor bi kantetan!—

(Lauaxeta)



Iritziak

J. Aitzol'ek: «Biotz biguñekoa bera, barru-barrundik irtendako leuntasun miña eta apaltasun meea daramazkiten olerkiak sortzea, atsegin zaio, noski, Lauaxeta'ri».

M. Zarate'k: «Fedearen argitan erakusten deusku giza--bizitzaren misterio arrigarria. Betiraun naia, aragi ta gogoaren konpondu eziña, ametsa ta izatearen ez-bardintasuna, maitasuna ta gorrotoa, lorak eta arantzak, poza ta naibagea».

Gure artean Lauaxeta'ren olerkia ondoen ikasi ta aztertu dauana Luis Arostegi gaztea dogu -degu-. Iru lurraldetan banatzen dau -du- onek Urkiaga'ren olerki arloa: 1) *maitasuna*; 2) *gaztetasuna*; ta 3) *igarokortasuna*.

Eta gaiñeratzen dau -du-: «Iru alde oneetan batez be susmatu eban bere poesia Lauaxeta'k. Orain, ez litzakez iduritu bear alkarren ondoan, bananduta legez. Ikus-sentipen baten iru neurriak esan lei, edo obeto, margo bakotzeko iru leiar garden, alkarren gañean ipiñiak. Gitxi gorra-bera danak dagoz danetan, eta bako-txean batak edo besteak indartzen dau beste bien gañetik bere margo zeargia».

Labur: Poeta dogu Lauaxeta, Lizardi ta Orixe'ren maillara oso-osorik eltzen ez ba'da be, ortxe-ortxe dabillena. Gaur, goigoitik dabilkigu bide barrietaz; biar, arrats-beran, guztiz apain eta errikoi.

Garai ontako beste batzuk

—LUIS GONZALEZ ETXEBARRI (1893-1971). Ubidea'n jaio ta Buenos Aires'en illa. Euskeraz ta erderaz idatzi eban -zuan-kazetari legez; Bilbao'ko «Euzkadi»-n eta Aberri«»-n euskeraz ta Buenos Aires'ko «La Nación»-en erderaz. Euzkeraz argitaratu zituan: 1) «*Ipuin aberkoyak*» (Bilbao, 1917), ta 2) «*Urretxindorra*» (Bilbao, 1918). Aizkibel'tar Bingen eban ize-nordeko.

—JOSE ZABALA-ARANA (1918-1936). Nabarniztarra. «Ekin»-en eta «Euzkerea»-n idatzi eban. Bere liburuak: «*Edesti Deuna*», «*Euzko Lutelesti*», «*Aste Gurena*», «*Josutxo*», «*Donokirako bide zuzena*», ta besteak.

—AITA GABRIEL JAUREGI (195-1945). Karmeldarra. Aramaioko semea. Fisika ta kimika gauzetan guztiz aitua. «Karmen'go Argia»-n asko idatzi eban -zuan-. Bereak ditu: 1) «*Pisia*» (Bermeo, 1935), ta 2) «*Kimia*» (Bermeo, 1936). Euskera ederra dau -du-.

—ROSA BUSTINTZA (1899-1953). «Mañariko». Mafiari'n jaio ta illa. Kirikifio'ren loba. «Jesus'en Biotzaren Deya»-n eta «Karmel»-en argitara zituan bere ipuin eta olerkiak.

—AMETZAGA 'TAR BINGEN (1901-1969). Algorta'koa. Lege-gizona. Getxo'ko Udal-epaikari. «Euzko-Gogoa»-n eta «Egan»-en atera zituan batez be bere olerki ta idazlanak. Itzulpen asko ditu; ona bi: 1) «Hamlet» (Buenos Aires, 1952), ta 2) «Platero ta biyok» (Montevideo, 1953). Kultura zabaleko gizona.

—ANDIMA IBIÑAGABEITIA (1906-1967). Elantxobetarra. Euskaltzaindikoa. Euskal idazle punterengoa. «Euzko-Gogoa», «Olerti», «Egan», «Jesus'en Biotzaren Deya», «Irrintzi», «Gernika», «Alderdi» ta olako aldizkarietan idatzi eban. Bere idazti batzuk: 1) «Abere indarra» (E. G., 1951); 2) «Euskera irudi bidez» (Paris, 1953); 3) «Aprenda el vasco en 60 horas» (Zarautz, 1961); 4) «Bergili'ren Unai kantak eta Alor kantak» (Bilbao, 1966).


—FRANTZISKO ATUTXA (1908-1973)• Karmeldarra. Dima'n jaio zan eta Lima (Peru'n Txile'n eta Peru'n ibilli yakun -zitzaigun- mixiolari. Naikoa idatzi eban euskeraz. Bere euskal poema: «Mugarra Begiraria» (Karakas, 1969). 13 kantutan. Jakingarria.

ITZAK

Urmael, pizgina.
Aulki, jarleku.
Mendu, izakera.
Inguma, mitxeleta.
Mdlazka, tamarindo.

ADITZAK

Peitu, faltatu.
Eratu, antolatu.
Itzuli, biurtu.
Edestu, esan.
Bukatu, amaitu.



Zerien aratza, zeñen txuria
Izartxoaren dirdira!...
Zeñen maiteki begiratzen dit
zeru ortatik ludira!...

Laztandu nairik zugana datoz
Izartxoaren izpiak.
Dirdir dagizu... Lilluratua
damaie zure ninfak.

(Loramendi)

RI4N ARANA, «LORAMENDI»

(1907-1933)

Bedofia'n jaioa dogu -degu- Loramendi olerkaria. *Mendibitzu* bere jaiotetxearen aurrean oroitarri bat dago gaur be, onela diñona: «Euskal olerkari bikain eta Jaungoiko maitasunaren oiulariari, bere jaiotetxean, Euskeraren adixkideak». 1959-9-20'an jarrita dago.

Amairu urte ta erdi zituala, Altxasu'ko kaputxiñoetan praille sartu zan. Emen, Zangotza'n eta Ondarribi'n amaitu zituan bere eliz-ikasketak. Lenengo meza laster emoteko egoala, «peritonitis» agertu yakolako -zitzaiolako- Donostia'ra eroan -eraman- eben, ebagitxoren bat egiteko, eta bertan il zan, «zerura noa», «zerutik lagunduko dizuet zuei... euskerari... Eus-

esanik. Ogetasei urte doldoi zituan.

Loramendi, argazkietan, arpegiz bizar luze ta «begietan irripar biguña» agertzen da. Onen lanak argitaratu zituan Aita Yurre'k onela: «Argitara dioazten olerki ta idatzietan argi nabari dira «Loramendi»-ren biotzeko maitasunak eta eraspennak: Jesus Aurtxoa ta Jesus Gaztea, Jesuskristo gure Jauna Eukaristiako Sakramentuan ta Kalbario'ko mendian: orra or biotzaren erdian tinki zeramazkin maitasunak eta olerkietan eta idatzietan argi-argi ageri diranak. Olerkari yainkotia da bene-benetan».

Clerkari eder

Umetatik zekian euskeraz. Eta Zango-tza'n ikasle zala asi zan saio txikiak euskal literaturan egiten: emetxe itzuli eban -zuan- «Stabat Mater» esaterako.

«Zeruko Argia»-n atera zituan Loramendi'k bere olerki ta itz-lauzko lan guztiak. 1929'rantza, aldizkari eder au zuzentzen ebana -zuana- Aita Intza genduan; eta, jakiña, Aita euskaltzale bero onek asko bultzatu eban -zuan- kaputxiño gaztea luma erabilliz olerkiak ondu egizan -zitzan-.

1931'an Tolosan ospatu zan eusko

olerki eguna. Loramendi'k ara bialdu eban -zuan- bere «Arrantzalien arrats-otoitza»; Lizardi'k jaso eban len-saria. Urrengo urtean Ernani'n olerti gudua, ta Loramendi txapeldun bere «Barruntza-leyoan» maitekanta ederrarekin.

Bost urtean ekin eutson -zion- olerki idazten, eta 27 ditu guztira, oso ederki egiñak. Lore zuriz jazten zegoela ebagi eban -zuan- Jaunak euskal elertiko landara itxaropentsua. Bizitz laburra noski, baiña asmoz ta ederrez beterikoa, dudarik bage.

Landaretxo ameslari



Juan Arana
(Loramendi)

Lorategiko liii txurien aizpa oztiñak
laztandu zuten landaratxoa erne zedin;
ernemin beroz eman zizkion udaberriak
orriak ainbat urrin zerien lore-pinpin.

Orriak ainbat usai gogozko lore-pinpifiak
margo bikaiñez jantzi zizkion uztargiak;
u'egun urratzez mendi gañetik laztan epelaz
zabal zizkion pipil xamurrak eguzkiak.

Zabal zizkion lefiuru batez pipil-orriak...
Dirdir zegiten lore-kolkoak intz-tantoaz...
jira ta bira pinpilinpauxa jostalariak
lorerik lore lilluratuak pozik doaz.

Zoratu dira pinpilinpauxa margolariak...
Dantzan ari da euskal-zozoa txotx batean.
Burrun biziaz leiar xakona txukun mizturik,
erle politik erdi-gordeta orripean.

Urrin darie, urrin gozoa lore-kolkoak;
laztan damaite aize ariñak jostalari...
Ta ibai ertzean, pozkaien mende zama joriaz
landaratxoak egunik-egun amets dagi!...

(Loramendi)


I ritziak

J. Aitzol'ek: «Lizardi» ta «Loramendi». Biok ibilli zitzaizkigun bideak, aurrez-aurrekoak ezpadira ere, ezberdiñak osotoro. «Lizardi» giarra degu guztiz; pentsamentu sakonak ditu, baiña labur adierazten dizkigu eurak; idurikizun oso aukeratuak ditu, baiña moztasun izugarrian tinkoturik, bere idurimena pentsamentuaren mende jarten duela dirudi. «Loramendi»-k, ordea, azke darabil bere idurimena, eta bertso doiñutsu ta luzee-tan azaskatzen du bere goi-argi gaztearen su-garra».

Orixe'k: «Ba-du Loramendi'k adimena, ba-du idurimena, ba-du biotzean sua...

«Gure Arrantzaleak» deritzaiona du, nere aburuz, oberena. Olerki-ezur ederra; betegarriz ez dago gaizki; sua ere ba-dario... Euskera ugaria ta ederra. Arrigarri da, gaxte gaxte komentura sartu, ta andik ir-ten ez, eta oinbeste euskera nola irakurri zuun, eta buruan eduki».

Aita Yurre'k: «Bilduma au egiten ibilli naizela ikusi det, olerkietan txikiak ede-rrin eta atsegiñen zaizkienak ere badirela. Esaterako, «Enara beltzak», «Illargitara», «Antzekia», «Onatx, erletxoak», «Banoa-kizu...» t. a., olako txikiak deritzaizkie onen-onenak oiei».



Beste batzuk

LARRAMENDI (1874-1960). Bera'n jaio ta illa. Euskaltzaindikoa. Bere liburua: «*Olerkiak*» (Zarautz, 1960).

AITA BERA, J. M. ERROMAN DORNAKU (1878-1959). Beratarra. Ondarribi'n ilzan. Aita kaputxiñoa. «Euskal-Erria»-n, «Euskal Esnalea»-n eta «Euzkadi»-n idazten dau. Berea dau: «*Diccionario castellano-euskera*» (Tolosa, 1916). Filipinas eta Guam'en mixiolari.

RAMON INTZAGARAI (1878-1947). Donostiarra. Izenordeak: «Elurmendi» ta «Donosti». «Ibaizabal»-en, «Euskal Esnalea»-n, «RIEV»-en eta abar idazten dau -du-. Olerkari ona. Bere lanak: 1) «*Kontxesi ta Petratxo*» (Donostia, 1918), eta 2) «*Ipyyak*» (Donostia, 1924). Idazle ugaria.

-AITA ERRENDERI (1881-1916). Aita kaputxthoa, euskeraren alde lan ederra egin ebana -zuan-. Bere idatzietatik bat: «*Olerkiak*» (Donostia, 1935). «Euzkadi», «Gipuzkoarra» ta olakoetan idatzi eban -zuan-.

JOSE EIZAGIRRE (1881-1848). Tolosarra. Legegizona. «Euzkadi»-n, «Euskal Esnalea»-n, «Gure Herria»-n eta abar idatxi eban, -zuan-.

EMILIANO MUXIKA (1882-1949). Albistur'en jaio ta illa. Idazle, errime. Bere olerki-liburu bat: «*Neurtitzak*» (Donostia, 1915). Onen anaia ere, «Luistar», olerkari fiña dogu.

J. ANTONIO IRAZUSTA (1882-1952). Tolosarra. Euskal idazle ariña. 1951'an apaiz-mailla artu eban -zuan-. Bere lanik beiñenak: 1) «*Jzzanixio*» (1946), ta 2) «*Bizia garratza da*» (1950), biak Buenos Aires'en.

-EUJENIO URROZ ERRO (1883-1937). Tolosarra. Etxebarri'n ilzan. Idazle ugaria, «Euskal-Erria», «Euskalerriaren Alde» ta «Euskal Esnalea»-n.

AITA DOROTEO (1883-1948). Karmeldarra. Eskoriatza'koa. «Karmen'go Ar-

gia»-n idazle. Liburuak: 1) «*Aurtxo Jesus Pragakoaren Jaiera*» (Zornotza, 1915), ta 2) «*Karmengo Amaren esku-liburua*» (Zornotza, 1931).

M. ETXAIDE (1884-1962). Donostiar. Euskaltzainburu. Euskeraz ta erderaz idatzi eban. Euskeraz bat: «*Telelonoaren sortzea*» (1929).

AITA GALDOS (1885-1953). Eibartarra. Jesuitea. Euskal liburu: 1) «*Dabid'en A bestiak*»; 2) «*Jesus Aurraren lenengo itzaldi*», ta 3) «*Mikel Garikoitz*».

-JOSE ZINKUNEGI (1886-1964). Errexildarra. Zarautz'en bizi ta ilzan. Osagille. Naikoa idatzi eban -zuan-. Itzulpenak: «*Irizpidea*», «*Popatxu*», «*Yan Pier*», eta abar.

-AITA BUENABENTURA (1886-1956). Oieregi'koa. Kaputxiñoa. Asko idatzi eban -zuan- «Euskal Esnalea»-n, «Zeruko Argia»-n eta abar. «Arbelaitz» izen-ordez sarri. Euskaltzaindikoa.

—TORIBIO ETXEBARRIA (1887-1969). Eibartarra. Euskaltzaindikoa. «Euskera», «Eibar», «Euzko-Gogoa», «Olerti» ta «Egan» aldizkarietan azaldu zituan bere lanak. Aren lan andi bi: «*Lexicón del euskera dialectal de Eibar*» (Euskera, 1965-66), eta «Ibiltarixaak» (Bilbao, 1967).

-JOSE ALTUNA (1888-1917). Bilbotarra. «Amilgain» eta «Azparren» bere izenordeak. Euskal liburuak: 1) «*Ume euskaldunen laguna*» (Bilbao, 1920); 2) Oscar Wilde'ren «*Ipujiak*» (Bilbao, 1927); 3) «*Grimm'en Ipuñak*» (Bilbao, 1929), eta 4) beste ipuin asko «Euzko-Deya»-n, «Euzkadi»-n, «Euzkerea»-n eta «Gure Herria»-n.

JOSE AGERRE (1889-1962). Iruña'n jaio ta illa. Euskaltzaindikoa. Napar idazle azkarra. «La voz de Navarra»-n, «Olerti»-n, eta «PregOn»-en idatzi eban batez be euskeraz. Olerkari biguna. «Gurbindo» czizena erabilten eban -zuan-.



—Goiz ta arrats, oxkirriaz
 dantza ta musu,
 usai gozoz baratza
 txoratuko dizu.

Orriak soilduz gero,
 ez duzu besterik:
 arantzak txortenean,
 suminkl, zorrotzik...

SALBATORE MITXELENA
(1919-1965)

Zarauztarra. Frantziskotarren artean egin zitudan eleiz-karrerako ikasteak. 1943'an apaiztu zan. Eta Donosti'ko komentuan, izlari bikain, amar bat urte emon ondoren, Ameriketara joan yakun -zitzaigun- mi-xiolari-talde batekin. Peru'n, Kolonbia'n, Montebideo'n, Kuba'n ibilli zan artega ta

urduri, iñoiz aspertu bage, Kristo'ren irakatsi-azia erein eta erein.

Andik etxeratu ta barriro joan zan Sui-za'ra, Emen, erbestetuai laguntzen zebilela, eriotzeak eroan euskun -zigun-. Antxe il zan, Chaux-de-Fonds'en, 46 urte zituala.



Olerkari

Euskal izlari bikaiña zan, eta Donosti'tik Euskalerriko erririk geienetan, Gipuzkoa'n batez be, eten barik jardun eban -zuan- Barri Ona.iragarten.

Orrez gaiñera idazle ta olerkari dogu -degu-: idazle ona ta olerkari bizia. Ederki N. Etxaniz'ek: «Xalbatore Aita, etzan bertsotan bakarrik erakusle, itz lauz ere bereala jaiki zitzaigun gaillen, esale jator,

berezko bere nagusitasun eta zaldun aidearekin».

Bizitza laburra izan eban -zuan-; baiña alan be guk asko zor dautsogu zarauztar gazte argi oneri. Ainbeste itzaldi, idazlan eta olerki itxi euskuzan -zizkigun- gure atsegiñerako. Gaztetan asi zan euskal lanean, au da, idazten; eta amar bat urtean beintzat, menditik beera datorren erreka saltari legez izan yakun -zitzaigun-.

Liburuak

1949'an sari batzuk jaso zituan, eta bertatik eskeiñi euskun -zigun- bere poema nagusia. Arrez gerokoak dira beste enparauak. Ona:

1) *Arantzazu* (Zarautz, 1949). Euskal sinismenaren poema. 247 orrialde. Sarrean egilleak: «Arantzazuko Ama: tori zurretzat, ainbeste zor dizun seme onek eskeintzen dizun iana. Ez da nerea. Zure Erriarena baizik. Gizaldiz gizaldi zure babesean eta zuri kantari bizi izandako Euskalerrri zarrak abestu izan dizun poema dezu, nik orain andik eta emendik osatua, il-zorian zeuden puxketatxoakin gorputz bat eginda. Kantazar eta elezar oiei darien poesi-lurruna ta kristautasun sendoa bildu ta, kondaira lagun, itzez jantzi: nik besterik egin al dizut gero?»

2) *Ama-semeak Arantzazuko kondairan* (Zarautz, 1951). 263 orr.).

3) *Ogei kanta Arantzazuko* (Oñate, 1952).

4) *Bizi nai (Euzko-Gogoa, 1955)*. «Arantzazu» poemaren irugarren zatia. «Euzko-Gogoa»-k lensariz ederretsia, zatiirik ederrena noski.

5) *Arraun ta Amets* (Zarautz, 1955). Olerki bilduma, «Kuliska Sorta»-k argitaratua.

6) *Unamuno ta Abendats* (Baiona, 1958). Unamuno'ren pentsaera ta pilosofi-adierazpen gatzak euskera ederrean egosten ditu.

7) *Aboz-abo*. Idazti au ez eban -zuan- azaldu; baiña 1954'ko urriaren 23'an onela idazten eutson -zion- berak Aita K. Iturria'ri «*Aboz-abo* edo erromantzeeri buruzko prosa-liburu ori, berriz, ezin diat oraindik igorri, Kubatik Montevideo'ratu arte ez bait-zeukat astirik azken-kapitulu falta dan ori osatzeko».

Auxe dogu -degu- Aita Mitxelena'ren lan txalogarria. Ona zer gerta guri: «Jainkoak maite dutena, gazterik il oi da». greziar olerkari batek esan zuanez.

BIZI NAI

Egokitu al zaizu
Aizkorri gaiñetik
eusko-lurra ikustea
Iaiñoz estalirik;
Iaiñoz lau probintzitan
errekalde
baiño mendi-gaillurak
eguzkiz yantzirik,
salbo ba'lira legez
ito-bearretik?



BeIn egokitu neri.
Talde bat ginduzun.
Igo giñan orcluko
artzai baten lagun,
begi-i^Piña zorrozruz
galdegiten genun:
—«Nun da gure Gazteiz?
Gure Tolosa nun?
Terralak galerazten;
ta ai!, ezin ezagun.

Ogei ta bat garrengo
gizaldi orretan
askok galdetu dute:
—«Euskalerra nun dan?
Bera mireste-arren
gatoz urrtmdikan...»
Ta guk erantzun bear:
—Bai, emen izan'tzan.
Baiña erdalkeriak
yan ta irentsi zuan» .

Jainkoak nai du! deitu omen zun
Kardaberaz gurgarriak.
Jainkoak nai du! berriztu gero
Bizkaitik **Irasliak**.
Ta aren atzetik aupa batean
zutik abenda guziak:
«Jainkoak nal du altxa dezala
burua Euskalerra!» „

O Euskalerra, gure Euskalerra,
milla bider txit gajua,
amiltegitik amiltegitira
obirailo irauldua:
ez Gernika'rik, ez euskerarik,
gaiñera izena iraindua...
ez izan nunbait zu bezelako
ondrauntzat mundua!

(S. Mitzelena)

Beste batzuk

JUAN BASURKO (1890-1957). Onda-
rribi'n jaio ta Inm'en illa. Arotza. Olei
kari. Sari askoren jabe. Liburuak: 1)
«*Oroitza*» (Irun, 1941); 2) «*Tesus*»
(Oñate, 1954); 3) «*Iñazio Deuna*» (Do-
nosti, 1955), eta 4) «*Ibilkari bikain bat*»,
bertso berriak. Bertsoan dagoz guztiok.

MARTIN OIARTZABAL (1892-1966).
Apaiza. Liburuak: 1) «*Zerurako bidea*»
(Zornotza, 1922); 2) «*Jesukristo gure
Jaunaren Bizitza*» (Pasai, 1936); 3) «*San-
tuen Bizitza laburrak*», eta 4) «*El lengua-
je vasco*».

-JOAKIN ALDABE (1893-1973). Bera'n
jaio ta Orio'n illa. Euskalerriko aldizkari
guztietan azaldu ditu eundaka bertso-lan.

-JOSEBA MARKIEGI (1895-1936). Dc-
ba'koa. Arrasaten arimazain. Bere idaz-
tiak: 1) «*San Luis'en bizitza*» (Durango,
1932); 2) «*Txerrenzubi'ko gertaria*»
(1935) ta «*Eriotz-bide*» ere bereak ditu.
Onen anai Felix (1906-1956) ere idazle
zan, «*Argia*»-n, «*Yakintza*»-n eta Buenos
AiresIo «*Euzko-Deya*»-n idatzi eban. Be-
rea dau: «*Seme ondatzaillea*» (1936) an-
tzerkia.

—SAGARTZAZU 'TAR KAULDI «Satarka» (1895-1971). Ondarribi'n jaio ta illa. Olerkari. Euskaltzaindikoa. Bere liburuak: «*Txinpartak*» (Donosti, 1922), eta 2) «*Intza begietan*» (Donosti, 1957).

—Luis JAUREGI, «Jautarkol» (1896-1971). Errenderi'n jaio ta Zarautz'en illa. Olerkari yaukal. Euskal aldizkari guztietan idatzi eban. Bere liburu bi: 1) «*Bioz-kadak*» (Donosti, 1929), eta 2) «*Xenpe-lar Bertsolaria*» (Zarautz, 1958).

—ZUBIMENDI 'TAR JOSEBA (1898-1939). Donostia'n jaio ta Kanbo'n illa. Naikoa idatzi eban. Bereak ditu: 1) «*Olerkiak*» (1932), eta 2) «*Zumalakarregi*» (1935).

—ANDRES ARZELUS, «*Luzear*» (1898-1949). Donostia'n jaio ta Baiona'n illa. Idazle ona ta ugaria.

—AITA EMILIANO (1904-1967). Karmeldarra. Eskoriatzan jaio ta Markiñan illa. Bere lanak: 1) «*Andre Mari Euskal-erriko mendietan*» (Bilbao, 192); 2) «*Andre Mari gaztediaren eskuetan*» (Gazteiz, 1954); 3) «*Euskal musikalari bikainak*» (Zarautz, 1967), eta abar.

—JOSE ARTETXE (1906-1971). Azpeitia-rra. Idazle ona euskeraz ta erderaz. «Yakintza»-n, «Egan»-en eta «Zeruko Ar-gia»-n idatzi eban -zuan-.

M. MANZISIDOR (1907-1961). Josulaguna. Idazle errikoi ugaria. Bere li-buru batzuk: 1) «*Deusto'ko Atezai Ga-rate Jesu-Laguna*» (936); 2) «*Otoitz-bi-bea*» (1948); 3) «*Jesukristoren Bizitza*» (1953); 4) «*Gure Patroi Aundia*» (1956); 5) «*Santuen: Bizitzak*» (1958-59), sorta bi.

—ALEJANDRO TAPIA-PERURENA. Irufm-sra. Ainbat olerki ditu «*Eusko Olerkiak*» liburuetan eta «Yakintza»-n. Idurimen biz-korreko poeta lirikua.

—ANTONIO VALVERDE, «Aialde» (1915-1970). Errenderi'n baio ta Oiartzunen illa. Euskeldun berria. Euskaltzaindikoa. «Egan»-en, «El Bidasoa»-n, «Olerti»-n eta «Oarso»-n idatzi eban euskeraz. Bere azken idaztia: «*Ibar ixillean*» (Donostia, 1970)

ITZAK

Aratz, garbi.
Urrin, usain.
Uztargi, ostarku.
Pinpilinpatma, mitxeleta.
Zama, karga.

ADITZAK

Azaskatu, nasaitu.
Aragitu, encarnar.
Gaillendu, gainditu.
Azkortu, sendotu.
Puztazi, alaitu.



Itxaso aurreko aitzean yarririk,
arin datoz orruka, marmarka...
Orruka, marmarka bits zuri egiñik
itxaso arro ta zabalaren

Etortzekoan ta yoaterakoan
itxas-olatuak agur ei diote:
agur yaiotzean, agur iltzekoan. .
Zoriona, zori.txarra lez, diyoa.

(Zaltegi)

Oarkizun

Gure literaturaren azalpena egiterakoan, urtez urte jardunak gara oraiñarte. Berrogetazazpi ikasgai guztiz.

Eta aurrerantzean, gaurko idazle guztiak, ots, bizi gareanok, danak aitatzera ezkerok, beste ainbeste ikasgai ta orrialde osotzeko aiña izen eta lan geunkaz. Laburzurrian, beraz, bizi gareanok bereziki, iru

sailletan batzen saiatu naiz: 1) *Prosalarriak*; 2) *Olerkariak*, eta 3) *Teatru-idazleak*.

Gaurko idazleetatik be, gai bakotxean, bat aukeratu dot ardatz bezela; eta besteak onen inguruan egokituko ditut alik eta polikien.

Ba leiteke norbaitzuk eratzte onekin bat ez etortea, guztiok ez bait-gara esku orotako makilla. Baiña zer egingo? Nai dana al da beti?

JOAKIN ZAITEGI

(1906-)

Norbaitek esan dau: «Ez dago euskaldunik asko izkuntzari eta erriari Zaltegi-ren neurrian lana, ondasunak, osasuna bera eskeiñi dizkienik».

Arrasate'n jaioa dogu -degu-, 1906'gnko garagarrillaren 26'an. Apaiza. Guda aurretik Beljjka'n bizi zan, eta karrera amaitu ostean, ez eutsoen -zioten- bere

sorterrirantza etorren itxi -utzi-, eta Ameriketako lurak ezagutzera joan zan, Venezuelan eta Guatemala'n bizi izanik. Irakasle (doktor) dogu Filosofian, eta irakasle legez jardun eban -zuan- Guatemala'n eta El Salvador'en batez be. Gaur bere sorterrian, Arrasate'n aurkitzen da.

Euskal idazle ta olerkari

Ikasle zala asi zan euskal lanak idazten. *Jesus'el*; *Biotzaren Deya'n* ainbat agertzen dira bereak, 1928'tik asita bereziki. 1934'an, V'garren Eusko-Olerti egunean bere «Tori nere edontzia» izan zan zidarezko aritz-abarrez saritua.

Euskal sua barruan daroanak, naiz-ta urrun bizi, beti erakutsiko dau -du- su orren garra. Gautemala'n egoala, 1950'an, *Euzko-Gogoa* euskal aldizkaria sortu eban -zuan-. Bigarren opari lez au diño: «Argia bearrean Euzkadi galdu zorian ba-dago, gure mendietako tontorrak sutan yarri

ditzagun. Ori eziñean, euskotarron biotzak oro sumendi egin eta Aberriaren etorkizuneko bide argiak barna yo dezagun, basotik datorren azkatasu-eguzkitan gure bekokiak blei-blei eginda, ezpainzear dardarka biotzetik gora datozen abesti aberkoiak abeslari». Urte pilloan 1959' rarte agertu zan aldizkari onek mesede ikaragarria egin eban -zuan- Euzkadi'n eta euskal idazleen artean.

Orrezaz gairi, beste asmo batek eragiña ibilli izan da bere bizitza guztian: Gerkar klasikuak batez be euskeraz ipiñi ta bide batez «Euskal Irakastola Nagusirako» liburuak gertatu. Ortarako egiñak ditu: *Sopokel'en Antzerkiak I* (1946), *Sopokel'en Antzerkiak II* (1958), *Platen; eneko atarian* (1962), Euripides'en *Medeia* (1963); eta *Platon. I. Oturuhtza, Protagora, Menor.* (1975). Bereak ditu: *Ebangeline*, Longfellow'en *Ebangeline* euskeraz (1946) eta *Bidalien Egiñak* (1955). Baita *Goldaketan* (1946) eta *Berriz ere goldaketan* (1962) olerki-liburuak be.

Itz lauz nai bertsoz, idazle jatorra dogu -degu-; errez ta txukun darabil bere luma. Jakin-zale baita, gauzen sustraira jo oi dau -du- beti. Gaurko ikas-gogoari -baita Ikastola Nagusi maillan be- asko lagundu bear dautso -dio- arrasatetar jakintsu onen lanak.



Arrasate (Mondragon)
eleizaldea,
kaleko euskera.

Ikustaldi bat

«Gaur zortzi, igandez, oetik yaikitzerakoan, Tolosa'n esnatu nintzala buruak eman zidan. Euria mara-mara, zerua goibel, etxe-bazterrak illun. Naiz ta uri ketsu artan adiskide miñak ugari izan, goiz-meza gintzan eta Orixe'ri «munduaren ipurdian» ikustaldi bat egitea otu zitzaidan.

Bururatu-ala, bidez niyoan: eskuetan gcrosti-makilla, Lizardi'ren «Biotz-begietan» besapean, istar-zabalka bideak barna lotu nintzan ekaitzari bizkar, giro onari bular.

Iñor ez da ageri alorretan... Gariak buruturik dira. Euri ziriñaren beldur da nekazaria, nonbait, gorriñak yoko ote dion uzta osoa. Alare, soroak ñagiak ateratzen uzten ditu igandez gure Erri Yainkozaleak: Goiko Mutillaren esku begidunak onik zaitu bide oi du etorkizuna.

Basetxe-atarieten txakurrak lurtean zabal etzanda; etxeko atea itxita... oillarrak ikullu ondoko orma gaiñean eki,rialean kukurrukuka diardu: urbil, olloak aztarrika. Tarteka-marteka esnedunen astoak ipurñauska, buru-estalki beltzez mezetara doazen zarrak, gizakume gordiñak, gazte begi-alaiak; an bean, erreka-laño tartetik Araxes ibaian arrantzan diardun kale-semea nabari da.

Egun artan, bidez irakurtzerik ez nun

a! izan. Euria edarrak ta ego-aizeak arpegiratzen zizkidan lantoak.

Bide osoa arnasaldi batean burutu nizun: ezkerrera Leaburu ta Gaztelu, esku-bira, berriz, Altzo ta Lizartza utzita, azkenik iru ordubete epean, aldapa goian, nire be i-betegarrt nizun Orixe errixka, aize-erauntsiari buruz lerdan. Ogei bat etxe ditu: katu zar bat ere ez cla ageri bazterretan: zarata ta urrumarik ere ez da entzuten: kazkal-garaia bide da.

Zuzen-zuzen «Orixe» adiskidearenera yo nizun. Beraren etxea bide ertzean dazu, ezkerrera. Bizitza bakarrekkoa: azpi-aldean aza-baratza du. Atarira naiz eztiki... Inor ez. Etxariko atea ertsirik, etxe-gibelean norbaiten urrats-otsak eta mintzo ozenak dantzuzkit. Labor, atartean lotu naiz, eskua atelangari edatuki, biotza dardaraz, bekokia ameska.

An da bera. Lanean ari da... Ahapaldia amaitzeko zai geldituko ote naiz?...

—Ots! Zatoz aspaldikoa, berak.

Burutsik, maukutsean, begiak ñir-ñir, matraillak goi-argiz gorrixka, ezpain-ertzean irri xuria, Elade'ko artzaia bezain lerdan, urrats luze, bertso-berriak yario...

—Nor ta zu! --ots egin zun «Orixe»-k, yauzi ta zapart, besoak nire sorbaldaratuz» (Euzko-Gogoa, 1950, 5-6, 12 orr.).

-ISAAC LOPEZ-MENDIZABAL (Tolosa, 1879-1977). Oorezko Euskaltzaiña. Euskeraz idatzi ditu: «Zenbakiztia». «Umearen laguna», «Xabierto», «Erleak», «Nekazaritza», «Seaska abestia», «Otoitzak». Erderaz: «Breve historia del Pais Vasco»,

Pais Vasco», «Erimologias de apellidos vascos», «Manual de conyersaei6n castellano-euskera», «Diccionario vasco-castellano», ta abar.

-JULENE AZPEITIA (Zumaia, 1888). Irakasle. Euskaltzaindikoa. Bere liburuak: «Osasuna, merketza ta yanaritza», «Ira-



Burdintza
eta eusko
langilleria

kurri, maire), «Azeri jauna», «Amandriaren altzoan», «Umien adizkidia», «Zuentzat»...

—J. M. BARANDIARAN (Ataun, 1889). Etnologoa. Idazle ugaria. Liburu batzuk: «Breve historia del hombre primitivo», «Euskalerriko leen gizona», «Nlitolgia vasca», «El mundo en la mente popular vasca»...

GABIREL MANTEROLA (Zeanuri, 1890-1977). Idazle ugaria. Liburuak: «Ipuintxoak», «Santuen Bizitza laburrak», «Itzaldiak», «Goi-izpiak», eta abar.

—GOTZON URRUTIA (1890-1975). Asko idatzi eban -zuan- «Euzkerea»-n, «Euskera»-n, «Euzko-Gogoa»-n, «Karmel»-en, «Agur»-en...

AGUSTIN ANABITARTE (Donosti, 1891). Liburuak: «Neska-mutilleri diru aurreratzen erakusteko», «Antziñako Olinpiar jolasak», «Usauri», «Donostia», «Poli» ta «Aprika'ko basamortuan».

—JUAN GARMENDIA (Lasarte, 1898). «Zeleta». Idazle nekegaitza. Lanak: «Itxutasun madarikatua», «Patxi kirten», «Euskeraren iraupena», «Oroipenak», eta abar.

—NORBERT TAUER (Bizén, 1898). Euskaltzaindikoa. Asko idatzi dauku -digu-euskal aldizkarietan. Liburu bezela: «Bere idazkiak».

—ALEJANDRO LARRAKOETXEA (Zeanuri, 1892-1976). Aita Ipolito karmeldarra. Lanak: «Grimm Anayen Ipuiriak», eta abar.

BENITO LARRAKOETXEA (Zeanuri, 1894), Shakespeare'n trajeri, drama ta komeri guztiak euskeratu ditu, ta argitaratzen ari da.

—NIKOLAS BARRENETXEA (Yurre, 1898). Aita Julen Yurre, kaputxinoa. Idazlanak: «23-garren Yon Aita Santua», «6-garren Paul Aita Santua», ta abar.


—ANJEL IRIGARAI (Bera, 1899). Euskaltzairia. Idazle jori. Liburuak: «Euskalerriko Ipuiak», «Poesias populares», «Prosisistas navarros», eta abar.

JUSTOMARI MOKOROA (Tolosa, 1901). Idazlanak: «Genio y Lengua», «Erraondo'ko azken danbolinteroa», «Egiaren bila» ta abar.



Euskeraren lur landua

«Idazkera osotu ra norberetzeko, ez dogu idazle onakaz daukagun ar-emona baiño bide obarik. Oneik darakuskue, eguzki-izpiak baizen argi, zador irristatsuetatik zelan Idazle ospetsuak, dan-danak gero, asko irakurritakoak, irakurle sutsuak izan dira» (*Oleri*, 1960, 4 orr.).



BEERANTZA?

Beera oa, eguzki on,
ortzi zear beerantz...
Beera baita, ene erria!
Norantz ote? Norantz?

Ik azken izpiak aulduz,
mendi-bestaldetik
illargia, arnas jori,
or jaikiz jadanik.

Eta ik, ene erri erria,
beerantza jotean,
ba al duk norbait goraka
arnasa betean?

Illunetik jaidko ote,
eguzki antzera,
orren bizi opa dugun
askatasun tzera?

B1 eskuak alkar-tente
otoitzari nago,
urretxindorak goizarl
baiño be miñago.

AITA ONAINDIA (1909)

Amoroto'n jaioa. Larra'n, Markiria'n,
Gazteizen eta Begoñan egin eban -zuan-
eliz karrera. Ondoren, gerra aurretik eta
ostean, Hoz de Anero (Santander), Gaz-

teiz, Logroño ta Eibar'en egiñiko amabi
bat urte kendu ezker, bere bizitza guztia
Larra'n emon dau -du-, eleiz arazoai ta
idazteari loturik.



Larrea, Aita Karmeldarren Santutegia eta euskeraren eskola

Amaren altzotik ekian euskera ikasi ta irakurritz ederturik, latin eta ingurukoak ikasten ziarduala, asi zan euskeraz idazten. Donostia'ko *Euskal Esnalea'n* (1926) agertzen dira bere lenengo lanak. Aztetxean praille sarbarri egoala asita, itzuli eban -zuan-, ia osorik, Teresatxo Deunaren Bizitza, berberak idatzia; itzulpen au tamalez gudaldian galdu yakon -zitzaiion-. 1951'an, Hoz de Anero'ko komentuan nagusi zala, *Karmen'go Amaren Egutegia*, gero *Karmel* izango zana, sortu eban -zuan-; eta 1959'an, *Olerti*. Lenengoa ogei bat urtez eta bigarrena amar urtez, berak zuzendu zituan.


Bereak ditu liburuok: *Milla Euskal Olerki Eder* (1954), *Goi-zale* (1956), *Olerkiak*, *Arrese-Beitia* (1956), *Bertso Berri ta Kanta Zar, I ta II*; *Xabiartxo*, bizkaieraz (1960), *Olerti*, amar urte (1959-1969), *70 meza-fitxa* (1960), *Iru poema*,

R. Tagore (1962), *Eguneroko Meza*, *J. Kerexeta'rekin batera* (1963), *Onbidea* (1963), *Gure Bertsolariak* (1964), *Ondarrak* (1964), *Jolasketa* (1965), *Abarrak* (1966), *Bergili'ren Idazlanak osorik* (1966), *Aurrera* (1968), *Giza-bizia* (1968), *Larrea eta Karmeldarrak* (1968), *Goiznabar* (1970), *Gure Urretxindorra* (1971), *Euskal Literatura, I* (1972) eta ondoren beste lau, *Eskutitzak* (1974), *Olerkiak*, *Lauaxeta* (1974), *Las Cien mejores Poesias de amor de la Lengua vasca* (1975), eta abar.

Idatzi dau -du-: «Euzkadi», «Eguna», «Ekin», «Karmel», «Euzo-Gogoa», «Zeruko Argia», «Olerti», «Goiz-Argi», «El Bidasoa», «Jesus'en Biotzaren Deya», «Agur», «Principe de Viana», «Gure Almanaka» ta beste aldizkaria batzuetan. Eta «A. 0.», «Igotz», «Otarri» erabilli ditu lanak izenpetzean.

Gure Bertsolariak

«Gure aintziñako leze barnean ezkutatzen omen da bertsolariaren iatorria. Eta **garai** artan etzegoen gaur bezelako liburu erreztasunik, ez irarkolarik. Kantatzeko izan oi zan aien bertsoa, oroimenean josi ta eukitzeko; labur, arin, bizkor, bizi, bezeko ta sotilla izan bear naitanaiez. Orrela da, izan ere, egiazko bertsolaria. Olan izan bear du koblari izena daraman edozein poetak.

Gure bertsolariak ez dio garranrzi geiegi ematen, poeta ta olerkariak bezela, azaleko jantziari; barnera doa, geieenez, pentsamentu zorrotz sakonez esana sotil jartzera. Bertso giarrak ondu,  bere jomuga ta elburua: gauzak adierazi, mundu berri bat erri entzulearen begi aurrean zauskadaz, itxaropenez, maitasunez, ezpirituzko zotiñez gaiñezka...

Pentsamentu ta biotz-eragiñeko mundu berria jalgi ei du bertsolariak erri aztortuaren aurrean.

Eta ez da danena mundu berdiña ere: bertsolari bakoitzak sortzen du berea, du darik gabe. Ez da, ez, arritzekoa. Bi aur ez omen dira berdiñak, ezta larrosa ostu bi ere, naiz-ta berdin samarrak iruditu. Idazleak bere zerbait laga, oi du osatzen ditun lanetan; berdin bertsolariak ere; bere ezaugera, bere kultura, bere biotza izanik, oietako zerbait nabari da ontzen dituan kopla ta neurtitzetan.

Dana dala, erria txoratzen dute gure bertsolariak, euskera zaintzen dute. Dagitena lana, arte-lana, bikaiña duzu. Ta, jakaiña txalorik bero ta gartsuenak merezi dituzte» (P. *de iana*, 1975, maiatza, 4 orr.).

"S:L•Ppir



Aita Santi Onaindia, euskal elertietan azterlari bikaiña.

Zelan ondo idatzi

«Lenengotan gitxi idatzi, ta albait eta ondoen, Arretaz eta txukun idazten asten danak, bidez doala zozrorrak aurkitu arren, azkenerako polito bide egingo dau. Orrelaxe egin dabenak doguz idazle guztiak;

Gaiñera, norbere lanakin latz jokatu bearrean gagoz; kendu bear dana, kendu, ta arteztu bear dana, arteztu. Gaztetan, batez be, olerkitxoak taiutzea, oso egokia ei da idazten ikasteko, idazkera (estilo) eder jori apain baten jabe egiteko» (Oier-ti, 1960, urtarrilla, 7 orr.).

Beste idazle batzuk

-GILEN EPPHERRE (Altzuruku, 1911-1974). Lanak: «Katexima», «Botzez eta Billotzez», «Elizako libria» eta «Haurren Katixima».

-LINO AKESOLO (Dima, 1911), Lanak: «Agure kezkatia», «Onbidea» A. Onaindia'rekin batera, «Salmoak», «Ipiña ta

Ipiñatarren barri», «Yose Paulo Ulibarri» ta abar.

—JOSE BASTERRETxea (Gernika, 1911). «Oskillaso». Lanak: «Kurloiak», «Akatsbako gizonaren heriotza», ta abar.

- M. ETXABURU (Ondarroa, 1913). «Kamiñazpi». Euskaltzaiña. Asko idatzi dau euskal aldizkarietan, len eta orain.

XABIER PEÑA ALBIZU (Tolosa, 1914). Euskal irakasle jatorra. Euskaltzaindikoa. Lanak: «Ene potxolo» ta «Euskal Irakasbide laburra».

—IMANOL BERRIATUA (Elantxobe, 1914). Idazle jori «Anaitasuna» aldizkarian. Lanak: «Lagunarteko Meza» ta «Kristau Katezismoa».

MARIANO IZETA (Elizondo, 1915). Kazetari ta ipuilari. Beronen lan bat: «Dirua galgarri».

- MANUEL ESTONBA (Irun, 1916). Urkiola'ko txauburu. Lanak: «Izartxo», «Urgoiti'ko mutillak», «Euskal Edestia», ta abar.

JosE ANTONIO LOIDI (Errenderi, 1916). Euskaltzaindikoa. Lanak: «Ama-bost egun Urgain'en», «Itxaso.....», ta abar.

SALBATORE BARANDIARAN (Oñate, 1916). Euskaltzaindikoa. Lanak: «Ilias-ena» ta «Danzas vascas».

IÑAKI GOIKOETXEA (Zeanuri, 1920). Lanak: «Otoitz-abestiak», «Giza-soiña» ta abar.

—LUIS VILLASANTE (Gernika, 1920). Euskaltzaindi-buru. Lanak: «Ars-ko erre-torearen erakusaldiak», «Kataliñen Gogoetak», «Nere izena zan Polentxi», «Aitonaren uzta», «Kristau fedearen sustraiak fainkoa», «Jesukristo». «Gero», ta abar euskeraz ta erderaz.

EUJENIO AGIRRETXE (Errexil, 1920). Lanak: «Arantzazuko Amaren bederatzi-urrena», «Arantzazura erromes», eta abar.

—PIERRE XARRITTON (Hazparne, 1921). Euskaltzaindikoa. Bere lana: «Eskualdunak».

—MARTIN UGALDE (Andoain, 1921). Kazetari. Euskal lanak: «Iltzailleak», «Ama gaxo dago», «Gurpegin aspaldi ger-tatua», «Umeentzako kontuak», eta abar.

NIKOLAS ALTZOLA (Izurtza, 1922). «Bitaño», «Markue». Lanak: «Cien Auto-res vascos», «Atalak II», ta abar.

—XABIER GEREÑO (Bilbao, 1924). Euskaltzale zoli. Lanak: «Zein da erru-dun?», «Arantza artean», «Argi bat ilun-tasunean», eta abar.

AITA INTZA (Intza, 1886). Euskal-tzaiña. Bere lan batzuk: *Kristau Ikasbidea* (1927), *Erriarentzako Liturgia* (1930), *Naparroa-ko Euskal-Esaera zarrak* (1974), eta abar.

—ANASTASIO ARRINDA (Lekeitio, 1912). Gaur Deba'ko txauburu. Euskal lanak: *Oto ta Potolo* (1919), *Juantxo Txiki* (1969), *Euskalerra Zarra* (1969). *Semeno de Lazkano* (1970), *Euskalerra eta Eriotza* (1974), *Euskalerra eta Arrantza* (1977).

-Izkuntza bat, gurea naiz iñorena, ez da gizarteko mintzabide eta adierazpidea besterik. Ona da, beraz, elkarrekin mintzatzeko eta elkarri gogoetak adierazteko delarik, mintzatzeko eta adierazteko baliu duelako; orrexegatik beragatik da ona aizkora zorrotza, ebakitzeko sortua delarik aizkora amutsa, berriz, txarra. Gei dezagun ez dela berez izkuntza amutsik, orrelako utsik ageri baldin badu, zorrotz zezaketen adiña zorroztu ez dutenena dela soil-soilik errua.



Baserria: gure abizenen sorlekua eta euskeraren eskola gizaldietan

LUIS MITXELENA (1915-...)

Errenderi'koa, Jakintza eta Letretan Irakasle. Izkuntzalari. Euskaltzaiña. «J. Urkixo» euskal mintzo Mintegiko buru.

Euskal idazle legez, naikoa idatzi dau -du- «Egan»-en, «Euskera»-n eta «Ja-

kin»-n batez ere. Sakon, errez eta ugari azaltzen ditu bere gogoetak. Patxi Altuna'k batu ta argitaratu zituan lan oneitatik -aueztatik- geienak: «Mitxelenaren idazlan hautatuak» (Bilbao, 1972).



Pasai, kaia eta inguruko erriak

Euskalari

Ainbat liburu atera ditu erderaz. Danak euskerari buruzkoak, onen sustrai, erro, gramatika, ots, mintzo ta besteak azaldurik.

Bereak ditu: 1) *Apellidos vascos* (Donostia, 1955); 2) *Historia de la literatura*

vasca (Madrid, 1960); 3) *Folthica historica vasca* (Donostia, 1961); 4) *Lenguas y Protolenguas* (Salamanka, 1963); 5) *Textos arcaicos vascos* (Madrid, 1964); 6) *Sobre el pasado de la Lengua vasca* (Donostia, 1964); 7) «Zenbait hitzaldi», ta abar.

«Goresmenik bear balu, aski litzake esatea, eta ez genduke egia soila baizik esango, Euskalerrriari eta euskerari eskeiñi dizkiola bere bizitza luze eta lanpetuaren fruiturik geienak eta onenak, etengabeko ahalegiñen gaiña eta bikaiña. Ori naikoa ez balitz, gaiñera, esan diteke bere obra dugula bear bada asmoz eta neurritz, erabat arturik eta iñorena gutxietsi gabe, euskal-idazle batek, noiznaikoa den, sortu duen larriena.

Azterketan asi ezkeru, esan bear da aurren-aurrenik ez dela beti izan «Orixe», oraiL besterik badirudi ere, euskal-letren aitagoi onetsia eta ezin-ukituzko eredia. Aitzitik, asieran eta geroago ere bai, bere *gisa* eta bere kabuz ibilli zen Iuzaroan, giroiari entzungor egiñik. Bere bidetik abiatu nai zuen eta bere buruaren jabe izan, gizona izan ditekean neurrian, ez iñoren esanera egon. Izkuntzari dagokion aldetik, berriz, ez zen berrizale —orduko zenbaitek nai zutekean adiña ez, beñi pein—, zaharzale baizik: aoz eta izkriLtzuz jaso zuen ondarearen zaintraille leial, zaintraille leial izate orrek garai artako errepidetik baztertuko bazuen ere...

Urte oietan eldu zen gorengo maillara «Orixe»-ren izena eta omena. Bizirik genduen gure artean gau-egunetako ametsetan billa genbiltzan izkuntz-eredua, irakaslea eta urrutiko gaillurretarik bidea erakusten zigun gidaria. Poemaz landa, gaiñera, ez zegoen geldirik «Orixe». Bere euskal-lanak, iñoiz ez bezela, samaldan zetezkigun, multzuka, bata bestearen gain, itz lauz eta itz neurtuz. Eta bakoitza, banan-banan, lehengoan ospea geitzen eta zabaltzen ari zitzaigun» («Orixe» *Omenaldt*, 1965, 5 orr.).



Idazle autak

—MANUEL ZIARSOLO (Bilbao, 1902). Euskalerrriko aldizkari guztietan atera ditu ipuin eta teatru-lan gazigezak.

—ANTONIO ARRUE (Asteasu, 1903-1977). Lege-gizona. Euskaltzaifia. Itzaldi ta idazlan oso ugaria izan yaku -zitzaigu-.

—MARIA D. AGIRRE (Errexil, 1903). Euskaltaindikoa. Itzulpenak: «Txalupak jaberik ez», «Iturri-legor», «A mal» eta abar.

ETIENNE J. SALABERRI (Heleta, 1903). «So egile». Urteetan idazten dau -du- Baiona'ko «Herria»-n batez ere. Liburu bat: «*San Frantses Xabier*».

—ANTONIO URRESTARAZU (Araia, 1902). Idazle gartsu. Bere liburuak: «*Granilnica vasca*», «*Formzas verbales vizcainas*». Izenorde: «Umandi»,

BALENTIN ENBEITIA (Muxika, 1906). Bertsolaria. Bizkai aldetik onena. Idazlana: «*Nere apurra*».

—RAMON MURUA (Ordizia, 1906). Liburuak: «*A sarre bidetan*», «*Ipui jatorrak*».

—PLAZIDO MUXIKA (Umieta, 1906). Liburuak: «*Noni ta Mani*», «*Mendiko argia*», «*Diccionario castellano-vasco*». Euskaltzaindikoa.

MARTIN ITZIAR (Azkoitia, 1905). Idazlanak: «*Gure txoriak*», eta «*Larraundi'ko sendia*», eleberri.

JOSE ANTONIO GOIRIA (Galdakano, 1908). Liburuak: «*Berriotxoa*», «*Karmen'go Eskapularioa*», «*Fatima'ko Ama Birjiña*», «*Goi-Bidez*», «*Kristoren Eliza*».

ESTANTSLAO URRITZOLA (Tolosa, 1909). Idazle ugaria. Liburuak: «*Sugegorri korapilloa*», «*Ezpalak*», eta abar.

—JON BEIZTEGI (Eibar, 1911). Idazle bizkorra. «Agur»-en zuzendari.

FERNANDO AIRE (Urepel, 1920-1977). Bertsolari bikain. Bere lana: *Odolaren mintzoa* (1977).

—GOTZON GOENAGA (Zegama, 1915). Bere lan bat: *Agurea ta itxasoa*, itzulpena.

G. LARRAÑAGA (AZkoitia, 1905). Bere lan bat: *Landare Jakintza* (1975).

LUIS EGIA (Tolosa). Bere lana: *Neurritzia* (1972).

J. L. ARANBERRI, «Amatiño» (Eibar). Asko idatzi dau «Zeruko Argia»-an, «Anaitasuna»-n eta «Deia»-n.

GOTZON GARITAONANDIA (Urdulitz, 1936). Bere lana: *Balendin Uriona* (1967).

—MANU OÑATIBIA (Oiartzun, 1916). Bere lana: *Baserria diru-bidean* (1957).

—JON OÑATIBIA (Oiartzun, 1911). Bere lanak: *Txano gorritxo*, *Aatetxo itsuzia*, *Erruskiñe* ta abar, aurtxoentzako ipui ariñak.

—MARTIN UGARTE (Legazpia, 1916). Bere eleberri: *On egiñaren obaria* (1972), eta poemak.

JosE ANJEL IRIGARAI (Iruña, 1942). Bere lana: *Euskera eta Nafarroa* (1973).

Euskaldun bearra

Gizartean bizi bearra dogu -degu-, ta gizartean garrantzi aundia dauka eskolak, jakiteak. Zelako eskola, alako gizartea, esan oi da sarri. Aurreratu nai daben -duten- erri guztiak goxo-goxo begiratzen dautsoe -diote- eskolari. Eziketa on baten bideak ortxe artzen dira,

Onek ikasten dituzu eskolan: Ingurutzan zaitun ludia zelakoa dan; lurraren azala ta barrua; zenbakiaren bear-izana; gizonaren edestia; izkiaren jabetasuna artzen da, oldozten eta ezpirituaren bideak nundik norakoak diran ikasten da eskolan. Eskolarik bage ezer gitxi zara; eskolaren bitartez, ostera, aurrerapen aundiak egiten dituzu.



JOSE LUIS ALVAREZ

(1929-)

Jose Luis Alvarez Enparantza —izen-goitiz, «Txillardegi» ta «Larresoro»— donostiarra da. Industri-ingenierua. Euskaltzaindikoa. Bilbao'n osotu zituan bere ikasketak. Eta ikasle zala, EGI abertzale

taldea itxi ta ETA sortu eban -zuan-, beste iru-lau lagunekin, 1959-1960'an. Andik laster erbesteratu bearra izan eban -zuan-, oraintsu arte Baiona'n, Bruselas'en eta Endaia'n bizi izanik: gaur Donostia'n bizi da.

Euskal idazle

Idazle ugaria dogu Txillardegi. Aspertu barik jardun dau -du- euskeraz idazten: «Egan», «Euzko-Gogo», «Euskera», «Jakin», «Herria», «Zeruko Argia» ta olako euskal aldizkarietan. Baiona'n «Branka» agerkaria zuzendu eban -zuan-, eta gaur Donosti'ko «Garaia» bere babespean dabil.

3ere liburuk ditu, nobelak eta euskeraz buruzkoak. Nobela edo eleberriak: *Getaria-ren egunkari ezkutua* (1957), *Peru Leartza'ko* (1960), *Huntaz eta Hartaz, saioa* (1966), *Elsa Scheelen* (1969); 1968'ko Txomin Agirre nobela saria ru onekin eskuratu eban -zuan-. Euskertaz: *Sustrai bila, zenbait ,uskal korapilo*

(1970), *Euskera batua* (1974), «*Atsotitzak eta Neurutzak*», «*Hizkuntza eta Pentsakera*», eta abar.

Artikuluetan gai sakonak yakoz -zaizkio- atsegin, filosofi ta gizarte gaiak, ain zuzen. Azken boladako gazteen artean izan dau -du- arrakasta.

Zertarako dirua?

«Orrela igaro ziran illabete batzuk. Urte bete t'erdi agian. Atzera begiraturik geroz eta gauza kontagarri gutxiago gertatzen zitzaizkidan uste nuen: lehen, lagunak, neskak, itsasoa, bazan zer bait. «Lupina»-eneko afariak geroz eta gutxiago gustatzen. Nere kuadrilla zaharrean, lehen etziran batzuk etorrita, ura etzan nere giroa. Ez nuen ura maite, egia esan, ala aitortu dut lehen ere. Baña jolasbidetzat artzeko ere, Kepa bear nuen, edo Manu edo Mikel; auek ondo ezagutzen nituan, eta adarra jotzea errexat zitzaidan. Adiskidetzat, ortaz, bost ajola zitzaidan danak: zaharrak eta berriak; baña jolasbidetzat naiago nituen zaharrak. Eta auek, zoritxarrez, etziran «Lupina»-n geienak.

Beste aro batean, noski, beste batzuk arkitzen saiatu nintzakean. Baña orduko artan, enuen adiskiderik billatzeko gogorik, ezta astirik ere oso sobera.

Orregatik, atzera begiratzan nuenean pasadizu asko arkitu uste nuen nere gaztaroan, eta gero, azken iru lau urte artan, batere ez. Ori zala bide, nere oroimena atze artan finkatzen asi zan eta ni bildurtzen; zartzaroaren siñale neritzan-eta antziñan finkatze ari.

Baña ala zan: lehen asti geiago nuen edozertarako. Aspaldidanik berriz, enuen lerrerik batere irakurtzen, esate baterako. Laburtu bide zitzaidan eguna, eta enuen artarako betarik arkitzen. Ezta lehen egin zakean beste askotarako ere.




Donosti

Biotzaren aldetik ere otza nintzan. Ahaztu egin zitzaidan maitemiña zer zan; eta erabat igaturik nengo.

Baña etekin izaten nituela-ta kotsolabide artan laguntzen ziran ere asarrealdiak: Illero illero ogei milla peseta eta geiago irabazten nituen. Eta oitu egin nintzan dirua erruz erabiltzen. Eta gezurra iruditzen zitzaidan Barrota eta Etxeberria'ren denboretako urria. Baña zertarako dirua? Osasunez obetoxe ibilli nintzan bolada artan, baña noizean bein, amets bildurgarriak izaten nituen gauez, bitan aul xamar gelditu arte, lo-egiterik ezpainukan.

Eta, zertarako diru ura? Lehendabizi astean bein egin oi nion galdera ori nere buruari; gero astean bi bider, eta azkeneke egunero, Zertarako? Zertarako dirua?...» (*Peru Leartza'ko*, 89 orr.).



Langilleriaren eta gizarte auzia euskal elertian

-PATXI ALTUNA (Azpeitia, 1927). Euskaltzaindikoa. Lanak: «Euskal Aditza», «Euskera ire laguna!», eta abar.

-ALFONSO IRIGCIEN (Bilbao, 1929). Euskaltzaiña. Liburuak: «Sorterriaren alde» (1976). Ba-ditu poema batzuk be. Euskaltzaindiaren idazkari luzaro izana.

-JOSU ARENAZA (Bilbao, 1930). Euskaltzaindikoa. Idazle zorrotza.

-JOSE MARIA SATRUSTEGI (Arruatzu, 1930). Euskaltzaiña. Lanak: «Bordel bertsularia», «Luzaide'ko kantiak», «Ekaitza», «Euskaldunen seksu bideak», ta abar.

—FELIX BILBAO (Morga, 1932). Idazlana: «Ipuin-barreka».

—TXOMIN PEILLEN (Paris, 1932). Lanak: «Gaez ibiltzen dana», «Itzal gorria», «Gatu beltza», ta abar.

-KARMELO ETXENAGUSIA (Yurreta, 1932), Euskaltzaindikoa. Lana: «Euskal idazleen Lorategia» (1969).

-MIKEL ZARATE (Lezama, 1933). Idazlanak: «Gure Meza deuna», «Gure salbazio-Egintza», «Meza liburu txikia», «Bizkai'ko euskal idazleak», «Haurgintza miñetan», «Ipuin antzeko alegi mingotsak», «Euskal Deklinabidea», «Influencias de la lengua vasca en la lengua castellana a traves de un estudio del elemento vasco en el habla coloquial de Chorierrri (Gran Bilbao)», eta abar.

-JOSE MARIA ARANALDE (GaZtelU, 1933). Idazle argia. «Zeruko Argia»-n argitara emon ditu batez be bere lanik geienak.

-JUAN ANJEL ETXEBARRIA (Santurtze, 1934). Ugari ugaria. Lan batzuk: «Gurutz bidea», «Maitale galdua», «Lota amets», «Basoko loreak», «Phedro'ren alegiak», «Catalunya'ko olerkariak», «Bidadzien aterpea».

IMANOL LASPITU (Bergara, 1929). «Euzko-Gogoa»-n, «Zeruko Argia»-n eta olakoetan idatzi dau -du-.

SALBADOR GARMENDIA (Zaldibia, 1932). Euskaltzaindikoa. «Herria»-n eta «Zeruko Argia»-n idatzi dau. Liburuak: «Hixtoria triste bat», «Gizon zuzenak», eta abar.

—MARKOX AMUNDARAIN (1 txasondo, 1933). Asko idatzi dau «Egan», «Argia»-n eta «Jaunaren Deia»-n.

—JOSEBA INTXAUSTI (Segura, 1934). Euskaltzain laguntzaille. «Jakín»-en, «Egan»-en eta «Arantzazu»-n idatzi digu-dausku-. Liburuak: «Euskal-aditza» ta «Las siete lecciones del Euskal-Aditza».

JUAN MARIA TORREALDAI (Forua, 1942). Asko idazten ari da or-emen. Bere liburua: «Euskal Idazleak, gaur». Idatzi mardul interesgarria.

—RIKARDO ARREGI (Andoain, 1942-1969). «Zeruko Argia»-n eta «Jakín»-en idatzi eban. Liburua: «Politikaren atarian» (1969).

XABIER KINTANA (Bilbao, 1946). Lanak: «Beste izakia», «Itxura aldake-

ta», «Linguistika orain arte», «Lan alokatzea eta kapitala», «Alokairua, prezioa eta irabazia»...

—JOSÉ LUIS LIZUNDIA (Iruña, 1938). Euskaltzaindikoa idazkari. Asko idatzi du «Euskera»-n, «Zeruko Argia»-n, «Agur»-en eta abar.

ANJEL ZELAIETA (Mallabia, 1940). Lanak: «Lizardi», ta abar,

—ANASTASIO ALBISU (Lazkai, 1915). Teatru-lanak: *Sortzetik garbia* (1954), *Mesederik aundiena* (1956), *Ni ez neskazar* (1958), *Trabenan* (1959), *Garoa* (1960), *Pernando Amezketarra* (1962), *Erreka zuloan eta...* (1973), *Gartzí-Ximeno eta...* (1975), eta abar,

—MIKEL ATXAGA (Urniet, 1932). Lanak: *Gaztetxo* ta *Ezkontza bidean*. «Zeruko Argia»-ren zuzendari.

JABIER AMORITZA (Etxano, 1941). Iru-lau liburu ditu argitaratuak: *Hil ala bizi...*

BASTARRIKA (Ataun, 1931). Lanak: *Goazen Lourdes'a* (1958), *Meza-abestiak* (1961), *Salmoak* (1963) ta *Aditza* (1968).



«...akerrak soindu,
idiak dantzan,
auntzak danboliña to..»

ITZAK

Beti, asti.
Ajola, arđura.
Aro, sasoi.
Etekin, probetxu.
Aloger, jorñala.

ADITZAK

Billatu, aurkitu nai.
Finkatu, oinarritu.
Oitu, egin.
Izenpetu, firmatu.
Samurtu, aserratu.

Olerkia zer?

«Soiña ta gogo bardingek dira; ta ari-mearen sakonak azaltzeko gorputzaren aal ta indarrak utsak izan...

Arimearen izkuntzea ta gorputzarena alde aundikoak dira, gogo-izkuntzea soin-izketeaz ezin azaldu...

Besterik eziñean, edertasun eta jazokunen eragiña geure gogo-zelaietan nabaituten dogun urduritasun baketsua, irudimena-aren indarrez azaldutea, besterik ez da olerkia» (*A urraitz*).



NEMESIO ETXANIZ (1899-...)

Azkoitiarra. Izenorde oneik erabilli ditu: «Amilaitz», «Erratzu» ta «Artiz'tar Xabier». Lekarotz'en eta Komillas'en osotu zituan bere apaiz-ikaskizunak, 1924'an mezakoturik. Euskaltzaindikoa.

Euskalerriko aldizkari guztietan idatzi dau zer-edo-zer, beti bizi, arin eta leun. Itz lauz orrela ba'da, askozaz geiago bertsotan ari danean. Olerkari ona, irudimen bizi-koa; joskera apaiñez idazten dausku -digu-, erriko baiizen dardarti.

Euskal lana

Gerra aurretik Donostia'n azaltzen zan «Argia»-n asi zan idazten. Gero «Euzko-Gogoa»-n, «Egan»-en, «Zeruko Argia»-n, «Olerti»-n eta «Karmel»-en batez ere. Irrati-saio ugari, ta euskal gramatika.

Liburuok argitaratu ditu: 1) *Arraldea* (Donosti, 1923); 2) *Nola idatzi euskeraz?*

(Zarautz, 1950), 3) *Kristau ikasbidea ber-tsotan* (Bilbao, 1950); 4) *Kanta-kar;tari* (Bilbao, 1951); 5) *Izeko aberatsa ta Iru-learen negarra* (Gazteiz, 1952); 6) *Antzerkiak, Kontu-kontari* (Zarautz, 1958), eta 7) *Lur berri billa* (Donostia, 1967).



ARGI KANTA

**Argia koxk eta kaxk
dabil gallurretan;
lurruna dariola
lurra ibaietan;
aidea zuri-urdin
degu zeruetan;
zelaia jai dIgute
lore-eztaietan.**

**Argiak koxk eta kaxk
errekak esnatzen;
sapaburuak dabiltz
zingiran jostatzen;
ur.-ertzeko belarrak
aiei begiraten;
iturritxo zertzeta
denak mabdatzen.**

**Argia koxk eta kaxk
zoroko gaiztoa.
Gure aurrak amari,
par-irri gozoa.
Argia ta Potxolo,
bikote xaloo;
biak argItzen dute
amaren kolkoa.**

(N. Etxaniz)

ILLUNABARRA

**Etzeklnat zer duan
illunabarrak.
Ezkuturen bat
gordea ba-din
laño gorrbdcen arrebak.**

**Utzion arratsari
estaltzen mundua.
Biotzak negar egiteko,
naiago dln ezkutua.**

(N. Etxaniz)

«Ba omen zan, ba, nunbaiten... Nun ote zan?... Naparroa'ko mendi goietako basoren batean, noski... Beste asko bezela, azeri bat bizi omen zan... Bizi ba-zan, ezpazan, gure kontua alako goiz batean asi zan... Azeri jauna, bere kabian lo zegoen, bere ezur-aragiak atsedinari ematen. Egun argiak begietan jo zuanean, orra!.. Esnatu da gure azeria, ta aoa kanabete zabalduaz, arrausi luzea egin du. Ondoren, bere burua pilo-lopo aizez bete ta esan du:

—Arrausi onek, zalantzarik gabe, auxe esaten dit: gaur zorioneko izango naizela.

Nagiak astindu zituanean, kabitik atera zan alai. Basoa txori kantaz soiñu bizitan zegoen... Bereala janari billa joan zan basoan barrena. Etzuan bide luzerik egin bearrik izan. Aren sudurren usnarra, urruti iristen bai zan. Koipez beteriko puxika bat du aurrean. Gure pilosopoak bere buruari:

—Nere goizeko arrausi arek zoriona zekarkidala, uste izan diat, baiña koipe pillo au artzen ba'det, egun guzirako tokoloa egingo zaidak nere urdaillean. Noan aurrera.

Esan bezela, an dijoa tipi-tapa, tipi-tapa basoan aurrera. Ta alako batean, orra nun jartzen zaizkion begien aurrean, zerri-ama ta onen zazpi-zortzi bat zerrikume guri-guriak. Zerri-amari diotsa:

—Egun on, zerri-ama! Ume ederrak dituzu nere gosea asetzeko. Jaiki naizenetik, orrelakotxe zerbaiten amesetan nenbilen.

Urde zorigabea, bere umeen azkena ikusi ta zerbait asmatu bearrean arkitu zan.

—Egun on, azeri jauna. Nere umeak zuretzat onen aukeran etortzeak, poz aundia ematen dit, baiña kontura zaitez, ez-titut garbitzera eraman, eta dauden bezela, zikin eta narras, eztaude iñork jateko. Zaude pixkatzen; laster egingo det ori.


Joan ziran, bada, alboko potzura. Eta potzu ertzera eldu ziraneko, azeria zerrikumeak banan-banan garbitzen asi zan. Bitartean, zerri-ama etzegoen lo. Joaten zaio atzetik azeriari, ta bultz egiten dio muturrez eta an dijoa gure azeria putzu ondora. Zerri-ama, ordea, bere ume-taldea artu ta igesari eman zion, azeria putzuan titzeko zorian utzita...

Azeriak, azkenez, uretan blai eginda, irten zuen putzutik. Eta esan zuan:

—Merezia artu diat. Nork egin nau ni zerrikumeen garbitzaille?

Eta gosea ixiiitzearren, kantatzeari eman zion.

(N. Etxaniz)



Beste olerkari batzuk

Bioaz emen, kirian kirian, euskal poesi saillean gain-gaiñeko yakuzan -zitzazkigun- auen izen eta lanak ere:

—MUXIKA 'TAR ERROBUSTENE (Deba, 1888). Idazle ta olerkari gozoa. Lanak: «Miren Itziar idazkiak eta olerkiak», «Go-go-orzazeak», «Gabon», «Joan Joxe».

MANUEL LEKUONA (Oiartzun, 1894). Euskaltzaiña. Euskal lanak: «Gazteiz'ko Eliz-barrutiko Kristau-Ikasbidea», «Gabon kantak», «Jesu Aurraren Bizitza», «Zigor!», «Bi antzerki», «Gerrateko nere amabi kantak».

TOMAS AGIRRE, «Barrenso» (Errexil, 1899). Irudimen biziko olerkaria. Euskal lanak: «Gazi-gozoek» eta «Uztaro».

—PIERRE LAFITTE (Louhois, 1901). Euskaltzaiña. Euskal lanak: «Julien apheza», «Ithurralden Kantuak», «Koblakarien legea», «Eskualdunen Loretegia», «Hazila», «Egiazko argia», «A tlantika-Pirene-tako sineste zaharrak».

OLABEAGA (Donosti, 1901).

Olerki asko daukaz or-emengo aldizkarietan argitaraturik eta argitaratu barik.


TELESFOR MONZON-OLASO (Bergara, 1904). Euskaltzaindikoa. Euskal lanak: «Urrundik», «Gudarien «*Lau kantari ta xori bat*», «Gure behia hila da», «Menditarrak», «Ur garbi», «Behorraren ostikoa», eta abar.

—ANIZETO ZUGASTI (Aitzza, 1904). Euskaltzaindikoa. Euskal lanak: «Maitze'ko loreak», «Argi-bide txikia», «Salmudia», «Itun Berria».

TXOMIN JAKAKORTAXARENA (Berastegi, 1906). Euskal lanak: «Irri bertsoak», «Gernika'ko Arbola», «Matxin Burdin», eta abar.

GOIKOETXEA (Gaztelu, 1908).

Olerkari jatorra. Euskaltzaindikoa. Euskal lanak: «Musika ixilla», «Gauean oihu», «Biziaren errota».



EGAMIN

Begian argi, biotzean
artega nabil nere bidean.
Nork lituzken arno-egoak
ibiltzarren ega luzean!

Mendiak gainduz, odeien lagun,
neretzat litzake goi-urdIña.
Ango altxor yorien nagusi,
ase al nere egamin

Gau ixilaren ezkutapean
loak artzen du, bai, barne-gura:
—ega dagila amestuarren—,
Bañan goizero... Ene ardura!
Ezin egon ni, ezin atsedeen:
ikaraz bai dago lur-ingura!

Eguzid'k oea laga badu
sugarrez, oean ni nagitsu...?
Illuna darama gauak besoz,
ta argia ez agortuko gozoz?

Uda-goiz, uda-goiz! Poz-ikara!
Nola dun arnasten egimiria!
Zertan ager zatzakit ain eder,
zureratzeko ez banaiz diña...?

Kanta bezate, aize-nagusi,
txori alaiak egun-argia.
Nik ostera, lez,
goirontz jasoko biotz-ontzia...

Sutu zaidak, Eguzki, barrena:
ito dalddan nere egamiña!

(Gaztelu)

— Lana ta olerkia —

«Gaurko munduan ezer ez egitea pekatu larria bezela begirutzen zaio, ia gaizki egiñari antzera... Lana da gaur nausi, ta bere mendean jausteko arriskuan gaude. Gure sentipena bere agindupean jartzeko arriskutik atera bear degu. Ta sentipena esnarazteko poesia baiño ba ote da bide egokiagorik, ba ote da? Olerki aldera jo beat' degu. Onek lagunduko digu gauz asko zuzen ikusten, ludiari alde ona ateratzen, egun makurrean arpegi alaiia jartzen.

Oitu egin bear gera bein edo bein, lana aldamenera utzita, begi paketsu ta arp2gi baretsuaz geure ingurua begirutzen. Orrela, begien aurrean gauzak ikusgarri zaizkigu.

Udaberrian txoriñoak bere txirritxio alaiekin gure belarriak gozatuko dituzte; loreak bere orritxoak zabalduaz beginiak bi izar disdiratsu bezela jarriko; mendi ta zelai ta orlegitasunak begiari nekea kenduko; gauean izarrak keñuka gurekin jolasean ekingo. Neguan, berriz, lanmaia unetxo bat utzita goazen leiora, lurra estaltzen duan maindira zuriaren aunditasuna oraiñarte ez bezela nabaituko dugu.

Orduan bai izango zaigula errexka Jainkoarekin alkar-izketa xamur-xamurrean aritzea, bai «Bera» izar gaiñean nabaituaz, bai ta ere geure barnean; emen batez ere» (*Erein, J. A. Azpiazu*).



EUSEBIO ERKIAGA (1912-)

ekeitiarra dogu Eusebio Erkiaga. EuskaltzaiLa. Gaztetan asi zan idazten, olerkitxoak onduaz ain zuzen be. Gerra aldian, beronek eta beste iruk zuzendu eben-zuten_ «Eguna», Bilbao'n urtetan zan euskera utsezko egunerokoa.

Geroztik, Euskalerriko aldizkari guztieran idatzi dau: «Euzkadi», «Ektn», «Yakintza», «Euzko-Gogoa», «Egan», «Olerti», «Anaitasuna», «Agur» eta ola-koeran batez be.

Itz lauz ta neurtitzez idatzi dau -du-: nobela ta antzerki-saillan baitik bat. belan, «Thomin Agirre» sariak irabazi zi-

tuan 1958'an eta 1960'an; «Loramendi» antzerki saria, 1959'an, eta «Agora» olerki saria 1969'an.

Bere liburuak: *Arranegt* (1958), *Aratbaitalduna* (1962), *Batetik bestera* (1962): argitara bage daukazanak: *Neu..;* t2 ta *diko* Afaiuret nobelak. Teatru-lana: *Ka;*, *jaicre atsekabez* («Euskera». 1960). Bilbao'ko «Txinpartak» antzerki-taldeak sarri antzeztua, ta «Antzerti-yayan izan naz...» *Antzerti-n* (1936) argitaratua.

Olerkari legez, ainbat kopla ditu Euskalerriko eguneroko ta aldizkarietan, «Gernika»-n, «Euzko-Gogoa»-n eta ti»-n...



ALBISTA ARIÑA

Mitxeleta ñabarra
lora billa amesti!
Alantxe gura neuke
ibilli nik beti.
Landa ta zelaietan
aize epel ereti,
nabillen ni be egazka,
laiño ta eguzki,

Mitxeleta albistari
zatozke zerutik,
udalena zu bage
niretzako utsik,

(E. Erkiaga)

Arrantzaleen aurrekua

«Ikusmeneko zan Uriko etxe aurreko plaza nagusian batu zan lagunaren laguna. Txistulariak aurretik, eta atzetik egundoko mutil sailla etorren aurreku errenkadan, abarketa zuriak, praka ta alkondara garbiak, ta onen idunak askatuta, paparrak zabalik zituela.

Alakoren batean, bere makillatxua edo aginpide zartea gora jasota, Perkain erri-zaiña asi zan erdian leku egiten, dantzariak euren ekitaldirako naikoa toki izan eta ikusleak ere, egokiago ta aiseago ikusi aal izan egien.

—Atzera! Zoiaze atzera, atzerago! —didar egiten eban, lagunei besoaz saka ta saka egiñaz.

—Or datoz etorri gure mutillak —esan eban Egiluz zaarrak.

—Nor da, baiña, atzesku datorren zimel ori? —galdetu eban jakingura betidaneko z neska zaar batek.

—Oriii? Orixe dozu ba, Zingulin esaten dautsena, Ezapaintxuriren ordezkoa izaten dana, bestearen utsa izan ezkeru.

—Izan bere, bai, bera da-ta! Argalago begitandu yat-eta...



«Kaixarranka», Leikio-ko arrantzaleen dantza.

—Argalago, —zirikaz aitatu eban albo-txutik beste atso sorgin batek. Maitetasunak argaldu izango eban. Laster Ioditu be egingo da, aska ona topau dau-ta... Ez he! Beso-mamiñenean...

—Erdia!! Ikusten dozu zein bizkor asi dan Peru Ezpain aureskuginiñen, Kaixaganean eginbarri dituan jantzaketan erakutsiriko irradakoak gorabeera, bapere nekatu danik ere ez dirudi berorrek. Ara gero, aren artaziak eta gerri-dardakadak!...

—Mutilla makala!

—Beste orreik, neskarik aurkitu eziñik edo dirudie...

—Noren billa ete dabiltz ba? Gaur itsastarren eguna da-ta, neskatillak ere, arranegitarrek nai litzakez.

An egoan aintziña frontoi zaarra ei zan inguruan alkarrengana bildurik, neskatilla aldra zoragarria. Ta zelan jantzita, zelan apainduta, ta zelan orraztuta egon bere!» (*Arranegi*, 40 orr.).

Beste olerkari batzuk

-PAULIN SOLOZABAL (Etxebarria, 1912). Lanak: «Uskeriak», «Urre bitsa», «Gizonetan», «Deika» ta abar.

--SABIN MUNIATEGI (Arteaga, 1912). Olerkari urduria. Lanak: «Goiz-aize», «Ni ez», «Bidean gora», ta abar. Ainbat europar eta amerikar olerkariren lanak itzuli ditu euskerara.

-BALENDIN AURRE-APRAIZ (Axangiz, 1912). Olerkari urduria au ere. Lanak

«Txori galduak», «Gogo-zelaietan», «Erri-miña» ta abar.

EIZMENDI, «BASARRI» (Errexil, 1913). Idazle ta bertsolari. Lanak: «Atano III», «Basarri'ren bertso-sorta», «Kantari nator», «Laugarren txinpartak», eta abar.

-JAIME KEREXETA (Elorrio, 1918). Euskaltzaindikoa. Euskal lanak: «Orbelak», «Bitargi», «Eguneroko meza», «Salmutegia», «Jesukristoren Barri Ona», «Euskal-Biblia, bizkaieraz», eta abar.



BASOKO ITURRIA

Gaztairiadi'ko iturri garden!
Zidorren amesak euganantz,
111unar ezeetan maltemin:
amaika gomutapen sorgin!

Eure leiarraren ozkoa
eskiñi ta eskiñi ago;
—aitz-negarren orol-malko!—
aintzairiatearen lekuko.

Baso-kolkoko orbel artean
baketsu oa, mintzo-bakar,
etentzeke, uda eta negu.
Onerako ire irauna ba'nul

Ira-sundazko atsedenez
zuzperten dozak bideztiak,
eure emoia orontzat zabal.
Mundua ba'litz 1 lez mezal!

Baso.lorak dozak oiñetan;
abereak be maite abe,
On-dariola agon ur-sorgu!,
igandik asko ikas daikegu.

(Aurre-Apralz)

Erritarrak mekotzat eukien kirol-zale bat, bein, erbestera joan zan. Aldikada bat kanpotik egiñik, errira etorri zan atzera be, alako ta onako tokitan gauza arri-garriak egin ebazala agirian esaka.

Au iñoan, batez be: Olinpiar jokuetan koroatuak izan oi ziran kirol-zale batek berak be egingo ez leuken lako saltua,

berak Rodas'en egin ebala; asko zirala marka arrigarri ori ikusi ebenak, eta egunen baten an egondakoren bat andik ba'etorren, berak aurkeztuko eutsela. Entzule batek, itz-arturik, jalgi eutson:

—Aiko, lagun: ori egia ba'dok, ez joagu beste testigurik bear; au be Rodas dok, eta egik emen be an egiña (*Esopo*).

54 : GAURKO OLERKARIAK: JEAN MARIE DIHARZE, "IRATZEDER"

Kantari

«Olerkiz eta kantuz ematen eta gozaten du Iratzeder-ek bizia. Bere baitan etengabe ari da kantuz. «Kanturik gabe ez naiz bizitzen ahal», zion berak. Euskal aireak —guztiz ere ango aldeko euskal aireak, tristura ta nigarra darioten aire ezti ta sarkor oiek— daramazki beti aoan. Eta oiek ditu bere bertsoen laguntzaille oberenak. Iturriari ura bezala, alaxe darioro Aita oni bertsoa eta kantua. Berez, goxo, xamur, ez indarka, barneak daka-

rren frutua bezala. Bertso kantariak. Beloke'ko Aita Beneditanoek egunoro ordu beteko lana egiten omen dute aitzurketan edo soro-lanetan, eta Iratzeder-en bertso-tatik asko une ortan asmatuak eta atereak omen dira. Eskuak aitzurketan, kope.ta izerditan, eta barnea kantari, alegia. Gero, soro-lana bukatutakoan, joan korrika, eta ahantzi ez ditezen, paperean eman» (A. Villasante. *Egan*, 1957, 1-2, 12 orr.).



Aita Jean Maire Diharze
(Iratzeder)

**Banaki nola banaki
zeru zola nola unkI!
Ibilen naiz beti goiti
mendi kaxkoz-mendi kaxko,
zeru zola dut unkiko.**

JEAN MARIE DIHARZE (1920-... ..)

Donibane Lohitzune'n jaio zan, 1920-I-4'an. Bere errian osotu zituan bere lenikasketak. Gero, Uztaritze'n asi, Baiona'-ko Apaiz-Ikastetxean osotu ta Beloke'n amaiturik, 1945'an apaiztu zan. Arrezke-ro guztian Beloke'n dago, irakasle ta gaztean maixu lenengo ta gero bertako Abata.

Euskaltzale bero danez, ainbat lan egin dau -du- Euskalerrriaren eta euskeraren alde. Irakasle zala idatzi eban -zuan- «Zalakar» drama bertsoan. Ondoren konta ezin ala sari artuko zituan, bere lan ederrakai-

tik. Euskaltzain osoa da. Berak zuzendu ditu «Ezkila» ta «Otoizlari» bertsoz ta itz askatuan.

Ona bere lanik beiñenak: 1) *Pindar etc Lano* (1954), *Zeru-menditik* (1959), *Atgiz-argi* (1969), *Uhaineri nausi* (1975), bertso liburuak. Aita Lertxundi'rekin batean osotu zituan *Salmuak* ere bereak ditu.

Irakur, Lazkano'n bizi zala an inguruko mendi errimeari atera eutson -zion- poesi ederra.



Bellok, Beneditarren Monastegia, otoitz eta euskera eskola,

ARALAR

Haurrean maiz nindoan harrokeri gora
mendlez bertzaldeko hatsez betetzeko,
ene begiak hola sugartu baitira
eta Eskual-ametsaz amestu betiko.

Handik entzuten nuen sistuka Hegoa,
mendi gainak lilluraz jaunzten zabilana,
handik Eskual-bihortzen deiadar beroa,
handik soinu, irrintzin, su eta galerna
Oi Aralar, Aralar!

Ortzi-su zariola, amestu orduko
zure. Zerurainoko harroka-kaskoa,
piztu zait, Eskualdunen Jaun-Goikoratzeko,
harnean sutzen dautan, goi-amets beroa,

Agur, bihotzez agur, Aralar mendia.
Ametsetan bezela zerutik zerura
hedoika hedatzen da zure ke gorria;
bainan su-garrak ote, su-garrak nun dira?
Oi Aralar, Aralar!

Zeru.alde indarka dena hezur zaude,
zazpi Eskual-Herrien zintzurra iduri:
zergatik ez dira ba hortik zeru-alde
oihu-moihuka eta su.goitika ari?

(Iratzeder)

Beste olerkari batzuk

FERNANDO ARTOLA, «BORDARI» (Ondarrabi, 1910). Euskaltzaindikoa. Olerkari ona. Liburuak: «Tomas'en buruausteak» eta «Goraintzi», batez be.

—FEDERIKO KRUTWIG (Getxo, 1921). Euskaltzaiña. Lanak euskeraz: «Liberalkeriari aitzi», «Praktikaz», «Liburuzka gorria»...

—JUAN SAN MARTIN (Eibar, 1922). Euskaltzaiña. Olerkiak idaztean «Otsalar» izenerdea erabili dau. Liburuak: «Mogel, bere bizitza ta lanak», «Zirikadak», «Eztenkadak», eta abar.

PEDRO ANASAGASTI (Bermeo, 1920). Kazetari. Euskal liburua: «Itxaropena».

—MIXEL LABEGERIE (I. Jztaritze, 1921). Euskal kanta ederren egille.

—LUKEN LARREATEGI (Legazpia, 1921). Ainbat neurtitz argitaratu zituen «Oler-ti»-n.

MANU ERTZILLA (Arrazola). Orain-tsu argitaratua dau -du- *Hitzik ainitz idatzi dut* deritxan olerki liburua. 116 orri-alde.

JUAN MARI LEKUONA (Oiartzun, 1927). Euskaltzaindikoa. Olerkari fiña. Bere lanak: *Ez kongai*, *Mindura gaur* eta *Muga beroak*.

—BIKTORIANO GANDIAGA (Mendata, 1928). Euskaltzaindikoa. Olerkari bikain. Bereak ditu poesi-bildumok: **poema** (1962) eta *Hiru gizon bakarka* (1974).

J^ES^US GAZTAÑAGA (Asteasu, 1932). Idazle ugaria, bertsoz eta itz askatuz.

JEAN ERDOZAINZI-ETXART (Ibarla, 1934). «Euzko-Gogo», «Herria», «Oler-ti», «Egan», «Jakin», «Elgar» eta olako euskal aldizkarietan asko idatzi dau.

EUSEBIO OSA (Bergara, 1936). Idazle ta olerkari.

JOSE AGUSTIN ORBEGOZO (Goiatz, 1937). Lanak: *Bidea* (1964) ta abar.

—ANTONIO BILBAO (Morga, 1937)• Euskaltzaindikoa. Lanak: *Pentsakizunak*. (1975) eta abar. «Lizardi» saria birritan jaso dau, 1962'an eta 1964'an.

Bitoriano
Gandiaga



ETORRI TA JOAN

Etorri ta joan doa
sortu-ala soiñua,
aldeaz bat, ixilduz,
T'entzunena ba-dago,
adi ta zur, Geldi,
izan dan a et'orain
votan bat baizik ez dan
izan a irrikatuz.

T'entzumena ba-dago,
adi ta zur, geldi,
ez dan aren geldo
litzaken ixillari.
Toro da rnortu, baiña
uts aretan ba-dantzu
otsa-eza alako bat
oso atsegiña.

(B. Gandiaga)

ALDARRI OTSAK

Ots, ots,

Nora oa itsumustuka?
Ez ari jardun alperrik deadarka;
ez. Alperrik nekatuko aiz galdezka.
Ortzea geldi duk erantzuteka
ta lurrean ez duk biotzik izozteka.

Ots, ots,

Ez aiz ezer!
Oiñaztarri lerro azkarrean idatzia
duk ire zorigaitzezko argi unia.
Erruki aut, erruki; gizajo tristia.
Galdua duk iretzako maitastunegia.

Ots, ots,

Seme kupidagarria!
Nundik ator, gauaren illunetik izan ezik?
Munduan zear oa eurekin ikaraturik,
larri-min, negar astunen bidetik;
illunpera, iraupen gabeko arnas otsetik.

(Otsalar)





AITAREN ETXEA

Nire aitaren etxea defendituko dut.
 Otsoaren kontra,
 lukurreriaren kontra,
 defenditu egingen dut
 nire aitaren etxea.

Galduko ditut aziendak, soloak, piñudiak;
 galduko ditut korrituak, errentak, interesak,
 baiña nire aitaren etxea defendituko dut.
 Harmak kenduko dizkidate,
 eta eskuarekin defendituko dut
 nire aitaren etxea;
 besorik gabe, sorbaldik gabe,
 bularrik gabe utziko naute,
 eta arimarekin defendituko dut
 nire aitaren etxea.
 Ni hilen naiz, **nire** arima galduko da,
 nire askazia galduko da,
 baiña nire aitaren etxeak
 iraunen du zutik.

(Aresti)

Aldaketa?

«Lizardiren eta Loramendiaren arrastoa gure egunotan oraindio ain nabarmen ikusirik, bildur dut Arestiren kutsuaz ez ote geran kutsatuko beste ainbeste denborako. Esan nai dut Aresti bat dugula, eta naiko ozen bere boza, milla poeta txikiren marmarraren bear izateko.

Gaurko poesiak nai ta nai ez eskatzen duela Arestiren eta gizarte-poesiaren tan-kera hau? Bai, bear bada, baiñan nik, egia esan, molesti pitin bat sentitzen dut. J. San Martinek bezela, ainbeste premiatzen

nautenean gaurkotasun orretara. Ta badi-rudi San Martinek ainbeste maite duen aldaketa ortan gaurkotasunera saltoka ta besterik gabe irixten dela. 1-lau esatean, San Martinen kontra ez nago. Bear bada, bera baiño areago joan nai dut esanaz gaurkotasun ori ez dela lortzen ideiak eta kezkek soillik erabilliaz, baizikan idaz-tankerak, estiloak ere gaurkoa izan bear duela. Ta ontan ideietan baiño atzeratua-go gabiltza, agian zaillago delako» (Mikel Lasa, *Egan*, 1964, 1-6 161-163 orr.),

GABRIEL ARESTI (1933-1976)

Bilbotarra jaiotzez. Saleros-irakasle. Euskaltzaindikoa. Euskal aldizkari askotan agertzen dira bere lanak. Olerkiak, antzerkiak, saioak eta itzulpenak egin ditu.

Poesi-lanak; *Maldan behera* (1960), *Harr eta Herri* (1964), *Euskal Harria* (1967), *Harrizko Herri hau* (1970), eta abar.

Antzerkiak; *Mugaldeko berrian egini-kako tobera* (1961), *Etxe aberatseko seme geldua* (1962), *Beste mundukoak eta zoro bat* (1964), *fustizia Txistulari* (1967) eta *Mundu-munduan* (1965), *ari*

Itzulpenok: B. Brecht'en *Xixtima* zoriotsu bat, antzerkia; T. Meabe'ren *14* erderaz, euskeraz, katalanez eta gaillegoz; F. Marcos de Portela'ren *Nekazariaren dotrina*, eta N. Hikmet'en *Lau gartzelak...*

Olerkigintzan lau sari jaso zituan: 1959'an «Loramendi»-ren izenekoa; 1963'an «Orixe»-ren izenekoa; 1966'an «Lizardi» saria ta 1968'an «J. M. Iparragirre» saria. Antzerkian, ostera, «Toribio Altzaga» saria, 1961'koa, beretzat izan zan.

ITXIÑA



Gabirel Aresti

Gorbeia'n galdurik
ibilli gara.
Barruan sarturik
daukat iI ara.
Ai! Ai gure!

Iretargiak emoten deusku
pena garratza ugari.

Mendi onetan ikusten doguz
atxarteak edonondi.
Ai! Ai gure!

Galdu garean arrizko *lurrak*
izena dauka Itxina.
Tristura ori etzeunke izango
emen ^salduko ezpa'zbia.
Orain daukaguz lainoan eta
illunpean milla *grina*.
Ai! Ai gure!

Besarkada baten
lokartu gara...
Igon gura dogu
zeruetara...
Ai! Ai gure!

(Aresti)



Laborantza eta
industriagintza:
Euskalerriko
alorrak

Beste olerkari batzuk

MIKEL LASA (Donostia, 1938). Euskaltzain urgazle. Poeta urduria. Bere liburuak: *Novela berria Hego Amerikan* (1972).

JOSE ANTONIO ARTZE (Usurbil, 1939). «Ez dok amairu» taldekoa. Bere poema liburuak: *Isturitzetik Tolosan barru* (1969), *Laino ,guztien azpitik...* (1973) ...*sasi guztien gainetik* (1973), eta *Ikilim kiliklik* (1976), Mikel Laboa'kin batean.

LUIS MARI MUJICA (Lizartza, 1939). Bereak ditu poema liburuok: *Bide-giroak* (1963), *Urdth eta burni* (1965) eta *Hitzak ebakitzen* (1975).

JOSE AZURMENDI OTAEGI (Zegama, 1941). Euskaltzaindikoa. Olerkari soziala. Bere liburuak: *Hitz berdeak* (1971), *Iraultza sobietarra eta Literatura* (1975), eta abar. Idazle ugaria.

PAULO IZTUETA (Berastegi, 1941). Beti odol-bizi ta artega agiri yaku -zaigu- «Egan»-en eta «Olerti»-n batez be azaldu ditun bertso-lan naiko ugarietan.

—XABIER LETE (Oiartzun, 1944). Euskaltzain laguntzaillea. Poema liburu bi di-

tu: *Egunetik egunera orduen gurpillean* (1968), eta *Bigarren poema liburua* (1974).

—RAMON SAIZARBITORIA (Donostia, 1944). Euskaltzain urgazlea. Bere liburuak: *Egunero hasten delako* (1969), *Poesia banatua* (1969) eta *Mendebaleko ekonomiaren historia* (1970).


—IBON SARASOLA (Donostia, 1946). Euskaltzain urgazlea. Bere idatziak: *Euskal-poesia gaur* (1967), *Poemagintza* (1969), *Euskal - Literaturaren Historia* (1971) eta *Gerraondoko Euskal-poesiaren Antologia* (1973). 1967'gnekko «Lizardi» saria irabazi eban.

—AMAIA LASA (Getari, 1948). Mikel Lasa'ren arreba. Ba-dau olerki pillo bat, «Olerti»-n argitalduak, eta: *Hitz nahastuak* (1977).

Izagirre. Beronen poesi-liburuak: *Itsaso ahantzia* (1976).

—MIKEL ARREGI (Areso, 1948). Berea dau: *Hego haizearen kortpasean* (1975), olerki-txorta.

Ba-ditugu oraindiño beste olerkari batzuk be, azken urte oneitakoak, gogotan ditugunak, baiña geiegi ez luzetzearren emen jarten ez diranak. Asketsi!



G/TARRA TA TXISTUA

Gitarra ta txistua,
menturazko ordua...

Hilargi gaztak
odola du isuriko,
arralnak putzuan
izar gordina
du jango,
eta otsoak gauean
—euskara hilgo denean—
zaunka hotzak
triste botako.
Noiz? Gaur, gaur
arrats gauean
—euskara hilgo denean—.

Gitarra ta txistua
menturazko ordua.

(L. M. Mujika)

ESKUAK

Argia debekatu zaigu.

Poza, itxaropena
ta argia debekatu.
Pobreak gera-ta...

Arratsaldean eurl egiten du
euskal mendi saihetsetan.
Pobreak gera-ta
ez dago aterperik guretzat,
debekatu zaigu ateria,

Askatasuna debekatu zaigu
kostako haize leunak
alamerako neskatxen ilea,
ikurrin moduan,
askatzen duelarik.

Hamar dirade mandamentuak
ta hamaika bai
pobrearen nahigabeak,

Debekatu zaigu
gizon izatea
ta kitto.

(J. Azurmendi)

Teatruaren elburua, beste zer guztien gaiñetik, erria ta ikusleak alaitu, jostarazi ta poz-eragitea dozu. Ikusleak, izan be, euren eguneroko arazoak albora itxi ta gozagarri billa joan oi dira; atsedena nai dabe -dute- euren zarata, kezka ta ktramilla artean.

Teatru-egilleak, bere aldetik, erria ezi ta eskolatu bear dau. Ezta erreza teatru-rako idaztea. Antzerki-lanak osotu nal ditunak, naitaez gai bereziak euki bear ditu. Gauzak bizi, arin ta interesgarri agertzea yagoko, erriari pelikula-mintz bateko argi-dirdira lez gauza barriak atsegin yakoz -zaizkio- ta.



ANTONIO MARIA LABAIEN (1898-...)

Tolosarra. Zaragoza'n osotzen ditu sa-lerosle-ikasteak. Ondoren, jaioterrira itzuli ta euskal teatruari oratu eutson -zion-gogotik, bizitza guztian burutuko eban -zuan- lanari nunbait.

Atzokoa, gaurkoa ta betikoa dan antzer-tiari lotua dabil, beti maixuki. Ontan ez dau -du- parekorik. Eguneroko ogia ate-rateko bear dauan -duan- lanaren ostean,

zintzo-zintzo jarduna dogu -degu- euskal antzerki-zelaian.

L. Mitxelena'k ederto: «Labayen jauna eraberritzeko gogoz euskal teatroan agertu zen ezkerok..., entu utsik utzi aurreneko artan artu zuen leku jaso. Patxadan, ito-bearrezko presarik gabe, aurrera darama asieran artu zuen asmoa, gero eta trebea-go, gero eta maixuago».

Bere antzerkiak

Era guztitako teatru-lanak ditu La-baien'ek. Luzeak, txikiak, irri-erazleak eta negarra begietara ekarri oi dabena -du-tenak.

Aspaldi idatzi euskun -zigun-, (1920) Donosti'ko Udalak saritutako «Txinparta buruzagi». 1932'tik 1936'ra, «Antzerti» (54 zenbaki) teatru aldizkaria sortu ta zuzendu eban -zuan-. Arrezkero, konta ezin ala dira eskeiñi dauskuzan -dizkigun- lanak.

Ona batzuk: 1) *Ostegun gizena* (1930); 2) *Mayo*. (1932); 3) *Mateo Txistu* (1932); 4) *Euskal Eguna* (1932); 5) *Iparragirre* (1933); 6) *Berezi* (1934); 7) *Irri-itzaldia* (1934); 8) *Gizon bizarpeituti ia emazte bizartsuti* (1933); 9) *Iruñxeme* (1936); 10) *Aluga* (1954); 11) *Lurrikara* (1955); 12) *Jostuna* (1956); 12) *Petrikillo* (1956); 13) *fokua ez da errenta* (1960); 14) *Gal-*

tzaunaz t. 1961; 15) *Malenixo alargun* (1962); 16) *Domenjon de Gipuzkoa'ko erregea* (1965); 17) *Su ta gar* (1966); 18) *Bai esalea, Ez esalea* (1963); 19) *Gizona ta Kidea* (1963); 20) *Neskaitilla ezkongai* (1964); 21) *Bastiaa eta Bastiane* (1969); 22) *Perretxiko jatea* (1967); 23) *California ku-ku!* (1967), eta abar.

Lan ederra noski! Eta beste asko be lan orretan jarri nai izan dauskuz -dizki- gu-. Au iñoan 1934'an: «Teatroan dezute, euskeltzale ikasiak, aukera erria onbidean' ezitzeko, zeon jakituriaz jantitzeko, euskotasunari asnas berri emateko bidenabar, gogo-jardun eta jostaketa indarrez bizia- ren garraztasuna gozatu, ta elkarrengana- ko griña txarrak itzaldiaz» (*Yakintza*, 1934, 47 orr.).



Iru ikasleak.—*Maisuari* esango diogu: Jauna, mutikoaz galdegin ginduzunean, nekea besterik ez zuala erantzun zeniguzun. Baiña orain baezpako itxura du. Eseri egin da. Aitatzek ere izutzen gaitu, baiña aspaldidanik oitura galgarri bat da emen nagusi: ots!, bidean aurrera joan ez ditekena, menditik bera tulunbiora jaurtitzekoa...

Maisua.—*Nola?..* Mutil ori amildegira bota nai dezutela?

Iru ikasleak.—*Bai,* ori nai dugu.

Maisua.—Antziñako oitura da ori. Ez dizuet ukatuko. Baiñan oitura garratz orrek agintzen du gaxo dagonari galdegin bear zaiola beragatik etxera itzuli bear dugun ala ez. Gizarajoa errukarri zait eta arengana joan nai dut oitura urren berri ematera.

Iru ikasleak.—*Egizu,* bai, ori. (*Arpegia bata bestearengana itzuliaz*).

Koro-sail aundia.—Gadegin nai diogu (galdegin zioten) ea bera dala-ta etxera itzuli bear dugun. Baiña ori eskatuko ba-lu ere, ez dugu atzera itzuli nai (ez dute), baizik amildegira botako dugu.

Maisua.—Entzun ondo! Aspaldidanik da emen legea: alegia, norbait txangoan gaxotzen baldin ba'da, menditik bera jaurtitzekoa. Onela bereala ilko da. Baiña legeak ere agintzen du, gaxotzen danari galdegin bear zaiola arengatik etxera itzuli bear dugun ala ez. Eta oituraren arabera gaxotzen danak erantzun bear du. Ez duzute itzuli bear. (*Mutikoari*) Zure lekuan ba'nengo, gogoz ilko nintzake.

Mutikoa.—Ulertzen dizut.

Maisua.—Zuregatik etxera itzuli gaitezen eskaria egiten al diguzu?... Edo ta bestela konporme al zaude amildegira bota zaitzagun antziñako oiturak agintzen duan eran?

Mutikoa.—(*Une batean gogoeta egiñez*). Ez, ez dut ontzat artzen.

Maisua.—(*Otsegiñez*). Atozte, atozte barrura! Ez du oituraren arabera erantzun!

Iru ikasleak.—(*Etorriaz*). Ezetz esan du! (*Mutikoari*). Zergatik ez duk erantzun oiturak agintzen duan arabera? «A» esan duanak «B» ere esan zezakean. Aldi batez galdegin zidatenean txangoan gerta al litzaiken guziaz konporme ote intzan, baietz erantzun uan.

Mutikoa.—*Nik* eman nuen erantzupena palsoa zan, baiña zuen galdera areago. «A» esaten duanak, ez du «B» esan bear. «A» palsoa zala aitor dezake. *Nik* nere amarentzat sendagaillu billa joan nai izan nuen, baiñan orain gaxotu naiz eta ez dezaket txango ori egin.

Orregatik etxera itzuli nai dut ala-bearrez. Zuei, nerekin etxeruntz itzultzea eskaria egiten dizuet elkarrekin joan gaitezen. Zuen ikasibearrak itxoin dezake. An zerbait ikasterik ba'zenduten, au da: olako egokieran atzdra itzuli bear dala. Eta antziñako oitura garratzari ez diot arrazoirik arkitzen. Beste oitura bat sartu hearra dago: egokiera berri bakoitzari oitura berri bat dagokiola» (*Oleri*, 1963, Urt-bag., 149 orr.).



Beste antzerkilari batzuk

JOSE ANTONIO ARKOTXA Motriko, 1911). Euskaltzaindikoa. Teatru-lanak: 1) «Nork nori ziria sartu?» (1949); 2) «San Pinastei eguna» (1951); 3) «Antzerki ikasketa berezta» (1954); 4) «Arantzazu'ko Anai Patxi» (1956); 5) «Gabo,-;gabontzeta» (1957); 6) «Leniz'ko alaba» (1959); 7) «Brokel jauna» (1964).

ZIRIAKO ANDONEGI (Motriko, 1912). Idazle ta olerkari. Antzerki lana: «Egiazko maitasuna».

—AGUSTIN ZUBIKARAI (Ondarrua, 1914), Lanak: 1) «A berriagaz bizi»; 2) «Kirrixkoak»; 3) «Illobearen' indarra»; 4) «Itxas lapurrak»; 5) «Itxas-ertzeko itsu-mutilla»; 6) «Itxasora» (1950); 7) «Seaska inguruan» (1956); 8) «L'auñaren hideta;i»; «Mariñelak»; 10) «Kresaletan»; 11) «Iru alaba»; 12) «Ni naz kapitana piloto»; 13) «Zurrnkutun»; 14) «Loiola'ko semea»; 15) «Ederra jazo da zuen errian»; 16) «Gizon on eta andre erre?»; 17) «Bizi garratza», eta abar.

—PIERRE LARZABAL (Azkain, 1915). Euskaltzaindikoa. Antzerkiak: 1) «Irri eta nigar»; 2) «Bazkari autak»; 3) «Merkatutik»; 4) «Kontrabandistak»; 5) «Lau donadoak»; 6) «Amerikanoaren ilobak»; 7) «Jaun Kaputxin»; 8) «Eirazainaren

astoa»; 9) «Undoketariak»; 10) «Manes ohoretan»; 11) «Okilomendi»; 12) «Jaun ,rfera»;) «Crerl'urte»; 14) «I-erronao»; 15) «Dendarietan»; 16) «Xirristi-mirl'ixli»; 17) «Itzaizurrak. familiar»; 18) «Etxahun»; 19) «Nork du Oihanalde?»; 20) «Bordatxuri»; 21) «Basabeltz»; 22) «Portn-xoko»; 23) «Mugari tiro!»; 24) «Hiru ziren»; 25) «Hila espos»; 26) «Herriko bozak»; 27) «Sara'ko Lorea»; 28) «Lehen eta orai»; 29) «Maritxu»; 30) «Orreaga»; 31) «Urriki latza»; 32) «Tuta jotze»...

—)cN ETXAIDE (Donosti, 1920). Antzerkiak: «Begi begi truk», «Amayur» eta «Markesaren alaba». Liburuak: «Purra! Purra!», «Joanak joan», «Amasei seme Euskalerriko», «Pernando Plaentxiatarra», «Itxasoa laño dago», «Gorrotoa lege», «Etxahun'en bertsuak gipuzkeraz».

—MARTZEL ANDRINUA (Markina, 1930). Antzerki-lanak: «Zoro-etxect?»; «Satanas Sotanas», «Au dok umoria» eta «Batek ba daki».

—XALBADOR GARMENDIA (Zaldibia, 1932). Euskaltzaindikoa. Teatru-lana: «Historia triste bat». Liburuak: «Gizon zuzenak», «Gizonak eta ez».



AURKIBIDEA

	or.
1.—Antziñako erezia, kanta, pastolarak	5
AMASEIGARREN GIZALDIA (XVI)	
2.—Beiñat Etxepare	9
3.—Joanes Leizarraga	13
AMAZAZPIGARREN GIZALDIA (XVII)	
4.—Joanes Etxeberri	17
5.—Axular, Piarres	21
6.—Oihenart ,,	25
AMAZORTZIGARREN GIZALDIA (XVIII)	
7.—Mendiburu	29
8.—Kardaberatz	33
9.—Ubillos	37
10.—Joanes Etxeberri	41
EMERETZIGARREN GIZALDIA (XIX)	
11.—Mogeldarrak	45
12.—Añibarro, Pedro Antonio	49
13.—Agirre, Juan Bautista	53
14.—Astarloa, Pedro Jose	57
15.—Prai Bartolome	61
16.—Lardizabal, Frantzisko I.	65
17.—Arrue, Gregorio	69
18.—«Etxahun», Pierre Topet	73
19.—Elizanburu, Joan Bautista	77
20.—«Zaldubi» eta K. Bekas	81
21.—Ibarrart, Fierre ...	85
22.—Arrese Beitia, Felipe	89
23.—Etxeita, Jose Manuel ,,	93

24.—Agirre, Txomin	97
25.—Alzaga, Toribio	101
26.—Azkue, Resurrezion Maria	105
27.—«Kirikifio», Bustintza E.	109
28.—Arana Goiri eta J. Urkixo	113
29.—Basabe, K. eta Arzubiaga, Z. ...,,	117
30.—Etzegarai, K. eta Ifiarra, M. A_	121

OGEGARREN GIZALDIA (XX)

31.—Bertsolariak: Otaño, Enbeita	125
32.—Arrese, Emeterio	129
33.—Landerretxe, M. eta Joanategi, B.	133
34.—Hiriart, Urruti, Jean	137
35.—Zubiri, Enrike	141
36.—Irigaray, P. Fermin, «Larreko»	145
37.—Eguzkitza, Jon Bautista	149
32.—Ibargutxi, Jon Gurutz	153
39.—Olabide, Erraimun	157
40.—Barbier, Jean ...	161
41.—«Oxobi», Moulier, Jules	165
42.—«Orixe», Ormaetxea, Nikolas	169
43.—Garro, Bernardo Maria, «Otxolua»	173
44.—«Lizardi», Agirre, Jose Maria ...	177
45.—«Lauaxeta», Urkiaga Esteban	181
46.—«Loramendi», Arana, Juan ...	185
47.—Mitxelena, Salbatore	189
48.—Zaitegi, Joakin	193
49.—Aita Onaindia, Santi	197
50.—Mitxelena, Luis	201
51.—«Txillardegia», Enparantza J. L.	205

GAURKO OLERKARIAK

52.—Etzaniz, N. Lekuona, M. e. b.	209
53.—Erkiaga, E. Muniategi, S. e. b.	213
54.—«Iratzeder», Diharze J. M., Gandiaga, B. e. b.	216
55.—Aresti, G. Azurmendi, J. e. b.	223

GAURKO TEATRU-IDAZLEAK

56.—Labayen, A. M., Larzabal, P. e. b.
--

Ibaizabal txorta

- 1.—**Babilandia**, 7-8 e. b. mailletarako irakurgaia
- 2.—**Euskalerraren Kondaira**, 6-7 mailleterako
- 3.—**Euskal Elertia**, 7-8 e. b. mailleterako (A. Onaindia)
- 4.—**Euskadiko Geografia**, 4-5-6 mailleterako
- 5.—**Pinto**, 1-2 mailleterako irakurgaia
- 6.—**Eskolaurreko idazkera (1)**
- 7.—**Eskolaurreko idazkera (2)**
- 8.—Aintzifiako euskalduna, 2-3 mailleterako
- 9.—Matemati'kak, 0-1 mailleterako
- 10.—Euskeraz egin, fitxak mailla
- 11.—Euskeraz egin, fitxak 2n. mailla
- 12.—Euskeraz egin, fitxak 3n. mailla

